

KLASIKOAK, S.A. lukro-asmorik gabeko elkarteak argitaratu du obra hau, elkartearen sustatzaile eta partaideak honako erakunde hauek izanik:

Fundación BBVA

•

Bilbao Bizkaia Kutxa — BBK

•

Gipuzkoa Donostia Kutxa — KUTXA

•

Caja VITAL Kutxa

•

Euskal Herriko Unibertsitatea — UPV/EHU

•

Deustuko Unibertsitatea

TEOLOGIA ETA POLITIKA:
ANTOLOGIA

MARTIN AZPILKUETA

Teologia eta Politika:
Antologia



Euskaratzailea: *Piarres Charritton Zabaltzagarai*
Berrikuslea: *Jose Antonio Mujika*
Hitzaurregilea: *Julio Gorricho*

Lehen argitalpena: 2006ko martxoan

© Itzulpenarena: *Piarres Charritton Zabaltzagarai*
© Klasikoak, 2006

Begoñako Andra Mari, 16 • 48006 Bilbo
Tel.: 94 • 416 14 89 / Fax: 94 • 416 63 48

Erabat debekaturik dago, Copyright-titularren idatzizko baimenik gabe, legeek ezarritako zigorraren pean, zatika edo osorik obra hau birsortzea edozein bitartekoz edo prozeduraz, erreprografia eta trataera informatikoa barne direla, baita beronen aleak alokapen edo mailegutza publikoaren bidez banatzea ere.

ISBN: 84-96455-14-9
Lege gordailua: BI.-731-6

Fotokonposaketa: L&A Diseinua
Begoñako Andra Mari, 10 • 48006 Bilbo

Inprimaketa: Gestingraf L. B. A.
Ibarsusi Bidea, 3 • 48004 Bilbo

Diseinua eta Maketa: A.I.C.
Infante Don Juan Etorbidea, 26 • 20008 Donostia

MARTINUS AB AZPILCUETA
DOCTOR NAVARRUS



MARTIN AZPILKUETA
DOKTOR NAFARRA
(1492-1586)

Duela aspaldi, 1870 hamarraldi hondarrean, Larresoron, elkarrekin irakasle izan ziren, Aiherra Espertateiko Simon Durruty (1852-1915) eta Hazparne Eztiteiko Janpiarre Diharce (1848-1931) bi liburu zale handi eta euskal liburugile haiei, eskaintzen diet, maiteko zuketan nafar teologoaren artikulua sorta hau.

HITZAURREA

AZPILKUETA-ko MARTIN, Doktor NAFARRA-ren BIZIA (1492-1586)

1586an, ekainaren 21eko arratsalde apalean, Pincio mui-noko bere etxean, Erroman hil zen, larunbatarekin, Martin Azpilkueta, Doktor Nafarra deitua.

«Biharamunean, igandekari, lekuko batek zioenez, hain - beste jende hurbildu zen hilaren ikusteko non ez baitzen batzuen eta besteentzat tokirik. Haren aitzinera heldu orduko, guztiak belaunikatzen ziren eta, haren eskuei eta oinei muin ematen zuten, beren arrosarioekin guziek hura bera hunkitzen, erlikien - tzat egin ohi den bezala».

«Gau hartan, gorputza eraman nahi izan zutelarik ehorz - teko, hainbeste jende atera zen haren ikusteko plazetara, karri - ketara eta kantoietara, non batzuetan bortxatu behar baitzen gorputza aitzina eramateko, jendeak zapatzen eta hertsatzen zuen arabera, eta hori, luzaz eta urrun. Anitz kardinale beren karrozekin beha zeuden etxe-kantoietan, gizon handi eta sain - duaren itxura ikusteko. Gaueko lau orenen buruan baizik ez zuten ehortzi, ez baitzen lehenago egin ahal izan, haren ikuste - ra eta agurtzera bazetorren jendetza ez zelakotz atertzen. Pezaka kentzen zizkioten bere soineko guztiak eta erlikiatzat

eramaten, halako gisaz non kasik biluzik utzi baitzuten gaixo gizon saildua. Ezin da erran nola mintzo ziren hartaz, jendeak, ez zer senti zuten haren aldera erromesek»

Horra nola kontatu zuen historia Martin Arraya-koak, Iruñeako kalonje eta Aibar ibarreko diakonoburuak, bere kapitulari bidali gutunean (1586-07-15)¹. Doktor Nafarraren hilotza aurkitzen da Erroman, Sant Antonio deitu Portugesen elizan, Scrofa izeneko karrikan, Sant Angelo gazteluari hurbil.

Haren heriotzako IV. mendeurrenaren ospatzeko eta estreina mintzaldien ohitura zahar hura biziberritzeko, asmatu izan da (1986an) gure herritarraren historia aberatsa oroitaraztea. Lan hori eskaini didate eta nik atsegin handirekin onartu, besteak beste gure liburutegiko irakurleen aretoaren erdian baitago haren potreta eta horko gordailuan baitauzkagu ere Iruñeako diozesiako «*Azpilcueta*» liburutegi ibiltaria, bai eta haren *Obra Osoak* eta beste argitalpen bereziak. Liburuzaina eta Elizaren Historia irakaslea naizenaz geroz, ez nezakeen ezetzirik erran.

Orain arte idatzi diren biografiek oinarritzat hartu dituzte Azpilkuetak berak bere obretan nasaiki barreiatu dituen xehetasunak eta Arigitak behin biribilkatu zituenak. Ikertu ditugu ere Arigitaz bestalde, Olorizek, Recondok, Garcia Barberenak, Lambertek, Vidalek egin biografiak bai eta Lopez Ortiz, Cros, Cuervo, Dunoyer, Larramendi-Olarra, Goñi Gaztambide eta beste batzuen idazlan bereziak².

I. Sortzea

Martin sortu zen 1492ko abenduaren 13an, santa Luzia egunean, Orba ibarreko Barasoainen. Azpilkuetako Martin eta Jauregizarreko Mari-Martiren semea zen. Aita Azpilkuetako jauretaketik zetorren, hortik ere haren izena. Ama berriz

Iruritako Jauregizar etxondotik. Bi adarrak tarteko handikietarik ziren eta, Nafarroako gorteetan bazeukaten aulkia Jauregizartarrek³. Nafarroako erregeen itzalean zituzten beren egiteko politiko eta militarrik, erreinuko mariskal eta agramondar aitzindari bezala⁴. Aita Martin-i gertatu zitzaion bere askazi agramondarren hondamendia ikustea eta gero Karlos enperadorearen itzalean kokatzea.

Etxe handi horiek ez ziren ontasunez aberasturik atera ateka horretarik. Zenbait urte geroago, bere sorlekua aipatzean haxe erranen du: «*Nafarroako erreinu guziko errepide ederrenaren bazterrean dago gure sortetxea eta egunero haren atetik iragaiten dira jende mota guztiak, bai eta anitz sartzen ere egun guziz haren ikusteko eta batzuek tratuak egiteko, hala nola gaztelauak bezala aragoarrak eta nafarrak, Gortetik, Valentziatik, Zaragozatik eta beste eskualdetarik, Iruñeara buruz eta Iruñeatik han hara zihoazenak eta, bazter guztietan gertatzen ziren gauza ohargarrienak kontatzen zituzten egun guztiez*⁵».

Azpilkuetako jauregia suntsitu zuten etsaiek Cisneros kardinalaren manuz, baina Barasoingoa mirets daiteke oraino, parte batean, bere XVI. mendeko berpizkunde ospearekin.

II. Ikasketak

Berari nabarmenki laket zitzaion aitortzea: «*Nihaur ezen Nafarroak nau sortua, Gaztela Berriak Alcalan eskolatua, Frantziak gizon heldu egina, Gaztela Zaharrak Salamancan gorai patua, Portugalek apaindua*⁶».

Lehen ikastaroa bizkitartean etxean izan zuen, erlijiotasunez josia: «*Niri, haur-haurretik, oherakoan otoitz egiten loa-kartu arte hezi ninduten*⁷. *Maria zuen izena sortu ninduen amak, baina zinezkoago ama izan zitzaidan, Maria Erreginari eskaini ninduenean, bularra ematen hasi zitzaidan unetik, bere*

*deboziazko xorta zenbait isurtzean esnearekin batean, ezen ez eta jaioarazi ninduenean*⁸».

Bederatzi urteetara heldu bezain sarri, izan zuen lehen eliza koroa eta ikasi elizako ofizio liburua irakurtzen. Erdietsi zituen horrela bi eliza errenta bakun, haiei esker ikasketak ordaindu ahal izan baitzituen doktoretza iragan arte⁹. Gramatika Nafarroan ikasi zuen, idazle klasikoak aldizkatuz girstinoen kantika eta otoitzekin.¹⁰

Ondotik, Alcalako unibertsitate sortu berrian sartu zen gai liberalak, filosofia naturala eta morala, bai eta teologia eskolastikoa ikastekotan¹¹. Izan zituen irakasle guztiz aipatuak, hala nola Santxo Carranza, Miranda-koa, Toledoko artzapezpiku dohakabe Bartolomeren osaba, Joanes Handiaren irakaspena ezagutarazi ziona¹² eta teologian Joanes Medina-koa, Espainiako teologiaren berritzaile ezezaguna, baina gaugerero Frantzisko Vitoria-koaren parean ezartzen dena¹³. Gines Sepulveda eta Alfontso Castro haren ikaskide aipatuenetarik izan ziren eta berak han iragan zuen lehen maila akademikoa¹⁴.

Alcalatik iragan zen zuzenbide zibila eta kanonikoa ikas-tera, Tolosako Unibertsitatera. Ez dakigu zuzen ez noiz ez zergatik hara joan ote zen: Batzuek diote arrazoi akademikoengatik zela joan, bestek aldiz arrazoi politikoak bazituela. Ezaguna da zuzenbideari Alcalak zerion higuina; Cisnerosek debekatua zien irakasleei, zuzenbide zibilaren fakultaterik irekitzea, teologiaren ardurarik baizik izan ez zezaten. Baina beste batzuek gogoratzen dute nola Nafarroako erreinuak galdu zuen orduan bere independentzia eta zenbat agramondar iragan ziren Frantzia aldera, haietarik baitziren nafarrak, hots etxondo horren itzalean bizi ziren Azpilkueta eta Jauregizar guztiak. Dena dela, egundainotik Tolosara joan ohi baitziren Nafarroatik anitz ikasle, erran behar da, orain hor aurkitzen dela gure Nafarra ere.¹⁵

Antonio Torrekoaren arabera, Alcalako unibertsitatearen oinarri izan zen san Ildefonso ikastegiak bere atak ireki zituen 1508an, baina 1509/10 ikasturte arte ez zen normalizatu unibertsitatearen urratsa eta, Santxo Carranza 1510-1514 arte izan bazen gai liberalen zuzendari, Gines Sepulvedak 1512an bete zuen ikasle gisa sail horren hirugarren urtea¹⁶. Bartolome Carranza bestalde ez zen agertu Alcalan 1515 urte arte eta ez zuten Azpilkuetarekin elkar ezagutu 1561ean baizik¹⁷. 1518an aldiz, zuzenbidea irakasten zuen Doktor Nafarrak Tolosan¹⁸. Datu horiek guztiek erakartzen gaituzte hipotesi hau bermatze-
ra, hots, 1509-1515eko tarte horretan egon zela Azpilkueta Alcalan eta arrazoi akademikoengatik iragan zela Frantziara, nahiz ondotik arrazoi politikoengatik, 1523-1524 arte, han berean gelditu zen hain luzaz, zeren eta izatez Karlos Vren boterea ez baitzen finkatu behingoz Nafarroan, 1524ko udaberri arte.

Ez dakigu oraino zenbat urte eraman zituen Tolosan ikasle, ez noiz erdietsi zuen Doktorgoako maila¹⁹. Dena dela sines-
ten zuen, *konfeszatzaille* ona edo gaur erran genezakeen bezala, artzain ona izateko ez dela aski, *bi eskulibururen ikastea tarte-
ka, jolasten ariz*, baina behar dela izan teologian, kanonetan eta legeetan ongi moldatua²⁰.

Bere orduko irakasleen artean atxikimendu berezi batekin aipatzen zuen Jodocus belgikarra, nahiz jaun hori guztiz garaz-
ki epaitzen duen Jose Lopez Ortiz historialariak.²¹

Hiriko domingotarren komentuan behin baino gehiagotan san Tomasen hilobia agurtzen izan zen, haren aituzinean otoitz egiten eta bere lanen teologia gidaritzat hura bera hautatzen. Nahiz zuzenbidezko bi sailak landu, bakarrik sail kanonikoaren doktoregoa zuen eskatu²²; bi sailak irakatsi zituen bizkitartean Cahorseko eta Tolosako unibertsitateetan.

Zernahi dela, Lopez Ortizek bezala erran dezakegu Azpilkuetaren «formazio humanista aski ona izan da dudarik gabe. Halere klasikoak ez zituen gehiegi menderatzen eta lati-

naren zaporea ez zitzaion garbizalekeriaraino heltzen eta san Tomasen latin hizkera latza, liraina zeukan. Nafarraren idazkietan nabari zaio liraintasun eskolaren eta ohargileen ondokoek asmatu eraikin trinkoak baino gehiago beren filologia jakintza estimatzen zuten humanistei buruzko aiherkundera»²³.

Lorenzo Valla, Erasmo eta Luis Vives batzuetan jaukitzen ditu eta Grazianok aipatu iturrien garbitzaileen laguntzera badator, gogoz kontra: «*Zuzenbideko formazio propioaren aldetik ordea, ez zuen Azpilkuetak izan, prestakuntza tinko eta oroz gainetik berritzeko bide berriei ireki baten aldeko inguramena aurkitzeko zortea: Alcalan nabari zen zuzenbide ikasketen aurkako aiherkunde bizia... Tolosan berriz, nagusi zen Bartoli zaleen inguramenean, sartu behar izan zuen Jodocus-en molde ilun eta nahasi hartan; hortik datoz glosei erantsi oharñoak, gero barreiatuak direnak Azpilkuetaren beraren idazlanen irazkia ehotzen duten «Notabilia» ohargarrietan. Glosa horiek, beren hitz euskarriarekin, baliagarri dira edozein motako azterketa-erentzat, batere ordenatu gabe eta bortxatuzko argudio artifizialenekin: Hots, lehen iruzkintzailek, ordukotz hila zen ohiko eskolaren metodologiatik bildu txar guztia*²⁴».

Frantzian egon zelarik, bestalde, Albiko Klaratar seroren komentuan aterpetu handiki agramondarrekin harreman heretsiak izan zituen Irakasle Nafarrak.²⁵

III. Orreagako kalonjea.

Badakigu engoitik Azpilkueta eta Jauregizartarren lotura berezia Nafarra sendiarekin. Martin Tolosan gertatu zen sendi bereko kide aipagarri batekin, hau geroago Ciudad Rodrigo eta Badajozeko apezpiku eta Valentziako artzapezpiku izan beharra baitzen eta Trentoko kontzilioan bere burua ezagutarazi baitzuen. Frantzisko Nafarroakoa deitzen zen eta 1518an, Aita

Sainduak izendatu zuen Orreagako priore. 20 urte baizik ez zituen eta ikasketak egiten ari zituen Tolosan. Han izan zuen irakasle, adiskide eta lagun Martin Azpilkuetakoa, etxe eta mahian berean zeudela 14 urte luzez (1518-1532). Egoera politikoarengatik Orreagako prioreak ez zuen behin bere aulkia hartzerik baina 1524an erreinua garaitua izan zelarik, Frantzisko Nafarroakoa bere prioretzaz jabetu zen eta bere irakasle eta adiskide Azpilkueta gonbidatu zuen Orreagan sartzera. Nafarrak orduan uko egin zion Frantziako bere etorkizun distiratsuari, Pariseko parlamentuan aholkularitza bat eskaintzen baitzitzaion eta bere mezenasen itzaleko sorterrira itzultzea erabaki zuen²⁶.

1524an Orreagako kalonje bilakatzen da eta laster Leongo Villar-en gomendioa izaten du (1526) eta Portugaleko Luimil-ena (1528). Geroztik beti «Orreagako Gomendatorea» deituko dute eta araberako abitua eramanen du gurutze berdearekin paparrean²⁷.

Zer erran nahi zuen bada Luimileko gomendatore izateak? Hona zer dioen Barbosa portuges kanonista aipatuak: *«Horra nola bere Orreagako komentuak Doktor Nafarra aipatua izendatu zuen Luimileko Dona Maria elizaren gomendatore eta maisu; kargu hau atxiki baitzuen berrogeita zenbait urtez, zerbitzu hori betetzen zuela urte oroz apezpikuak izendatzen zuen apaiz baten bitartez, honi eman ez bere urte-sari zuzena eta beretzat atxikiz eliza horren mozkin guztiak eta Orreagak Portugalen zeuzkan ontasun guztienak eta urtero honenbesteko bat ordainduz delako komentuari»*²⁸.

Azpilkueta izan zen beraz Orreagako kalonje eta, atseginekin entzun zuen bere izen hori²⁹, baina ez zen luzaz bizi izan mendiarte horretan: doi-doia han egon nobiziaduko urte hartan eta, tarteka, agerraldi bat edo beste egin. Ez du horrek erran nahi komentuko arrangurez eta beharrez ez zuela axola handirik hartu.

Frantzes Nafarroakoak bere kargua hartu zuelarik hain zuzen, Orreaga egoera txarrean zen: haren errentak gaizki kudeatuak, kalonjeak gaizki artatuak eta behartsuen eta beilarien aterpetzea ahantzia bezala. Aitzineko prioreek alabaina erreinuko jaun handien itxura hartua zuten eta haien bizimoldeak errenta guztiak irensten zituen³⁰. Hortik ateratzeko, priorearen eta kapituluaren arteko hitzarmen batera heldu ziren beharririk, ararteko Nafarrari esker. Araberako Gutun berezi, «hirukoitza» deitu batek hiru zati berdinetan zatitzen zituen mozkinak: lehen zatia priorearena eta haren etxekoena; bigarrena kapituluarena eta haren kidekoena; hirugarrena ospitalearena eta haren kudeatzaileena. Horrela finkatu ziren ondoko Orreagaren loraldiaren oinarriak³¹. Azpilkuetaren eraberritzeak egin aitzin, prioretzak ematen zuen 1000 dukat mozkin eta egin ondoan 5 edo 6 mila.

IV. Salamancan

Orreagako priore lerdena Salamancara joan zen gero elizako eta estatuko legeen ikasketei jarraitzeko. Azpilkuetak lagundu zuen leialki adiskide eta irakasle gisa. Unibertsitate hartako araudiak ez baitzituen onartzen erreinutik kanpo erdietsi titulu arrotzak, Azpilkuetak behin batean irakasle-ordezko baten lanik baizik ez zuen egin ahal izan.

1528an ordea, ekitaldi publiko batean, eta ikasle eta irakasleen aitzinean aurkeztu eta defenditu zituen Almain-en ideia demokratikoak: «*baizik eta erreinua ez dela erregearena, baina herriarena eta, erregeren boterea bera ere, zuzenbide naturalaren arabera, herriarena dela eta ez erregearena, eta ondorioz, herriak ez diezaiokeela neholaz horri uko egin*³²».

1532an, bere mezenasek bultzaturik, bere tituluak baliozkatu zituen, erdietsiz bat bestearen ondotik Eliza legeetan batxilergoa, lizentzia eta doktoretza mailak, bai eta Aulkietarako lehiatu «Prima» deitu ospetsuena beretu arte³³.

1536an Karlos Va etorri zen unibertsitatearen ikustera eta irakasle nagusietarik zenbaiten entzutera, haietarik izan baitzen Nafarra³⁴.

Honek bere aulkia erabiltzeko dohain berezia bazeukan: oroimen harrigarria, liburutegi ibiltari batena iduria, mintzoaren erraztasuna, begikotasun oparoa, eta irakasbide berritzailea. Erran nahi da, sakramentuak eta arimaren salbatzeari zuzenean doazkion beste gai izpiritualak hunkitzen dituzten irakaspenak zituela ematen³⁵. Nahi zuen zuzenbidea bibliaren eta elizako aiten iturrietara itzularazi, lotura eginez zuzenbidearen eta teologiaren artean, bereziki artzain ikuspegitik. Arrakasta argia izan zuen ikasleen baitan, hauek orotan eta beti eskerrak bihurtzen zizkioten³⁶.

Baina bere irakaskuntzan hain ederki kausituagatik, ez zituen ahanzten behartsuak, beilariak ez eta Salamancako ospitaleko eri gaixoak.

V. Coimbran

Hain zen handia Azpilkuetaren ospea non Portugaleko erregek Coimbrako unibertsitatea eraiki zuelarik 1537an, goiko mailan ezarri nahi izan baitzuen, bereganatuz³⁷ hasteko Irakasle Nafarra Kanonen «Prima» deitu Lehen aulkiarentzat. Gogorki jazarri zitzaion Salamancako Unibertsitatea, baina amore eman zuen, Karlos V. Enperadoreak haren errentak eta tituluak murrizteaz mehatxu egitean³⁸.

1538an badoa Portugalerantz eta jarraitzen zaio bere irakaslegoako sail ospetsuari. Hasten ditu bere argitalpenak, bera zendu arte iraunen dutenak. Baina oroz gainetik momentua jina da aipatzeko san Frantzes Xabierkoarekin izan zituen harremanak: Elkarren askazi ziren, zeren eta Azpilkuetako dorrearen ondo abartsutik baitzetozen biak. Maria Azpilkueta, san

Frantzesen ama, bigarren mailan zuen ahaide Doktor Nafarrak, nahiz Xabierkoak ez ziren barne Barasoingo Azpilkuetatarren ingurune hertsian³⁹.

1540ko ekain hondarrean heltzen da Frantzes Lisboaara, baina ez dio berak jakinarazten bere askaziari; merkatari nafar baten gutunari esker helduko zaio berria Doktor Nafarrari eta Frantzesen ikusteko xedea erakutsiko dio, haren ezagutzak egiteko asmotan eta denen aho-mihitan zebiltzan jesuita zirelakoen berri ere izatekotan. Horra zergatik gutun bat bidali zion Erregeri eta beste bi mezu Frantzesi berari. Irailaren 28an ihardesten dio honek: *«Ene berrien emateko eta berezi - ki ene bizimoldearen, elkar ikusteko parada izatea atsegin handia nuke... Gure Jainko Jaunak nahiko ahal du, bizi hone - tan elkar ikus dezagun, ene laguna eta ni neu Indietara joan aitzin»*.⁴⁰

Azaroan, bigarren gutun bat bidali zuen Azpilkuetak eta Frantzesek bigarren ihardespren bat itzuli: *«Gainerakoa gure bisitarako uzten dut, gutien ustean izanen da hau, zeren eta zure gutunetan erakusten didazun atxikimendu handiak behartzen bainau ni horretan zure sinestera»*.⁴¹

Ez zen ordea bisitarik egin ahal izan eta, 1541eko apirilean Indietarantz joan zen Xabier. Nafarrak nahiko zuen bai, baina Xabier bere aldetik ez zen presatu, funtsean Espainian gaindi iragaitean, Lisboako bidean ez baldin bazuen arterik hartu bere Xabierko sortetxean sar-jalgi baten egiteko, ez da hain handi izan behar, ez bazen ere Coimbrara aldaratu irakasle ahaide urrunaren agurtzeko.

Gisa oroz, behialako elkarridazketa ez zen debalde izan, gure Irakasleari gogoratu baitzitzaion beraz horrela misiotara joatea, bere askaziaren lagun, Indietaraino: *«Ai misioetako erreinu haiek! niri ere gogoratu zitzaidan ene lur honetako itzu - lia horrela bururatzea ene askazi hark, Lisboatik joan zelarik ez baldin banindu utzi, zaharregi eta higatuegi kausiturik, berak*

*amesten zituen lanetako, idatzi zidalarik geldi nendin engoitik zeruetako elkar ikustearen aiduru».*⁴²

Dena dela, Indietara joan balitz orduan Azpilkueta, geldituko ginen haren libururik gabe, ezen bere 49 urteekin, ez zuen oraino 1541ean deus argitaraturik.

VI.

Espainiara itzuli-ondoan (1555-1561)

1555eko hondarraldira, Portugaleko erreinua utzi zuen, irakaslegoari uko egin ondoan idazlanetan soilik eraunsteko gisan.

Lehen lana izan zuen Salamancako jesuiten agurtzera joatea. Jarraian Valladolidera igan zen, han andere Juana printzesa gobernadoreak Leongo san Isidro⁴³ eta Parraceseko Santa Maria agustindar bi komentuen erreforma eginarazi baitzion.

Gero itzuli zen Salamancara, Antonio Portonariis inprimatzailearen etxera eta zazpi hilabetez egon zen atera gabe (1556ko urtarriletik uztaileira), Antonio Zurara frantziskotarraren laguntzarekin *Konfesoreen Eskuliburuaren* berregituratzeko gisan, bost azken iruzkinak erantsiz bai eta Trentoko kontzilioaren erabakiak ere. Orduan zuen gainera agertu katedraletako kapituluei buruzko bere iritzi famatua.⁴⁴

Gortean atxiki nahi izan zuten, haren aholkuen baliatzeko eta Fernando Valdésekin eskaini zion lan bat Inkisizioaren Kontseilu Goienean, baina Nafarra itzuri zitzaion Nafarroako zenbait iloba umezurtzen ezkonaraztera joan behar zuelako aitzakiarekin.⁴⁵

1559ko hastapenean, bere idazlanen osatzeko asmatu zuen asmakizun bitxi bat: Nehori salatu gabe, Espainiatik joan behar zuen hirurehun legoatako hiri arrotz batera (menturaz Anberesera?) eta, izenez aldaturik, bizpahiru urte emanen

zituen jadanik inprimatu liburuen zuzenketak egiteko eta beste berri batzuen inprimatzeko. Bidea hartu zuen baina Pirinioak iragaitean mandotik erori zen eta, lau pusketan hanka hezurra hautsirik, itxura txarrean itzuli behar izan zuen Barasoingo bere etxera.⁴⁶

Orduantsu (1559ko maiatzean) san Frantzisko Borgiak aurkezten dio Erregeri apezpikutzat gai dauzkan gizon batzuen zerrenda, erranez: «*Doktor Nafarra gizon garbia da, letradun argia, Salamancan bazuen bere aulkia eta Portugalen irakasten zuelarik soldata ederra irabazten zuen, orain erretiratu da eta bertute handiko pertsona eredugarriaren bizia darama, nahiz apur bat zahartu den eta hanka batetik maingu*».⁴⁷

Ohatua zelarik, etorri zitzaion andere Juana printzesaren mezularia, Valladolidera joan zedin galdezka eta berak ihardetsi zion: «*Goragoko Auzitegi batera deitua zelakotz, ez zela haren aitzinera agertzen ahal*»⁴⁸.

VII. Carranza

Eriondo zebilelarik oraino Azpilkueta Barasoainen, otoiztu zuten bera sar zedin mende guztia gehien inarrosi zuen Carranzaren auzian. Bartolome Carranza anaia (1503-1576) Argako Miranda herrian sortua zen, Nafarroako kondestable Beaumontarren buruzagiaren aldeko jauntxoen familia batean. Gero domingotar fraide ezaguna bilakaturik, Erasmoren ikasle berritzaile, Trentoko teologo eta Ingalaterrako fede katolikoaren berpizle, 1559ko abuztuan, Toledoko artzapezpiku zelarik, Espainiako Inkisizioak heretikotzat jo zuen eta preso sartu.⁴⁹

Berenaz apezpikuen auziak aita sainduari zuzenean doazkion auzi nagusiak dira, baina Espainiako Inkisizioak erdietsi zuen Aita Sainduaren mandataritza Carranzaren preso hartzeko eta auzitan ezartzeko. Presoak berak eskaturik eta, Felipe II.aren

baimenarekin, Doktor Nafarra izendatu zuten orduan haren abokatu defendatzaile.⁵⁰

Ordu arte ez zuten behin ere elkar ikusi bi nafar aipatuek eta beren argitalpenengatik baizik ez zuten elkar ezagutzen. Berehala joan zen halere Doktor Nafarra Valladolidera eta, abokatu bezala eman zuten zinaren aktan, Landeta idazkariak idatzi zuen: «*Hiri honetara etorri da Doktor Nafarra, Martin Azpilkueta deitzen dena*». ⁵¹

Bere gain hartu zuten beraz Doktor Nafarrak artzapezpi-kuaren defentsa, batere dudarik gabe sinesten baitzuen ez zela hura hobenduna, baina baldintza honekin, hots, sekula frogatzen baldin bazen heretikoa zela, bera izanen zela haren kondena-tzaile lehena.⁵²

Gogo handiz lotu zen gero bere lanari, sei hilabeteko bat edo, gehienez urte oso bat, iraunen zuela asmatuz. Nolako sukarrak berotzen zituen bazterrak oharturik eta bere legelari ikus-pegari nahiz jarraiki, eginahalak oro egin zituen Espainiako Inkisizioaren auzitegitik auziaren kentzeko eta Erromara eramateko, bere epaile naturalaren, hau da, Aita Sainduaren beraren aitzinera. Joera hori ordea, Erregeren beraren, haren aholkularien eta inkisidoreen xedeen kontrakoa zen nabarmenki, haiek nahi baitzuten Aita Sainduaren mandatuarekin Espainian berean eman beren sententzia.

Asma daitekeen bezala, hortik sortu zen anitz liskar eta nahigabe.

1562ko otsailean, Nafarrak bidali zion Felipe II.ari sekretuzko txosten bat, zuzenbidez arautua. Oinarrizko arautzat zeukan, Aita Sainduak Erroman behar dituela epaitu apezpikuak eta bazerabiltzan ateraldi bipil eta ausart batzuek, lotsagabearen mugak gañdituz tarteka; hala nola, ordezkariak bidaltzea bekatu da, ordezkariak eskatzea bekatu da, Luther bezala ohiturari jazartzea bekatu da, eta abar idazten zuelarik.⁵³

Erregek biziki gaizki hartu bide zuen gutuna eta ez zion berak ihardetsi nahi izan, baina Carranzaren epaileari helarazi zion gutuna bera. Nola Nafar Doktoreak mihiluze fama baitzuen eta Ofizio Sainduaren auzitegiko sekretuez ez baitzen biziki axolatzen, bi galdeketa egin zizkioten, egiaztatzeko ea zinez sekretuki bidalia zion bere txostena Erregeri, ala Erromako edo Trentoko bideetan ateraita zen. Teologo bezala distiratu zuen alabaina Carranzak Kontzilioan eta Aita gehienak harritu ziren preso sartu zutelarik: «*Hura gizon xehea eta lañoa da eta, gure iduriko, konturatu gabe mintzatu dateke bazterretan*». ⁵⁴

Erromara ekartzearekin auzia, batzuk beldurtu ziren luzamenduak, adigaizkeriak, Espainiako Inkisizioaren eta haren joko gainsekretuzkoaren fama txarra ez ote ziren etorriko. Doktor Nafarrari ezarri zioten gaztigua zinez garratza izan zen (12.6.1562): «*Delako Nafar Doktoareari agindu zioten presondegitzat har zitzan bere etxean zeuzkan egoitzak eta ez zedila handik nehora jalgi, eskumikatze eta Ofizio Sainduaren gasetuentzat mila dukateko isunaren mehatxupean, non ez zen egiten, Toledoko Artzapezpikuarengatik zerabiltzan auzi eta negoziotientzat edo ere, erranen zioten komentuan edo elizan mezaren entzuteko xedetan eta, bestalde, ber mehatxupean, ez zezan nehongo negoziotan, ez bere burua ager, ez bere iritzirik eman, preso denborak iraun dezano, besterik agintzen ez zaion arte*» ⁵⁵.

Presondegi garratz hori apur bat arindu zitzaion hilabete bat eta erdiren buruan, baina 1563ko martxoan ez zuen oraino legoa bat baino gehiago hiritik urruntzeko baimenik. ⁵⁶

Gaztigu horrek hainbestetaraino lotsatu zuen non abokatu goa egitea (lehen eta azken aldikotz) damutu baitzitzaion, baina haren izpirituak ez zuen amore eman. 1564an eta 1566an oroitidazki bi igorri zizkion oraino Erregeri beti printzipio berak errepikatuz, nahiz berba neurtuxeagoekin: «*Zure Goiko Aholkulariek burua hausten diote Aita Sainduari, hemen bere* -

an eman dezan bere sententzia eta, gartsuki mintzo daitezke, baina ez zuhurki».⁵⁷

«Zein ziurrago ez da helburua bilatzea eliza legeen bide handitik, ezen ez asmakeria berrien xendra bide berrietarik, hauek xede onez asmatu ere».⁵⁸

Carranzaren auzia Erromarekin lotua izan zelarik, Azpilkueta erretiratu zen *«bere zahartzaro hondarraren erama-teko, Coimbrako diozesian eta San Romaneko herrixkan, bazuen parropiako elizara»*.⁵⁹

Erromara joan aitzin, Carranzak eskatu zion Erregeri, bere abokatu gisa Doktor Nafarra bidelagun izatea. Honek orduan baldintza zenbait jarri zituen: batetik bortxazko egoitza ken ziezaioten, bestetik enbaxadoreen eta erregeren jukutrietarik libra zezaten. Denak erdietsi zituen eta, hirurogeita hamalau urteetan bere kontuz abiatu zen Erromara.⁶⁰ Nahiz Avignon-en iragaitean hiltzeko zorian gertatu, 1567ko urrian Erromara heldu zen eta Penitentziaria Sainduko Kanonista izendatu zuten.

Bederatzi urte iraun zuen oraino auziak: *«Gutziz heretiko susmagarri»* gisa kondenatua izan zen Carranza eta haren Katixima liburu debekatuen «Index»-ean sartu zuten. Hautsimautsi iduriko erabaki horrek harritu zuen Azpilkueta, zinez uste baitzuen berak hobengabea zeukan gizona, osoki zuriturik aterako zela, bizkitartean haren arabera Carranzak irabazi zuen *«handira»*, nahiz gusta zaion *«ttipia»*.⁶¹

VIII. Felipe II.

Unibertsitateko Irakasle aipatuak sariztatzen ohi zituzten araberako kargu handienekin: kalonje, auzitegi eta kontseilueta-ko kide, apezpiku. Azpilkuetak bere bizia eraman zuen Salamanca eta Coimbrako unibertsitateetan, baina Espainiara itzultzen delarik ez diote saririk ematen, ez erregek ez apezpi-

kuek. Izatekotz ere, maila apalagoan uzten dute, Carranzaren abokatu bezala.

Erromara heldu bezain laster ordea, erromatarren estimua bereganatu zuen. Pio V. Aita Sainduak kardinale izendatu nahi izan zuen 1570ean, baina azkenean ez zuen egin. Eta zergatik ote? Jose Goñi Gaztambide historialari nafarrak aurkitu digu sekretua: Felipe II.ak zion kontra egin.

Pio V.ak bazuen xedea bi kardinale frantses eta bi kardinale espainol izendatzeko, hots, Carranzaren jujea izan zen Sevillako artzapezpikua eta Azpilkueta; baina berria jakinarazi aitzin kontsultatu zuen Pacheco kardinalea, Espainiako interesen ordezkaria.

Honek salatu zion bere erregeri Aita Sainduarekin izan zuen elkarrizketa: *«Beste gai batez ere nahi zuen ene iritzia jakin, zeren eta aipatua baitzioten Doktor Nafarra, eskola handiko eta bizimolde sainduko gizona, nik ere banekien bezala, eta berak, Aita Sainduak, nahi zituen haren bilo zuriak ohoratu, «troppo vecchio» zahartuxea bazirudien ere.*

Nik orduan ihardetsi nion, bai ziur Doktor Nafarrak bazituela Aita Sainduak erran kalitate guztiak, baina hura kardinale egiten bazuen, ustez bi frantses egin kardinale, hiru frantses zituela eginen.

Nola zatekeen hori, galdatu zidan eta nik kontatu nion luzeki Nafarroako historia eta nola bere Erregeren alderdiari jarraikirik eta harekin Frantziara etorririk eta erreinu horretako unibertsitateetan ikasirik, koroa harentzat hain atxikimendu handia bazuen non alderdi honetan bizitzeagatik eta libreago mintzatzegatik, Salamancako aulki lehena utzi zuen eta Coimbrakoa hartu Portugalen, ospez eta errentaz biziki apalagoa zena.

«Aitaren» egin zuen Aita Sainduak eta erran zidan: Jauna! Zer hutsa ez nuen eginen, ez banintz zurekin mintzatu!»⁶²

Felipe II.-en zerbitzarien artean biziki hedatua zen ustea, Azpilkueta bihotzez frantsesa zela; hala nola, Granvela kardina-leak erraten zion Felipe II.ari: «*Gizon hori Parisen jaioa balitz bezain frantsesa da, eta nola zahartua baita ateratzen zaizkio gauza batzuek erakusten dutenak haren lehia halako gisan non ahalketzen baitzara haren entzutean edo, horretaz penarik ez hartzeko, bere adin handiak zentzua galarazi diola asmatzen duzun*»⁶³.

Horra beraz nola heltzen den salaketa handia Aita Sainduarengana: Doktor Nafarra frantsesa da. Ez zen berria. Felipe II.aren aitzinera hurbiltzea debekatzen zaiolarik 1566an, Azpilkuetak onartzen du zurrumurru hori badabilela.⁶⁴

Bizkitartean, aburu hori ahanzi gabe, badut uste beste arrazoi bat bazela Aita Sainduen aitzinean aipatu ere behar ez zena, are gutiago Pio V.aren aitzinean, hain baitzen Aita Saindu hau Elizaren larderiaz axolatua.

Azpilkueta bada, bere bizi guztian, izana zen Eliza Legearen, Grazianoren Dekretuaren eta Aita Sainduen Dekretuen Irakasle. Erdi Aroko Kristau-batza zuen amets, herri giristinoen batasuna zebilelarik Aita Sainduen gidaritzaren moralaren bidetik. Mendiz-hainditarra zen, bihotzez Erromazalea,⁶⁵ gaizki heltzen zena Felipe II.ak Espainian sustatzen zituen joera erregezale eta estatuzaleekin. Eta Erregek berak ongi bazekien hori, Azpilkuetak askotan igortzen zizkion txostenengatik, hala nola, 1555ean katedraletako kapituluaren erreformaz, eta 1568an Espainiako komentuen zorte txarraz, egin txostenengatik⁶⁶. Eta oroz gainetik ikusi zuen Erregek nola zeraman Nafarrak Carranzaren auzia, bere 1562ko oroitidazkian hauxe idazteraino heldu baitzen gure abokatua Espainiako Inkisizioaz, «*zinez opari itsusia zela Espainiarentzat*» eta «*sekulako zartakoa*»; bai eta Elizaren araudi orokorretik kanpo zegoen erakunde berezi horren ezabatzea zela hobereana⁶⁷.

Ikusten da zergatik Felipe II.ak, Nafarraren itzala urrun-
du nahi zuen, kostarik kosta: Erromako elizaren kardinale gisa
askoz arriskutsuago zen Azpilkueta, legelari xume gisa baino,
Errege haren estatuko eta elizako xedeentzat ⁶⁸.

IX. Obrak

Ez ditugu hemen lerrokatuko Azpilkuetaren liburu guz-
tiak, anitz baitira, bakarrik ohar orokor batzuek ditugu eginen
haien hobeki ezagutzeko. ⁶⁹

Doktor Nafarraren idazlanak berantekoak dira. Ez zuen
deus argitaratu ez Frantzian ez Salamancan; 1542an agertu zen
haren lehen liburua; 50 urte zituelarik egileak.

Haren lanak ez dira orokorrak, baina bereziak, zortekoak,
kasuan kasukoak, hala nola, Coimbrako koruak gogoraziko
dion *Laudorioaren eta gaitz erranaren liburua* eta ere *Otoitzeko
eskuliburua*.

Haren liburu gehienak atera ziren lehenik gaztelaniaz edo
latinez, bat edo beste portugesez, baina hobeki zabaltzekotan
denak azkenean latinez argitaratu zituen ⁷⁰

Liburu horiek izigarriko arrakasta izan baitzuten, haieta-
rik gehienak, egilea bera bizi zelarik anitz aldiz argitaratu ziren,
asko zuzenketa eta emendakinekin.

Azkenean anitz ohar eta izkribu gelditu ziren argitaratu
gabe.

Asmatua zuen Dekretalen irakurketa arruntaren presta-
tzea, baina ez zuen egin ahal izan. Hauek dira haren obra nagu-
siak:

-*Konfessoreen Eskuliburua*, 70 urtez 81 argitalpen izan
zituena eta 92, aldaki, berrikusketa edo laburpenekin ⁷¹.

-*Novit*, Elizaren eta Estatuaren harremanez, egilearen irizki herrizaleen adierazgarri.

-*Otoitza*: Aszetikaz, liturgiaz eta kanonez zenbait iruzkin.

-*Erantzun eta kontseiluzko bost liburu*: Mota guztietako gaiez egin galdeei eman ihardespren multzo alimalea.

-*Lukurreria eta Kanbioa*: Egilearen aburu etikoak ekonomia gaietan.⁷²

-*Elizako ontasunen salerospenez eta erabileraz*. Funtsezko ikerketaren zain dago, Francisco Sarmientorekin egi-leak izan zuen eztabaida.

X.

Zinezko bizi luzea eraman zuen Doktor Nafarrak: izigarriko aldaketen mende osoa

Bera munduratu baino apur bat lehentxeago, Konstantinopla hiriaz jabetzen ziren Turkoak eta inprimariak egiten zituen lehen urratsak. Sortu zen urte hartan berean, Mundu Berria aurkitu zuen Cristobal Colonek, irakitan zeudelarik Europar Berpizkundea eta Humanismoa.

Haren ikasketen garaian gertatzen dira Cisnerosen erreforma, Nafarroako erreinu burujabearen suntsiketa eta Lutherren jazarpena, baina irakasle mailara heldu orduko parte hartuko du Tolosan eta Cahors-en behin, Salamancan gero, Vitoria eta Soto-rekin batean, teologiaren berrikuntzan, Calvino badoalarik Genebara ihesi eta *Fedearen Zaintzailea* deitu *Enrike VIII.*ak Erromarekilako lokarri guztiak hausten dituelarik.

Coimbrako egonaldian miresten ditu Ekialdeko jesuiten misioaren hastapenak eta Trentoko Kontzilioaren lehen urratsak. Espainiara itzuli ondoan ikusiko du nola Frantzia urratzen

duten erlisioneko gerlek, urrun hedatzen delarik heresiaren beldurra eta Espainietako erreinua kurubilkatzen bere baitan, arnasarik ezin hartuz, Toledoko Artzapezpikua bera preso sartzeraino. Erroman azkenik, Aita Saindu erreformatzaile batzuek miretsi ahal izan zituen, baina haien mendean ere ikusi sorterriko bere arbasoen jauregiak suntsitzen zituztela eta Baionako diozesiari 40 parrokia lapurtzen higanoten eta sorginen kutsutik haien zaintzeko aitzakiarekin.

Horra zer historiaren lauki luze, aberats eta ilunaren erdian behar den kokatu gure Doktor Nafarraren aurpegi ederra! Gertakari handi horien guztien oihartzuna aurkitzen dugu, gutxi edo aski, bere hainbeste urrats ala izkribuetan. Historiagilek ez dute oraino aro hori aski argitu. Susmatzen dugu Erdi Aroko gizona zela errotik, moralki Aita Sainduak kudeatzen zuten herrialde multzoaren Kristau-Batzari guztiz atxikia. Erdi Aroko kanonen zedarrak gainditu gabe, Liburu Sainduen eta Elizako Aiten iturrietara itzulia zen isil-isila. Legearen begirunetik hurbilago zebilen haren erreformismoa, Erasmorengatik baino, eta teologiatik eta artzain bideetatik zuzen legearen hurrantzea izan da haren merezimendu handiena.

Zilegi izan bekit ene erasiaren bururatzea Doktor Nafarraren hitz hauekin berekin, hor ageri baita, alderdi eta herrialde guztien gainetik, haren katoliko «orokorraren» –haizu baldin bazait horrela hitz egitea– itxura sendoa. Bere bizi luzean barna ezagutu zuen Nafarroan berean Agramondarren eta Beaumondarren arteko hisia, bai eta Tolosako, Salamancako edo Coimbrako Unibertsitateetan ikusi zer ziren herrialde ezberdinetako seme alaben arteko arbuioak eta lehiak. Bera gaztedanik kristauen arteko liskar guztien kontra bihurtu zen: *«Ez da alderik Juduaren eta Grekoaren artean, ezen Jaun bera baita guztientzat, dei egiten dioten guztien asetzeko aski abera-tsa, zinez nahi baitu ez dadin izan ez portugesik, ez gaztelarrik, ez frantsesik, ez ingelesik, ez alemanik, ez italiarrik, ez edozein herrikorik arbuiautuko lukeenik edo gutietsiko, haren herritar*

batzuen hutsak edo itzalak ikusi dituelakotz, nahiz gutarik bakoitzaren baitan ez den hutsik eta itzalik baizik eta gure baitako ongi guztiak gure Jainkoaren dohainak diren».

Ikus dezagun bada, guztiak Jaunak eginak gaituela, erostun berak berrerosiak, Kristoren gorputz bakarraren, hau da Erromako Eliza saindu eta katoliko bakarraren kide garela, hainbat gehiago onetsiko gaituela gure Jainko Handiak non guk geuk gutiago estimatuko baitugu geure burua, halako edo hola -ko herriko, leinuko, taldeko, lurraldeko, erlisioneko edo ofizio -ko osoki harenak garelakotz, osoki harenak, osoki giristinoak, harenak bakarrik eta haren bihotz onari heriotzaraino atxikiak eta Jesu Kristo gure buruzagi bakarraren maitasunean eta grazian beti gelditurik hilak, eta gure begirale eta Jaunak herri guztietako herritar guztiak beti lagun gaitzala haren laguntza -ren eskatzen elkar maita dezagun eta salba gaitezen oihu egi -nez: Jainkoa zatoz gure laguntzera! Jauna gure laguntzera egizu laster! Halabiz!⁷³.

Julio Gorricho
Gasteizko Teologia Fakultatea

Oharrak

¹ Cf. M.Arigita, *El Doctor Navarro Don Martin de Azpilcueta y sus obras*. Pamplona 1895 (666-667 or.).

² *Ikus artikuluaeren azken oharretan laburzki ematen den bibliografia osoa.*

³ Arigita, *Don Francisco de Navarra*, 515.

⁴ Nafarroako Frantzisko, Pedro mariskalaren sasikumeari *Comentarios sobre la penitencia* (Coimbra 1542) eskaini zion hitz hauekin: «Bultzatzen ninduen alabaina hire Nafarroako Mariskalen etxe guztiz aipatuak, haren ohore berezia baita, erregei eman hitzari nehoiz hutsik ez egitea, baina alderantziz, kostarik kosta hitz haren zerbitzatzea eta atxikitzea, eta horrentzat ene etxeko anitzek eman zuten beren ontasunekin beren odola eta beste anitzek ere beren odolarekin xahutu bizia, bai anaiarteko batailetan Zeltiberia guztia suak hartu baitzuen eta jendaki salbaia batek haren errailetan eskua basaki sartu, bai eta gure mende odoltsu honek ezagutu dituen errege indartsuenen arteko gerletan» Arigita, *Don Francisco*...599-600 or.

⁵ Cuervo, *Carranza y el Doctor Navarro*: *Ciencia Tomista*, 7 (1913) 44 or.

⁶ *Carta apologética*, Arigita, *El Doctor Navarro*...626 or.

⁷ *Ibidem* 22 or.

⁸ *Ibidem* 426 or.

⁹ *Ibidem* 24, 1. & 2. oharrak

¹⁰ Cuervo, «*Ciencia Tomista*» 7 (1913) eta Arigita, *El Doctor Navarro*... 25-27: Kristau idazleak humanistek baztertzea deitoratzen du Nafarrak erranez: «gure eskolek, Italiakoei behar baino gehiago jarraikiz eta berak irrigarri bilakatu-tuz, haiek gutiesten dituzte eta berengandik urruntzen, irakasleak ahalke baitira erran dezaten haientzat him-noak eta otoitzak irakurtzen dituzte -la» *Ibidem* 26 or.

¹¹ «Gaztedanik Alcalako Akademia arrakastatsuan hainbat ongi eskola-tu nintzen gai liberaletan eta filologia naturalean eta moralean eta han berean, zuzenbide ikasketak egiteko Tolosara aldatu aitzin, Sententzien lau liburua ikasi nituen biziki jakintsu handiekin» Arigita, *EL Doctor Navarro*... 35, 2. oharra.

¹² «Horra zergatik miresten dudan Joanes Handiaren zorroztasuna, berak hartze duen bezala gogotik aipatu ohi dudana nihaur izan naizela-lakotz ikasgaietan eta filosofian,

haren ikasle argi eta jakintsu doktor Miranda, Santxo Carranza Nafarraren ikasle guztiz maitatua». Arigita, *El Doctor Navarro*... 34.

¹³ Azpilkuetak deitzen du: «*Izpiritu bikaina eta jakitate finkoa duen gizona*» Ibidem 34.

¹⁴ Arigita, *El Doctor Navarro*... 35 or.: «*Alcala Henares-eko Unibertsitateari asko zor diot eta biziki maite dut, bereziki hark eman baitzidan ene lehen gradua, letretan izan nuena*» Ibidem 34 or.

¹⁵ Arigitak dio Alcalan egon zela Nafarra 1503tik 1510 arte eta Frantziara iragan arrazoi akademiko soilengatik: Op.cit. 30, 36, 41. Nicolas Antoniok aldiz, honela bermatzen du: «*zuzenbide irakaspena biltzera Galiara joan zen, hots, gure iduriko, ez zuen bere baitarik utzi Espainia, baizik eta lehentxeago Nafarroako Errege zen Joanes Labritekoarekin batean*». *Bibliotheca Hispana Nova*, II, 93 or.

¹⁶ *La Universidad de Alcala*...20 (1909) 420; 21 (1909) 67.

¹⁷ Tellechea, *Carranza Bartolomé, Diccionario*... I, 358. «*Joan nintzaion, nahiz ordu arte Toledoko artzapezpikua ez nuen begitartez ere ezagutzen*» Azpilkuetaren *Gutun apologetikoa* in Arigita, *El Doctor Navarro*...622 or.

¹⁸ Horrela zin egin zuen Frantzisko Nafarrak. Ikus Oloriz, *Nueva biografía*. 346 or.

¹⁹ Frantzisko Nafarroakoak erran zuen Salamancan zelarik, 1532an: «*Ikusi izan zuela Doktor Nafarra Tolosako Unibertsitatean bere irakaspena ematen eta irakurtzen 1518.*

urtean, urriko hilabetean; eta badaki urte berean ikusi zuela irakurtzen ari Omiasaindu egunean, irakasgai ohikoak hasten direnean eta badaki sailbera eraman zuela negu guztian 1519ko abuztuko hilabeteraino; eta badaki 1520an Omiasainduz hasi zuela bere ohiko irakaspena eta ohiko eginkizuna bete kanonen fakultatean, ondoko urteko Pazkoak arte eta gero Konstituzioak iruzkindu Jondoni Joaneak arte. Baina gero, gure delako doktor jauna Unibertsitateetik urrundu zen, lekuko honekin berarekin, Tolosatik zazpi legoatan dagoen San Martin deitu auzora, han egon baitziren urte batez eta erran delako San Martin horretan Irakasle Nafarrak eman zituen egun guztiez kanonezko bi irakasgai eta ordutik beste urtean, hots, 1521ean, bi lagunak joan ziren Cahors-eko Unibertsitateera, non lekuko honek baitaki besteak kanonak irakasten zituela eta lan horretan ari zelarik utzi zuela berak han» Ibidem, 346-347 or.

²⁰ Arigita, *El Doctor Navarro*...44 or.

²¹ «*Nik beti maite izan dut haren entzuten ari nintzelarik Tolosan, Jodocus belgikarrak ohi zuen irakasteko, diktatzeko eta idazteko moldea. Irakasle hura zuen geroztik Karlos Handiak Espainia guztietako kantzelaritzat hautatu*». Ibidem, 46 or.

²² «*Ez zait zuzen iduri ene buruari bi sailletako doktor tituluak eratzkitzea, ezen eliza legeari baino lehena go eta asti gehiago emanik ere estatu legeari eta bi irakaspenak eginagatik Galian nindabilenean, Doktoretza deitzen duten saria izateko orduan, ez nintzen menturatu eliza legezkoa*

rena baizik eskatzera. Doktorego hori ordea bi aldiz izan dut behin Galian eta berriz Salamancan, hango arauak beharturik, Dekretuen aulkia erdietsi nuelakotz». Arigita, *El Doctor Navarro*, 665 or.

²³ Lopez Ortiz Jose, *Un cano-nista...* 287 or.

²⁴ *Ibidem*, 290-291 or.

²⁵ 1551ean, Coimbratik, Ana Ezpeleta, Albiko andere Abadeari eskaintzen dio «*Addicion a la rep. Quando,*» hitz goxo hauekin: «Zuen komentu horretan ene andereak, zuen bertute handi eta harrigarriei esker eta aitzoneko egun beltz haie-tan Tolosan ongi etorri zinez soleiga-rria izan nuen zure aitzoneko buruza-gi guztiz argi, errege odoleko eta Jainkoaren graziak hain saildu egin Nafarrako andere Isabel txit agurga-rriaren eta beste bihotz eta odol oneko ama eta andere zure lagunen otoitzei eta gutunei esker ez bainin-tzen gertatu ez hain gaizki ez hain jakin gabe. Zuhaur ezen, Andere Katalina Erreginaren andrauren izanik, nik neuk galdu nuelarik mun-duratu ninduen ene ama, gogoratu zitzaizun, ene bizimoldea kontutan hartuz, eta begiratu, zu ene ama iza-tea, ez merezi nuelakotz eta zu zeu behin baizik ez zintudalarik ikusi, Tolosan gañdi iragan zinelarik gure agramondar andereen lurreko para-disu hartan». Oroitzapen horrengatik, «*Espainiako eta Europako buru den Mendebal honetan egotera eta zerbitzatzera behartua den beila-riak*» egiten dio eskaintza hau.

²⁶ Arigita, *Francisco de Navarra...* Biografia luzea, haren errege etorkia aipatzen duena eta Orreagako priore

izendapena zehazten. Azpilkuetak bere aldetik erran zuen: «*Nafarroara itzuli nintzen, Salamancako Ikastegi Nagusirako deitzen ninduten laneko erabaki funtsik hartu gabe eta hara joan aitzin, geroztik Valentziako artzapezpiku zelarik hil zen Orreagako priore Frantzisko Nafarroakoak eta haren kalonjeek behartu ninduten delako komentuan kalonje bezala sartzera, erakutsi ene beharra bazu-tela komentuaren zaintzeko eta indartzeko denborak erakutsi zuen bezala.*» Larramendi Olarra, *Miscelanea romana...* 120 or.

²⁷ Izendapen horientzat ikus Oloriz, op. cit., 319-321 or.

²⁸ Arigita, *El Doctor Navarro...* 72 or.

²⁹ Ikus 1562an Felipe II.ari aurkeztu zion txostena: «*Orreagako kalonje erregular nintzen eta naiz oraino nahiz ez eiki behar nukeen bezainba-tean*». Cuervo: «*Ciencia Tomista*» 6 (1912) 391 or.

³⁰ Ikus 1571ean Erromako kardinale Datarioari Orreagaz Azpilkuetak aurkeztu zion txostena: Oloriz, op. cit. 329-336 or.

³¹ Gutun hirukoitzaren xehetasunentzat ikus: Arigita, *Francisco de Navarra*, 519-599 or.

³² Arigita, *El Doctor Navarro...* 124. oharra.

³³ Ikus Oloriz, op. cit., 345-350 or.

³⁴ «*Eta handik landa joan zen beste areto batera, han Dekretoak iruzkitzen baitzituena Nafar doktoreak, Dekretoen aulkia zeukanak*» Getino, *El Maestro Fr. Francisco de Vitoria*, 129 or.

35 «*Eta horrela iragan nintzen Tolosako Unibertsitatetik Salaman- cakora. Hasi nintzen ezohiko ikastal- dietan, sakramentuak eta arimaren salbamenari zuzenean doazkion beste gai izpiritualak hunkitzen dituzten Dekretalen tituluak argitzen, hor nituen mila baino gehiago entzu- leen txalo artean, ezen aitzinean ez zitzairen Dekretalen bigarren liburua baizik aipatzen, ez zuten entzuten galde-ihardespenez, ordezkatzez, eliza-sariez, kontratuez, patronatuez, salaketez beste solasik*». Arigita, El Doctor Navarro...115 or. «*Ikasgaie- nartekoa zen Irakasle Nafarraren ikasbidea, baina artzain teologiar- emanek lehentasuna. Nahi zuen gaiak aztertzea filosofiaren, teolo- giaren, zuzenbide zibilaren eta kano- nikoaren ikuspegitik edo beste batzuetan erratan zuen bezala, zuzenbide naturalaren eta positibo- a- ren aldetik bai eta ere elizaren eta estatuaren legearen partetik*».

36 Arigita, *El Doctor Navarro...* 118 or.

37 Ikus Oloriz op. cit., 350-360 or.

38 Doktor Nafarrarekin lokarri her- tsiena duten Azpilkueta-tarrentzat, ikus Oloriz, op. cit., 406 or.

39 San Francisco Javier, *Cartas y escritos*, 2 ed. Madrid 1968 (BAC 101) 67 or.

40 Ibidem, 71 or.

41 Arigita, *El Doctor Navarro...* 224 or. Ikus ere G. Schurhammer, *Francisco de Javier. Su vida y su tiempo*, II. Bilbao 1969, 544-552 or.

42 Oloriz, op. cit., 372-373 or.

43 Arigita, *El Doctor Navarro...* 585-600, Oloriz, op. cit., 389-402 or.

44 Arigita, *El Doctor Navarro...* 209 or.

45 Oloriz, op. cit., 449 or.

46 Arigita, op. cit., 251 or.

47 Arigita, op. cit., 211 or.

48 Tellechea Idigoras-en lanez bes- talde, ikus J.L.G. Novalin, *El inquisi- dor general Fernando de Valdès (1483-1568). Su vida y su obra*, Oviedo 1968, bereziki 287-372 or.

49 1561eko maiatzaren 22an egin zuen Carranzak bere lehen galdea. Gero maiatzaren 30ean, «*luzamen- dutan ez ibiltzeko*» uko egiten dio bere galdeari, baina ekainaren 9an berriz galdatzen du «*berehala dei diezaioten Doktor Nafarra*» Ondotik, Iruñea-Valladolid-Madril-Iruñea- Valladolid-en artean anitz gutun gurutzatu ziren, Felipe II.ak eman ziezaion Nafarrari, erregeordearen debekuarengatik, Iruñeatik urruntze- ko baimena. Azpilkuetak beti erran izan du erregeren manuz defendatu zuela Carranza, nahiz Carranzak berak eskatua zion. Ikus Tellechea, *Fray Bartolomé Carranza. Docu- mentos historicos*, IV. 20, 30, 45, 48-49, 66-67, 81-82, 82-83 or.

50 Ibidem, 98 or.

51 «*Horra zergatik epaileen aitzine- an ere aitortu nion berari deplauki, haren defentsa onartzen nuela bal- dintza honekin, hots, heretikoa zela argi eta garbi ikusten nuen puntutik, uko eginen niola haren defentsari. Eta hori ere berak onetsi zuen*». *Carta apologética*, Arigita, op. cit., 622 or.

52 Cuervo J., *Carranza y el Doctor Navarro*: «Ciencia Tomista» 6 (1912) 384-395 or.

53 *Ibidem*, 7 (1913) 42 or.

54 *Ibidem*, 49 or.

55 *Ibidem*, 52-53 or.

56 *Ibidem*, 408 or.

57 *Ibidem*, 52-53 or.

58 *Ibidem*, 420 or.

59 Castagna nuntzioak gomendiozko gutun bat eman zion Alexandriako kardinalearentzat erranez: «*Hau da erreinu horietan aurki ditzakezun gizon hobenetarik bat, bere ikaske - tek, bere oneziak, bere biziko saindu - tasunak higatua. Guztiek horrelako - tzat daukate eta uste dut zure Gra - ztiak ere laster bera ezagutuko duela eta Jainkoak nahi baldin badu hel dadin zuregana bihotzaltzagarri iza - nen zaizu eta harentzat ere grazia handia dateke eraman duen hain bizi luze eta eredugarriaren bururaino heldu aitzin gure Aita Sainduaren oinei muin eman ahal izaitzea eta apostoluen atalarria hunkitzea*». L. Serrano, *Correspondencia diploma - tica entre España y la Santa Sede*, II, 94-95 or.

60 Arigita, op. cit., 652 or.

61 Goñi Gaztambide J., *Por qué el Doctor Navarro no fué nombrado cardenal*: Príncipe de Viana 3 (1942) 445 or.

62 *Ibidem*, 449 or.

63 1566ko oroitidazkian Nafarrak idazten du: «*Badut uste Erregeren eskerra galdua dudala hiru arrazoi hauetarik batengatik edo salatu bai - tiote frantsesa naizela edo Erregeren*

sekretu zerbait argitaratu dudala edo Ordariarengana hurbildu naizela mandaturik gabe». Cuervo: *Ciencia Tomista* 7 (1913) 416 or.

64 1562an, Felipe II.ari bidali oroiti - dazkian, Erromako auzitegiak gorai - patzen zituen honela: «*Nahiz hiru erreinu ezberdinetan eta bost uniber - tsitatetan berrogei urtez hurbil zuzenbide irakasle izan naizen eta kontutan hartu ditudan Erromako eta beste auzitegietak zernahi sen - tentzia eta erabaki, ez dut bada behin ere entzun, nehon badela epailekurik edo auzitegirik, Erromakoa baino xahuagorik, ez eta nehon auziak han baino hobeki bide zuzenetik epaitzen direla ere, bereziki Aita Sainduaren eta Kardinalen Goiko Batzarrean eta Errotako Auzitegian*». Cuervo: *Ciencia Tomista* 6 (1912) 388-389 or.

65 1568ko oroitidazkia Espainiako komentuez: «*Kontutan har bedi Aita Sainduak nahiagoko zuela egin Espainiako komentuekin, Italiakoekin egin duena, hots, haiek errefor - matu haiek hetsi baino, egin izan duen bezala eta zuzenduko zen guz - tia, Errege Jauna ez balitz horretan sartu eta, zuzen liteke oraino, Jaunak nahi balu*». Arigita, op. cit., 613 or.

66 «*Zorigaitzez gure bekatuek mere - zitu zuten, Espainietako aldeetan kristau fedeak gehienik distirutzen zuen denboretan, Aita Sainduak atera zezan, sekulan agertu beharko ez zen gutun bat, hango apezpiku, artzapezpiku, primatu guztiei, mun - duko hoberenei eta, elizaren hasta - penetik guztiak ohiko inquisidoreak direnei agintzeko jar zitezen inkisi - dore ordezkoen menpe, Espainiarrei*

eginez opari itsusi hori eta horrelako erreinu handi eta garbian nehoiz nehongo erreinuan, nik dakidala egin ez den bezala, apezpikuen ordenari kenduz bere eskubideen kapitulu nagusietarik bat, Erroman erregistraturik izanen baita betiko zartakobat bezala Espainiarentzat. Aski eta gehiegi da beraz horrela berriz ez gaitzen has gai hori harrotzen Zinez hobe liteke Erromako erregistroetan historia ilun horren oroitzapen gaitoa kentzea» Cuervo «Ciencia Tomista», 6 (1912) 394-395 or.

⁶⁷ Lopez Ortiz gisa berean mintzo da hitz xorrotx hauekin: «Gizon hori arrotzek eskolatua, Espainian ez luzaz egona, hezgaitz frogatua, ez zen asmatzen ahal Felipe II.aren politikarentzat baliabide segurua izanen zela; bulegoko lanetan bai izanen zen kardinale eredu garria, baina gure Errege zuhurtziaz betea fidatzen ahalko ote zūtaion Erromako politikarekin gerta zitezkeen arazotan?» Un canonista español del siglo XVI: La Ciudad de Dios 93 (1941) 275 or.

⁶⁸ Ikus Oloriz, op. cit., 167-279; obra guztien zerrenda xeheki emana argitalpenen markarekin hor agertzen da.

⁶⁹ Azpilkuetak gehiago estimatzen zituen latinezko lan akademikoak erromantzezko lan pastoralak baino: «Quando» kapituluko iruzkinaren edo berriztearen hastapenean, otoi-tzaz idatzi hitz adierazgarri hauek eman ditu: «Jakintsuek ez bezate gaitzets, urre zilarreztatua balitz bezala, erromantzez agertzen delako, ezen jende xehearen zerbitzatzeko egin da horrela, batere goikoen zerbitzutik

urrundu gabe. Eta merezi zuen latin garbiz aberasturik izatea baina orduan haren beharra duten gehienak ez ziren menturatuko harengana hurbiltzera. Harrituko daitezke jakintsuak lana egin nuenaz geroz, ez baitut agertu latinez». Ikus ere 1553an Coimbran agertu Konfeso-reen Eskuliburuaren Irakur-leari egin aitormena: «Nahiz bazirudien ene osparean zaintzeko eta hazteko –hura baitute gu bezalakoek behar bilatu Jainko hobeki zerbitzatzeko– hobe nuen, erdi-lanekin, Dekretuaren eta Dekretalen zati asko, duela anitz urte idatziak eta ene entzuleei eta beste askori hitzemanak nizkie –nak. argitaratzea latinez, hau baita Europako parte handienaren hizkuntza. Baina horien berrikusteko astirik ez izanez, beste hainbeste lan eta denbora eman dut Pirinio mendiak gaintzen ez dituzten hizkuntza portugesez eta gaztelauaz ezartzen».

⁷⁰ Ikus Dunoyer-en lan ederra, aitzineko Penitentzia liburuekin eta ondoko Konfeso-reen Bildumekin Azpilkuetaren Eskuliburua konparatzen duena. Nahiz ez duen gaia haiek bezala aurkezten, zuzenbidea eta teologia elkarretaratzen dituelakotz eta kasu konkrituak ere eztabaidatzen, bere ondoko kasuisten aitzindari agertzen zaigu nafarra. Eta Lopez Ortizek ere idatzi du: «Konfeso-reen Eskuliburua da dudarik gabe Azpilkuetaren liburu hoberena, argiena eta ordenatuena. Erakusten du gainera praktikotasun gaitza bai eta neurria, zuhurtzia, oreka ederra».

⁷¹ Lukurreriaz eta Kanbioez egin duen lanak erakusten du bere mende-ko ekonomia ongi ezagutzen zuela Azpilkuetak. Hastapeneko herabea-

rengatik asko zabaldu zituen gero, zilegi ziren finantza operazioen mugak. Vidal M., 549 or.

⁷² Arigita, op. cit., 57. Abertzale kutsuko Oloriz historialari nafarra zuzen zebilen zioelarik: «Euskaldunak gara nafarrok, euskaldunak odolez, euskaldunak etorkiz, euskaldunak mintzairaz, nortasunez eta ohituraz., 151 or. eta gainera «Azpilkueta ez zen izan handiki ospetsu bat, baina bai soil-soilik jakintsu argi bat

eta fraide miresgarri bat. Bi sentimendu horiek bakarrik betetzen zuten haren izpiritua: erlisionearen amodioak eta jakitatearen ohoreak», 191 or. Frantzian zelarik, haren «nafar itxurak galdu zuena irabazi zuen haren goxotasun erakargarriak; bereziegia eta berekoiegia zuena ordezkatzuz orokorragoa eta gizatiarragoa zenarekin, gure Doktor miresgarria bilakatu baitzen nolazpaitzora horrela Kosmopoliseko hiriritar zintzoa., 151 or».

Bibliografía

- ANDRES MELCHIADES, *La teología española en el siglo XVI. II*. Madrid 1977.
- ARIGITA LASA MARIANO, *El Doctor Navarro, Don Martin de Azpilcueta y, sus obras*. Estudio histórico-crítico, Pamplona 1895.
- BATAILLON MARCEL, *Erasmus y España*. Mexico 1950
- CROS L.J.M, *Saint François Xavier. Son pays, sa famille, sa vie*. Toulouse 1894
- CUERVO J, *Carranza y el Doctor Navarro*, «Ciencia Tomista» 6/7 (1912-1913)
- DUNOYER EMILIO, *l'Enchiridion Confesariorum del Navarro*, Pamplona 1957.
- GARCIA BARBERENA TOMAS, *Un canonista español, El Doctor D. Remigio de Goñi. Su obra. Su vida científica (1481-1554)* Pamplona 1947.
- AZPILCUETA, MARTIN DE, «Diccionario de Historia eclesiástica de España» I, 167-169 or.
- *Conferencia en memoria de Martin de Azpilcueta: La Norma en el Derecho Canonico. Actas del III Congreso Internacional de Derecho Canonico*, Pamplona 1979, 259-266 or.
- GETINO, LUIS ALONSO, *El maestro Fr. Francisco de Vitoria. Su vida, su doctrina e influencia*. Madrid 1930.
- GOÑI GAZTAMBIDE JOSE, *Por qué el Doctor Navarro no fue nombrado cardenal?* «Príncipe de Viana» 3 (1942) 419-155 or.
- *Noticias intimas sobre el Doctor Navarro*, «Príncipe de Viana» 4 (1948) 519-520 or.
- *Un decenio de estudios sobre el Doctor Navarro*, «Revista española de Derecho Canonico» 1 (1946) 815-831 or.
- *Un dictamen inédito del Dr. Navarro sobre Cruzada*, «Hispania» 6 (1946) 242-266 or.
- HURTER H, *Nomenclator litterarius theologiae catholicae*, III, 3 ed. Innsbruck 1907, c. 244-248 or.
- LAMBERT A, *Azpilcueta Martin de*, «Dictionnaire d'Histoire et de Géographie ecclésiastique» (1931) 1368-74 or.
- LARRAMENDI MARIA LUISA -OLARRA JOSE, *Miscelanea de noticias romanas acerca de Martin de Azpilcueta, Doctor Navarro*, Madrid Espasa-Calpe, 1943.

- LOPEZ ORTIZ JOSE, *Un canonista español del siglo XVI, el Doctor Navarro Don Martín de Azpilcueta*, «La Ciudad de Dios» 93 (1961) 271-301 or.
- MARTINENA RUIZ JUAN JOSE, *Catálogo documental de la Real Colegiata de Roncesvalles*, Pamplona 1979.
- NICOLAS ANTONIO, *Bibliotheca hispana nova*, I. Madrid 1788, 93-98 or.
- OLORIZ HERMILIO DE, *Nueva biografía del Doctor Navarro Don Martín de Azpilcueta y enumeración de sus obras*, Pamplona 1916.
- OSTOLAZA MARIA ISABEL, *Colección diplomática de Santa María de Roncesvalles (1127-1300)*. Pamplona 1978.
- PASTOR LUDOVICO, *Historia de los Papas*, XVI. Barcelona 1929.
- RECONDO IRIBARREN JOSE MARIA, *El Doctor Navarro Don Martín de Azpilcueta*, Pamplona 1971. Temas de cultura popular 112 Navarra.
- SERRANO LUCIANO, *Correspondencia diplomática entre España y la Santa Sede durante el pontificado de San Pío V*, 4 vols. Madrid 1914.
- TELLECHEA IDIGORAS JOSE IGNACIO, *El arzobispo Carranza y su tiempo*, 2 vols. Madrid 1968.
- *Fray Bartolomé Carranza, Documentos históricos*, IV y V (Archivo documental español 30) Madrid 1975-76.
- TORRE Y DEL CERRO ANTONIO DE, *La Universidad de Alcalá, Datos para su estudio*, Revista de Archivos, Bibliotecas y Museos, 20 (1909) 412-423; 21 (1909) 48-71, 261-285, 405-433.
- VIDAL MARCIANO, *Azpilcueta Martín de*, en Gran Enciclopedia Rialp, «549».
- SUZANA HERREROS LOPETEGUI, *El Reino de Navarra al nacimiento de Martín de Azpilcueta*, in «Estudios sobre el Doctor Navarro», Ediciones Universitarias de Navarra S. A., Pamplona 1988, 45-52 or.
- ALFREDO FLORISTAN IMIZCOZ, *Martín de Azpilcueta y la conquista del Reino de Navarra*, in «Estudios sobre el Doctor Navarro», 1988, 65-83 or.
- ELOY TEJERO, *El Doctor Navarro en la historia de la doctrina canónica y moral*, 125-180 or.
- JOSEP IGNASI SARANYANA, *Doctrina de Martín de Azpilcueta sobre la esencia del alma racional*, Ibid. 181-199 or.
- LUIS NAVARRO, *La potestad eclesiástica en Martín de Azpilcueta*, Ibid. 293-312 or.
- JORGE DE OTADUY, *La doctrina de Martín de Azpilcueta sobre la potestad civil*, Ibid. 313-330 or.
- JOSE A. CORRIENTE, *El Doctor Navarro Martín de Azpilcueta y el Derecho de Gentes*, Ibid. 331-347 or.
- HUGUES DIDIER, *Saint François Xavier, Correspondance 1535-1552 Lettres et Documents Traduction Intégrale*, Desclée de Brouwer, Bellarmín, 1987.
- GEORG SCHURHAMMER S. J., *Francisco Javier, Su vida y su tiempo*, 4 tomos, Pamplona, 1992.

AURKEZPENA

1991n, Klasikoak sorta abiatu zelarik, latinetik euskaraturik, ondu nuen, Tomas Mororen Utopia liburua. Geroztik, nihonek itzuli nuen F. Vitoriakoaren De Indis aipagarria eta, Jose Luis Alvarez Santa Cristinarekin lankidetzan, B. Spinozaren Etika liburua.

Eta hona non, orain, eskuratzen dudan Simon Durruty, *Elizako liburu tipiaren egilearengatik heldu zitzaidan mila orrialdeko liburua*: 1584an, Lyonen argitaratua, Martin Azpikuetako Doktor Nafarraren *Manuale Confessariorum & Poenitentium*, Jean Delumeau historialari ospetsuak gorai patzen duena.¹

1506. urtea dela-eta, gogoratu zait, Frantzes Xabierkoaren eta Joanes Leizarragakoaren V. mendeurrenaren ohoretan, hauen bien garaikidea eta Xabierkoaren askazia zen gizon jakintsu, bipil eta bihoz dunaren loretegi edo antologia honen, gaurko *nafar*, *bizkaino eta kantabre*² guztiei, hots, *heuskaldunei* irekitzea.

Ondorioz, erranen dut behin, Martin Azpilkueta Doktor Nafarraren *Antologia* honentzat, zer hautu egin dudana, urratsez

urrats: lehenik, J.I.Tellechea Idigoras eta J. Goñi Galarraga bi historialarien aholkuz, *Julio Gorricho Iruñeako kalonjeari* eskatu diot, jaun horrek berak, ez hain aspaldi, gatzelaniaz egina zuen XVI. gizaldiko nafar irakaslearen bio-bibliografia erabiltzeko eta euskaratzeko eskubidea. Jaun horri zor dizkiot eta ematen berehala, ene eskerrik beroenak, hark egina baitu liburu honen lehen kapitulua.

Bigarren kapituluan bildu ditut, 1540an Lisboatik, bere 34 urteekin, Ekialdeko Indietara abiatzean, *Frantzes Xabierkoak*, bere osaba *Azpilkuetako Martintxipiri*, Tolosa, Cahors, Salamanca eta Coimbrako lau unibertsitateetan, 48 urteetara heltzearekin, hain ospe handia bildua zuen Doktor Nafarrari, bidali zizkion bi gutunak. Nahiz beti eskas izanen ditugun Azpilkuetak berak Xabierkoari igorriak, nola ez konpara hala ere, J. Delumeauk egiten duen bezala *Konfesoreen eta Penitenteen Eskuliburua* idatzi zuen kanonistaren irakaspena eta Frantzes Xabierko misiolariak 1549ko beste gutun luze batean, aita Gaspard Berze flandestar jesuita lagunari bidali zion gomendioa, ahal bezain ezteki eta goxoki har zitzan Ormuz aldeko penitenteak³.

Hirugarren eta laugarren kapituluek sail bera daramate, hots, hor ikus dezakegu zer ote zen Azpilkuetaren garaian, Erdi Aroko teologiaren amaieran eta Berpizkundeko filosofiaren hasieran, irakasten zen eta irakasleen gogoan zebilen antropologia; eta, beraz, haren *Etikaren* oinarria. Horra zergatik elkarren ondoan jartzen ditugun, alde batetik, hirugarren kapituluan, *Manuale* aipatuaren latinezko edizioari egileak berak eratziki zizkion hamar aitzinsolas edo *preludia* guztien lerroa eta lehen aitzinsolas soilaren itzulpena; eta beste aldetik, eskuliburu nagusi horren beraren bilduma edo *Compendio* delakoa, anitz herri hizkuntzatan argitaratua: horretan hartu dugu Valladoliden, argitaratu bilduma eta gatzelaniatik bihurtu hamar aitzinsolas osoen euskal itzulpena.

Ildo beretik datoz, bosgarren eta seigarren kapituluak, ekintzen eta ohituren jakintza izan denaz geroz egundainotik, nolazpait⁴, latinez *Morala* edo grekoz *Etika* deitu jakintza. Eta beraz, aipu da lehenik, Eskuliburuko dekalogoaren bosgarren manamenduko *Ez duzu hilen!* aginduaren ondotik sartzen den, *Zezen laster antolatzaileen aurka*, 1567an, PioV.ak zabaldu zuen eskumikoa.

Seigarrenean berriz, 1570ean, Saint Germain hirian, Higanotekin, *de Tregua et Pace*, Meniaz eta bakeaz, Frantziako Xarles IX.ak, hitzartu zuen hitzarmenaz, Doktor Nafarrak eman iritzia dugu hautatu, adibide gisa, beste idazki arraro batzuen artetik, agiri hau baitzuten Erroman aurkitu eta argitaratu⁵, gure ikasketen kariatara ezagutu genituen Jose Olarra eta Maria Luisa Larramendi jaun-andre historialari tolosarrek.

Zazpigarren kapituluak, sarrarazten gaitu erdiz erdi, mendeetan barna, filosofia ala teologia politikoaren eztabaidetan gai nagusietarik izan den boterearen eta botere mota ezberdinen arteko liskarren muinean. Hor dugu horrela aurkitzen Erroman 1590ean argitaratu ziren Doktor Nafarraren latinezko Obra Osoen III. tomoko, Opera Omnia III Notabile III *Novit de judi - ciis*, kapituluaren berrirakurketako 3. Ohargarria: *Potestas Generaliter quid? Zer da, oro har boterea?* eta ondoko beste galdeak⁶.

Hortik landa datozen kapitulu guztiek erakusten dute zer kosta izan zitzaion Martin Azpilkuetari, bere adinean han hara joanez geroz, behin Espainian berean eta gero, Erroman eraman zituen bere bizi luzeko azken hogeitun urteetan, Inkizisioaren eta *Estatu boterearen aurka*, Erromako elizaren eskubideak zaintzea.

Zortzigarren kapitulan ematen da, *Carranzaren auzian* sartzeko deia izan orduko, Doktor Nafarrak, 1562ko otsailaren 25ean, Felipe II.ari berari, isilean, bidaltzen dizkion gutuna eta oroitidazkia, hau da, egundainotik guhonek edozein teologoren

partetik irakurri dugun Inkizisioa deitu erakundearen kontrako artikulurik gogorrena.

Bederatzigarrenean aldiz, agertzen dira, Carranzaren sententzia eman-eta berehala gertatu zen haren heriotzaren ondotik, haren abokatu bezala, Azpilkuetak idatzi txostena eta gutuna.

Hamargarrenean ordea, Trentoko kontzilioaren ondotik Pio V.ak ez diolarik Felipe II.ari berritu nahi *Gurutzadaren Bulda*, 1587ko apirilean, hemen dugu Doktor Nafarrak ere eman zuen bere iritzia.

Hamaikagarrenean berriz, ikus daiteke zergatik eta nola Aita Saindu berak ez zuen Azpilkueta kardinale egin, Felipe II.ak, Erroman bere esku zeuzkan Pacheco kardinalearen eta haren iduriko barrandari eta salatari guztiei esker(?).

Eta azkenik, hamabigarren kapituluan, hona, 1570ean, Alburquerqueko Dukeari, bere buruaren defendatzeko, Doktor Nafarrak bidali zion *Bere Buruaren Aldeko Gutun*, «Carta Apologética» guztiz aipatua.

Ez da errate beharrik, XVI. mendeko euskaldun nafar jakintsuenetarik baten historiatic eta idazkietarik haren filosofia eta teologia politikoaren antologia honen antolatzeke egin hautu xumeak bazter uzten dituela, *Otoitzaz, Sakramentuez, Lukurreriaz, Komentuez eta beste gai anitzez* gure legelari aipatuak eman irakaspenak eta argitaratu idazlanak.

Den bezala, interesgarri iduritzen zaigu, Antologia honen agertzea, XXI. mende berria hasteko grazia duten euskaldun gazteentzat, gaztetan guhoni norbaitek erakutsi zigun bezala, hauek ere Herria maitatzen ikas dezaten, beti aitzina joatekotan.

Nafarroa Beherean, Aiherra Lurzubiko Mugatik,
2006eko otsailaren 11an, Lurdako Bernadeta Zubirus
Sainduaren besta egunean.
Piarres Xarritton Zabaltzagarai Ehulatei

Oharrak

¹ J. Delumeau, *L'aveu et le pardon*, Paris, Fayard, 1990 (92-94 or.)

² Navarro, Biscaino eta Cantaber deitzen zuten XVI. mendean Xabier, Azpilkueta eta Leizarragaren garaiko *Hevscaldvnek* beren burua.

³ Hugues Didier, *Saint François Xavier, Correspondance 1532-155*, Desclée de Brouwer, 1987 (283 or.)

⁴ Ikus, Lucien Lévy-Bruhl, *La Morale et la Science des Mœurs* (1903) nahiz aspaldiko kontua

den eta Piarres Lafitte zenak entzuna zion jadanik bere irakasle ohi bati farrez erraten frantses soziologo handi horretaz: *Lévy brûle mais n'éclaire point*, hots Lévyk erretzen du, baina ez argitzen.

⁵ M.L. Larramendi-Olarra Jose, *Miscelanea de noticias romanas de Martin de Azpilcueta*, Madrid, 1943.

⁶ Auctore Martino ab Azpilcueta, «*Opera Omnia*» III. liburuki, Roma, 1590, Relectio cap. *Novit de judiciis*, Notabile III, *Potestas generaliter quid?* (168-176 or.).

1540an, FRANTZES XABIERKOAK,
LISBOATIK, MARTIN
AZPILKUETAKOARI COIMBRARA
BIDALI BI GUTUNAK

I.
Gutuna

Lisboatik 1540ko Irailaren 28a

Jhs.

Ene jaun agurgarria!

Hiri honetara helduz geroz eskuratu ditut zuk bidali dizkidazu bi gutunak, biak enetzat atxikimenduz eta maitasunez beteak. Agian eni idaztera bultzatu zaituen Jesu Kristo gure Jaunaren amodioak ordainduko du horrelako borondate ona eta karitatea, zeren nik, nahirik ere, ez baitut nehondik ene zorra betetzen ahal, ez ihardesten ahal zuk zure aldetik erakusten didazun borondate onari! Eta beraz ezagutzen baitut ene ahulezia, eta Jainkoaren bihotz onari esker baitakit, hain baliogabea izanagatik, ene buruaren zerbait argi edo bederen itzal badudala, saiatzen naiz Jainkoa baitan ezartzen ene fidantzia osoa, ezen ikusten dut ez diezaikedala nehoi hari zor diodan bezainbat esker bihur, eta beste gauza honek izigarri soleitzen nau, hots, jakiteak Jainko onak baduela aski indar zure arima sainduaren eta zure idurien nasaiki sariztatzeko ene orde.

Gero, gure gauzez mintzatzeko eta bereziki ene bizimoldeaz, atsegin handia nuke biok elkar ikusteko zortea etor balekigu, zeren gai honetaz nehork ez zaitu nihonek baino hobeki argituko. Agian gure Jainko Jaunak nahiko du, haren bihotz onak orain arte eman dizkidan grazia guztien ondotik, bizi honetan gareno, biok elkar ikus dezagun, ene laguna eta ni Indietara par-

titu aitzin. Eta orduan mintzatuko natzaizu xeheki, zuk zure eskutitzetan galdatzen dizkidazunez, zeren ez baita erraz gutunen bidez xehetasunetan sartzea, oro nahasi gabe. Bestalde, zure gutun batean erraten baitzenidan, gizartean ohi den bezala, anitz mintzo direla gure Lagundiaren bizimoldeaz, ez du biziki munta, Doktor agurgarria, jendek gu geu judika gaitzaten, bereziki deus zuzen jakin gabe jujatzen baldin bagaituzte.

Eskutitz hau eskuratzen dizuna Blas Gomez duzu; zure zerbitzari ona eta zure ikaslea nahi dena izan. Ene adiskide handia da eta ni ere bai harena. Ene aldetik, galdatzen dizut beraz, zure ikasle izateko eta zure zerbitzatzeko duen borondatea onar dezazun, ene otoitzek zerbait erdiesten ahal badute zureganik eta, zure bihotz onari esker, zernahi egin dezaketelakotz. Bestalde, zure zerbitzuko hartuz gazte hori zerbitzu egiten diozu Jainko Jaunari eta zuregain hartuz haren ikasketak atsegin handia nihoni; zeren gazte horrek letretan nahi du higitu bere gaztaroa. Badakizu gure Jainko Jaunak hainbeste jakitate talentu eman dizkizunaz geroz, eginbide duzula horietaz baliatzea, ez bakarrik zuretzat baina beste anitzentzat.

Izan bedi beti Jainko gure Jauna, zure begirale, halabiz!

Lisboatik, 1540ko Irailaren 28an, bizi izanen deno, Kristo baitan zure semea, Frantzes Xabierkoa

II. Gutuna

*Lisboatik 1540ko Azaroarenean Azpilkuetako Martin
Doktoreari*

Ene Jaun noble eta agurgarria!

Urriaren 25ean zuk idatzi eskutitzak hainbeste atsegin eta gozo eman dit, non deusek ez baininduen gehiago pozten ahal nola hain aspaldian igurikatzen nuen gutun haren eskuratzeak. Hor ikusi dut alabaina, zer neke eta arta sainduz behar zaren arduratu eta zein gartsuki irakasten ahal diezun Jesu Kristo gure Jaunaren zerbitzatzea baizik ikasi nahi ez duten ikasleei. Ez natzaizu beraz urrikariz ondotik ibiltzen, egin nezakeen bezala iduritzen balitzait Jesu Kristo gure Jaunak eman dizkizun talentu miragarri horiek ez dituzula baliatzen ebanjelioko zerbitzari leialak bezala; baina zuk badakizu ongi, zenbat eta handiago izan baita irabazteko jasan den nekea, hainbat eta ederrago dela lanaren saria. Zeren *anitz ontasunen jabe izanzen baita, gutirekin leial izan dena.*

Eta behin gerta baledi ohi duzun baino lan gehiago egin behar izatea, zure gain hartuko duzu gogotik lan hori, menturaz oroituz beste behin ez duzula hainbeste behartu zure izpiritua-
ren argi paregabea. Horrela zure ongiuz bozkariatzen garenok, atseginekin ikusten dugu betetzen dituzula zuhonek zure zorrak eta ez zure ondokoen gain uzten; ezen gaztigu garratzak jasanen dituzte beste munduan, beren ordenuan behar baino gehiago beren ondokoei fida izan direnek, horrengatik *beldur izateko baita Jainko bizidunaren eskutara erortzea, bereziki kontuen emateko ordua etortzen denean.*

Jainkoak nahi izan dizuenaz geroz eman hain nasaiki bes-
teekin partekatzeko bere irakaspenaren ezagutzeko grazia, egin dezala ere zuhonek berdin nasaiki helaraz diezaiezun bestei, hots, hau soilik behar dutela jakin zerbitzatzen beren Kreatzai-

lea eta gauza guztien Jaun eta Jabea, begien aitzinean atxikiz Jainkoaren loria eta haren ospea; *ez da ezen dudarik Jainko legeak eginen duela, bai egiazki, Doktor jakintsua, mundu honetan elkarren lagun izan garenok pairamenetan, elkarren kide izan gaitezen ere beste munduko gozamenetan.*

Gainera zuk erran bezala, eskutitz bat bidaliko diot Orreagako Jaun Prioreari, Motiloako Frantziskoren bitartez, Nafarrarat joanen delarik, hogeit bat egun barne, menturaz. Beste errateko guztiak uzten ditut, gutien ustean, buruz buru mintzatzen ahal garen eguneko, zeren eta zure gutunetan erakutsi didazun atxikimendu handiak behartzen bainau, ene aldetik, ahal bezain ongi zure deiari ihardestera. *Nihonek orde, zure aldera dudan atxikimendua ez dut aipatuko; Jainko Jaunak baitaki, berak bakarrik ezagutzen dituelakotz gure bion bihotzak, zein barna den finkatua gure bihotzean.*

Izan ontsa, Doktor ona eta, maita nazazu, egiten duzun bezala!

*Lisboatik, 1540ko azaroaren 4ko arrastirian,
Jainkoa baitan zure zerbitzari apala, Frantzes.*

PENITENTEEN ETA KONFESOREEN ENKIRIDION edo ESKULIBURUA

Besarkatzen dituen konfesio sailduetako bekatu, absoluzio, ordainketa, zentsura & irregulartasunetan gertatzen ohi diren kasik zalantza guztien soluzioak.

AZPILKUETAKO MARTIN, DOKTOR NAFARRAK EGINA

Orain laugarren aldikotz egileak berak berrikusia & zernahi tokitan zuzendua & beste anitzetan aberastua eta ondua.

Nahiz liburu hau oso osoa mintzo den, penitentziari esker, bekatorearen arimaren bekatutik askatzeaz, aitzinsolas zenbait aurkezten ditugu, haien gogoratzeak eta haztatzeak erakar gaitzakelakotz errazki, gu bekatoreok, onartzera gutarik batzuek Jainko guztiz on eta handiaren aldera gure esker tzarra, oharkabekeria eta ausartzia erakutsi dugula, tipien ordez handiak hautatuz eta berdin ongiaren ordez gaizkia eta hoberenaren ordez tzarrena. Eta horiek guztiak hamar sailetan bildu ditugu, nahiz ez dugun hor deus sartu, kasik guztientzat baliagarri eta beharrezko ez denik, zuzenbidearen bi alorrak landu dituztenez ere.

AITZINSOLASEN LERROA

Lehenak, gu garen bekatoreei erakusten digu zer den gure arimaren duintasuna.

Bigarrenak, zer diren haren indarrak eta sentsuen ahalak.

Hirugarrenak, zer diren haren indarrak eta adimenduaren ahalak.

Laugarrenak, zer den gure azken helburua eta kreatuak eta berrerosiak izan garen dohatsutasuna zer den eta zer baztertu behar dugun betiko zorigaitza.

Bosgarrenak, zer diren arimaren jaidurak eta ohiturak, haiek baikaramatzate merezimendura eta hoben gaitzera.

Seigarrenak, zer diren arimaren giza ekintzak, haiek baikaramatzate betiko zorionera edo zorigaitzera.

Zazpigarrenak, zer diren merezimenduak eta hobenak.

Zortzigarrenak, bi hoben mota: bekatu jatorrizkoa eta bekatu egitezkoa bereizten direla.

Bederatzigarrenak, egitezko bekatu ezberdinak badirela eta zer den bekatu larria edo mortala eta zer bekatu arina edo beniala; eta zerk bereizten dituen larria eta arina

Hamargarrenak, zer den penitentziako sakramentua eta zer haren parteak.

I.

AITZINSOLASA: ARIMA ARRAZOIDUNA ZER DEN.

Arima arrazoiduna dela diogularik, hauxe dugu adierazten:

Lehenbizikorik, gutarik anitzek gehiago behatzen diogunok gorputzari arimari baino, ez dugula hainbat entzuten 65. *Salmoaren* deia: *Jainkoari begirune diozuenok, zatozte eta*

*entzun! hark nire arimari egina kontatuko dizuet, ezen gorputza-
ren artatzen hartuegiak gara, ez gara hainbat axolatzen Jainkoak
egin ongiez. Horra zergatik Bernat dohatsuak erraten duen bere
Meditazioen hastapenean: Anitzek anitz badakite, baina beren
buruaz deus ez dakite; besteak aztertzen dituzte eta beren buruak
ahantzten, Jainkoa bilatzen kanpotik, baina galtzen barnetik,
Jainkoa bera dutelarik barnekoena Eta bestela: Oi zu ene arima,
Jainkoaren iduriak zeinatua, Haren eiteak apaindua, Hari fede -
ak hitzeman, Haren izpirituak dohatua, Haren odolak irabazia,
Haren aingeruekin parekatua, Dohatsutasunera deitua,
Zorionaren oinordekoa, Arrazoiak asebetetzekoa, zer duzu behar
horrenbeste malapatatu behar zaituen Haragiarengandik?*

Bigarrenekorik, ez dela nehoiz, gure arima arrazoiduna-
ren ezagutza osorik izaten ahal, Liburu Sainduen edo fede zuzen-
naren ezagutza beterik gabe. Horra zergatik, Aristotelesek III.
liburuaren 4. & 5. pasarteetan *Arimaz* idatzi duen definizioa
baztertuz, Tomas Akinoko jakintsu handiak bere *Bildumaren I.*
Parteko 76. galdearen 4. artikuluan honela aldatu zuen hura
bera, hots, *Arima arrazoiduna gorputz fisiko, organikoaren
egintza da, bizitzeko ahala duena, gure ustez egokiago iduritu
zaigun beste definizio hau proposatzea: Arima arrazoiduna sus -
tantzia bat da, berez sostengatzen dena, gorpuzgabea, hilezko -
rra, Jainkoak ezerezetik kreatua, noiz eta non ere isurtzen bai -
tio gorputzari, berez haren substantziazko forma izateko, doha -
tsutasuna erdiets dezan, graziari eta egintza onei esker.*

Erran dut: *Substantzia*; definizioak izan dezan generoa,
generoa eta diferentzia, biak behar baititu izan definizio zuzen
batek, teoriaz erakusten duen bezala Aristotelesek, *Topikoen* 6.
liburuko 1. & 2. kapituluetan eta praktikaz Ulpiano legelariak
Iruzurkeriaz eta *Lekukotasunaz* egin liburuen lehen orrialdee-
tan, non Bartolek eta bestek hori bera adierazten baitute. Eta
beraz substantzia hitza da giza arimaren generoa, zeren eta giza
arima bakoitza sustantzia baita, Tomas Handiak frogatzen duen
bezala, *Sententzien* 2. liburuaren 3. bereizketako galdearen 6.

artikuluan, nahiz bestaldera, edozein substantzia ez den giza arima.

Erran dut: *Berez sostengatzen dena*, landareen arima begetatibotik eta beste abereen arima sentsitibotik bereizteko, haiek ez baitute berenaz beren sostengurik, san Tomasek berak erakusten duen bezala *Bilduman I. Parteko* 75. galdearen 3. & 6. artikuluan & 76. galdearen 3. artikuluan.

Erran dut: *Gorpuzgabea*, gorpuzdun substantziatik bereizteko eta baztertzeko Diogenes eta beste filosofo arrotzak, erraten zutenak haizea edo airea dela arima, Isidoro dohatsuak salatzen duen bezala *Etorkien* edo *Etimologien* 2. liburuan, gizonaz eta haren zatiez idatzi kapituluan. Eta san Antoninok bere liburuaren 1. parteko 4. kapituluan heretiko zeuzkan Isidorok berak 8. liburuaren 5. kapituluko 24. pasartearen 3. galdean aipu zituen Tertulianoaren ikasle batzuk.

Erran dut: *Hilezkorra*. alde batetik ihardukitzeko Isidorok 5. kapitulu berean Arabiarren heresia deitzen duen arima gorputzarekin batean hiltzen dela diotenen usteari, hori heresia dela erran baitzuen Latrango kontzilioak 8. sesioko 1. kapituluaren hastapenean eta hori bera lehenago frogatu san Tomasek *Bildumaren I. Partearen* 61. galdeko 2. artikulua 3. & 4. zenbakietan eta 2. *Partearen* 2. zatian 164. galdeko 1. artikulua 1. zenbakian eta bestetik arima honen beste arimetarik bereizteko, haiek beren gorputzekin batean hiltzen baitira, pasarte berean san Tomasek erraten duen bezala *Clement* 1. iruzkinean eta bestalde adimenduez diharduelarik Trinitate sainduaz eta Fede katolikoaz dioelarik arima begetatiboaz hartaz baikara bizi, arima sentsitiboaz hartaz baitugu sendi, eta baitirudi hiru arima badirela gure baitan, hots, begetatiboa, sentsitiboa eta arrazoiduna eta hiltzen garelarik gure arima bi dira bakarrik hiltzen, (nahiz hau gaizki hartu duen Joanes Brunus-ek *de Sponsalibus* bere liburuan 14-4.) ezen jakina ez da hori zuzena, zeren eta gizon bakoitza baitan ez baitago arima arrazoidu-

naz beste arima bihirik, errana den bezala san Agustinen obren 3. tomoaren hasierako 15. kapituluan, *Elizaren Irakaspenez* diharduen liburuan eta nasaiki frogatua *I. Partearen* 76. galdeko 3. artikuluan eta *Contra Gentes*-ko 2. liburuaen 58. kapituluan & *de anima* 11. artikuluan & *Quodlibet* I 4. galdearen 1. artikuluan. Eta beraz horrela arima bera da bizidun bezala begetatiboa, sentibera bezala sentsitiboa eta arrazoidun bezala adimentsua.

Erran dut: *Jainkoak kreatua* Tertulianoaren heresia kondentatzeko, hark baitzioen aingeruek zituztela arimak kreatzen, san Agustinek, kondatzen duenaren arabera, *Quodvultdeum-i here-reziez* idatzi liburuaen 86. kapituluan, Atanasioaren Simboloaren kontra doazenez mintzo delarik eta bereziki Trinitate Sainduaz eta Fede Katolikoaz diharduen kapituluan, erakusten digularik *Jainkoa dela ageri diren eta ageri ez diren gauza guztien kreatzailea*.

Erran dut: *Ezdeusetarik* gnostikoen heresia saihesteko, hauek izen hori hartu omen baitzuten, beren ustez zeukaten jakitate handiaren adierazteko, san Agustinek dioen bezala behialako 6. kapituluan, san Isidorok bere 5. kapituluan erranaren arabera eta jende hauek berek erran zuten Jainkoaren naturatik eta ez ezdeusetarik kreatuak zirela arimak, nahiz heresia hori bera Manikeismoa deitua kondenatua izana zen Bakateko I. kontzilioaren 5. kapituluan hitz hauekin: *Nehork erran baleza, Manik eta Pszilianok erran zuten bezala, giza arimak eta aingeruak Jainkoaren substantziazatik datozela, hura bera anatema izan dadila!*

Erran dut: *noiz eta non ere isurtzen baitio gorputzari*, Origenisten uste okerra baztertzeko, erran omen baitzuten munduaren hastapenean giza arimak aingeruekin batean kreatuak izan zirela zeruan eta gero handik isuriak gorputzetara, san Isidorok salatu zuen bezala jadanik aipatu pasarte berean eta san Tomasek errepikatu *I. Partearen* 118. galdeko 4. artikuluan, ari

delarik gorputzetara isuri aitzin arimak kreatuak direla diotenen aurka, hala nola, I. Parteko 3. galdeari objektzioa egiten diotenen erranez gorputzera etorri aitzin arima bizi dela, nahiz hori heresia dela erran zuen Joani iruzkin egileak *Quod vero non forma - tum* 32. kapituluaren 2. galdean, hitz zinez gogoragarri hauek hautatu zituelarik *Sententzien* Irakaslearen 2. liburuko 17. bereizketatik: Hauxe da gure Fedea: *Jainkoak egunero kreatzen dituela arima berriak eta gorputz berrietara haiek isurtzen, eta beraz isurtzean kreatzen eta kreatean isurtzen*. Iritzi bereko da san Tomas, arruntean onartzen da, aipatu dugun *Sententzien* 2. liburuaren, 3. bereizketako 1. galdearen 4. artikuluko 1. zenbakian eta 17. bereizketako 2. galdearen 2. artikuluan eta 1. partearen 90. galdeko 4. artikuluan, horrela arima ez dela zeruan kreatzen, baina bai gorputzaren baitan eta ez gorputzera isuri aitzin, isurtzen delarik baizik, pasarte bereko 2. zenbakian erraten den bezala.

Erran dut: *berez haren substantziazko forma izateko*. Lehenik arima ez dela gorputzaren sustantziazko forma erran dutenen heresia saihesteko. Gero baztertzeko erran zutenak arrazoiduna delakotz bederen ez dela horrelako forma, haiek kondenatu baitzituen Vienako kontzilioak 1. Clement, *De summa Trinitate et fide catholica*, hitz hauekin: *Beraz irakaspen edo proposamen mota edozein baiestatzerara ausartatzen dena edo zalantzan ematen duena arima arrazoidunaren edo adimentsuaren sustantzia ez izatea egiazki eta berez giza gorputzaren forma, okerra delako eta egiazko fede katolikoaren etsaia, gaitzesten dugu aipatu kontzilio sainduaren baimenarekin*. Eta ikus san Tomasen 14. *Opusculum*.

Erran dut: Dohatsutasuna erdiets dezan, horrela baitugu erakutsiko zein den, gure arimak eta beraz guhaur kreatuak izan garen azken helburu zoriotsuena, san Agustinek erran bezala bere *enchiridion*-en 9. kapituluan, Maisuak gero errepikatu baitzuen *Sententzien* 2. liburuko 1. bereizketan: *Jainkoak egin zuen arrazoidun kreatura, goihen ongia ezagut zezan eta ezaguturik*

maita zezan eta maitaturik beregana zezan eta bereganaturik goza zezan.

Erran dut: Graziari esker, baztertu beharrez pelagiarren uste okerra diotelarik (san Agustinen arabera aipatu dugun *Ad Quodvultdeum* deitu heresien kontrako liburuaren 88. kapitulu- luan) guhaurek geure izatezko ahal hutsez, Jainkoaren joera orokorrarekin, baina haren graziatzko deus laguntza berezirik gabe, zuzen eta lorios eginak garela. Horiek ditu heretiko deit- zen san Isidorok 25. Pen. kapituluaren 3. galdean, jadanik aspaldian kondenatuak izan baitziren Milevoko kontzilioaren 5. kapituluan eta Afrikako kontzilioaren 80. kapituluan datorren 4. bereizketako *Konsekrazioaz* diharduten azken hiru oharretan eta azkenik Trentoko kontzilioaren 6 sesioko 1. kapituluan eta 1. 2. kanonetan, urrunago erranen dugun bezala, 3. aitzinsolasaren II. zenbakian.

Erran dut Egintza onei esker, adierazteko nahiz bataioa- ren eta penitentziaren bitartez lehen graziak zuzen egin gaituen, nehork bizkitartean ezin du bere egintza hutsekin duintasunez merezitu, aipatu dugun Trentoko kontzilioak erabaki duenaren arabera: ikus 5. kapitulua eta 1. eta 3. kanonak eta san Tomasek irakasten duen bezala: ikus 2. *Partearen* 1 zatian; 112. galdeko 1. artikulua eta 114. ko 2. an. Ez da ordea gizakirik adimendua- ren jabe izatera heldua denik lege arruntak zuzen egin dezakee- nik non ez duen aitzinetik berak zerbait ekintza zuzenlegez ona, bere nahitara egin, fedeak indarturik bada ere, san Agustinek erran duen bezala, *Omnis* kapituluko, *Kontsekrazioaz* 4. bereiz- ketan: *Jadanik bere biziaren jaun eta jabe izatera heldua den oro fededunen sakramentura hurbiltzen delarik non ez den damutzen bere aitzineko biziaz, ez du bizi berririk hasten ahal - ko damutze hortarik aitzina, haur ume soilak aldiz haiek bataia - tzen direlarik garbi dira ez dutenaz geroz beren nahiaren hau - tua erabili ahal izan eta hori bera erraten du liburu beraren *Firmissime* 15. kapituluko 1. galdean eta horren arabera irakas- ten san Tomasek 2. *Partearen* 1. Zatiko 113. galde osoan.*

Adimenduaren jabe izatera heldua denaz mintzo naiz, zeren umeak, haurrak eta helduak, jaiotzatik arrazoirik izan gabe bataioaren bitartez Jesu Kristo gure Jaunaren merezimenduetan parte hartu dutenak graziazko legearen pean heltzen dira zuzentasunera.

Ikus kapitulu gehienak bataioaz dihardutenak eta merezimendu beren baliatzeaz idatziak, lehengo natura legeaz eta zirkuntzizioaren eta horrentzat jarri beste sakrifizio eta eskaintzen bitartez erdiesten baitzen zuzentasun hura nahiz ez orain egiten den bezala sakramentuen obratze hutsez; ikus *Quod autem* kapitulua eta *Ex quo* kapitulua. *De consecratione* 4. bereizketa. Jesu Kristo gure Jaunaren arima loriosa eta beti benedikatua ordea lege berezi batez, haren aitzineko egintza ala merezimendurik gabe, bere kontzebitzeko lehen unetik beretik, ez zen izan bakarrik zuzena baina ere dohatsua, arimako dohatsutasun bereziaz dohatua, beste askoren ondotik eta aitzinetik san Tomasek erraten duen bezala 3. *Parteko* 19. galdearen 3. artikuluan eta *Sententzien* 3. liburuko 18. bereizketaren 2. 4. eta ondoko 9 artikuluetan eta 3. *Opusculuen* 236. kanonean. Berdin lege berezi berarengatik bere kontzebitzeko lehen unetik Andre dena Maria, Jainkoaren Ama, izana da guztiz garbia eta dohatsua; Berdin Joanes Batista eta Jeremias profeta jaio aitzin batere sakramenturik eta sakrifiziorik gabe zuzen eginak izan ziren ohar eta irakur daitekeenaren arabera Lukasen 1. kapituluan eta Jeremiaren 1.ean eta san Tomasek irakatsi bezala, 3. *Parteko* bereizketaren 17 galdearen 2. eta 6. artikuluetan eta 27. galde osoan eta *Sententzien* 3. liburuko 3. bereizketaren 1. galdeko 1. eta 2. artikuluetan.

Hirugarrenekorik adierazten dugu, gure definizioa horrela argitu ondoan,

Lehenik, hortik badator nola oker dabiltzan gizakien arimak zatitzen ahal direla asmatzen dutenak, hala nola bailitezke beste animatzaileen arimak eta ere buruak edo burux-

kak, besoxkak, eskuxkak eta animatzen eta formatzen dituzten gorputzeko zatien beste hatz behatzak. Arima arrazoiduna alabaina gauza gorpuzgabea eta zatiezina da eta ez du nehola-ko hatz behatzik; egia erran oso osoa da gorputz osoan eta osoa gorputzaren edozein zatitan, arimaren substantziari berrari eta esentziari doakion bezala eta denek onartzen dutenaren arabera, san Tomas jakintsuak hori bera irakasten baitu *1. Partearen* 8. galdeko 2. artikulua 3. zenbakian eta *3. Partearen* 46. galdeko 7. artikuluan eta *Sententzien* 1. libururen 8. bereizketako 5. galdearen 3. artikuluan, Agustin dohatsuak erran zuenaren ondotik *Trinitateaz* idatzi 6. libururen 6. kapitulan nola Jainko Handia bera den oso osoa mundu guztian eta oso osoa ere munduaren edozein zatitan, zeren orotan aurkitzen baita, Maisuak eta bestek diotenaren arabera *Sententzien* 1. liburuko 37. bereizketan eta san Tomasek berak delako *1. Partearen* 8. galdeko 2. artikuluan eta *Contra Gentes*-en 3. liburuko 68. galdean eta nola Jesu Kristoren gorputz guztiz saildua Eukaristiako sakramentu hazkurri eta miragarrian aurkitzen baita oso osorik ogiaren eta ardoaren itxura osoan ala itxura bakoitzaren baitan ala haren zati bakoitzean: ikus, *Singuli* kapitulua eta *Ubi pars* kapitulua, *De consecratione* 2. bereizketan. Eta gainera ez du aspaldi Trentoko kontzilioak 13. sesioko 3. kapitulan erabaki duela 3. kanonean heretikotzat edukitzea nor ere ukatzen baitu Jesu Kristoren gorputz osoa badagoela itxura bakoitzaren baitan, bai eta ere puskatu ondoan itxura bakoitzaren zati bakoitzaren baitan.

Bigarrenik, dator nola arima ez den gizakia: alde batetik, zeren lehenago 2. & 3. zenbakietan adierazi baitugu substantzia gorpuzgabea eta hilezkorra dela: ikus *Firmiter* kapitulua Trinitate Sainduaz eta Fede Katolikoaz deitu liburuan eta san Tomasek irakasten duena 23. *Opus*-ean eta bestaldetik bi partek osatzen baitute gizakia, hots, arima arrazoidunak eta gorputzak. Irakaspen hori eman zuen jadanik Inozentzio III. bezain lekuko

garrantzitsuak *In quadam kapituluaren Sed adversus, de celebratione missarum* pasartean dioelarik: *Gizakia izateko bi principio bederen beharrezko dira, hotz, gorputza eta arima, haiek biak elkarretaratuz zutik baitago egiazko gizona*. Eta hori bera irakatsi zuen gure aita guztiz saindu Agustinek, *De civitate Dei* ko 19. liburuaren 3. kapitulu osoan eta Moises 32. kapituluaren 2. galdean eta zehazkiago adierazi Tomas goihenak 1. Parteko 75. galdearen 4. artikuluan eta 79. galdearen 1. artikuluan, Aristotelesek lehenago erran bezala, Arimaz egin 2. liburuaren 3. pasartean.

Hirugarrenik, dator ez dituela nehork bereizi behar, nehork eiki egin ez dituen bezala, delako Agustinen Moises kapituluko hitz hauek ber berak: *Behar da lehenik egoitza osatu eta horrela egoiliarra erakarri*, iduri-eta arima arrazoiduna gorputzean dagoen, ontziko motorea itsasontzian eta etxeko egoliarra etxean bezala, zeren ez bailiteke giza gorputzaren egiazko forma izatezkoa. Uste hori ordea heretikoa da eta kondenatua, lehenago 5. zenbakian erran dugunaren arabera, kontzilioaren *Porro de Summa Trinitate et Fide Catholica*. 1. pasartean.

Laugarrenik, dator Jondoni Paulok Korintiarrei idatzi 2. gutuneko 4. kapitulan deitzen duelarik barruko gizakia haren parte adimentsua eta kanpoko gizakia haren parte sentsitiboa ez zuela horrela adierazi nahi bi parte horietarik edozein bereizirik dela gizakia Tertuliano deitu heretikoak hortik atera zuenaren arabera san Tomasek erran, irakurri zuen bezala 5. irakurketan, nahiz egiazki parte adimentsua den gizakiaren parte nagusia, ezen oker dabilta parte sentsitiboa dela parte nagusi hori uste dutenak eta beraz horrengatik gertatzen ohi zaio parte nagusi horri gizaki osoaren izena hartzea, san Tomasek berak aitortzen duen bezala 1. Partearen 75. galdeko 4. artikuluan 1. zenbakian eta nasaikiago oraino aitzinean aipatu dugun Jondoni Paulok Korintiarrei idatzi 2. gutuneko 4. kapituluaz egin 5. irakurketan.

Bosgarrenik, dator oliadura sakramentuaren lehen iruzki-
naren hastapenean erraten delarik bihotza dela arimaren egoi-
tza, ez dela uste izan behar bihotzean soilik dagoela arima eta
hortik kudeatzen duela gainerako gorputz osoa, nahiz berak
berehala zuzenean sustatzen eta formatzen dituen parte guztiak,
bizkitartean biziari doazkion ekintza gehienak bihotzean ditu
betetzen eta ez beste parte batzuetan, Virgilioren bertso hauek
dioten bezala:

Bihotz hortarik jausten da behin hatz behatzetaraino

Biziaren sua iturburuaren gainditik ibaiak iduri,

Ondotik eraikitzen biziaren lehen olha eta azkenean

Leihorretan hedatuz, arimak ditu pausatzen bere oin hatzak

Ez duzu ordea gorazarre lirain hortatik aterako, bihotza
bera bizi dela gorputzaren beste alderdiak baino lehen, ez eta
ere beste partetarik baino berantago urruntzen dela bihotzetik
arima, ezen arima Jainkoak kreatzen du ezdeusetarik espreski
prestatu eta egin duen gorpuzkitxoarekin batean, honen osota-
sunaren eta parte edozeinen substantzia forma baitezpadakoa
izateko gisan, gorpuzkitxo delakoa gizaki egiazko biziduna zuti
dadin, hori baita sinesmen arrunta, san Tomasek erran bezala *I
Partearen* 90. galdeko 2., 3 & 4. artikuluetan eta 75. galdeko 6.
artikuluan, bai eta Scotok, Bonaventurak eta beste askok
Sententzien 2. liburuko 17. bereizketan.

Seigarrenik, dator molde berean irakurri behar dela jada-
nik aipatu dugun Agustín dohatsuaren Moises 32. kapituluaren
2. galdeko errana: *Arima izpiritu baita ez daiteke idorrean egon,
horra zergatik errana den odolean duela bere egoitza* Beretik
dator ere Jeronimo dohatsuaren *Ne tales de consecratione* kapi-
tuluko 5. bereizketan erratean *Ez da arima bizitzen ahal, gai ez
baldin bada hazteko*, arima hitzak gizaki bizia adierazten duela,
horko iruzkin egileak ikusi duen bezala, sinekdokearen itxurak
hartzen baitu osoaren ordez zati soil (nahiz ondoko argitalpen

batek arima baino zuzenago darabilen hor berean animalia) gizaki arima alabaina, ez da ez handitzen ez tipitzen ahal eta beti berdin bera eta aldaezina gelditzen da jadanik erran dugun bezala eta hori frogatzen dute san Tomasek *1. Partearen* 75. galdeko 6. artikuluan, bai eta Scotok, Bonaventurak eta beste teologoen *Sententzien* 2. liburuko 17. bereizketan.

Zazpigarrenik, dator Virgilioren erran hau: *igneusolis est vigor et coelestis origo*; hots, «Suzko eltzeari dario biziaren indarra eta zerutik iturburua» onartzen baldin badugu natura legearen eta lege zibilaren iruzkin egileek egin ohi dutenaren arabera *Si institu* pasartean, gizakiei dagokiela, orduan egia da gizakien arimaren etorkia gertatzen dela Jainkoak berak zuzenki kreatzen duelarik ezdeusetarik enbrioia deitzen den gorputz-ttoan eta, jadanik errana dugun bezala, ez da zuzena, zeruko zati zerbaitetarik egina izan dela.

Zortzigarrenik, dator askoz gehiago gure gaiari dagokio-
la horiek guziak jakitea eta ausnartzea ezen ez eta beste zientzia batzuek, legezkoak edo beste, fede katolikoak batere beharrezko ez dituenak, alde batetik aitzinsolas honen hastapenetik san Bernaten aipamen hura egin baikenuen, bestetik Inozentzio Aita Sainduak Trinitate Sainduaz eta Fede Katolikoaz idatziaren *Firmiter* kapituluaren 6. artikuluan finkatu baitzuen bereziki Fede zuzenari dagozkion gaiak ikastea hobeago eta beharrago dela beste edozein zientziarenak baino, hala nola legezkoaren, eta berdin fededun soilentzat ere. Baitezpadako da alabaina fededun guztiek sinestea bederen inplizitoki fede katolikoaren gai guztiak, hau da sinestea orokorki egiak direla Erromako Eliza Katoliko Ama Sainduak sinesten dituen guztiak, bai eta ere espreski, san Tomasen arabera *2. Parteko* 2. Zatiaren 2. galdeko 5. & 6. artikuluetan, fedezko artikulua, bederen Elizak berak goraiatzan dituenak, teologo guztiek onartzen duten bezala: ikus hor berean 7. artikulua.

Bederatzigarrenik, dator eguneroko galdea izatea ea bada eta, zer heinetan bekatu egiten duten, aipatu diren gaien ingu-

ruan oker dabiltzanek, hots, ea heretikoak diren eta, haien aurkako zigorrak jasan behar dituztenetz?

Eta badirudi galde horri ihardetsi behar zaiola.

Lehenik, bai bekatu egiten dutela, non ez dituen beren zentzu eskasak edo ezjakintasun zuzenak zuritzen eta, beraz, heretiko direla beren uste oker horretan tematzen direno: ikus argudioa *clém; de sum. Trinit. & fid. catho. §. porro* erantsiz iruzkina *in verb. pertinaciter. de haeretic. de I§. pe.* erantsiz iruzkina *eod. verbo. de usur.* Ikus ere lehenago aipatu san Tomasen irakaspena.

Bigarrenik, ez direla heretiko ez baldin badira beren uste okerrean tematzen, hots, oraindanik arima gertu badute edo aldatzeko prest baldin badira eta alderantziz sinesteko, jakinez geroz zer duen sinesten Erromako elizak. Eta horrelakoak uste dut zernahi badirela, temarik edo hobenik gabe eta fede onez asmatzen baitute gizaki arimak, umetxo batzuek iduri, gorpuzetik ateraiak direla zeren eta maiz entzun edo irakurri baitute san Antonek ikusi zuela san Paulo lehen eremitaren arima itxura horretan aingeruek zerura eramaten, haren bizia kontatzean san Jeronimok erran bezala. Bai eta san Gregoriok ere, bere Elkarrizketen 2. liburuko 33. kapituluan idazten duenaren arabera, santa Eskolastikaren arima bere anaia Benedikto dohatsuak eraman omen zuen eta beste asko horrelako. Eta nola aingeruak umetxoen itxuran irudikatzen baitira, areago oraino Jainko Aita Ahalguztiduna bera ikusten da gizaki zahar lotsagarri baten itxuran irudikaturik eta Izpiritu Saindua uso batenean. Non nahi ikusten dira alabaina aingeruak umetxoen itxuran margoturik, Jaiotzaren laukietan eta Jesu Kristo gure Jaunaren Igokundean eta Andre dena Mariaren Jasokundean eta askotan gainera. Baina zergatik dute ikusten Jainko Aita, gizaki zahar eta lotsagarri baten itxuran irudikaturik eta Izpiritu Saindua uso baten itxuran, eta zertako dituzte asmakizun oker horiek asmatzen, zeren eta beren erretorek eta predi-

kariak ez baitie aski irakasten arimak eta aingeruak ez direla gorpuztunak eta are gutiago oraino Jainko Jaun Handiena eta Hoberena, nahiz irudi gorpuzkinekin irudikatzen diren hori gertatzen da zeren eta izaki izpirituzkoak eta gorpuzgabeak ez baitituzte gorpuzteko begiek ikusten ahal, egiazki diren bezala eta horrengatik dira itxuraz irudikatzen, adierazteko gisan itxura horien berezitasun eta ahalmen zenbait badituztela izakiek berek. Hala nola, zerura igaiten den umetxoaren arimaren itxurak haren xahutarzuna adierazten duen, eta berdin Jesusen Jaiotzaren eta Igokundearen eta haren Amaren Jasokundearen laukiak apaintzen dituen aingeruaren itxurak erran nahi du zinezko debozioa zor zaiela berehala. Jainko Aitari ematen zaion adin handiak aldiz gogoratzen digu haren probidentzia eta larderia handia. Usoaren lañotasuna eta maitasuna, Izpiritu Sainduaren lañotasun eta maitasun neurrigabearen itxura da, hura baita Aitaren eta Semearen lañotasun eta maitasun neurrigabearekin substantziaz bat egina. Gauza horiek alabaina aski ongi irakasten balira, delako asmakizun okerrak laster utz litzakete eta fededunek argi sinets lezakete ez dela neholako gorpuztaren begirik ikus dezakeenik ez arimarik ez aingerurik ez are gutiago Jainko Aitarik, ez Jainko bera den haren Semerik, ez Izpiritu Saindurik.

Hirugarrenik, gehienetan, aipatu ditugun asmakizunak, hots, Jainkoa, aingeruak eta arimak gorpuztunak edo gorpuzkiak direla uste dutelako, zoroki asmatzen eta sinesten dituzten fededunetarik, ez da bihirik heretikotzat hartu behar, ez eta ere bekatoretzat, bederen bekatore galdutzat hori fede on soilez egiten baldin badute. Ezen horren iduriko kasu batean Inozentzio Aita Sainduak erran zuen hori bera *De summa. Trinit. & fide catho.* liburuko *Firmiter* aipatu kapituluaren 7. zenbakian eta, ez nuen nehor ikusi horren ukatzen, nahiz alde agertu zen palermotarra bere oharretako 4. zenbakian eta ondokoetan komunzki onartutzat ematen zuela, hots, ez dela heretikoa, ez eta ere bekatorea, bere baitako arrazoiak makur

bultzaturik uste duena Jainko gaietan Aita lehenago eta zaharago dela Semea baino eta, Semea berriz Izpiritu Saindua baino, onartzen baldin badu bederen Elizak zuzen dezan, san Agustinek *dixit apostolus* 24. kapituluko 3. galdean *Heretiko guztien kontra* egin duen *Castren*. 1. liburuan, erran duen hori bera baitio 9. kapituluan beste edozein heresiaz, norbaitek hartan sinesten duelarik batere tematu gabe, baina hura onartuz, ez dakielakotz horrela Erromako eliza katoliko sainduaren aurka doala.

Laugarrenik, hori ere mugatu behar dela:

– *lehenbizikorik* ez dadin hel kanpoko foruraraino hor sartzan baitira aitzinetik heretikoak, nahiz ez den frogatu zinez heretikoak direla eta horra zergatik gehienetan beren nortasunarengatik zorrozkiago gaztigatzen diren hala direla frogatzen direnak edo aitortzen dutenak horrelakoak erran dituztela, ikus argudioak *Accusatus* kapituluan *de haereticis*. Liburuaren hasieran eta *I. & 3. &ean*.

– *bigarrenekorik* ez dadin ere hel kontzientziako foruan bekaturaino horiek fedezko gaiak direla jakitera behartuak direnek, nahiz beren faltaz ez dakiten, edo ez direlaketz horri ohar-tu, edo ez diotelaketz aski behatu. Azken hauek alabaina, Jainkoaren aitzinean eta beren kontzientziaren foruan ez baldin badira heretikotzat hartu behar, beste aipatu ditugunek zioten bezala eta, ondorioz ez badira sartzan heretikoaren aurka erabakiak diren zentsuren eta beste gaztiguen beste foru hartan, bekatore larritzat hartzen dira bizkitartean, zeren eta bakoitza jakite-ra behartua den legearen ez jakitea ez baita aitzakia baliagarria. Ikus §. *Notandum*. jarria dena *Si quem paenituerit*. kapituluaren pean 1. gald. 4. iruzk. eta beste idaztziak diren guztietan, eta *Ignorantia* kapituluaren iruzkinarekin eta hari eratxikiekin *De regul. iur. 6. lib.* eta san Tomasek dioena *1. 2. 76. gald. 1. & 2. art.* eta erran bezala Inozentziok berdintsu dauka, sinetsi behar diren fedezko artikuluei buruz elizgizonen eta laikoaren kasua ez

dela bera dioelarik eta panormitarrak oraino argiago aitzinetik erran bezala. Nahiz ez horiek ez bestek ez duten ene ustez aski garbi puntu hori finkatu, zentzuak berak erakusten du ezin argiago gauza bera dela jakitea eta jakiteko eginbidea; Nola zuk niri itzuli behar dizkidazun, nik zuri prestuz emanak gaiaz jadanik erran guztiak ikus-eta, argi ageri da larriki bekatu egiten dutela, jakinagatik kontrakoa fedezko dela, hain zuzen zernahi baiesten dutenek eta beraz, ez dakitenek, jakin behar baldin bazuten, larriki bekatu egiten dute, nahiz ezjakinean, gogoeta eskasian, sineste isilean eta xede birtualez baizik, fedezko zerbait bezala ezagutu duten eta horrela onartu, baina aitzakia baliagarri da burugogorkeriatik, zentsuretatik eta beste gaztigueterik begiratzeko. Ikus: *Haec est fides 2.2. q.1. & cap. Dixit Apostolus q.3. & xehekiago dio: Antoninok 2. p. tit. 12. cap. 5. §. 1.*

Ikus beraz bekatu horietarik bihi batek, ez beste edozeinek gogo hutsezko izan den ber, ez duela ez eskumikorik ez beste penarik merezi, izanik ere egiazko heresia eta bekatu zinez larria edo, erraten den bezala, mortala. Aipatu ditugun kasuetan, beraz, batzuk bekatu egiten dute mortalki eta heretikoak ere dira; bestek bekatu egiten dute mortalki eta ez dira heretiko; eta beste batzuk oraino ez dute bekaturik egiten benialki baizik

Lehen lerroan dator:

Lehenik, badakiena eta ohartua dena Erromako Eliza horren aurka dela baina berak sinesten duena arima ez dela substantzia, bere sostengatzen dena eta formatzen duen gorputzaz bestelakoa; ikus aitzinago 1. & 2. artikulua.

Bigarrenik, jakitate berarekin sinesten duena gorpuzki zerbait dela arima edo giza itxurako zerbait dela izaki xehe batean gordea: ikus 2. & 6. artikulua.

Hirugarrenik, jakitate berarekin sinesten duena arima hiltzen dela gorputzarekin batean: ikus aipatu artikulua berak.

Laugarrenik, jakitate berarekin sinesten duena aingeruek kreatzen dituztela arimak edo Jainkoaren substantziatik edo Haren zati batetik eginak direla: ikus 3. & 9. artikulua

Bosgarrenik, jakitate berarekin sinesten duena arimak kreatuak direla gorpuzkittoetara isuriak izan aitzin: ikus 3. artikulua.

Seigarrenik, jakitate berarekin sinesten duena arima ez dela arimaren substantziazko forma: ikus 4. artikulua.

Zazpigarrenik, jakitate berarekin sinesten duena gure baitarik salbatzen ahal garela, naturazko gure indar soilekin eta gure nahikara, naturaz goiko laguntza berezirik gabe.

Bigarren lerroan datoz, delako hutsak sinesten dituztenak ez jakinean edo Erromako Eliza horren aurka dela ohartu gabean eta hori balekite eta ohartzen balira ez litzakete gauza horiek sinets, baina behar dira jende horiek berak abisatu eta argitu.

Hirugarren lerroan datoz, aipatu hutsak sinesten dituztenak ez jakinean eta Erromako Elizak huts horien aurkako egiak sinesten dituela jakiteko eginbiderik ez duten guztiak.

KONFESOREEN eta PENITENTEEN ESKULIBURUAREN BILDUMA

I. AITZINSOLASA

Gizaki arima arrazoidunaren izatea eta esentzia

Nola gure *Konfesoreen Eskuliburu* guzian mintzo garen arimaz eta haren ekintza onez edo gaiztoez, haiek baitute hura salbatu edo kondenatu behar sekulakotz, lehen aitzinsolas honetan erraten eta frogatzen dut, hartaz hobeki baliatzeko, irakurleari dagokion zerbait xehetasun emanaz.

Lehenbizikorik *zer den arimaren izatea eta esentzia.* Ezen san Bernatek eta beste saildu batzuek eta lehen artikuluan aipatu idazle sakratuek dioten bezala: *Anitzek badakizkitez anitz gauza, baina deus ez dakitez, ez ezagutzen ere beren burua, ez dutenaz geroz ezagutzen ez beren arimaren izatea edo esentzia, ez haren ahalmenak.*

Bigarrenekorik erraten dut, *gizakiaren arima substantzia bat dela, berenaz egonkorra, gorpuzgabea, hilezkorra, Jainkoak ezdeusetik kreatua, noiz eta non bat egiten baitu gorputzarekin, hura formatuz bilakatzen delarik, graziari eta ekintza onei esker, dohatsutasunaren erdiesteko gai den substantziazko forma.*

Substantzia erraten dut, zeren eta definizio orok, zuzena izatekotz, eskatzen baitu beste hitz bat, definitzen den hura

zer genero edo motako den adierazteko, hala nola definizio honetan badugun *substantzia* hitza; giza arima bakoitza substantzia bat da alabaina, nahiz alderantziz edozein substantzia ez den giza arima, gure *Eskuliburuko* 2. artikuluan argitzen den bezala.

Berenaz egonkorra erraten dut, erakusteko bereizten dela landareak biziartzten dituen arima begetatibotik, bai eta arima sentzitibotik, honekin baitira bizi arrazoirik izan gabe bizi diren abereak; hauek guztiak ez dira berenaz egonkorrak eta, beren gorputzetik bereiziz geroz, ezin dira egon bizirik; arimak hiltzean, hiltzen dira berak ere. Gizakiaren arima, aldiz, haren gorputza hil ondoan harengandik bereizi denean, bizirik dago betiko, harengana itzultzeko lehia handi batekin, bakoitzaren edo guztien berpizte egunean itzultzeko gisan.

Gorpuzgabea erraten dut, erakusteko bereizten dela gauza gorpuzkin guztietarik eta gaitzesteko gure *Eskuliburuko* 3. artikuluan aipatzen ditugun filosofoak eta heretikoak, erran izan dutenak haize eta aire dela arima, zeren ez baita hori batere zuzena, gauza gorpuzkinak, alabaina, haizea eta airea dira, gizaki arima aldiz gorpuzgabea da eta gutiz izpirituala.

Hilezkorra erraten dut, erakusteko gezurra eta heretiko dela batzuk erran dutena, hots, gorputza hiltzen denean, arima arrazoiduna hiltzen dela, bai eta ere ez delakotz berdin gertatzen arima horrekin eta beste delako arima begetatiboarekin eta sentsitiboarekin, hauek, erran dugun bezala, hiltzen baitira haien gorputzak hiltzearekin. Eta, bestalde, ohartarazten dugu, gizaki bakoitzak ez duela arima bakar bat baizik, hau da arima arrazoiduna, eta gizaki bakoitzaren baitan horrek berak du egiten, landareen kasuan begetatiboak eta abereenean sentsitiboak egiten duen lana, nahiz gure *Eskuliburuko* 4. artikulua ohar iruzkin batean gaizki erraten den baditugula bakoitzak hiru arima, eta nahiz badakigun nola berdin jakintsu handi batzuek, oharkabea, hori bera duten asmatzen.

Jainkoak berak kreatua erraten dut, 4. artikuluan aipu diren heretikoen aurka, hauek baitzioten, aingeruek dituztela gizakien arimak kreatzen.

Ezdeusetarik erraten dut, beste heretiko batzuen aurka, hauek baitzioten, bere natura propiotik eta bere substantziazatik dituela Jainkoak kreatzen.

Noiz eta non sartzan den arima gorputzean erraten dut, baizik eta Jainkoak munduaren hastapenean kreatu dituela gizakien arima arrazoidun guztiak zeruetan, gaizki erran dutenen aurka, zeren eta, egiazki, gure Jainko Jaun Handiak baitu arima bakoitza kreatzen bere gorputzaren barnean, haren baitara isurtzen duelarik, haren substantziazko forma izateko eta horrela hari emateko gizaki izatea eta bizia, 4. artikuluan erran bezala.

Gorputzaren substantziazko forma izateko egina erraten dut, arima gorputzaren substantziazko forma dela ukatzen dutenen aurka egiteko.

Dohatsutasunaren erdiesteko gai dena erraten dut, zeren eta guztiak kreatuak izan garen azken fin zoriontsuaren bermatzeko gisan.

Graziari esker erraten dut, zeruko zoriona guk geure indar natural soilekin irabaz dezakegula gaizki erraten dutenen aurka, zeren eta, egiazki, nehork ez baitezake zerurik irabaz, Jainko guztiz onaren laguntza berezia eta grazia goihena izan gabe.

Ekintza onei esker erraten dut, *Eskuliburuko* 8. artikuluan erranarengatik eta obra onik egin gabe, fede soila aski dugula salbatuak izateko, erraten dutenen heresiaren kondenatzeko xedetan.

Hirugarrenekorik erraten eta frogatzen dut, gisa horretan aitzinatu den definiziotik datozela, gure *Eskuliburuko* 10. artikuluan, bederatzi ondorioetarik, hauek baliagarrienak baitira:

Lehena, errebelaturik dabiltzala asmatzen dutenak, arimek badutela buru, esku, zango eta beste atzaparño eta atzapar horiek oro gorputzeko atzapar berdinen parekoak direla, zeren eta delako definizioan erraten baita gorpuzgabea dela arima eta ez duela hatz ez behatz gorpuzkirik eta osorik dagoela gorputz osoan, eta oso-osorik gorputzeko zati bakoitzean; hala nola Jainkoa bera osorik baitago mundu osoan eta oso-osorik munduko alde bakoitzean bai eta nola Jesu Kristo gure Jauna osorik baitago ostia sakratuan eta oso-osorik ere ostiaren zati bakoitzean.

Bigarrena, arima ez dela gizakia bera, nahiz haren parte nagusia den, zeren eta arimak eta gorputzak osatzen baitute gizakia, eta gorputza hiltzen delarik, arima baitoa zerura, gozatzera betierean edo infernura betiko, edo purgatoriora apur batez pairatzera, eta gorputza hemen gelditzen da harren eta beste animalia basen janari.

Hirugarrena, oker dabilela uste duena arima gorputzean dagoela haren hornitzeko, ontziaren gobernaria ontzian dagoen bezala, ezen Erromako Eliza Ama Sainduaren sineste katolikoren arabera arima gorputzean dago haren substantziazko forma bezala hari emateko bizia eta fedea.

Laugarrena, oker dabiltzala ere asmatzen dutenak gorpuzdunak direla aingeruak eta okerrago oraino asmatzen dutenak horrelakoak direla Jainkoa bera eta Trinitate Sainduko hiru pertsonak, bigarren pertsonaz bestalde; zeren eta arima baino izpiritualago eta sinpleago baita aingerua eta haiek biak baino ere Jainkoa, neholako konparaziorik ere gabe.

Bigarren pertsonaz bestalde erran dugu, hau da Semeaz beste, zeren eta gizona den ber eta gure gizatasunarekin ezin miresgarriago bat egina duenaz geroz, gizon betegina baita *arima arrazoidunez eta gizaki haragiz zutik dagoena* eta, beraz, berak baititu gizaki beteginaren gorputzeko hatz eta behatz guztiak.

Bosgarrena, hain gaizki asmatzen dutenek Jainkoa, ain-geruak eta gizaki arimak gorpuzdunak direla, sinetsiz tematsuki zinez horrela, ez dutela bakarrik mortalki bekatu egiten, baina gainera heretikoak eta eskumikatuak direla, hitzez edo obraz uste oker hori kanpora erakutsi baldin badute. Baina ez dira horretan sartzen, oharkabean, ezjakinean edo konturatu ezean horiek guztiak asmatu dituztenak, baldin badute bederen nahikundea eta xede nabaria edo iduria Erromako Eliza Ama Sainduak sinesten duen egiaren sinesteko, irakatsi behar den bezala irakatsiko zaienean. Ezen haietarik zenbaitek ez dute bekatu egiten mortalki, beste batzuk benialki baizik ez, gure *Eskuliburuan* erraten eta frogatzen den bezala 15. artikuluan eta ondokoetan.

II.

AITZINSOLASA

*Arimaren ahalmenez, begetatiboa
eta sentsitiboa den bezainbatean.*

Lehenbizikorik, bigarren aitzinsolasean erraten da eta frogatzen Jainkoak bere neurrigabeko onezian ematen dizkiola gure arima arrazoidunari arima begetatiboaren indar eta ahalmen guztiak, haiekin bizi baitira landareak; nola ezen arima begetatiboak hiru indar edo ahalmen baititu, erran nahi da, jabea zaintzeko janaria, haren hazteko eta osabetetzeko hazkurria eta bera iduriko beste baten sortzeko hazia. Horra nola arima arrazoidunak egiten dituen hiru gauza horiek, ezen gizakia sortzen du, zaintzen eta hazten, bai eta bera iduriko bat dio eginarazten, halako gisaz non gizakiaren arima deitzen ahal baita zuzenki arima begetatiboa.

Bigarrenekorik erraten eta frogatzen da Jainko Handiak eman dizkiola ere gizakiari arima sentsitiboak dauzkan indar eta ahalmenak, haiei esker baitute sentitzen abereek, ezen eman

dizkio gizakiari abereak dauzkan hiru ahalmenak, hots, higiarazten duen higitzekoa, ezagutarazten duen ezagutzekoa, gutiziatzeko eta higuintzeko behar den tirria edo lehia. Hari esker ditu gizakiak mugiarazten besteak eta mugitzen da bera ere, eta haren bitartez dute ezagutzen kanpoko bost sentsuek, hots, *Ikusten, Entzuten, Usnatzen, Dastatzen, Hunkitzen*, bai eta berdin jakiten barneko lau sentsuek, hots, *Sentsu komunak, Gogamenak* (batzutan *Irudimena* deituak), *Jujamenduak, oroi-menak*: ikus 2. & 3. artikulua.

Hirugarrenkorik erraten da, delako ahalmen sentsitiboa, sentsualitatea deitzen dena komunzki, tirria ere badela, hark baitu gutiziatzen berari dagokiona eta gogaitzen kaltegarri iduritzen zaiona.

Laugarrenkorik erraten da, tirriatzean eta erresumintzean banatzen den sentsualitate berak obeditzen diola arrazoimenari, batzutan osoki eta bestetan hein batean, agertzen den bezala 5. artikuluan, eratzikiz 6. artikuluan ahalmen horiek bereizi behar direla arimarengatik.

Bosgarrenkorik erraten da eta frogatzen ez dutela bekatu mortalik egiten, aitzinsolas honetan arimaren ahalmenez erran diren gauzak gaizki sinesten dituztenek edo ongi sinesten ez dakitenek, hori ez duten ber tematuz egiten eta sinesten baldin badute ez dela gizakia baitan arima bat baizik, eiki arrazoiduna eta zinez delako arima arrazoidunak gizakia baitan egiten duela arima begetatiboak landaretan eta arima sentsitiboak abereetan egiten duten hura guztia eta, bestalde, azken bi horiek egiten ez dakiten bezala, gai izpiritualak, unibertsalak eta orokorrak aditzen dituela arima arrazoidun hark berak.

III. AITZINSOLASA

*Arimaren ahalmenez, arrazoiduna
edo adimenduna den bezainbatean.*

Hirugarren aitzinsolasean erraten eta frogatzen da:

Lehenbizikorik, aitzineko aitzinsolasean erran bezala, Jainko Handiak ez duela arima arrazoiduna arima begetatiboaren eta sentisitiboaren ahalmenez bakarrik apaindu, baina bestalde goraltxatu duela beste bi dohain hobeagoz eta handiagoz, bat aditzeko ahalmena, eskoletan Adimena deitzen dutena eta, bestea, berriz, nahi edo ez nahi izateko ahalmena, deitzen dutena Nahimena edo Borondatea.

Bigarrenekorik, erraten da: batzuen ustez azken bi ahalmen horiek arimaren substantziatik zinez bereizten direla, baina hartarik banatzen ahal ez diren bi eranskin bezala, lehen aitzinsolasean errana baita arima bera dela substantzia. Beste batzuk, ordea, diote ahalmen horiek direla egiazki arimaren substantzia: hau deitzen da Adimena, aditzen ahal duela erran nahi duela-kotz, eta deitzen da Nahimena nahi duelakotz edo ez duelakotz nahi, hala nola gizaki bera deitzen den Erregea erreinuaren jabe delakotz eta Dukea dukerria berea duelakotz, eta gu ere aburu horretara heldu gara 2. & 3. artikulua hauekin.

Hirugarrenekorik, erraten da: arima arrazoidunak, asko gisetara aditzeko ahalmena baduenaz geroz, asko izen mota dituela, bai eta nahi izateko edo ez nahi izateko ahalmena duen heinean, berdin beste hainbeste izen, 4. & 5. artikuluetan agertzen direnak.

Laugarrenekorik, erraten da arimaren ahalmen gutziasua, arima arrazoiduna den bezainbatean, ez dela batere haren ahalmen gutziatsua den berdina, arima sentisitiboa den bezainbatean. Lehenik ez baita sentisuala deitzen hura bezala. Gero ez baita erabiltzen soilik hunkigarri dituen gauzekin, baina bai adi-

garri zaizkion gai izpiritualekin. Eta, bestalde, anitz aldiz arbuia-tzen baitu Nahimenak gura duena, Jondoni Paulok Galatiarrei Vean erran zuen bezala: *Haragiak gutiziatzen du Izpirituaren aurka eta Izpirituak Haragiaren aurka*; haragiak erran nahi baitu sentsualitatea arima sentsitiboa den bezainbatean eta izpirituak erran nahi baitu nahimena arima arrazoiduna den bezainbatean. Eta azkenean nola arima motak bereizten baitira gosegaleak edo minkor-jauzkorrak diren heinean, gutziak halaber bi gisatakoak dira, baina lehenak aurkitzen ditugu bakarrik sentsuen munduan, besteak aldiz sentsuen, adimenaren ala izpirituarenean, erraten den bezala xehekiago 6. artikulutik 9. eraino.

Bosgarrenekorik erraten da, gure arimak baduela hautabidea, ez sentsitiboa delakotz, arrazoiduna delakotz baizik, eta arima bera adimenduna den bezainbatean hautabidea aitortzen zaio, nahi izateko edo ez izateko ahalmena duelakotz eta hori bere baitarik adimena duen ber ezagutza baitu 9. artikuluan erraten den bezala.

Seigarrenekorik erraten da, heretiko dela hautabidea ukatzen duena, bai eta heretiko dela dioena bera hain handia dela non bere baitarik eta Jainkoaren grazia berezirik gabe bere burua salbatzen ahal baitu. Baina bi mutur horien erditik Katolikoen fede sainduak adierazten duena hauxe da: hautabidea gure esku dugula, bakarrik bekatu egin ahal izateko, baina ez gure arimaren salbatzeko; hala nola, gure baitarik erortzen ahal garen putzu batean barna, baina ez haren zilotik ilkitzen ahal, ez gure burua salbatzen ahal, beste norbaiten laguntzarik gabe.

Zazpigarrenekorik, erraten da, egia hau ongi gogoan hartu eta aski dela, gure Jainko Handiaren aitzinean burua ukurtzeko eta ohartzeko zein gaitza den gure ezaxolkeria, behar genukeelarik gure indar guztiez bilatu delako laguntza berezia eta harekilako grazia eta iraupena; horri esker zerura hel gaitzen eta han Errege eta Erregina izan, nahiz hainbeste axolatu garen, halako laguntza eskatu dugun, eginahal guztiak egin ditu-

gun eta ondarea, ohorea eta bizia arriskatu, menturaz sekulakotz infernuan pairatzera joanaraziko gaituen gure Erregeen eta beste jaunen eskerraren erdiesteko.

Zortzigarrenekorik, 15. artikuluan, erraten eta frogatzen dugu, Jainkoaren, aingeruaren eta arima arrazoidunarena ezagutzeko erak ez direla berdinak, zeren eta Jainkoak ezagutzen baitu bere baitarik, neholako berri eta argibiderik gabe, bera delakotz zinez berria eta argia. Aingeruak eta arima arrazoidunak aldiz, berrien bitartez, hau da izatez beren substantzietarik bereizten diren eranskinez; baina aingeruak gaina hartzen dio arimari, zeren aingeruak gauza baten esentzia ezagutu orduko, ezagutzen baitu hartarik atera daitekeen guztia; ez ordea arimak, hau ez baita hortaritzen gogoetatuz baizik, eta batetik bestera ibiliz.

Bederatzigarrenekorik, erraten da, Jainkoak eman diola gizakiari ez bakarrik izatea beste kreatura guztiei bezala, bizitzea landareei bezala, sentitzea abereei bezala, baina bai eta ere adimena aingeruei bezala, gizaki hura eginez bera iduria; horrek ez baitu erran nahi gorputzak aurpegi eta hazpegi berdinak dituela (batzuk pentsatu eta pentsatzen duten bezala) adimenduna dela eta Jainkoa ezagut eta maita dezakeela aingeruak bezala, ez besterik. Horra zergatik ez den neholako gorpuzdunik bera Jainkoaren irudia dela erraten duenik, nahiz aski lehertua izanik, apur bat ezagut dezakeen bere burua. Eta, beraz, ez da zuzen uste izatea Jainkoaren itxura daramala gizakiak aurpegiaren, eta iduriz hori adierazten duen lege bati ihardesten zaio 16. artikuluan.

Hamargarrenekorik, erraten da, Jainkoa iduria kreatua izan dela emaztea, gizona bezala, eta Jondoni Paulok eta san Agustinek besterik erran baldin badute, ez direla mintzo gizonak duen Jainkoaren irudi nagusiaz, baina beste handiago batez, 17. artikuluan erraten den bezala.

Hamaika garrenekorik erraten da, Jainkoa iduria dela arima, ez bakarrik aipatu diren arrazoiengatik, baina bai ere

gizakiak gogorarazten dituelakotz Jainkoa eta Hirutasun Sainduko hiru pertsonak beren esentziekin eta beren oroitzeko, aditzeko eta maitatzeko hiru berezitasunekin, 18. artikuluan zuzenki erraten den bezala. Hori, ordea, ez dut hemen ezartzen, hobeki baitoakio meditazioari erasiari baino eta, beraz, bi gauza baizik ez ditut erantsiko bestalde erran diodanari:

Lehena da, san Agustinek eta san Bernatek errana, hots, Jainko gure Kreatzailea ezagutzeko biderik hoberena kanpoko gauzak ezagutzuz arimaren barnera sartzea dela eta, ikusiz eta hausnartuz zer den arima, zer diren haren ahalmenak eta berezitasunak, Jainkoaren ezagutza goiheneraino heltzea.

Bigarrena da, infernuko sutik bezala begiratu behar garelara, 19. artikuluan aipatzen ditudan asmakizun oker eta madarikatuetarik, asmatuz Jainko pertsonen sortzea gorputzetik datorrela, izpiritu soiletik heldu delarik osoki. Eta badu horrek arimak bere buruaren ezagutzeko xiripaz sortzen duen jaiotza izpiritalaren apur bat itxura, bere alaba bezala duena, haren bitartez baitu pizten xiripaz bere buruaren maitatzeko maitasuna. Horra nola, ezin erranezko molde batean, Aita Betierekoak, Hirutasun Sainduko lehen pertsonak, bere burua ezagutzean sortzen duen substantziazko ezagutza bat, haren Semea dena eta Hirutasuneko bigarren pertsona; eta honekin batean sortzen du ere substantziazko maitasuna, harekin elkar maita dezaten, hura baita Izpiritu Saindua, Hirutasuneko hirugarren pertsona, artikulu berean sakonki erraten den bezala.

Gogorarazten dut, azkenik, Jondoni Joanek bere Ebanjelioko lehen kapituluan idatzi duela: «*Hastapenean bazen Hitzia eta Jainkoa baitan zen Hitzia eta Jainkoa zen Hitzia*».

Hamabigarrenekorik , erraten da eta frogatzen, hemen erran denaren aurka bekatu egiten duela:

Lehenik uste duenak ez duela gizakiak hautabiderik, edo berak bakarrik erdiesten ahal duela Jainkoaren adiskidantza eta grazia, haren laguntza berezirik gabe.

Bigarrenik uste duenak aingeruek eta arimek beren baitarik ezagutzen dutela, beren substantzietarik egiazki bereziak diren noziorik gabe edo Jainkoak nozio horiek behar dituela ezagutzeko.

Hirugarrenik uste duenak Jainkoa iduria dela gizakia bere gorputzaren itxuragatik eta areago oraino uste duenak gorputzetik datorrela Aitak Semea sortzen duen Jainkozko jaiotza.

Laugarrenik jakiteko, horietarik zeinek ez duen bekatu egiten edo zeinek benialki edo zeinek mortalki, eta gainera, zein eskumikatua den, berrikusten ahal da lehen aitzinsolasaren hondarrean erran dena.

IV.

AITZINSOLASA

*Zeruko zorion osoaz eta infernuko
gizakiaren zorigaitz osoaz.*

Laugarren aitzinsolasak erraten du eta frogatzen:

Lehenbizikorik, zeruko zorion egiazko osoaren eta infernuko zorigaitz egiazko osoaren maiz gogoratzea dela, gure bekatuen penitentzia osoa egitera erakartzen ahal gaituzten gauza hoberenetarik bat.

Bigarrenekorik behar dugula onartu, gure Jainko zuhurtziaz beteak ez dituela kreatu arrazoirik gabe eta alferretan hain izate handi, gora eta bikaineko gure arimak, ez eta ere haiek apaindu hain ahalmen aberatsez, begien aitzinean izan gabe, dirudienez, zein izanen den haien azken fina eta gelditzeko azken geltokia, bizi diren batzuk uste duten bezala. Eta ez gaitu horrek harritu behar, zeren eta munduko egiazko argia hura baitzen eta hura baita, Jesu Kristo gure Jauna mundura etorri aitzin sortu ziren gehienek, nahiz jakintsuenek, ez baitute jakin zer den, ez nolakoa den zoriona, ez eta zein azken finentzat kreatuak izan garen.

Hirugarrenetik orik erraten da, zer den, orokorrean, azken fin horren definizioa eta zein diren horren aldeak, baina ez nahiz luzatu, ez dira zehazten zati guztien definizioak eta aldeak.

Laugarrenetik erraten da, kreatuak izan garen gure azken fina eta zoriona dela, gure ongi egiazkoa eta goihena, neholako eskasik gabea. Ondorioz, ez da hura ez gorputzeko osasuna, ez ohorea, ez boterea, ez aberastasuna, ez atsegina, ez beste gorpuzkin ezer; ezen ez da ontasun horietarik bihi bat, zerbait ments ez duenik, erraten den bezala: *ondu batentzat beti bi gordin*. Eta, bestalde, hortik dator ere zorion hura izpirituala izatea eta gorputzeko edozein sentsurentzat ikusi ezina; hori konprenitu baitzuten, Kristau batzuen desohorearengatik, federik gabeko filosofoek, gure kide haiek erakusten zutelarik osasuna, ohoreak, aberastasanak, atseginak zeuzkatela berek lehen eta ontasun horien biltzeko baizik ez zirela ez bermatuko ez eta lanean ariko.

Bosgarrenetik erraten da bereizi behar dela Kreatzailearen zoriona eta kreaturaren zoriona: Kreatzailearen zoriona, Jainkoa bera da, Izpiritu huts dena eta mugarik gabeko gozoarekin ezagutzen eta maitatzen dituen bai bere burua bai bere kreatura guztiak, beren esentzia hutsarengatik, hartaz beste ezagutza edo maitasun eranskin zinez bereizirik gabe. Kreaturen zoriona Jainkoaren ezagutza da, hortik datorren maitasun eta gozoarekin. Eta Jainkoaren ezagutza bi gisetara datorkigu: bate-tik intuizioz edo begizkoa, hartaz Jondoni Pauloren arabera buruz buru ikusten baitugu gure Jainkoa, eta bestetik abstraktua edo bahetuzkoa deitzen dena, Hura bera ezagutzen baitugu hor ez balitz bezalako norbait bezala.

Kreaturen zoriona ere egiazkoa da, baina badira hartarik bi mota; bat perfektua edo betegina, intuiziozkoa edo begizkoa, arimak buruz buru ikusten duelarik Jainkoa, hortik datorren maitasun eta gozo goihenarekin, nahiz ez dugun hau erdiesten ahal gure bizi hilkor honetan. Bestea, ez osoa ez betea, abstrak-

ziozko ezagutza lauso edo lanbrotsua, hortik datorren maitasun eta gozoaren izateko bizi honetan lan egin ahal eta behar duguna, jakinez segurki, zenbat eta Jainkoaren laguntza jarraikiago izan ariman, hainbat eta zoriontsuago izanen garela bakoitza gure bizian. Ageri da, beraz, hortik, zein makur gabiltzan, bate-re herriaren ala bakoitzaren beharrik gabe, bilatzen ditugularik ohoreak, jabegoak, ontasun handiak, jakinez edo jakin beharrez horiek oro har eta sasi direla bizi honetako zorionaren asmatzeko eta erdiesteko, hau baita gogoetatzea eta maitatzea hortik datorren gozoarekin, erraten den bezala luzekiago, 5. artikuluko honetatik 14. artikuluraino.

Seigarrenekorik erraten da, harritzeko dela nola guztiek zoriona gura dugun eta behar genukeen hura begien aitzinean ezarri jomuga bezala gure ekintzen zuzentzeko, hala nola arranbelariak helmugan ezarri jomugara beren geziak zuzentzen dituzten, eta helarazten, nahiz hauek guti diren, gauza horren egiten saiatu diren beste guztien aldean.

Zazpigarrenekorik erraten da eskuko zoriona ez dela ez arimaren ez honen ahalmen edo azturaren menpe, baina eginal hal handieneko ariketa izpirituala, hots, adimenduaren eta kasik horren bete den beste ahalmenaren edo nahimenaren lana; hau baita Jainkoaren ikustea eta maitatzea gozo bete handienarekin, neholako ilundura kutsurik ez hutsik gabe.

Zortzigarrenekorik erraten da delako zorion beteginak edo perfektuak asebetetzen dituela gizakiak naturalki edozein ontasunez hazten dituen lehia guztiak; ezen Jainkoaren bihotz onari esker hura erdietsi duen edozein atso, eri, gaixo, zahar, itxuragabeko, erromes zokoratuk izanen du betiko osagarri betea, jakinen du edozein jakintzatan munduko doktor guztiek baino gehiago, bere arimako eta gorputzeko urrats guztietan zuzen ibiliko da eta izanen da guztiz aberatsa, guztiz prestua, Erregeen Errege den Jesu Kristo gure Jaunarekin Errege izanez eta nehoiz nehongo gizakiak ez ikusi, ez entzun, ez amestu ez dituen aberastasun, atsegin eta bozkarioen jabe izanen delarik,

Isaiasek eta Jondoni Paulok erran zuten eta orain bizi duten eta guk geuk ere ikusiko dugun bezala, agian, Jainko gure Jaunaren grazian hilen garenean.

Bederatzigarrenekorik erraten da, dohatsutasunaren eta zorion betearen kontrakoa zorigaitz osoa eta miseria dela, eta nola baita ere egiazko gaitza eta itxurazko gaitza egiazko gaitza ez dena, gisa berean, bada, itxurazko zorigaitza, egiazkoa ez dena, hala nola, ez bere burua ez beste nehor eho ez dezan, burdinez loturik presondegian ezarri den ero amorratuaren kasuan. Oro har egiazko zorigaitza edo miseria da gaitz egiazkoa jasatea.

Hamargarrenekorik erraten da, nola egiazko gaitza zati-tzen den bi gaitz motatan, gaitz perfektua eta gaitz ez perfektua, gisa berean, bereizten dira zorigaitz osoa eta ez osoa. Zorigaitz osoa eta perfektua, ordea, ez da besterik, Jainkoa ezin ikustea, ezin maitatzea eta ezin gozatzea baizik, sentsuen betiko gazi-gua pairatuz beste gaitz mota guztiekin. Eta, ondorioz, nola bizi honetan ez baita dohatsutasun osorik, ez da ere izanen zorigaitz osorik. Horrela da berdin haur tipiek eta beste, bataioa izan aitzin, jatorrizko bekatu soilarekin hil direnek linboetan pairatzen dutena, zeren, nahiz ez duten Jainkoa ikusten ahal, ez dute horrengatik tormenturik jasaten. Ez da ere horrela purgatorioan direnek pairatzen dutena, hauek jasaten duten gazi-gua ez baita betirakoa. Baina horrelakoa da beren bekatu mortalengatik sekulakotzat infernura kondenatuak direnen zorigaitza, zeren betikoa baita, eta, Jobek erranaren arabera, ez baitu horrek ez berrerosterik, ez beste aterabiderik.

Hamaika garrenekorik erraten da san Antoninok bildu zituela Joben erranetarik zazpi oinaze mota bekatu mortalean hiltzen diren gaixo dohakabeek pairatzen dituztenak:

Lehena da, sekulako presondegia, bere hondakin, zikin-keria eta usain tzarrekin jasan beharko dutena, mundu gorpuz-kin honen garbitzera etorriko delarik azken judizioaren egune-ko sua.

Bigarrena da, egin den bekatu mortalarengatik Jainkoaren ezin ikustea eta hortik datorren maitasun eta gozorik-eza, hura baita san Krisostomoren arabera, beste min guztiak bildurik baino min handiagoa.

Hirugarrena da, san Agustinek erran bezala, mundu honetako beste zernahik baino gehiago gaixo dohakabeak ausikitzen eta erretzen dituenugarria.

Laugarrena da, etsimendua, beren dolumin atsekabeek ez dutela sekula santan bururatzetik izanen jakitetik sortua.

Bosgarrena da, batere argirik gabeko ilun beltza, ezen parerik gabe, mundu honetako su edozeinek baino gehiago erretzen duen su hura, ilun eta beltza, argi izpirik gabea da.

Seigarrena da deabruen begiratze eta etengabeko buruz buru lazgarria eta hain izigarria, non saindu batek, behin haietarik bat ikusi ondoan, erran baitzuen, hura berriz ikusi baino, nahiago zuela labe gorrian sartu.

Zazpigarrena da Jainkoa eta haren sainduak eta haiekin bizi diren deabruak eta gaixo dohakabeak berak betiere laidoztatzen eta madarikatzen dituzten oihu, negar, orro, laido eta ele-gaiztoen nahasketa.

Hamabigarrenekorik, erraten da guztiak behartuak gara-la, bekatu mortalaren mehatxupear, ez bakarrik sinestera orokorrean, Erromako Eliza Katoliko Sainduak sinesten duen bezala, ba jende onentzat badela bizia eta betiereko dohatsutatsuna eta jende gaiztoentzat heriotza eta betiereko zorigaitza, baina, bestalde eta, bereziki, gure *Eskuliburuaren* 15. artikuluan idatzi dugun arrazoiarengatik behar ditugula, artetan bederen, oinaze horiek gogoan hartu, zeren jende erranaren arabera, infernura behar dugu orok itzuli bat egin, edo bizi gareno, edo hil ondoan: bizi garelarik han pairatzen diren oinazeak gogoan hartuz, haietarik begiratzeko; bestela, hil eta gero oinaze haien jasateko. Agian Jesu Kristo gure Jaunaren bihotz onak begira gaitzala haietarik, halabiz!

V.
AITZINSOLASA
*Arimako pasioez, ohiturez,
bertutez, eta bizioez*

Lehenbizikorik, bosgarren aitzinsolasean erraten da eta frogatzen bertutearen mugimendua edo sentsu gurarien ahalmena dela arimaren irrika edo pasioa, arima bultzatzen duena, berak asmatu ongiaren edo gaitzaren aldera.

Bigarrenekorik, arimako lau pasio mota nagusi badirela: gale joerako bi, erran nahi da, bozkarioa eta tristura, eta jauzkor joerako beste bi, erran nahi da, itxaropena eta beldurra; eta, arima kudeatu behar lukeen arrazoia, irrika horiek dutela nahastu, lau aldeetako haizeek, hots, Iparrak, Hegoak, Eguzkiak eta Mendebalak itsasoa harrotzen duten bezala.

Hirugarrenekorik, erraten da bozkarioa sortzen dela hor dagoen onetik, eta tristura, aldiz, hor dagoen gaitzetik; itxaropena, berriz, datorren onetik, eta beldurra, azkenik, datorren gaitzetik. Baina ikusten da badela irrika mota bat, haserrea, kontrakorik ez duena, ez baitaio besterik gelditzen uko egitea baizik.

Laugarrenekorik erraten da lau irrika edo pasio nagusi horietarik bestalde, badirela horietarik datozen beste zazpi, ez hain garrantzitsuak eta nolazpait horietara biltzen direnak, hala nola baitira maitasuna eta guraria, aihergoa eta 3. artikuluan aipatzen eta frogatzen diren besteak, 4. artikuluan erantsiz, irrika batzuk beren etorkiz onak direnak, bihotzona eta ahalkea bezala, eta beste batzuk beren etorkiz gaitzak, auzoaren onak sortu tristura eta auzoaren gaitzak sortu poza bezala.

Bosgarrenekorik, erraten da horrengatik ez dela zuzena estoikoek ziotena, alegia, arimako pasio guztiak gaitzak direla, zeren eta arrazoiaren araberakoak zinez onak baitira eta haren

aurkakoak, berriz, gaitzak, 7. artikuluan adibideei eta lekukotasunei esker argi frogatzen baita bereizi behar direla bozkario ona eta gaitza, tristura ona eta gaitza, maitasun ona eta gaitza, itxaropen ona eta gaitza, eta abar.

Seigarrenekorik, erraten da arimaren esentziari edo zerbaiten egitera daraman haren ahalmenari datxekion kalitate iraunkorra dela arimaren ohitura. Eta *kalitatea* erran dut zeren eta ohitura guztiak kalitateak eta arimaren esentziatik eta substantziatik bereizten diren eranskinak baitira.

Iraunkorra erran dut, ekintza eta lan iragankorretarik bereizteko, zeren eta anitz aldiz egin den zerbaiten ondotik gelditzen den usaia eta kostuma baita ohitura, eta egiteko ekintza iragankorra eta iragana izanik ere, hura egiteko aztura eta usaia gelditzen baita.

Arimaren esentziari datxekiola erran dut, *gratum faciens* edo graziaren jabe egiten duen graziaren, hots, haren jabe dena Jainkoaren adiskide egiten duenaren, bazter uzteko. Grazia hau, alabaina, ez da ez Izpiritu Saindua ez gure arima bera, haiek substantziak baitira, hau aldiz eranskin berezi bat da, arimari datxekiona. Gaurko heretikoen aurka eta katoliko batzuen arabera zinez karitateaz besterik da, nahiz ez den nehoiz hura gabe aurkitzen. Beste katoliko batzuen ustez, biak gauza bera dira eta edozein bekatu mortalek galarazten ditu biak, nahiz heretiko batzuen aurka erranen den ez dela horrengatik galtzen ez esperantza ez fedea.

Arimaren ahalmen bat dela erran dut, zerbaiten egitera bultzatzen duten beste ohiturak aipatzeko, hala nola justiziaren edo zuzentasunaren bertutea, bakoitzari berearen ematera bultzatzen duena gizon zuzena eta, injustiziaren bizioa, besteari berea kentzera bultzatzen baitu gaiztoa.

Zazpigarrenekorik, erraten da ohitura batzuk deitzen direla *isuriak*, zeren eta Jainkoak berak baititu kreatzen eta gure baitara isurtzen; horiek dira delako grazia eta karitatea eta bes-

teak deitzen dira *ikasiak*, zeren eta, anitz aldiz gauza beraren egitetik baitatoz; gauza beraren anitz aldiz egitetik dator, alabaina, haren iduriko beste gauza baten egiteko erraztasuna.

Zortzigarrenekorik, erraten da ohitura ikasia izaten dela edo ona edo gaitza: ohitura ona deitzen da *bertutea*, eta ohitura gaitza, berriz, *bizioa*. Hala nola lagunari anitz aldiz ongiaren egitetik datorren usaia edo ohitura izaten da zuzentasunaren bertutea eta horrela deitzen eta maiz amoinak egitetik datorren ohitura deitzen da *miserikordia* eta urrikalmendua edo gupida. Baina alderantziz, beste norbaiti harena den zerbaiten berretzetik eta ebastetik sortzen den kostuma deitzen da *bizioa* eta zuzengabekeria edo *bidegabekeria*; eta lizunkeriazko bizioa da eta deitzen da lizun gose edo gale izatea.

Bederatzigarrenekorik, erraten da bekatu egiten duela hemen erranaren aurka sinesten duenak arimako irrika edo pasio guztiak bekatu direla, bai eta sinesten duenak karitatea edo grazia galduz geroz galdua dela bai fedea bai eta esperantza.

VI.

AITZINSOLASA

Arima arrazoidunaren erabakiez eta ekintzez

Seigarren aitzinsolasean erraten da eta frogatzen:

Lehenbizikorik, gizakiaren arima jadanik erran bezala, berenaz hain handia, hain gora eta hain ohoragarria dena, arrazoiaren erabiltzeko mailara heldu orduko behar dela bizi hone-tan salbatu edo kondenatu, gizatiarrak, humanoak edo moralak deitzen diren haren erabakien eta ekintzen arabera.

Bigarrenekorik, erraten da gizakiaren erabaki edo ekintza gizatiarra edo, gauza bera baita, morala dela bakarrik nahi-tara egin den edo egin ez den egitate iragankorra, besterik ez.

Erran dugu *iragankorra*, baztertzeo ohiturak, hauek eranskin iraunkorrak direlaketz, 5. aitzinsolasean erran bezala, haiek sortzen dituzten erabakiek eta ekintzek baino gehiago irauten dutenak.

Erran dugu *bakarrik nahitara*, umeen, eroen eta batere deliberatu gabe, bat-batean eta irudimen soilez basabereek bezala erabakitzen duten zentzudunen ekintzak baztertzeo, ezen ekintza hauek deitzen ahal badira ere partez borondatezkoak, basaberenak bezala, ez dira osoki horrelakoak, 3. artikuluan ematen dugun san Tomasen arrazoi bizkor baten-gatik.

Erran dugu *nahitara besterik ez*, adierazteko barne direla beldurrez baina bortxa osorik gabe egin ekintzak ere.

Erran dugu *edo egin ez den egitate*, adierazteko barne dela ere ez egitea edo norbaitek ez duelarik zerbait egiten, nahiz egiten ahal zuelarik egin beharko zuen. Beraz, edozein ekintza iziturik edo beldurrez egin, ekintza gizatiarra eta morala da, aldiz ez da neholako ekintzarik, bortxa hutsez eginik, morala denik; izatekotz ere, ekintza hori deitzen da bortxazkoa; bortxazkoa den bezala, norbaitek beste bati, bortxaz eta batere haren onespelik gabe, eginarazten dion ekintza.

Hirugarrenekorik , erraten da egileak nahi bezain beldur handiarengatik egitea onartu duen ekintza, morala dela eta gizatiarra, borondatezkoa denaz geroz, nahiz ez osoki, 4. eta 5. artikuluan eman arrazoiarengatik, baina ez da morala, bortxa hutsez egin den ekintza, hala nola idolo bati intsentsuaren eskaintzea, egileari beste norbaitek hartu diolarik bortxaz eskua egileari eta bortxaz eginarazi eskaintza, zeren eta arruntean onartzen baita beldurrak ez baldin badu ere parte baizik estaltzen bekatua, bortxa hutsak bai egiten duela osoki.

Laugarrenekorik , erraten da, adimenduaren goi nahikundearen neholako erabakirik, ez barneko edo kanpoko ekintzarik, ez dela izaten ahal osoki bortxazkoa, zeren eta nehor ez baita

bortxatzen ahal osoki nahi izatera, baina bai nahi eta beldur izatera; beldur izan ez balitz egin nahiko ez zuena eginarazten baldin bazaio ere. Beraz beldurrez egin badu ere, egiazki egin nahi izan du halere, beldurrarengatik bederen. Baina kanpoko ekin-tza anitz, osoki bortxazkoak izanen dira, zeren nornahi bortxatzen ahal baita norapait joatera, beste batek eramanez herrestan edo norbaiten hunkitzera, beste batek bortxaz hartuz eskua eta hari lotuz.

Erran dugu *adimenduaren goi nahikundea* zeren eta Jondoni Paulok aitortu baitzuen bere adimenduaren goi nahikundearen aurka sendi zuela bere sentsuen behereko gosea.

Bosgarrenekorik , erraten da giza ekintzak ez direla izanen hiru arrazoiengatik ez gizatiarrak ez moralak: Lehenik, ekintza horiek egin baldin badira egileak jakin gabe zuzen zer ari zen eta, gainera, ez baitzuen horren jakiterik. Bigarrenik, ez jakite hori ez baldin bada izan ez alegiazkoa ez bilatua. Hirugarrenik, jakin izan balu, ekintza horiek ez baldin bazituen egileak eginen.

Seigarrenekorik , erraten da bekatu egiten duela edozein beldur motak bekatua estal dezakeela sinesten duenak.

VII.

AITZINSOLASA

*Bi erabaki eta ekintza moral mota badirela:
ona eta gaiztoa*

Zazpigarren aitzinsolasak erraten du eta frogatzen:

Lehenbizikorik , ekintza ala erabaki morala edo gizatiarra bi gisatakoa izaten ahal dela, edo ona edo gaitza. Ona da ez baldin badu berenaz lege zuzen batek debekatzen eta ez baldin badute ere baldintzatu duten baldintzek eragozten.

Bigarrenekorik , erabaki ona, Jainkoaren adiskidantzan eta graziazko estatuan hartzen delarik, deitzen dela merezimendu edo irabazi osoa eta bidezkoa, hari esker irabazten baita mundu honetako grazia eta beste munduko loria. Bekatu mortalezko estatuan hartzen delarik, ordea, delako erabakia, deitzen da merezimendu egokia, zeren orduan ez baita irabazten delako grazia ez eta loria, baina Jainkoak bere neurrigabeko emankortasunean ematen baititu mundu honetako beste sari batzuk.

Hirugarrenekorik , erabaki moral edo gizatiar gaitza, bekatu morala deitzen dena, Jainko betierekoak egin legearen aurka errana edo eгина edo gutiziatua dela. Eta san Agustinen definizio hori zuzena dela ageri da, zeren ez baita bekatu moral bihirik definizio hori ez doakionik, eta alderantziz, ez baita beste gauzarik, bekatu morala baizik, definizio berari dagokionik. Ez da horrengatik ukatzen 5. aitzinsolasean baietsi duguna, hots, huts eginezko bekatua ere bekatua dela, nahiz ez den, ez egin, ez erran, ez gutiziatu, zeren eta delako definizioaren erran, egin eta gutiziatu horretan sartzen baita berdin ez erran, ez egin eta ez gutiziatu. Gisa horretan nola erratea, egitea, gutiziatzea bekatu baita Jainkoaren legeak eragozten duenean, gisa berean ez erratea, ez egitea, ez gutiziatzea edo ez nahi izatea bekatu da delako legeak agintzen duelarik erratea, egitea edo nahi izatea. Ez da ere horrengatik ahanzten anitzek bekatu egiten dutela, debekatuak ez diren gauza batzuk erranez edo eginez, baina soilik beren barneko aginduak hautsiz. Agindu horiek hausten dituztenek, alabaina, hausten dute Jainkoak naturan finkatu legea, hots, barne deien edo kontzientziak adierazten duenaren aurka egitea debekatzeko duen legea.

Laugarrenekorik , delako definiziotik datorrela zergatik bekatu beniala deitzen den hain zuzen bekatu, izen hori baita-gokio betiereko legearen aurka badoalakotz, 11. artikuluan erra-ten den bezala, horri eratxikiz, bestalde, nola antolatzen ahal diren gai horri buruz dauden aburu kontrajarriak.

Bosgarrenekorik, nahiz erabaki edo ekintza bera ez den izaten ahal, ez alde ezberdinez ere, ona eta gaitza aldi berean, hura bera gerta daitekeela bizkitartean memento batez ona eta beste batez gaitza; hala nola, mezara joatea xede on batekin lehen bide erdian eta xede gaitzarekin beste bide erdian; eta, beraz, ekintza ona dela, xede onez egin deno, gaitza, berriz, xede gaiztoz egin-eta gero.

Seigarrenekorik, barneko bekatua dela bekatuaren egin nahi izatea eta ageriko bekatua dela bekatuaren orain egitea, eta horrela, nahiz ageriko ekintzan badiren gauza berenaz bereiziak, guztiak moral beraren menpean daude. Aski da, beraz, ageriko ekintzaren aitormena egitea zeren isilpean aitortzen baita ere barnekoa; ez da, ordea, nahikoa barnekoaren aitormena egitea, norbait hil nahi izan dela erranez, agerikoa aitortu gabe, hots, nor hura eho dela: ikus 19. eta 20. artikulua.

Zazpigarrenekorik, bekatua eta hura egitetik datorren gaztiguaren jasateko eginbidea bereiziak direla: bekatu mortaletik dator, alabaina, izpirituaren betiereko gaztigua jasatea eta bekatu benialeatik, izpirituaren denborazkoa soilik, barneko legearen arabera. Ageriko legearen arabera, aldiz, dator gorputzeko, denborazko, ohorezko, funtsezko gaztiguaren jasateko eginbidea.

Zortzigarrenekorik, nahiz berenaz ez onak ez gaitzak izaten ahal diren erabaki eta ekintza moralak, hala nola, orokorrean, hitz egitea eta isiltzea, ibiltzea eta geldirik egotea; ez da, halere, bereizirik neholako ekintzarik, ona edo gaitza ez denik, san Tomasen arabera. Eta irakasle horri jarraitzen gatzazkio gure zaharrear, nahiz harenganik urrundu ginen gaztaroan, beste batzuk bezala, gure *Eskuliburuko* 24. artikuluan eman arrazoiarengatik.

Bederatzigarrenekorik, 25. artikuluan aipatzen diren anitz heretiko asko gisatara errebelatu direla, gauza makurrak sinetsiz bekatuari buruz, eta badirela oraino zenbait Katoliko

ere makur dabiltzanak, uste baitute bekatu mortaleko estatuan egin obra onek ez dutela deus balio edo aski dela barneko bekatuaren aitortzea agerikoa egin gabe.

VIII.

AITZINSOLASA

*Jatorrizko bekatuaren
eta oraingo bekatuaren bereiztea*

Zortzigarren aitzinsolasak erraten du eta frogatzen:

Lehenbizikori k bi bekatu mota badirela; jatorrizkoa bekatua eta oraingo bekatua. Eta jatorrizkoa, lehen gizonaren lehen bekatua, giza naturaren bekatua den bezainbatean, gizaki haren haziari esker zuzenean edo beste baten bitartez sortu diren edo sortzen diren guztien gainera isuri dena: bekatu harengatik gizon hark galdu zuen beretzat eta beste guztientzat mundu honetako justizia jatorrizkoa eta beste munduko loria betierekoa.

Erran dut *bekatua* eta ez, beste batzuk bezala, hutsa edo, hastapeneko zuzentasun eskasa, ez eta itxindia, edo ardagaia, edo tiranoa, zeren san Tomasen arabera, oraingo bekatua, bekatu pertsonala baita, egile bakoitzaren nahitara egina, halaber jatorrizko bekatua gizaki naturaren bekatua da; hura izan delakotz, hastapeneko lehen gizakiaren nahikundeak egin lehen bekatua. Eta nola oraingo bekatuak kalte egiten baitio bekatu hori egin duenari eta haren hatz-behatz guztiei, gisa berean jatorrizko kalteak jo ditu hastapeneko giza naturaren lehen gizakia eta, haren ondotik, giza naturaren belaunaldietan sortu edo sortuko direnak. Beste arrazoi batzuk ere aipatzen ditut *Eskuliburuan*, egokiago direnak konfesategietan baino ikastegietan aipatzeko.

Erran dut *lehen gizona* giza naturaren hastapena izan zelakoan, zeren hark egin zituen beste bekatuak ez eta lehen

hura ere pertsonala zen bezainbatean, ez baitziren jatorrizkoak izan, hots, ez zirelaketz ondokoetara iragan lehen hura bezala, lehena, aldiz, bai, giza naturarena zelaketz hastapeneko lehenak egina.

Erran dut *isuri dena, eta abar* adierazteko, Jainkoak mirakuluz egin baleza, bere baitarik eta beste bide batez, ez ordea giza haziaren bitartez, ez eta ere lehen gizonetik sorturik, beste gizon bat, ez lezakeela gizaki hark bekatu haren jaraunspenik izan.

Erran dut *harengatik galdu zuen beretzat eta beste guztientzat justizia jatorrizkoa*, adierazteko zer kalte izigarria egin zigun galdu zuelarik beretzat eta gu guztientzat jatorrizko justiziaren dohain paregabe hura: hari esker baitzuten gurari sentitibo guztiek sinesten arrazoiari, eta arrazoiak, berriz, Jainkoari, halako gisaz lotuak zirelarik non ez baitziren haizu delako gurariak arrazoiaren aurka jazartzera, ez eta arrazoa Jainkoari desobeditzera ere. Justizia hura galduz geroz, galdu zen ere hastapeneko ordena eta harmonia miresgarria, eta sentsuak jazarri ziren arrazoiaren aurka, eta arrazoiak ez zion Jainkoari sinetsi, ez baita beste horrelako makurrik, nahiz makur handiagoa den oraino betiereko loriaren galtzea, jatorrizko bekatuak galarazten duena, graziazko legeak bekatu hura kendu arte bataioaren eta penitentziaren bitartez edo Jesu Kristok pairatu aitzin bezala erdaintetaz edo beste zerbait gisaz.

Bigarrenekorik, erraten da eta frogatzen aitzinsolas honetan jatorrizko bekatua, egiazki bekatua dela, eta ez ohitura, ez eta bakarrik bekatuaren gaztigua ere; eta, gainera, bataioak barkatzen duela hartan dagoen egiazko bekatuaren kutsu guttia.

Hirugarrenekorik, nahiz bataioak ez duen bihurtzen Adameri eman izan zitzaion jatorrizko justiziaren dohain handi hura, baina gizona kreatu zelarik izan zuen eta gure salbamentuko ondorioaren aldetik jatorrizko justizia bera baino gehiago

den grazia berezia ematen duela bizkitartean, ez baldin badu ere horrek bake osoa jartzen gure bekatuen eta arrazoiaren artean.

Laugarrenekorik , bekatu egiten duela eta heretikoa dela aitortzen ez duena kreatua izan zelarik ukan saindutasuna eta justizia galdu zituela Adamek bere lehen bekatuarengatik eta merezitu zuela haren gorputza eta arima mehatxatzen zituen heriotzaren gaztigua; eta berdin dela jatorrizko bekatua Adamen ondoko guztietaraino iragaten dela ukatzen duenarentzat; bai eta berdin heretikoa dela erraten duena bataioak ez duela jatorrizko bekatua barkatzen, nahiz ez duen ere bataio horrek bihurtzen, jatorrizko justiziari esker hastetik baziren arrazoiaren eta sentsuen arteko kidetasuna eta bakea.

IX.

AITZINSOLASA

*Oraingoa deitu bekatu mota eta,
zertarik ezagut bekatu larria edo mortala*

Bederatzigarren aitzinsolasak erraten du eta frogatzen:

Lehenbizikorik , jatorrizkoa ez den bekatu oro aktuala dela edo oraingoa, eta, bestalde, heresia dela erratea bekatu guztiak berdinak eta maila berekoak direla.

Bigarrenekorik , *Eskuliburuan* aipatzen direla anitz bekatu mota eta horrela nabari da batzuk bihotzekoak direla, besteak ahozkoak, egitezkoak edo ohiturazkoak, batzuk lanekoak eta besteak haiekilakoak, batzuk haragizkoak, besteak izpirituzkoak, batzuk eskasez eginak, besteak soberakinez; baina konfesoak ala aitorleak oroz gainetik jakin behar dutena hauxe da, hots, bekatu mortala eta bekatu beniala bereizten direla eta zer den bekatu mortalaren ezagutzeko zeinua.

Hirugarrenekorik , oraingo zein bekatu larria den edo mortala den jakiteko ezagupide ziurrenak aurkitzen direla beka-

tu mortalaren definizioan eta azalpen honetan: bekatu mortala oraingo bekatua da, Jainkoaren edo gizonen aginduaren aurka egina, agindu hori argitaratua, onartua eta ez indargabetua delarik, eta betiereko zigorraren mehatxupean betebeharra edo, gisa bereko beste gauza zerbaiten aurka doalarik, non ez den hori dudazkoa edo oharkabekoa edo delibero eskasekoa edo estimu eta munta gutikoa edo salbuespen zuzeneko izanez aitzakia zerbait izatekoa. Bekatu mortala egiten da oraino Jainkoaren aholkuak gutietsiz edo hurko arimaren salbamenduari jazarriz edo mortalki gaitza den helburua bilatuz edo gisa bereko jomuga batean azken fina finkatuz.

Erran dut *oraingo bekatua*, bazter emateko jatorrizko bekatua, hau ez baita mortala guretzat.

Erran dut *aginduaren aurka*, ez baita bekatu, ez bekatu benial ere, mespretxurik gabe, ordea, berdin Jainkoaren aholkuei ez jarraikitzea.

Erran dut *Jainkoaren edo gizonen*, batetik Jainko lege naturalaren aurka doana eta Jainkoak berak naturazko legeari eratxiki dion Jainko lege positiboa, bestetik gizalege zuzenaren aurka dabilena, bi lege mota horien sartzeko gisan.

Erran dut *betiereko gaztiguaren mehatxupean betebeharra*, zeren eta legearen aurka egina, naturala eta jainkozkoa izanagatik, ez baldin bazen betebeharra lege hori hautsi duenarentzat, ez baitzen bekatu mortalik izanen. Eta horrela, gezurretan ari denak, lagunaren belzten, gehiegi mintzatzen edo isiltzen, baina nehoi kalte handiegirik egin gabe, ez du bekatu benialik baizik egiten eta ez dute ere fraidek bekatu mortalik egiten, beren arau bereziak hausten dituztelarik, ez baitira betebeharrak jarri, bekatu mortalaren mehatxupean izateko gogoarekin.

Erran dut *gisa bereko beste gauza zerbaiten aurka*, nork bere kontzientziaren aurka egiten dituen bekatuak hor sartzeko, egiten duena bekatu mortala dela, barneak erran diolarik norberari. Kontzientziaren aurka egiten dena alabaina, barneak erra-

ten diolarik soilik bakoitzari zerbait bekatu benial dela, edo bekatu dela orobat, baina mortala dela zehaztu gabe, beniala baizik ez da orduan.

Erran dut *non ez den dudazko edo delibero eskaseko, munta gutiko, salbuespen zuzeneko izatez aitzakia zerbait aurkitu*; ziurki ez jakitea aitzakia ona da, alabaina, hiru arrazoiengatik, 6. aitzinsolasean erran bezala, eta ere delibero edo zuhurtzia eskasa, hor berean erranaren arabera, eta munta gutiko izateak bekatu mota guztietan bekatu mortaletik desenkusutzen du eta salbuespen zuzenak berriz, *Eskuliburuko* 10. artikuluan eta ondokoetan erranaren arabera, arindu den legearen zorrotasunetik urruntzen du eta lekoratzen.

Erran dut *egiten da oraino Jainkoaren aholkuak gutietsiz*, zeren nahiz ez den bekatu Jainkoaren aholkuen bazter uzte soila, mortala da halere aholkuen gutiesteagatik bekatu egitea, bekatu mortala den bezala hurko arimaren salbamenduari oldartzea, haren gutiesteagatik.

Erran dut *mortalki gaitza den helburua bilatuz* zeren eta, edozein ekintza, nahi bezain ona izanik ere berenaz, helburu mortal gaitzarekin eginez geroz, mortala baita. Eta, beraz, edozein ekintza on ala gaitzaren egileak jartzen duen azken finaren arabera mortala da, nahiz ez den egia mortalki bekatu egiten duen batek, jakinez horrela egiten duela bekatu, arrazoi zuzenak badituela bere azken finaren horretan ezartzeko. Baina ez zait iduri baitezpadako dela horrelako xehetasunetan sartzea.

Laugarrenekorik , ekintza bera ez dela izaten ahal ona eta gaitza, ez alde bereziatarik ere aldi berean, baina ona izaten ahal alde askotarik eta, biziki gehiago balio duela horrela baldin bada, ezenez eta soilik alde batetik; eta alde askotarik gaitza izanez biziki gutiago balio duela, ezenez eta soilik alde batetik. Eta, beraz, ohartu behar da eta ikusi urrunago zer egin biziki balio gehiagoren irabazteko eta beste hainbeste kalte handiagoren saihesteko: hala nola, barur egiten duenak bakarrik elizaren

legeari jarraikitzeke, ez du obedientziazko bertutearen saria irabaztea baizik merezi. Baina horretaz bestalde, xahutasuna hobeki begiratzeko ere barur egiten duenak xahutasunaren merezimendua eta saria irabazten du gainera, eta Jainkoaren ohoretan gorputzaren gaztigatzeko merezimenduaren gainetik irabazten da oraino erlisioneko bertutearen saria. Eta berdin amoina gehiago eginik irabazten da urrikalmenduaren bertutea eta saria. Lapurretan, alderantziz, zikoizkeriaz soilik lapurtzen duenak zikoizkeriaren bizioa eta gaztigua hartze du, baina lapurtzen baldin badu izorratzeko xedetan, lizunkiaren bizioa eta gaztigua hartze du. Arneguka ere ibiliak arnegataren bizioa eta gaztigua hartze du, eta laguna laidoztatu duenak laidoztatzailearena, eta ez ditu bakarrik anitz xede gaitzengatik anitz gaztigu mota hartze, baina behar dira bestalde konfesatu delako helburu gaitzak, eta kontuan hartu aldeak, irabazteko horrela erabaki guti batzuekin bertute anitz eta haien merezimenduak eta saihesteko erabaki gaizto guti batzuegatik pairatzen diren hainbeste gaztigu handi.

X.

AITZINSOLASA

Penitentziaz eta haren parteez

Hamargarren aitzinsolas honek erraten du eta frogatzen:

Lehenbizikorik, penitentzia hitza propio latinezkoa dela eta ez arrotza, batzuek dioten bezala, erranez gaizki, bestalde, latindarrek horren orde grekozko *Metanoia* erran behar zutela, latinezko hizkuntzak beste hitz bat baduelakotz, hori baita *Poenitudo*.

Bigarrenekorik, *Poenitere* hitzak urrikitzea edo damutzea erran nahi duela latinez, edo zerbait eginik dolutzea, baina gertatzen da batzuetan dolu horrek ez duela minik egiten, hala nola zeruko dohatsuak damutzen direlarik bekatu eginik minik

sentitu gabe horrengatik. Beste batzutan, aldiz, min eta dolorekin, hala nola gertatzen baita komunzki, egin duten gauza batengatik dolu dutelarik, hura eginik.

Hirugarrenekorik , nahiz penitentzia hitzak adierazten duen propio zerbait eginik damutzea, Elizako Irakasleek erabiltzen dute halere hura *metafora*, edo latinez errateko *translatio*, gisa, adierazteko penitentziako sakramentua, honen parte nagusia urrikia delakotz, eta adierazteko konfesoareak penitenteari bere bekatuen ordainetan ematen dion pena, eta adierazteko ere bekatu eginagatik barneko pisua edo damu-dolua sentiarazten duen arimako bertutea.

Laugarrenekorik , nola zerbait egin izanaz damutzeak bi aldeak hartzen baititu, alde ona eta alde gaitza, badirela halaber bi penitentzia mota: bat gaitza, ongia eginagatik dena, eta bestea ona, gaitza eginagatik eta bekatu eginik etorria, honetaz hitz eginen baita *Bilduma* honetan, *Eskuliburuan* egin zen bezala.

Bosgarrenekorik , penitentzia sakramentua den aldetik, zazpi sakramentuetarik bat dela, Jesu Kristo gure Jaunak ezarria bereziki bere fededunen bekatuak barkatzeko.

Seigarrenekorik , nahiz konfesatzen duenari barkatzeko, konfesoareak erraten dizkion hitzetan kausitzen den sakramentu saindu horren forma, badira hortaz bestalde beste hiru parte material hauexek: Kontrizioa, Konfesioa, Satisfazioa. Eta nola beste edozein bidez baino hobeki haiek ongi eginez baita berreskuratzen galdua den Jainkoaren grazia, haietarik hasiko gara lehenik mintzatzen, eta geroxeago beste gaiez, Andre Dona Mariaren bitartez erdietsi Jesu Kristo gure Jaunaren laguntzarekin ezartzen dugularik hemen erran dena eta urrunago erranen den guztia, Erromako Eliza Ama Saindu Katolikoaren eskutan, berak orrazta eta zuzen dezan.

ZEZEN LASTERREZ

*(Konfesoreen eta Penitenteen Eskuliburuan:
«Hilen ez duzu!» Dekalogoko bosgarren
manamendua, 26. oharra.)*

Hogeita seigarrenekorik bekatu egiten du zezenak zirikatzen edo lasterkatzen dituenak. Gai horretaz galdekatua izanik Madrilen, han baita jarria erret auzitegia, ea zezen lasterren joko bekatu mortala den, honela ihardetsi nuen:

Lehenbizikorik, duela 70 urte nihonek, Alcalako ene Konfesorearen aitzinean aitortu nuela, oraino Unibertsitate horretan ikasle gazte nintzelarik, zezen lasterketa baten ikusten izatea.

Bigarrenekorik, orduan ikusi bainuen zezen basa batek bi edo hiru gizon bortizki xehakatzen zituela erabaki nuen sekula gehiago horrelako lasterketarik ikustera ez joatea eta geroztik ez naiz sekula santan izan; salbu behin bakarrik Salamancan, horretara behartu naularik ene sailburu eta buruzagi karguak, hori baitzoakidan doktoregora heltzen den edozein irakasle jakintsuri bezala eta, Jainkoari esker ez nuen horretan neholako kalterik jasan.

Hirugarrenekorik, handik 20 edo 30 urteen buruan gogotik idatziko nuen delako zezen lasterrak bekatu mortala direla. Zeren, hori bera entzuna bainuen Alcalako Unibertsitate ospe-

tsuaren zimenduak finkatu zituzten ene paristar irakasleengatik.

Frantzian ere, ez baita horrelako lasterketarik egiten; baina hori ez, batzuek uste duten bezala, haien abereak mantsoak eta ongi heziak direlaketz, ezen Tolosan gure denboran Burgoseko aberats okitu batek, Behi bat lasterkatu zuen, Espainiako moduan bere etxeko ezkaratz zabalean eta, zenbait maila gora iganik, berak hil!

Zeren eta, horrelako lasterketen ikustea bekatu anitzen egiteko parada baita, hala nola urguilua, harrokeria, lohikeria, gormandiza, haserrea eta beste gisako guztiak.

Gainera, lehenago leku berean erran izan dugunaren arabera, horrelako jostetak ez baitira zilegi, lasterketa horietan gertatzen omen diren bezalako zauri handiak eta maiz hilketak gertatzen direlarik.

Bestalde, Azpilkueta eta Xabierko Joanes kapitainak –Xabierko Frantzes hain aipatuaren anaia zenak eta Jesusen Lagundiko ordena hain aipatua eta aberatsa sortu zuten hamahiru lagunetarik batek, izpirituko ezpataz anaia hura zen bezain indartsu baitzen hau azkar eskuko ezpataz– erran ohi zuen Joanes honek zezen lasterketako josteta horietan, gehiago ikasten zela etsaiari ihes egiten, ezen ez etsaiari buru egiten; horra zergatik ez zuen berak behin ere horrelako jolasetan parte hartu.

Azkenik elizaren kanonek debekatzen dituzte toleamenduak: ikus 1.& 2. kapituluak¹ halako gisaz non, jolas artetik hiltzen dena, aitzinetik konfesatu eta komuniatu balitz ere, ez baita zilegi hilerri sainduetan ehorztea: eta zezen lasterrak toleamenduak iduriak dira; beraz haientzat ere lege bera da.²

Baina hamar bat urte edo gutixeago geroztik, ez naiz ausartu hori bera aitzinatzeraz, alta bada Jainkoaren zerbitzari hautuzko anitzek hori egin nezan, aldez edo moldez galdezkatu, ihardetsi dut: zezen lasterrak, neurri onean eta behar den artarekin hartuz geroz, ez dira berenaz bekatu; haiek debeka

litzakeen legea bizkitartean guztiz saildua litzateke, zeren eta, delako lasterrak bakan baitira, neurri onean eta behar den artarekin, hartzen eta, nik Erromari dei eginez geroz, Pio V. Aita Sainduak bere zuhurtzia eta kartsutasun miresgarriarekin eta, Jainkoaren bidean artaldearen begiratzeko xedearekin, lege hura 1567ko azaroaren kalendetan egin du eta aldarrikatu:

Hona zer dioen Jainkoaren zerbitzarien zerbitzari, Pio apezpikuak, erabaki honen oroitzapenak sekulakotz irauten dezan:

Jainkoaren artaldearen osasunaren ardurak Jainkoak berak gure gain jarri duela sinetsiz geroz, gure artzaintzako eginbideak behartzen gaitu, artoski begiratzera nola lehiatzen garen, haren artalde guziko fededunen beti zaintzera, gorputzen gaineko arriskuatarik, bai eta arimen galbidetarik.

Egia da, nahiz odolean gorputzak ehotzeko bai eta arimen suntsiketaren erdiesteko deabruak asmatu dueloaren ohidura okaztagarria Trentoko Kontzilioaren arau batek kondenatu zuen, bizkitartean anitz hiritan eta beste leku batzuetan badela oraino zernahi jende, bere indarren eta ausartziaren erakusteko, ikusgarri publikoetan eta pribatuetan zezenekin eta beste abere basekin jostatzen denik, horrela gertatzen baita maiz giza heriotza, zauritze eta ere arimako kalte.

Guk beraz, oharturik kristau karitatearen eta debozioaren kontra doazela, zirkoetan eta plazetan egiten diren zezenen eta basabereen lasterkatzeko ikusgarriak eta deabruen baina ez gizakien ohidura odoltsu eta ahalkegarri horiek nahiz ezeztatu eta, Jainkoaren laguntzarekin, arimen salbamendua ahalaz bermatu, Printze giristino guztiei eta haietarik bakoitzari, edozein elizaren ala herriren, Inperio, Erreinu edo beste karguren jabe direnei, zernahi izen izanik ere, ala haien elkertasunei ala erki-degoei, betiko gure lege oinarrikoaren bitartez debekatzen eta eragozten diegu, erran orduko, eskumiku eta anatema zigorrez gaztigatzeko arriskuarekin ez dezaten eman nehongo beren probintzietan, ez hirietan, ez lurraldetan, ez gazteluetan, ez beste

*lekuetan zezenen edo basabereen lasterketak bezalako ikusgarri-
rik egiteko baimenik.*

*Soldaduei ere eta beste jende arruntei debekatzen diegu,
ala oinez, ala zaldiz, zezenekilako edo beste basabereekilako
ikusgarrietan parte hartzea eta kasu horretan hil baledi haieta-
rik bat, ez lezake elizan ehorzketarik izan.*

*Gisa berean, eskumiku zigorraren mehatxupean, debeka-
tzen diegu ere ikusgarri horrien beren ikustera joatea, fraideei
eta sekularrei, elizaren kargutan edo ordena sainduetan sartuak
direnei.*

*Eta edozein pertsonak, unibertitatek, edo ikastetxek
makur uste baldin badu beren botu, zin egite edo agintza guz-
tiak horrelako zezen lasterketekin sainduen ohoretan edo nahi
den eliza jaietan edo bestetan egiten ahal direla, ez dituzte
behar josteta horiekin ez ospatu ez ohoratu, baina bai
Jainkoaren laudorioekin, arimako atseginekin eta obra onekin,
aldiz orain arte eginak, edo berdin geroan eginen diren horiek
guztiak gain gaintetik debekatzen, ezabatzen, ezeztatzen ditugu
eta debekatutzat, deuseztutzat, errautsitzat hartu behar direla
erabakitzen eta aldarrikatzen dugu betikotz.*

*Agintzen diegu beraz Erromako Eliza Sainduaren
Printze, Konde eta Baroi feudatari guztiei Erromako
Elizarenganik dauzkaten beren feudoak galtzeko mehatxupean,
baina ere beste Kristau printzeak eta lurralde haietako jaunak
Jainkoaren izenean gonbidatzen ditugu eta obedientzia sain-
duaren izenean agintzen diegu Jainkoaren izenaren ohoretan
eta begirunez hemen erran guztiak zuzenki eginaraz ditzaten
beren funts eta horrelako lurraldeetan Jainkoaren beraren esku-
tik horrelako lan onaren saria izatekotan.*

*Eta mundu guziko gure Anaia agurgarri Patriarkei,
Primatuei, Artzapezpikuei, Apezpikuei eta beste eskualdeetako
buruzagiei, obedientzia sainduaren bertutez eta Jainkoaren
jujamendua eta sekulako madarizionearen baldintzak gogora -*

tuz, agintzen diegu beren hiri eta diozesietan direlarik gure mezu hauek aski argi argitara ditzaten eta gure erran hauek ere betearaz elizako gaztiguen eta zentsuren mehatxupean.

Ez da hau eragotziko duen erabakirik ez beste legerik: Erromako Jondoni Petrin emana, Inkarnazionetik landako 1567 urtean, azaroko kalendetan, gure Aita Sainduagoko bigarren urtean.

Bereizketa honen zedarriak finkatuko ditut, Aulki Sainduaren gainbegiradatik at, zezenen ala beste basabereen lasterketetan ez dadin aitzina joan halako gisa neuratuan non sinets bailiteke menturaz ez dela hortik jendearentzat kalte aipagarririk aterako, hots, heriotzarik, zauririk, hezur hausterik eta beste horrelakorik. Eta neurri delakoaren muga finkatzailea behartu duen kausa eta helburua hauxe da, aitzinsolasean errana den bezala, lasterketen ondorioak, maiz horrelakoak izan ohi baitira eta hortik baita heltzen legearen azken burura³. Baina lasterketak neurrian daudelarik erran bezala baztertzan dira ere ondorioak eta beraz aldatzen ere legearen arauak, hauen mugak hertsitzen edo hedatzen direlarik legearen arabera⁴.

Bestalde tornu jokoak direla-eta, nahiz gain gainetik debekatuak izan⁵, zilegi dira bizkitartean aipatu delako neurrian egiten baldin badira, zeren eta orduan baztertzan baita haien debekatzeko arrazoi guztia, 9. artikuluan lehenago erranaren arabera eta tornu jokoez idatzi 1. bereizketan frogatu bezala eta hori baita Kristau mundu guztiak egin ohi duena.

Non-nahi ikusten ditugu gainera, Erroman ere, han-hemenka lasterkatzen, zezenak, idiak eta betizuak, adar eta hankak soka luzez loturik eta jendez beteak diren karriken erdian iragaiten, nahiz aipatu dugun bereizketaren ondotik nehork ez dituen kondentatzen, noizbait nolazpaiteko zerbait makur ohargarri gertatzen baldin bada ere.

Egia erran, urtero, inauterietan zaldi, idi, behor eta asto lasterketa ederra egiten da Hiri nagusian sari bereziak eskainiz

lehen heltzen denari, nahiz ikusliarren eta lekukoen artean gertatzen den batzuetan delako makur zerbait izatea.

Eta gainera, erlisionez, maitasunez eta jakitatez argitzen zuten gizon anitzek eta, komunzki egiten den bezala, zezen lasterketak kondenatzen zituztenek, lasterketa horiek berak onartu zituzten, Isabela deitu lehen andere erregina Katolikoak, hiru aldiz haien egiteko baimena eman zuelarik, baina adar zorrotzak kamustuta, zirikatzaile ausartegiak trabatu ondoan eta ihesleku egokiak ziurtatzekotan.

Hortik ageri da Aita Sainduaren erabakia baino lehen ere kondenatu behar zela, nahiz zezen haiek jadanik zirkoetan lasterkatu zirelarik gizon batzuk hilak zituzten Espainiako handiki anitzek zuten zezen gaizto haien jabe izateko eta atxikitzeko sukar hura eta uste gaizto hura, zeren jaun haiek eta kasik beste guztiek pentsatzen baitzuten hil bihirik edo kolpaturik gabeko zezen ikusgarri delakoak, hotzak direla gatzilak eta eskasak.

Eta nahiz delako lasterketak, erran bezala, neurrikoak direlarik ez naizen menturaten kondenatzera, aipatu dugun bereizketaren ondotik ere, bizkitartean biziki errazkiago erranen dut orain, jendearen bozkariatzeke eta herriaren alaitasuna adierazteke, beste bi mendebaldeak (Italia eta Espainia) baino alegeragoa den Frantzian, ene denboran egin ohi zen bezala, josteta horien orde, beste zenbait jolas erabili behar direla.

Hala nola, eskerronezko bestak, xabalina jaurtiketak, zaldizkoen edo oinezkoen itzaleko gudukak, herensuge edo armagizon itxuradunekin, elkar joz beso batean beste besoan baitute min hartzen, ariketak arranbelekin, baleztekin, masailekin, pilotan, borrokan, lasterkan jokatuz, zurezko borobilak eskuz, mazoz edo mailuz bultzatuz, dantza jauzi ederrak eskainiz, batean ohikoak, bestean berriki asmatuak, Portugaleko larru eta hostoekin eta, beste gisako jolasak, horiek baitute ez bakarrik jendea dostatzen, baina ere gerlako eta beste ariketa ederragoetako trebatzen.

Baina neska tipi pollit aberaski apainduak eta jauzteka ari diren gizon zaluen bizkarrean jarriak, litezke beren esku, beso eta, gorputz guztiaren keinuekin, behari ohoragarri gehienak bozkaria litzaketenak.

Azkenean atabal handiaren inguruan kantuz eta jauzteka ari diren gazteen eskuen hauspoak eta bestaldetik ozen den herriaren bozkario miragarriak, ez diote nehon nehori kalterik egiten.

Oharrak

¹ Cap. 1. & 2. « *de torneamen*».

² «I. illud. ff. ad 1. Aquil».

³ 1 una. ff. de haeredibus instituendis. & capit. Quia propter. De electio. Cum eis adnot. T. quae cessant in agitatione

⁴ Lex. Argu. 1. cum pater. §. dulcissimis. Ff. de lega 2. §. 1. adigere. q. quamvis ff. de jure patron. C. successum. C. meminimus. Cum adnot. Eis a Pan. Ab aliis recepto de appel. §. cap. Quoniam contra falsam. De probatio.

⁵ Per c.i. de torneamen.

MENIAZ ETA BAKEAZ

«Ea Errege Txit Kristauak bere Erreinuko luthertiarrekin eta beste heretikoekin egin zuen bakea, hots, bakoitza bere gisara eta, erraten den bezala, bere kontzientziako libertatearen arabera bizi zedin, goretsi behar den ala gaitzetsi?»»

Jesus Maria!

Nehongo harrokeriak, ez neholako gaiztakeriak bultzatu gabe, baina Jesu Kristoren, Errege Gristino guztien eta nik arrotz ditudanen ere eta bereziki txit Kristaua denaren alde naizen eta, alde izatera behartzen nauten erlisioneak, karitateak, onginahiak, begiruneak sustaturik, erakutsiko dut gogotik, nahiz umilki, delako bake hori ez dela ez zuzena ez hain Errege handiari dagokiona: Ez da ezen ez erregeen ez eta ere beste neho- ren egitateak goresterik, non ez diren behin ekintza zuzenak, bigarrenekorik egokiak, hirugarrenekorik nolazpait baliagarriak, Inozentzio III.ak irakasten duen bezala ¹ «*Botuaz larrinak*» deitu kapitulan. Bake hori ordea, ez da ez zuzena, ez ego- kia, ez baliagarria. Ez da beraz ez gorestekoa, ez hain errege handiari dagokiona.

Lehenbizikorik, ez dela bada zuzen ez zilegi, honela fro- gatzen da: edozein antolamendu, berdin Erregeena, natura lege- aren ala Jainko legearen kontra doana, ez baita ez zilegi ez zuzen. Eta badira zenbait kapitulu kontra doazenak, hala nola 25.aren 1. galdea eta 8. bereizketa, ezbaian osoki, ezen ez du mendekoak goikoaren legea kentzen ahal, eta hurrengo kapituluaren 21. bereizketa eta «*Goikoaz eta obedientziaz*» kapitulan².

Bake hori bada hobenak zigortzeko agintzen duen natura legearen aurka doa ezen Legea horrela hautsirik, «*Arranoen legeaz*» diharduen pasartean eta «*Jendeen erranez*» deitu kapituluako eskumiku sententzian erraten da alabaina³ Frantziako erreinuan heretikoak ez direla zigortuko. Alta bada badakigu heresia ez dela bakarrik krimena, baina menturaz krimen guztietatik larriena, idatzia den bezala aipamenetan⁴. Ez da beraz zuzena.

Bigarrenekorik, frogatzen da zeren natura legeak baitio, edozein gaiez neholako eskurik ez duen batek hartu erabakiak ez duela baliorik, hala nola «*Egiazki barne diren Eliza sainduaz*» ari den lehen kapituluaren lehen zatiak eta kapitulu bereko azken zatiak «*Besteen gai arrotzez*» dihardutenek ez dute baliorik.

Heresia ordea krimen bat da eta hartaz neholako erabakirik ez ezagutzarik ez dezake izan nehongo botere laikoak, hau erregerena izanagatik eta berdin gain gainekoarena balitz, ere, ikus: Inkizisioaren kapituluan⁵, fedea ezen naturaz goragoko dohaina da, erraten den bezala «*Trinitate Sainduaz eta Fedeaz*» izeneko liburuan⁶: Fede katolikoaren kontra doan heresia, naturaz gairik krimena da eta beraz, naturaz gairik legea hausten duen krimena, baina ez da neholako botere laikorik, nahi bezain gora eta urrun heldurik ere, naturaz gairik heldu ahal denik, naturazkoetara baizik: Ikus aipatzen diren kapituluetan eta ere guhaurk idatzia 6. *Notabile-aren* «*Novit de Judiciis*» kapituluan⁷.

Hirugarrenekorik frogatzen da, zeren Jainko legearen eta arrazoi naturalaren kontra baita botere laikoak erabakitzea naturaz gairik gairik: Ikus aipamenak⁸ eta argi dago heresia izpirituzko gaia dela, lekukotasun horiek irakasten duten bezala. Eta ondorioz bake hori, heresiaz diharduen neurrian, ez du deus balio, gai izpiritualez botere laikoak hartu erabakia denaz geroz.

Laugarrenekorik frogatzen da, zeren Jainkoaren legearen kontra baitoa, nehongo Erregek erabakitzea edo hitz ematea elizaren definizio baten aurkako edozein gauza, definizio haren begiratzera behartzen duelarik Jesu Kristoren Jainko legeak⁹: Ikus nola Aita Sainduak eta Eliza giristino osoak erabaki zuten heretikoak zuzenki gaztigatzen ahal direla¹⁰, hala nola egin zen Pelagiorantz¹¹, eta hori bera zuten azkenik frogatu Castres-tar irakasleak,¹² beste asko argudiorekin. Gure bake honek ordea, debekatzen du heretikoaren gaztigatzea eta, ondorioz, elizaren erabakiaren aurka doa eta beraz, ez da, ez zuzena, ez onargarria.

Bosgarrenekorik frogatzen da, zeren nehor ez bailitzake ausart erratera zuzena dela, gizeraileak, ohoinak eta lapurrak ez gaztigatzea erabaki lezakeen bakea. Ez da bada katolikorik ohointza eta eraiketa baino krimen handiagoa dela heresia, ukatuko duenik, haiek ezen bigarren harriko aginduen aurka doaz, hau aldiz lehen harriko lehen aginduaren aurka¹³. Bestalde argi da, bekatu guztietarik larriena, berez, federik-eza dela, nahiz ikuspegi berezi batetik, beste zenbait handiago diren, san Tomasek arruntean onartutzat ematen duenaren arabera.¹⁴ Federik-ezaren mota guztietarik gaitzena ordea, heresia da, teologo berak irakasten duen bezala, galde beraren artikulua hartan berean eta, ez da beraz zuzenez bakerik egiten ahal, ez heretikoak ez direla gaztigatuko hitz ematen ahal: argudio horretan, tipitik handiari ezezkoa eman behar zaio.¹⁵

Seigarrenekorik frogatzen da, zeren ohitura, hitzarmen eta beste arauak ez baitute deus balio, gaitzegiteari bide ematen baldin badiote¹⁶. Bake honek ordea, bide ematen dio gaitzegiteari, ezen barkamenaren erraztasunak pizgarri bat eskaintzen baldin badio gaizkileari, are gehiago sustagarri emanen dio, gaztigurik ez izateko agintzak¹⁷.

Hori gezurtatzeko ez du balio errateak gaizkileen multzo handia, gaizkileei barkatzeko arrazoi garbia dela¹⁸. Zeren hori egia da gaizkileen multzoa gaitzegitetik gelditzen delarik, ez ordea bere hartan jarraitzen duelarik, idatzia denak adierazten

duenaren arabera¹⁹. Bestalde hori egia da iraganeko hobenen-tzat; baina ez etorkizunekoentzat zeren, eginkizun den gaizkia gauzatu gabe geldi baitaiteke²⁰. Ez du horrek merezi, nehork horren aurka aipa dezan Erregeren ezinbestea.

Alde batetik lotsagarri da horrelakorik aipatzea ere, ezen ez dezake nehork sinets hain Errege puxantak, hainbeste erreinuz eta hainbeste hiri indartsuz aberats denak, hainbeste aitzindari handiz eta gudariz inguratuak, hainbeste garaipenez sariztuak ez ditzakeela suntsi bere erreinuko luthertiarren hondakinak, jadanik hainbeste galtzek tipituak eta lehertuak dituztelarik.

Bestetik, erret aitzindariak berek, zinezko kristauak direnek, aitortzen dute, bake hori egitean bazeuzkala Erregek lau armada, haietarik bakar batekin ez baitzen gudukatzerara ausartuko luthertiarren gudaloste osoa.

Eta gainera ezinbestea aitzakia balitz ere Erregerentzat, egiten ahal ez zuen lekuan eta egunean, nehor ez gaztigatzeko, ez zukeen halarik ere aitzakiarik izanen, bake horretan ezarria den bezala, bekatu egin gabe hitz emateko, ez dituela nehoiz ez nehon gaizkileak gaztigatuko.

Azkenean kristau orok behar du jakin gaitz guztien jasaten, ezen ez eta gaizkiaren onartzen²¹.

Zazpigarrenekorik, zeren Erregek behar baitu bere kontratuetan naturazko legea begiratu²² eta naturazko legeak agintzen du kontratuen begiratzea²³. Baldus-ek alabaina, Sententzien Irakaslearen arabera, honela dio: Jainkoa bera behartua dela eman hitzaren atxikitsera, horra zergatik 88. salmoan kantatzen den: *Ene ezpainetarik ilki direnak ez ditut deuseztatzen* eta Ebanjelioan erraten: *Zerua eta lurra iraganen dira baina ene hitzak ez*, eta abar. Bake horretan ordea badira aitzineko kontratuen hausturak erregeren manuz eginak luthertiarren ontasunez eta ere promesak haien salerospenez.

Zortzigarrenekorik, zeren eta bake horrengatik Erregek huts egiten baitio bere promesari: Gure Aita Saindu Pio V.ari

hitzeman omen zion alabaina ez zuela berak bakerik eginen Jesu Kristoren eta bion etsaiekin, non ez ziren haiek berriz haren oinetara itzultzen. Gibelera egin du ere, Katoliko guztien eskuzarten erdian egin omen zuen aitormen honetatik, hots, nahiago zuela, soldadu gisa, lantzadun bakarraren soldata irabaziz, zinez lorioski eta guztiz giristinoki, bizitzeko doia egin, ezen ez eta heretikoen errege izan. Zergatik alabaina balioko zaio gizonari mundu osoaren irabaztea, bere arimaren kaltea jasan behar baldin badu?²⁴

Bederatzigarrenekorik, zeren nehork ez baitezake onets, giristinoen erregek zernahi egin dezan, kristau mundu osoaren kaltetan eta eliza katolikoaren eskandalutan.²⁵ Bake honek ordea, egiten die eskandalu eta gaizpide, jazarritz bai kristauei berei, nola beste herritarrei eta ere suitzarrei, hauek kanporatuz eta, Erregerik gabe gobernatzera utziz, hau baita turkoei bidea irekitzea, horrela giristino guztien menperatzeko gisan.

Hamargarrenekorik, bake honek ematen du parada, Aita Sainduaren aulkia apaltzeko eta menturaz Erromatik aldaratzeko: ezen gizonaren zuhurtziak errazki asma dezake Frantziako luthertiar zenbait bakarrek behartu baldin badute Frantziako errege guztiz indartsua, berak aitortzen duen bezala eta, kristau mundu osoak, bai eta Frantziakoak ere ahalkegarriak dauzkan baldintzen onartzera, luthertiar haiek berak Frantziako, Ingalaterrako, Alemaniako eta beste probintzietako beren lagun gordeekin eta egiazko sarratzinoekin eta Espainian giristinoen zerbitzuko ezagutzen direnekin eta Jesu Kristoren izenean beren sarratzinismoari jarraitzen diren beste guztiekin, aski eta gehiegi izanen direla gure Aita Sainduaren erreinuan sartzeko eta haren iraultzeko.

Azkenean, bake honek egin du orain, ez bakarrik Italiak eta Frantziak, baina Espainiak ere gaitzetsi duela kasik hau bezalako beste bake bat, harekin baitzuen Alemaniako gerla bururatu, bestela hain gerrazale izana zen Karlos V.ak. Horra zergatik Maisu Petri Soto haren konfessore fraide kartsu bezain

jakintsuak ez zuen gehiago hura konfesatu nahi izan; erranez bestalde ez zela batere seguru salbatzen ahalko zela enperadorea, zeren ez baitzuen bere fedea eman, denen jakinean bera hainbeste faboratu zuen Jesu Kristo gure Jauna baitan.

Bake hura dela kausa, Alemaniaren parte on bat galdu da eta, Frantziaren beste parte handi bat ahultzen ari da. Erlisioe giristinoari hainbeste kalte egin dion eta Aita Sainduaren baimenik gabe onartu zen bake hura eginez geroz, delako Karlos Vari gertatu guztiak haren kontra bihurtu zaizkio eta, sinesteko da horrelako zerbait gertatuko zaiola Frantziako Xarles IX.-ari ere, honen bakeari bestearenaren itxura bera ematen baldin bazaio.

Bake hura alabaina beren maltzurkeriaz antolatu zuten bildots itxurako otso harrapariak eta Satanen aingeru izanik Argiaren aingeru bilakatuek eta haren sostengatzeko aitzakiarekin, erreinua suntsitzen dutenek, zenbat eta luthertiarrekin zinez bat eginago direlarik eta alegia haienganik hainbat urrunago iduri dutenek. Ez da beraz dudarik luthertiarrak ez baldin badira gaztigatzen bere haragiaren lizunkeriak bultzatuko dituela beren sentsualitateaz gero eta gehiago gozatzeraz eta deabruaren eta haren zerbitzarien arta jarraikiek haien indarra hedatuko dutela eta Erregea bera edo behaztoparazi edo heresian sarrarazi arte ez direla geldituko.

Erreinuari eta Erregeri jasangaitz zaiola bake hori ageri da lehenik, horrengatik galdu baitu parada bere erreinuari zuzenki eratzikitzeke bere lurraldearen barnean harresiz inguraturik aurkitzen diren funts zabalak eta bere aitzinekoek 60 urtez geroz hain kar handiz bereganatu nahi zituztenak, haiek zirelaketz berenari eratzikitzen ahal zizkioten erreinu guztietarik emendakinik egokienak eta gisa guztiz Milano eta Napoli baino eskuragarriago zirenak, hiri hauengatik hainbeste gerla izigarri egin baitzituzten Erregeren aita eta arbasoek. Bestalde Erregeren erabaki horiek ez dira nehondik betearazten ahal, luthertiarren ontasunak eta mozkinak beren kostuz erosiak zituz-

ten Katolikoei kalte handiak egin gabe, ez eta ere Printze ospetsu batzuen eta beste gizon guztiz leialen ospeari eta ohoreari gaitzitu gabe, haiek hain gogorki gudukatu baitziren Jesu Kristoren, beren Erregeren eta Erreinuaren alde eta orain behar-tuak baitira Jainkoaren eta gizonen handitasunari bihurtu zitzaizkion jazarle nabariak beren mailan onartzera.

Erranen dugu beraz ahalkegarria dela bake hori, Frantziako Errege guztiz kristauarentzat, Henrike II.aren seme indartsuarentzat, eta bost ehun urte honetan Frantziako errege izan diren bere arbasoetarik bihi bati, zuhurtziaz, bertutez eta suertez zorrik ez dionarentzat, heretikoen aurkari amorratua zen Frantzisko erregeren ilbasoarentzat eta, mila urte honetan Apostoluen Aulki Saindua bermatzen, laguntzen eta zaintzen dutenen ondokoa eta oinordekoa denarentzat.

Eta horren ondorioz bake hau ez da bakarrik Erregeren eta gure Aita Sainduaren etsaiekin egina baina bestalde, etsaiei eskaini baldintza ohoragarriak bezain desohoragarriak dira Erregeen berarentzat eta haren aldekoentzat onartuak eta gisa horretan, zinez, ez itxuraz, katoliko diren guztiak eta bihotzez eliza maite eta Errege urrikari dutenak, negarrez eta oihu minez galdezka daude: baina zerk liluratu du Xarles IX.-a?

Nork ahantzarazi dizkio haur-haurretik izanak zituen Jesu Kristo gure Jaunak haren erreinuari eman ongi guztiak, haien kopuruak berak egina baitzuen jadanik harrigarria haren zortea?

Nork bada ahantzarazi, Aulki Sainduko gure Aita Sainduak Jainkoari egin hainbeste otoitzez eta esker onez bestalde, diruz eta soldaduz eman laguntzak?

Nork ahantzarazi ere bere kristau fedea, bere Errege Kristau duintasunaren izenean lorioski hitzemaña omen baitzuen ez zuela sekula berak bakerik onartuko kristau guztien etsaiekin, non ez ziren hauek aitzinetik haren erranetara makurtzen?

Nork ez du ikusten zer duten guztiek errepikatzen, bai Kristauen adiskidek bai haien etsaiek, bai eta ere Turkoek ala Mairuek: Nola ote da Xarles Erregeren ohorea, ospea eta loria, bai eta Frantziako errege indartsuen bertutea, ematxar baten ahulezia bihurtu?

Nork ez du ikusten, bake hau ez baldin badu nehork begiratzen, ez herritarrek ez arrotzek, ez fededunek, ez fedegabek, Frantziako erregeek ez dutela nehondik erdietsiko ez lotsarik ez ohorerik, nahiz Jainkoaren eta jendeen aitzinean, horrelako Errege handi batek behar lituzkeen ontasun guztiak aitzinetik ziurtatu, apostoluak dioen bezala, Erregeren eredura antolatzen baita mundu osoa?

Oharrak

- ¹ Innocentius III, in cap. «magna de voto»
- ² Cap. 25. q.1, 8. distin. & cap. inferior. 21 distin. & cap. cum inferior «*de majori et obedient*».
- ³ L. ita vulneratus. § *ad legem aquil.* et cap. ut famae. *de senten. excommunic.*
- ⁴ Cap. «Vergentis»; cap. «Excommunicamus» *de hereticis*; «Bulla Cenae».
- ⁵ § Prohibemus de heret. Lib. 6.
- ⁶ In Clem.2 § fina.
- ⁷ Cap. Cum ad verum ventum est & cap. Duo sunt, 96. distin. & cap. Soliae de majori et obedien.
- ⁸ Cap. Bene quid. 96. distinct. 7. & cap. Ecclesia Stae Mariae de constitutu.
- ⁹ Cap. Administratores. & cap. Principes. 23. q. 4 et 5.
- ¹⁰ 23. q. 4.
- ¹¹ In cap. Novi vos & cap. De liguribus 23. q. 5.
- ¹² 1.2. cap. Cap. 3 De injusta haeretici punitio.hain Errege handiak hainbeste erreinu eta hainbeste hiri indartsu.
- ¹³ Moisesen legeko bi harri lauza haiek dira hemen gogoratzen, jakina.
- ¹⁴ In 2. 2. q. 20. ar. 3.
- ¹⁵ Cap. Cum in cunctis, De electio., auth. Multo magis., De sacros. Ecclesi.
- ¹⁶ Ex parte de consuetud., 1. Convenire.& De pactis dotalib.
- ¹⁷ Cap. Est injusta, 23. q. 4.
- ¹⁸ Cap. Ut constitueretur. 50 distinc. Et cap. Latores. De cleri. excom. minist.
- ¹⁹ In cap. Hoc tamen. 23. q. 5.
- ²⁰ L. Si unus; illud. § de pact. et glos. Recep. In cap. Ult. De deposit.
- ²¹ Cap. Sicut satius. 32. q. 4.
- ²² Cap; 1. De probatio.
- ²³ L.1.A. De pactis
- ²⁴ Cap. Matheus, De Simonia.
- ²⁵ Arg. cap. Principes, & cap. Administratores 23. q. 5. cap. Nihil cum scandalo. De prescrip. Cap. 1. novi operis nuntia imo tenetur ad eam tuendam, cap. Rex. 23. q. 5.

BOTEREAZ

III. OHARGARRIA

Portugaleko Coimbra hiri ospetsuan, izigarriko entzule jakintsu eta bereziki argitu taldearen aitzinean, 1548an eta Egilearen 55. urtean, eman hitzaldi aipatu bezain altxagarria.

Hitz hauen arabera: Ez dezala nehork uste izan Frantsesen Errege ospetsuaren boterea harrotu nahi dudala, edo ahultzen saiatu, hark berak gure boterea ez duelarik nahi ez behar tratatu.

I. Boterea zer da oro har?

Hamabosgarrenek orik, erran behar da hemen aipatzen dugun *Boterea* hitzaren adierazpenaz Baldusek aitzinatu dituen bi solasak zuhurtzia eskasez goretsi izan dituztela haren ondokoek.

Haietarik bat nihonek ere lehen behin goraipatu nuen¹ zeren bereizten baitzituen eginbidea eta boterea, erranez boterea

ez dela ahalmena baizik, eta hori errana da, gehiago zehaztu gabe, zuhaitasuna bezala da. Eginbidea, berriz, zehazki, zuria bezala. Horrek guztiak, ordea, espantu guti merezi du, zeren eta, alde batetik, argi guti ekartzen baitu eta bestetik orobat gauza berarekin gauza bera adierazten baitu². Eta, bestalde, laster erranen dudan bezala boterea hain zuzen definitzen da zerbait egiteko gaitasun hurbila bezala; eginbidea, berriz, norbaiti doakionna da, bera nor denaren arabera. Eta, beraz, abstraktua eta konkretua bezala direla erranez baino hobeki bereizten dira biak, ahalmena eta ekintza bezala direla agertuz.

Bigarren solasak, ordea, hauxe dio,³ hots, bereizten direla batetik ahalmena eta bestetik boterea; zeren eta, ahal izatea ez omen baita oraino izatea, izan aitzinekoa baizik.⁴ Baina boterea alde batetik bederen izatea da, nahiz ez zaien legelariei aski argi ageri eta berdin ez dela egia dirudien eta batzutan boterearen orde maiz ahalmena ematen den.⁵ Alta Serviusek ere bere lehen azalpenean ez zuen erabili ez ahalmen hitza ez botere hitza. Dena dela, aitzinatzen den arrazoiak eta haren ondorioak hau baizik ez dute erakusten, hots, bereizi behar direla *in actu* edo ekitez izatea eta *in potentia* edo ahalmenez izatea, baina hortik ez dator hark uste duen ondorio bera. Eta, azkenean, Baldusek berak aitortzen digu bere lehen erantzunean ez dela gauza bera ahalmenaren betea eta boterearen betea, eta nihonek aitortzen dut ene aldetik Priscianusek errana zuela jabegoari doakiola boterea eta indarrari, berriz, ahalmena, baina ez dio horrek laguntzarik ekartzen Baldusi, ez eta nehon neholaz ere Lukanoren bertso honek: *Bere jabe ez den ahaldun oro indartuko da*. Eta, beraz, pasarte batean jabegoarentzat hartzen baldin bada ahalmena,⁶ beste batean alderantziz kontrako indarraren edo indarrentzat daukate,⁷ eta, ondorioz, boterea bere aurkako indarraren edo indarrentzat. Eta Virgiliok egin bertso honek ere baldin badio: *Harro zaitztezte ene indarrak, ene botere handi bakarra!* erran nahi du ahalmen ala botere, *potestas* ala *potentia* biak ahal izatea edo *posse*, hitz beretik datozela. Horra zer-

gatik erraten dudan azkenean, ahalmena eta boterea, bi hitz horiek adierazpen bera dutela eta, oro har, indarraren edo indarren erran nahia daukatela, bai naturaz gainetik izan indarren, bai naturatik beretik izanen eta/edo eskubidez edo izatez eskuratuena, hots, greziarrek *dynamis* deitzen dutena; hitz horrek ezen besarkatzen ditu bertuteak, inperioa, nagusigoa, indarra, haitza eta ausardia; edo berdin ere bai oraino izatez ez dena; ahal dena baizik eza, hala nola, hazia den *dynamis* handituz geroz zuhaitza baita eta bermearenganik eskatzen duenak, zordunari dio eskatzen, lehenago nihonek idatzi nuen bezala, hark baitzuen, alabaina, *dynamis* edo ahalmena.⁸

Hamaseigarrenek orik, erraten dut oraino ahalmena edo boterea honela hartuz geroz definitzen ahal dela zerbaiten jarduteko edo egiteko gaitasun hurbila.

Gaitasun hurbila erran dut, gaitasun urruna baztertzeko gisan, hala nola berotzen hasi aitzin egurrak duen berotzeko gaitasun urruna; egurra suak hartuz geroz edo berotuz geroz, aldiz, erraten da baduela berotzeko boterea edo ahalmena; zeren eta horren egiteko gaitasun hurbila baitu. Nagusiak, halaber, ahalmena badu bere esklaboaren emateko kalte ordainetan, haren hazteko gaitasuna baduenaz geroz⁹. Eta ahalmena ere erran ohi da gaitasunaren adierazteko.¹⁰ Horiek guziak ederki bermatzen dituzte honelako hitz hauek:¹¹ Ahalmenaren hitzarekin anitz gauza mota adierazten dira; hala nola, kargudunen kasuan nagusitasuna; haurren kasuan burasoen larderia; jaunaren kasuan esklaboaren gaineko jabegoa, eta kalte ordainez dihardugularik ontasunak eta baliabideak.

Lau adierazpen horiei legeak berak bosgarren bat erantsen dio, eta Alciat jakintsuak beste batzuk oraino, edeki ahal izan dizkionak Frantzisko Paviakoari, hau luzaz horretaz ari baita bere liburu baten hastapenean,¹² nahiz aitzineko definizioaren barnean sartzen diren guztiak, bat edo beste izan ezik, azken hau itxuraz eta gure gai honentzat, ahalmen hitza greziarrek *exousia* deitzen dutenarentzat baizik ez baita erabiltzen,

hau da, eskumenarentzat eta zuzenbide gaitasunaren hitzarmenentzat bezala auzientzat. Ahalmena, bada, horrela hartuz geroz, bi gisetara agertzen zaigu, Elizarena den edo Laikoa den arabera, ondoko 17. eta 20. artikuluetan, ahal bezain zuzen, ene ustez, zehaztuko dugun bezala.

II. Elizaren Boterea zer da?

Hamazazpigarrenekorik , Elizaren boterea ikusiz geroz oro har, zuzen da definitzea erranez honela: *Elizaren boterea, Jesu Kristo gure Jaunak berak naturaz gainetik eta zuzenean ezarria du fededunen kudeatzeko, Ebanjelioko legearen arabera, naturaz gaindiko gaietan bai eta halabeharrez gai naturaz-koetan ere.*

Eta definizio hau Joanes Gerson irakasle hain jakintsuarena eta hain gartsuarena baino biziki hobea iduritzen zait; ikus bitez bi aipamenak *Elizaren botereaz* egin zuen liburuan:¹³ nahiz bigarren aipua, liburu berekoa,¹⁴ zuhurkiago mintzo den, aski garbi bereizten baititu generoa eta diferentzia, generoarentzat hartuz botere hitza, besarkatzen dituena elizarena eta laikoa, besteak utziz oro har diferentziarentzat.

Baina gehitzen dut: *Jesu Kristo gure Jaunak*, adierazteko zein den botere horren heineko kausa eta baztertzeko horren-gandik bai gizon hutsak bai Jesu Kristo gizon egin aitzin Jainkoak antolatu boterea.

Gehitzen dut ere: *naturaz gainetik eta zuzenean*, baztertu beharrez Jainkoak berak bitartekoz edo naturalki egin duena.

Erran dut: *fededunen kudeatzeko Ebanjelioko legeen araber*a, eta gainera adierazteko zer izan behar den botere haren erabilera, eta baztertzeko harekin lehian dabiltzan beste botere batzuk, hala nola norbera graziadun egiten duen grazia, profe-

zia, Izpiritu Sainduaren dohainak eta beste naturaz gaindikoak, bereziki besteen kudeatzeko emanak ez direnak, baina izatekotz ere, edo norberaren hobetzeko edo besteen eskolatzeko eta abisatzeko.

Erran dut: *naturaz gaindiko gaietan*, adierazteko botere horren menpeko gaiak direla bereziki fededunei naturaz gainetik emanak edo emanen zaizkienak.

Erran dut: *halabeharrez naturazkoetan ere*, erakusteko nola zeharka eta ezinbestez delako boterea heltzen den berdin denboraldiko gaietaraino.

Definizio honen frogatzeko aski argudio aurkituko da, urrunago aipatzen ditugun Pariseko Joanesek, Durandek, Joanes Gersonek, Agustin Ankonakoak, Antoniok, Torre Krematako Joanesek, Caietanok eta Jakobe Almaynusek, Aita Sainduaren eta Elizaren botereaz, aginteaz eta eskumenez idatzi liburuetan.

Hemezortzigarrenekorik, ohartzen gara Joanes Parisekoaren eta Petri Aillykoaren aburuz sei partetan zatitzen dela Elizaren boterea:

Lehenik dator ordena, hau izatez, ordenaren marka edo ezagutgarria bera besterik ez baita, Jesu Kristo gure Jaunak, ezarri zuena, ororen aburuz, bere azken afarian apostoluei erran zielarik: *Egizue hau ene oroigarri!*, hots, hau egiteko boterea har ezazue, hori baitzen sagaratzeko boterea.

Bigarrenik dator sakramentuak herriari emateko boterea eta bereziki penitentziako sakramentua, Jesus Jaunak ezarri zuena, iritzi komunaren arabera, apostoluei hats eman zielarik erranez: *Har ezazue Izpiritu Saindua; zuek bekatuak barkatu zenizkietenei barkatuak izanen zaizkie* (Joan XX). Horri dago-kio ere bataiatzeko boterea, nahiz orok bataia dezaketen halabeharrez; baina ofizioz, apezek bakarrik bataia dezakete¹⁵. Gauza bera erran behar da bataiatzekoak direnen katekizatzeko eta exortzizatzeko botereaz.¹⁶

Hirugarrenik dator eskubidezko boterea kanpoko foruan, hau da irakasteko, zuzentzeko eta ustekabeko bihurrien gaztigatzeko boterea apostoluei emana izan zitzaien bezala, Jondoni Matiuren XVIII. kapituluko hitz hauen arabera eta heltzen diren heineraino: *Zure senide batek bekatu egiten badu eta abar, erraiozu elkarteari, eta elkarteari ere kasurik egin nahi ez badio, zuretzat izan bedi arrotz baten edo zergalari baten pare-ko;* eta Ebanjelioan horien ondotik datozen hitzen arabera, nahiz ez diren hemen aipatzen, hala nola Aita Sainduaren boterea finkatzen duten hitz hauek: *Zuek bekatuak barkatzen dizkiezuenei; zuek barkamena ukatzen diezuenei;* eta botere hori Jondoni Petriri berari ematen dioten beste hitz hauek: *Larra itzazu nire ardiak!* (Joan. XXI), nahiz Jakobe Almaynus ari izana den bere indar guztiez, botere hori ezin aski neurtu beharrez.¹⁷

Laugarrenik dator zerbitzariak izendatzeko, elizako irabaziak eta karguak banatzeko boterea; hori Occamek nahi duena erranik ere, Joanik bere azken kapituluan bildu hitz hauek baitaukate, iritzi komunaren arabera: *Larra itzazu nire ardiak!* Larratzeak, alabaina, ez du bakarrik erran nahi konfesioak entzutea eta penitentziako sakramentua ematea, baina eskualdeen eta herrien gaineko artzainak ezartzea ere bai, eta haien alhatzeko eta salbatzeko behar diren gai guztietan eskolatzekoa.

Bosgarrenik dator apostolu izateko edo predikatzeko boterea, Jesu Kristo gure Jaunak eman zietena apostoluei, san Mateok eta san Markosek beren azken kapituluetan bildu hitz hauek erranez: *Zoazte mundu guztian zehar eta hots egin berri ona izaki guztiei!*

Seigarrenik dator aitzineko erranetarik, jateko eta beztitzeko behar diren baliabideen menpekoengandik eskatzeko eta eskuratzeko boterea; horretaz baitio Jondoni Paulok Korintoarrei idatzi I. gutuneko 9. kapituluan, Jesu Kristok ezarri zuela legea erranez san Lukasen arabera: *Zor baitzaio langileari bere lansaria.* Eta san Lukasen 10. kapitulu horri jarraiki zaio

Jondoni Jakobe ere, baina guri iduritzen zaigu ez zela Jesus Jaunaren lege berri horren beharrik, zeren eta *Langileari zor zaio bere saria* delako legea, naturaren beraren araudiari baitarraio, eranskin bezala. Hori bera idatzia dut zehazkiago honelaxe:¹⁸ nahiz egia den botere hau aitzinekoen eranskina dela, erran dezakegu, halere, Jesus Jaunak ezarri legea dela, gehigarri gisa bederen.

Gaineratzen dut bestalde:

Lehenik, botere edo eskubide horiek guztiak bitan banatzen ahal direla, Jakobe Almaynusek eta aitzinetik aipatu doktoreek nahi dutena erranik ere, hauek baitira ordenako boterea eta jurisdikzioko boterea, zeren lehen boterea ordenakoa baldin bada, beste lauak jurisdikziokoari doazkio, bai auzietakoa, bai hitzarmenetakoa, bai barne forukoa, bai kanpo forukoa, guztiak biltzen diren bezala kapitulu anitzetan¹⁹ eta beste asko lekutan. Bizitzeko behar diren baliabideak eskatzeko eta eskuratzeko eskubidea, berriz, ez doakio iduriz bereziki elizaren botereari, baina gehigarri bezala bakarrik, zeren ez baitu Jesus Jaunak bereziki berritarik ezarria, baina naturaren legetik baitator, honek duelakotz agintzen, guk erran bezala, langileari zor zaio-la lansaria ematea.

Gero, gaineratzen dut, ene ustez, zuzenagoa dela Joanes Gersonen zatiketa, elizaren boterea bi partetan soilik banatzen duena, erran nahi baita ordenakoa eta jurisdikziokoa. Guk hemen bizkitartean elizaren jurisdikzioko kanpo foruaz eta auzitegietakoaz soilik dugu hitz egiten, gure aitzineko irakasle guztiek hemen egin bezala.

Azkenean erraten dut, aipatu diren elizaren bost botereak sartzen direla aitzineko eranskinean eman definizioan, bai eta seigarrena ere, gehigarri gisa, elizaren boterearen gehigarria denaz geroz.

Hemeretzigarrenek orik, ikusten da elizaren boterea definitzeko zuhurki erabiltzen dugun hitza dela *finkatu* hitza eta ez apostoluen idazkietan aurkitzen diren beste hitzak ez eta Joanes

Gersonek darabiltzanak, jadanik erran bezala. Ez da, alabaina, batere gauza bera botere baten finkatzea, eta haren norbaiti ekartzea eta ematea, Durandus jakintsuak irakatsi zuen bezala²⁰ eta Hervaeusek ere,²¹ nahiz ez ote genukeen definitu behar ea botere hori Jesus Jaunak eman zion bereziki Eliza osoari ala Jondoni Petriri berari. Baina ez da hori oraingotz kontseilatzeko Erromako eta Pariseko teologoek arteko eztabaida izigarri harengatik; erromatarrek ezen daukate Petriri eta haren ondokoei emana izan zaiela botere hura eta, beraz, Aita Saindua Kontzilioaren gainetik dagoela. Besteek, aldiz, zeinekin bat datorren Gerson, diote botere osoa emana izan zaiola Eliza osoari, nahiz gizon bakar batek duen erabiltzen eta horrengatik kasu batzuetan bederen Aita Sainduaren gainetik dago Kontzilioa; san Tomasek bada, dirudienez, erromatarren iritzia du hobesten,²² bai eta Tomas Viokoak ere, artikulua beretan eta beste liburuxka batzutan²³ hor delarik bermatzen beste guztiak baino gorago eta sakonago bere ikuspegiaren frogatzera. Bestaldera itzultzen da, ordea, panormitarra, Pariseko teologoen eskualdera, maizenik hauen liburuak baitituzte gure lagunek hartzen.²⁴ Iritzi bera dute mendekatzen gogorki Jakobe Almaynus Sorbonako teologoak, liburuxka batean zuzenki jazartzen zaiolarik Tomas Viokoari, eta Joanes Handiak ere, gauza bera egiten duelarik san Mateoren iruzkinaren 6. kapituluaren erranez, Erroman ez zaiola nehoriz zilegi panormittarren eta Paristarren iritzia bereko agertzea, eta alderantziz Pariseko unibertsitatean ere ez dela nehor haizurako kontrako aburuaren aitzinatzerik han gaindi, baina iduri luke delako Tomas Viokoak bi alderdiei buru egiten diela bere Apologian.

III.

Botere laikoa zer da?

Hogeigarrenkorik, botere laikoa honela definitzen da: Botere hau da Jainkoak zuzenean eta naturalki gizakien elkar-

ari emana, bere burua goberna dezan naturazko gaietan, zuzen eta zoriontsu bizitzeko gisan, naturazko adimenaren arabera. Definizio hori dagokie gorago aipatu ditugun argudioei hala nola san Tomasen erranei,²⁵ eta, beraz, ona da, zeren eta boterea hitza ezartzen baitu generoarentzat eta beste hitzak diferentziarentzat, eta elizaren boteretik bereizten baita horrela 17. gehigarrian jadanik emana dugun elizaren boterearen definiziotik nabari den bezala Eta hori frogatzen da:

Lehenik, gure Ohargarri honetan jadanik eman ditugun kasik argudio guztiei esker.

Bigarrenik zeren eta Jainkoak begiratu behere honetara agindu baitzion berak kreatu gizonari biderka zedin, ikus Hasiera I. & II., eta ondorioz nahi izan zuen gizonen elkarte, edo gizartea izatea. Baina zerbait nahi duenak, sinesteko da nahi dituela ere hura izan dadin ezinbesteko direnak;²⁶ ikus ere beste aipamen batzuk aitzineko Ohargarriaren aurka doan azken argudioan. Ezen ez da neholako elkarerik aski zuzen kudeatzen ahal denik gobernatzeko, agintzeko, legeak ezartzeko eta epaitzeko botererik gabe Erran Zaharren hastapeneko hain ohargarri zai-gun honen arabera: *Gobernatzailerik ez duen herria barreiatu -ko da.*²⁷ Eta hor berean, jarraian: *Ez baitu nehondik ere batasunak irauten ahal, non ez zaion horrela lerro handiaren ezberdintasunari begiratzen.* Horra, beraz, nola Jainkoak eman zion, ondorioz bederen, hastapenetik, gizadiari aipatzen dugun epaitzeko eta gobernatzeko boterea.

Hirugarrenik, frogatzen da Jainkoak gizona egin duela kotz abere arrazoidun hiritar edo politiko bezala Aristotelesen eta san Tomasen arabera.²⁸ Eta, gainera, azken honek egin du kapitulu berezia fraideei buruz non aipatzen baita aspaldiko errana: *Zorigaitz bakartiari!*, «*Vae soli!*»²⁹. Eta, beraz, gizarteak ez zuen irauten ahalko, ez zen are gutiago haziko botere hori izan ez balu.

Laugarrenik, horri esker Jainkoak zuzenean eta naturalki ematen dio gizaki bakoitzari, bere biziaren eta gorpu-

tzaren zaintzekoa, hutsik gabeko geriza bermatuz, Zizeron bera lekuko.³⁰ Jakiteko, ordea, ea bi botere horiek Jainkoak zuzenean eman izanak dituen molde berean, nahiz ez ber denboran, zerbait erranen dugu 49. gehigarrian eta lehen ere errana dugu.³¹ Eta, beraz, arrazoi berarengatik, gizartearen begiratzeko behar den boterea emana zaio gizaki bakoitzari zuzenean eta naturalki.

Bosgarrenik, nolazpait gizakiari ematen zaio gizonen erailtzeraino heltzen den botere hori:³² eta ez da hemen erranaz besterik irakurtzen ez aurkitzen, hori bera aitortzen baitute Inozentziok eta ondotik ostiarrak eta Joanes Andreak:³³ eta, beraz, hor dago botere laikoaren egiazko iturburua.

Horiek guztiak bermatzen ditu, bada, Aristotelesek *Arimaz* idatzi duen liburuaren 3.ean eman ohar honek: *beharrrezkoetan ez du naturak eskasik, ez behargabekoetan gehiegi-rik*. Horra zergatik Joanes Pariseko domingotarrak errana duen delako botere laikoa Jainkoarenganik datorrela zuzenean; erran nahi baita Jainkoak emana diola gizonari naturazko arrazoia,³⁴ hortik ageri da delako boterea gizakiei eman izan zaiela beren gobernu onarentzat, hori bera errepikatzen zuen bezala Durandusek³⁵ eta gero berriz Hervaeusek, Joanes Gersonnek eta Jakobek.

IV.

Zerk ditu bereizten elizaren boterea eta botere laikoa?

Hogeita batgarrenkorik, elizaren boterea eta botere laikoa elkarretarik bereizten dira kausa materialaren, formalaren, finalaren eta nolazpait eragilearengatik ere, zeren eta ondoko bi gehigarrietan eman definizioetan ageri denaren arabera, botere laikoa, munduaren hastapenetik, gizakia egin aitzin, Jainkoak

emana baitzion gizarteari, elizaren boterea, aldiz, Jainko gizon eginak eman baitzuen berritan.

Kausa materialaren aldetik, ordea, zuzenean emana da botere laikoa naturazko gaien gobernatzeko eta elizaren boterea, berriz, naturaz gainekoen kudeatzeko.

Kausa finalaren aldetik ere, eliza boterearen helburua da naturaz gaineko egoera izatea graziari esker mundu honetan eta betiereko loriari esker beste munduan; botere laikoaren helburua, aldiz, naturazko egoera da, hots, bizi ona eta zoriontsua, erran nahi baita bertutetsua, bertute moralek egiten duten bezala arrazoi naturalaren gidaritzapean onargarri, graziadun egiten duen grazia bereziaren beharrik gabe.

Kausa formalaren aldetik oraino elizaren botereak baitarama bereziki naturaz gaineko legearen edo Ebanjelioko araudiaren arabera; botere laikoak, berriz, naturazko legearen eta arrazoiaren bidetik.

Hogeita bigarrenekorik, erran behar da botere laikoa eliza legea baino lehenagokoa dela edo bederen Jesu Kristo gure Jaunaren ondotik, kristauen eliza kudeatzen duen boterearen aitzinekoa. Botere laikoa, alabaina, hirien hastapenetik naturalki hasi zen, san Tomasek argi erakusten eta argiago oraino frogatzen duenaren arabera,³⁶ zeren eta hastapenetik naturalki emanak diren legeak besteekin lehian baitira³⁷. Elizaren boterea, bada, naturaz gaingikoa, hasi zen Jesu Kristo gure Jaunaren sortzearen era pasionearen ondotik, ikus: *Zaindu itzazu ene ardiak* eta jarraian datorrena (Joan. XX.), Jondoni Petriri gure Jaunak erran zion egunetik, lehen aburu baten arabera; edo bigarren aburu baten arabera, ikus: san Mateoren 18. kap. *Erran iezaiozu elizari* eta abar (Mat. XVIII) gure Jesus Jaunak erran zuenetik, san Tomasek adierazten duen bezala³⁸ edo bestela oraino ikus: *Giltzak emanen dizkizut* (Mat. XVI.) Jesu Kristo gure Jaunak erran zuenetik, nihonek 5. gehigarrian hunkitu dudak bezala. Horra zergatik botere laikoa aitzinatzen zaion eli-

zaren botereari adinez eta denboraz eta, aitzitik, elizaren botereak gainditzen duen botere laikoa duintasunez eta bikaintasunez. Ikus beste diferentzia batzuk 58. gehigarrian!

Hogeita hirugarren orik, erraten da oraino egia dela lekukotasun batzuk diotena³⁹ eta san Tomasek sakonki adierazten duena,⁴⁰ hots, ez dela berdina lege zibilen helburua eta lege kanonikoena. Eta hori frogatzen da beste arrazoi honekin, erran nahi baita lege zibilak botere laikotik eta naturaletik heldu direla, hark sorturik; lege kanonikoak, aldiz, elizaren botere naturaz gainekotik:⁴¹ eta, beraz, elizaren boterearen helburua betiereko bizi naturaz gainekoa baita, hura bera izanen da hartatik datozen legeen helburua ere. Botere laikoaren helburua, berriz, bizidun hilkorren denborazko bizi on, zorientsu eta baketsua baita, hori bera izanen da horrenganik heldu diren legeen helburua ere, zeren eta ondorioa ez baita bere kausa baino urrunago joaten ahal.⁴² Baina ez dakit hori erraten duena eta aipatu ditugun beste idazleak oroitu diren eta gogoan hartu duten gure Fortunio jakintsu handiak bi *zuzenbideen* helburuez idatzi zuen liburua- ren hastapenean ezarri zuena: zeren hor bi zuzenlegeen helburua bat bakarria dela baiesten zuen berak, bere aitzineko guztien aurka, eta hori, erran delako argudio guztiengatik ez dirudi helburu zuzen eta nagusiaz onartzen ahal denik, nahiz bitarteko eta maila apaleko helburuez onar daitekeen edo bederen ez duten ukatzen jadanik aipatu ditugunek eta haien iruzkinek.

Hogeita laugarren orik, erraten da elizaren boterea, Aita Sainduak eta Elizak Ebanjelioaren izenean daukatena, ez dutela neholaz ere ukan ahal izan Jesu Kristo gure Jauna, sainduetan sainduena etorri baino lehen, zeren eta, alde batetik botere hori Jesusek berak baitzien berritan eman, erran bezala, eta, bestetik, ondorioa ez baita bere kausen aitzinetik jartzen ahal:⁴³ *Krimenaren zigorra, krimen hura eragotziko duen legearen denboraren ondotik dator, alabaina.*⁴⁴ Eta, beraz, erraten dugu lege berriko zazpi sakramentuak Jesu Kristo gure Jauna etorria hasi zirela eta, ez lehenago, Jesu Kristo gure Jaunak ezarri baitzituen

gure irakasleen iritzi arruntenaren arabera,⁴⁵ guhaurek gure *Eskuliburuan* errepikatzen dugun bezala⁴⁶ eta hor berean erranaren arabera,⁴⁷ Trentoko Kontzilioak definitu baitzuen fede katolikoaren artikulua gisa. Horra zergatik ezkontza ere sakramentua den heinean Jesus Jauna sortua hasia den agertzen teologo gehienek arabera.⁴⁸ Gero horren frogatzeko perpaus berezi bat badugu dioena honela: *Jesu Kristo gure Jaunaren ondotik, Jondoni Petriringanik hasten da apezgoaren ordena.*⁴⁹ Azkenean, erran behar dugu gehigarri honek erraten duenarekin bat datozela Tomas Akinokoa⁵⁰ eta Joanes Parisekoa, Durandus, Hervaeus eta Tomas Viokoa⁵¹ bai eta Joanes Gerson, Joanes Handia, Jakobe, aipatu ditugun teologo gehienak eta beste aita irakasle guztiak ere, onartzeko, Jesu Kristo gure Jaunaren ondotik Eliza kudeatzen duen boterea, Jesus Jaunak berak duela berritan ezarri.

Hogeita bosgarrenek orik erraten da elizaren boterea eta botere laikoa kontrako moduan sortu, hazi eta bederen agertu direla gizakiei; elizaren botere naturaz gaindikoa, alabaina, dena batean eta betan naturaz gaindiko moldean hasirik eta Aita Sainduarekin oso-osoan agerturik, hortik aitzinatu da patriarken eta primatuen, artzapezpikuen, apezpikuen bitartez helduz xeheenetaraino, hau da, beste prelatu apaletaraino, san Leonen eta Anakletoren arabera.⁵² Botere laikoa aldiz, naturazkoa baita, molde naturalean, tipitik eta eskasetik abiaturik, erran daiteke aitzinatuko dela, etxe soiletik etxe multzora, eranskin honen hondarrean aipatuko ditudan arrazoiengatik, eta gero, baratxe-baratxe, erdi mailakoetan haziz, hau da, gaztelu eta hirietan, iganen da goihen beteginera, erran nahi da, hiri askoren batasuna den Erreinura eta erreinu anitzen biltzarra den Imperiora. Eta hori bera digu irakasten: munduaren historiak: mundua sortuz geroz, etxe bakarra da behin eraiki, ondotik beste etxe batzuk dira bereiz jarri; eta nola gizakia abere soziala edo lagunkina den eta biziak eskatzen dizkion baitezpadako guztiak ez dituen bere etxeko soilekin bereganatzen ahal, behar izan du, elkarre-

taraturik hobeki bizitzeko, anitz etxe elkarretara bilduz herria sortu; gero herri askotako hiriek ongi elkarturik eta beregain jarriarik hautatu dituzte beren eta herritarren kudeatzeko erregeak, deitzen baitira herri bereizien erreinuak Baina erreinu tipi hauek handitu-eta, anitz erreinu tipirekin egin dira erreinu handiak eta orduan erreinu handi askorekin galdu da Inperioa. Bizkitartean hiri bakarra zelarik edo zenbait hiri baina bakoitza bere alde egoki, hiri bakoitzeko hiritar guztiek bazuten bakoitzak bere jabegoa eta eskubidea, jaurgoa horretaz jabetu arte, edo hautaketaz, edo bestela, gizaki bakarra. Hauek guztiak bilduak dira ez lekuko soil batenganik baina askotarik, adibidez Aritotelesen eta san Tomasen 1. 3. & 4. *Politikatik*, Zizeronen *Erretorikatik*, botuez hain goraki, zuhurki eta sakonki mintzatu zen Inozentzio Aita Sainduarenganik, eta hitzez hitz honi jarraiki zitzaion teologo Ostiakoarenganik eta Joanes Andreasen idazkiak bildu zituen san Antoniorenganik,⁵³ nahiz Joanes Parisekoak, Durandusek, Gersonok eta Jakobek ez duten deus horrelakorik aipatzen.

Horiek horrela eta gertakarien bilakaera kontutan hartuz, haztatzen dut azkenik delako legea, Justiziaren eta Zuzenlegearen bidean gibelera itzuliz, haien aitzinamendua gogoratzeko gisan, honela baitio lege hark berak: *Naturazko lege hartatik datozela gerlak, populuen bereizketak, erreinuen oinarriak, alorren zedarriak, eraikinen zimenduak*. Argi dago, alabaina, gerlak piztu aitzin bazirela populuak, gerlak egin behar zituztenak, eta populuak agertu aitzin, erreinu batzuk sortuak zirela, zeren eta Aristotelesek baitio *Politika*-ren lehen liburuan hastapenetik hiri batek izan zuela bere erregea, errege deitzen baitugu, alabaina, gizarte gaietan kudeantza nagusia bere esku duena, san Tomasek dioen bezala 14. kapituluan. Eta erreinuak sortu baino lehen, eraikin asko elkarrekin altxatuak izan ziren eta eta etxe bakun anitz ere bai eginak, *Hasiera*-ko lehen kapituluan erraten den bezala⁵⁴ eta gero aipatzen da nola Noek gogorki gaztigatu zuen bere biloba Kanaanen semea.

Horrengatik eta *Hasiera*-ren 14. kapituluan erraten denarekin, hau da, Abrahamek 318 zerbitzari bere eskuko bazituela, asma daiteke gehigarri honen hastapenean aitzinatzen genuena, horrelako etxe zabalean bizi zelarik, neholako hiriaren eta nehongo erregeren menpean izan gabe, errege boterearen jabe ere zitekeela. Komunzki, alabaina, delako boterea edozein hiri motari eman ohi zaio, eta Abrahamek bere etxea bere hiria bezala zeukalarik, izan behar zuen ez bakarrik aita familiakoaren boterea, etxeko nagusi bezala, baina ere herri boterea, elkar-go buru bezala: bai zuzen liteke onartzea errazki botere hori zor zitzaiola. Badakit, bizkitartean, Aristotelesek kontrako aburua duela agertzen, *Politika* liburuko 2. partearen 1. kapituluan aipatzen dituelarik uste dutenak etxe handia hiri tipia bezala dela, eta hiri tipia, berriz, etxe handia iduria; eta gero berdin uste dutenak botere bera dutela aita familiakoak eta erregeak. Baina menturaz horri ihardesten ahal litzaioke Noe eta Abraham ez zirela arrazoi berarengatik deitu izan batetik aita familiako eta bestetik errege.

Hogeita seigarrenek orik errana da elizaren boterea oroz gainetik eta zuzenean naturaz gaineko eta izpirituko gaiei dago-kiela; denborakoei, aldiz, bigarren mailan soilik eta ondoriozko gehigarri bezala. Eta botere hori denborakoetara heltzen zaie, noiz eta Ebanjelioaren eta beste naturaz gaineko eta izpirituko gaien zaintzeko, erdiesteko edo ez tratatzeko arrazoiak behar-tzen duen heinean.

Gehigarri honen 1. partea frogatzen da 14. gehigarriko gure Ohargarriarentzat aitzinatu ditugun argudioekin; 2. parte, berriz, *lehenbizikorik* 17. gehigarriaren hastapenetik alderantziz eman ditugunekin.

Bigarrenekorik, zeren eta helburu berezi bati buruz anto-latuak diren gaiak, helburu horrek behar duenaren arabera sail-katzen, hedatzen eta birilkatzen baitira⁵⁵ eta horretaz Artxidiakreak dioena⁵⁶ Bartolok frogatzen baitu.⁵⁷ Helburuaren eta arrazoiaren arabera hedatzen da, alabaina, edo birilkatzen

legea bera, gogoratzen duten bezala, batek luzaki bezain besteak zorrozki, Felinek eta Dec.-ek⁵⁸. Bizkitartean aipu dugun naturaz gaindiko boterea eliza boterea da, naturaz gaineko gaiak kudeatzeko jarria eta gizakiak beren azken burura bideratzeko egina delakotz, hots, betiereko biziraino, aitzineko 17. gehigarrian eman definizioan nabari den bezala. Horra zergatik hedatzen den denborazko gaietaraino, naturaz gaineko gaiak behar duen neurrian, baina ez urrunago.

Hirugarrenekorik san Tomasen erran batzuegatik, hauek aburu horren arabera aditzen ahal baitira,⁵⁹ hala nola, dioelarik kristau guztiak eta haien erregeak Aita Sainduaren apez erregetzaren menpeko direla, argi delakotz haiek menpeko izan behar dutela, naturaz gaineko gaiak hori eskatzen duten neurrian. Hori bera adierazten du 3. liburuko 10. kapituluan, ezen erraten du Aita Sainduaren botereak gaitzen duela edozein nagusitasun, onartuz geroz Jesu Kristo gure Jaunak beti bere artaldearen onetan diharduela sinetsi behar dugula. Eta apur bat lehentxeago, kapitulu berean aitortzen zuen san Tomasek berak Erromako Apezpikuaren boterea ez dela mugatzen soilik izpirituko gaietara, zeren eta denborakoa eta gorputzekoa ere beti baitatxekio izpituari, gorputzaren ekintza arimaren bertuteari eta ahalmenari bezala. Hori bera ezin argiago adierazten du gure irakasle kartsu eta jakintsuak bere 3. liburuko 12. kapituluan hasirik, Malakiaren erranarekin finkatzen duelarik, irakatsiz Jesus Kristo gure Jaunaren nagusitasuna arimaren salbamenduari eta izpirituko ontasunari buruz antolatua dela, nahiz ez diren horregatik denborako gaiak bazter uzten izpiritukoei lotuak diren bezainbatean.

Ikus ezazu arren nola hitz hauek adierazten duten zer moduz denborako gaiak ordenatuak diren izpiritukoei buruz, ezen modu horretan eta ez bestela heltzen da haiengana Aita Sainduaren aita botere goihena. Horretara doa, alabaina, liburu bereko 15. kapituluan erran bezala, Jesu Kristo gure Jaunak mundu osoaren denborako nagusitasuna zeukalarik, bere nagu-

sitasun hori zuzenki ordenatu zuela izpirituko biziari buruz, san Joanen 10 kapituluko erran honen arabera: *etorria naiz, bizia izan dezaten eta nasaiki izan dezaten*. Horrek erran nahi du, 13. kapituluaren amaieran bezala, Jesus Jaunak ez diola bere botere guzia eman Jondoni Petriri. Eta, beraz, egoki da sinestea Eliza guztiarentzat eta haren parte bakoitzarentzat naturaz gaindiko helburura lortzeko behar den botere osoa, baina hura baik ez, eman ziola. Hau da liburu bereko 2.ko 2.ren 40.galdeko 2.artikuluak dioen bezala, *Helburua duen edozein pertsona, edozein trebetasun, ahalmen edozeinek izan behar dituela bere esku burura heltzeko behar dituen guztiak Gizarteko gerlak, ordea, apezek kudeatu behar dituzten Jainkozko ontasun izpiri-tualen arabera erregelatzen dira fededun herrien artean eta, beraz, apezek doakie horien guztien antolatzea eta gerla zuzenei buruz eragitea*. Horri guztiari, ordea, gaineratu behar zaio 2. liburu beraren azken iritzia, honen arabera botere laikoa juntatzen baitzaio Izpirituzko botereari Aita Saindua baitan, eta, beraz, honek bere menpe dauka bi botereen goihena, erran nahi baita izpiritukoarena eta laikoarena, hau haren mendean delarik, errege eta apez biak batean izanez, Melkisedeken ordenaren arabera eta bere boterea nehoiz galduko ez duen Jaunen Jauna dukegu eta haren erregetza ez da neholaz hondaturen. Ez nuke, halere, eztabaidatu nahi beste iritzirik duela san Tomasek dioenarekin eta gure aburua baino beste arruntagoa nahiago duenarekin.

Hogeita seigarren gehigarri berean erranen dugu, halere, makur dabilela Marsilo Paduakoa, bere *Bakearen Defentsaria* delakoan, bortxatzeko eta esku hartzeko ahalmen oro ukatzen diolarik Elizari, jada ezen lehenago aipatua dugun Jakobe maisuak kondenatzen zuen ikuspegi hori,⁶⁰ alde batetik bortxatzeko eskubiderik gabeko boterea hutsala baita,⁶¹ eta bestetik esku hartzeko eta bortxatzeko ahalmenik ez balu ahal guti bailuke, haren Jaun Espos handien eta hoberenak, Jesu Kristok berak ezarri zion helburura heltzeko.⁶²

Hogeita zazpigarrenekorik, frogatzen da zergatik Aita Sainduak beren aulkitik kentzen ahal dituen erregeak, beren erreinuen kudeatzeko hainbestetaraino lazoak direlarik, non menpean daukaten Jainkoaren herria urruntzen den betiereko biziaren bidetik: gaizkileak ezen gatzigatzen ez direno; jende onak izutzen edo iraintzen direno; bakoitzari berea bihurtzen ez deno, hor dago arrazoia erreinu horietan erregeen kargutik kentzera behartzen duena, betiereko bizira heltzeko trabak baztertzeko gisan. Eta arrazoi hori bera edo beretsua aurkitzen da 15. kapituluko 6. galdean.

Frogatzen da ere zertako hobe litekeen Aita Sainduak berak erregeak kargutik kentzea baino, berak onartzea soilik haren baimenarekin herriak erregea bere aulkitik baztertzea ausartzea, nahiz besterik dioen kapitulu bereko iruzkin nagusi batek, zeren orduan ez bailiteke beharrezko erregeren kargutik kentzeko epaia, baina bakarrik haren baztertzeko herriaren oniritzia, erreinuak ez direla erregeentzat eginak, baina bai erregeak erreinuentzat, sinesten dutenen arabera. Eta, beraz, iduritzen zaie erreinuak beren erregeak baino lehenago eta ere garrantzitsuago direla, eman izan zaien boterea erreinuen suntsitzeko edo beren erreinu haiek eman edo eman behar izan zaizkien xedearen kontra egiteko, erregeek baliatzen duten kasu haietan, baina labur egin beharrez ez dut hori frogatuko, ez solasa luzatuko. Bizkitartean ez dut gogotik galtzen Jakobe Almaynusek erraten duela Elizaren Botere Goihenez idatzi liburuko 15. kapituluaren 11. lerroan eta luzekiago arratsaldeko hitzaldietan, ez dela erreinua erregearena baina herriarena eta, natura legez, erregeren boterea herriarena berarena dela ez erregerena; hainbestetaraino non, herriak ez baitezake, neholaz uko egin osoki botere hari.

Ez dezaket, bada, ahantz ere aspaldiko egun eder hura non, 1528an, Salamancan, sekulako jende ikasi eta jakintsuen biltzarrean eta azkenean gaitzeko eskuzarta andanaren erdian eta lehen aldikotz hango irakasle guztien aitzinean, nihonek

Eliza oinarrien kapituluan aipatu ondorioak finkatu baintuen orduan, Akademia horretako bisitari eta berritzaile ernea zen Petri Pachecoren aurrean, hau orain Mentexako apezpiku eta Erromako Eliza Sainduaren Kardinale guziz aipatua baita.

Ene irakaspen horien aurka beren geziak, aroztegiko labe gorrietan gogortuak baina Lernako pozoi gaiztoaz pozoindatu gabeak igorri zizkidaten Frantzizko Mendozakoak eta Bobadilla, grekoz eta latinez anitz ikasi eta Jainko ala giza legeetan hain jakintsu, orduan Akademia hartako lehendakari edo irakasle eskolaren buruzagi nagusi deituak, gaur egun hura ere Caurako apezpiku baita eta Erromako Elizan duen kargu goiherenarengatik biziki ezagunagoa. Han zen ere Diego Albakoa orduan elizalegearen irakasle jakintsua, gero Asturicako apezpiku eta orain, berriz, jakin dudanez Avilara iraganik guztiz aipatua, bai eta Mendes Saakoa, guztiz isila, nahiz bera Coimbrako etxe handienetarik jalgia eta gero Toledoko Artzapezpikuaren kontseiluko kide ezagun jakintsuetarik izanik, orain, berriz, senatari karguan distiratzten duena. Eta horiekin guztiekin batean, beste horrelako zenbait, sostengu eta mezenas zeukatela Frantzizko Nafarroakoa, errege odoleko seme guztiz aipatua, orduan Orreagan buruzagi gisa bai Jainkoarentzat bai gizonentzat hain lorioski egin zituen gauza guztiengatik goraiatua eta, geroztik Pax Juliako apezpiku agurgarri izanik, Jainko ala giza legeetan gain gainetik ikasia eta arimako argiez ala bertute guztien kopuruaz nagusi diren bakarretarik zelarik, 1562ko apirilean, Valentziako Artzapezpiku ikusi nahi zutelarik, Jainkoarengana joan zitzaiguna.

Hogeita zortzigarrenekorik, erraten da zergatik Aita Sainduak eman diezazkiekeen erregeei laguntzaileak edo onar dezakeen boterea ematea eskatzen duten erreinuei eta Jesu Kristoren ordezkoreen baimenik gabe hura hartzera menturatzten ez direnei,⁶³ nahiz ez den sori horrelakorik egitea, erregeen menpeko laiko batekin, xahutzalea baldin bada edo ohoina edo haur hotza edo ez baldin bada izan bederen aitzineko juje laiko-

aren lazakeriarik, zeren hori guztia beharrezkoa baita bizi on eta bertutetsuarentzat, naturazko arrazoiaren arabera, eta beharrezkoa ere naturaz gaineko biziarentzat, baina hau ez berdin.

Hogeita bederatzigarrenek orik, erraten da zergatik berriz eta egiaz erabaki izan den enperadorea hil ondoan Aita Sainduak inperioa gobernatzea,⁶⁴ nahiz eta beste printzerriak eta erreinuak haien printzeak edo erregeak hil-eta ez dituen hark gobernatzen. Hau da, beraz, arrazoia, enperadoreak ez duela uzten ondokorik bere menpeko herrien gobernatzeko, eta arriskatzen du herriak buruzagia galduz geroz gaizpidetan eta biziotan erortzea, eta, horrela betiereko bizitik eragotzirik, urruntzea. Baina kasik beste errege eta printze guztiek ondokoak edo haiek ordezkatzeko ahal dituzten buruzagiak uzten dituzte eta beste zenbaitek, aldiz, herriak hautatuak izan direnek, beren erreinuen legeen arabera uzten dituzte buruzagi bat edo beste erregeorde bezala erreinuen gobernatzeko giristinoki, ondokoaren hautua egin arte, hori, denbora laburrik barne, egin ohi den bezala, egiten ahal baita; eta, beraz, ez da Aita Sainduaren gobernu beharrik. Bizkitartean baitezpadako balitz goiko biziarentzat, inperio germaniarraren aulkia hutsa delarik bezala, orduan Inperio erromatarren kasuaren modura bere legatuaren bitartez goberna lezake Aita Sainduak. Eta, beraz, betiereko bizira heltzeko edo haren ez eragozteko arrazoiak ez du gauza bera eskatzen kasu horietan eta inperioarenean.

Hogeita hamargarrenekorik, erraten da zergatik zuzen Inozentzio IV.ak kargutik kendu ahal izan zuen Frederiko enperadorea, zeren eta printze horrek izpirituko krimen asko onartu baitzituen,⁶⁵ hala nola, Napoliko apezak mindu zituzten haren zin hausteak, sakrilegioak eta heresiak, eta horiek guztiek naturaz gaineko gaiak jotzen zituzten zuzenean eta bortxatzen zuzenki Jondoni Petriren esku ezarriak ziren ontasunak, hauek beste errege baten menpeko batek haren esku eman balitu, honek berak ken bailiezazkioke zuzenez eta zigortzen ahalko bailuke⁶⁶.

Hogeita hamaikag arrenek orik, erraten da Erromako Aita Sainduak berak, zenbait aldiz denborako gaietan ere erabaki larrienak hartzen ahal dituela laikoen artean, beste aldi batzutan, berriz, xumeenak hartzea ere ez zaiolarik zilegi: Aita Sainduak erabaki zuen, alabaina, jasan behar zela edozein kristauren hiltzea edo hiltzaile batzuen eskuz hilaraztea eta beste horrelako zernahi izugarrikeria,⁶⁷ eta, bizkitartean, ez litzaioke zilegi, zuzenez bederen, denborako gaietan haren menpe ez dauden eskualdeetan erabakitzea zer-nolako gaztiguz gaztigatuko den edozein lapur edo naturako lege soilak hauts litzakeen norbait. Ez du hori eragozten handia egin dezakeenak, tipia ere egin dezakeela dioen erregelak, zeren eta ez baita hemen erregela horren kasua, baizik eta arrazoi bat aurkitzen delarik handiarentzat, are gehiago arrazoi hura bera bederen badagoela tipiarentzat.⁶⁸ Baina kristauren desohoreak eta bat-batean hiltzen zituzten jendeen arimen arrisku izugarriak, betiereko bizi naturazgaindikoarentzat traba handiak direla-eta, Aita Sainduaren boterea eta eskuarte hedatu zituzten kasu xeheagoetan sendi ez diren behar-ordu larrietaraino.⁶⁹

Hogeita hamabig arrenek orik, erraten da egia dioela urrunago jarriko den seigarren Ohargarriak Erromako Aita Sainduak berak larderiatzen ahal duela laiko nornahi, edozein bekatu hilgarri, naturaz gaineko legeak hautsiz edo hitzarmenak ez begiratzuz edo zerbait debeku gaindituz, egin duelarik, zehazkiago adieraziko den bezala.

Hogeita hamahirug arrenek orik, erraten da naturako legearen arabera, bai eta edozein lege zibilen arabera eta herri-legeen arabera ere, nahiz ez giza bakoitzaren gogara, hiri orok badaukala esku eta botere bere hiriko hiritar bakoitzaren gain. Hori erakusten du urrunago erraten denak.

Eta, *lehenik*, ezin ukatuzko froga honek, erran nahi da, gizonik ez hiltzeko debekua, Jainko lege naturakoak ezarri duela lekukotasun guztien arabera;⁷⁰ baina Jainko legeari ez dio nehorik salbuespenik jartzen ahal, lege hura ezarria duen Jainko

Jaunak berak baizik, hori baita egiazki orduan naturako Jainko legeari salbuestea. Eta gizon soilak ezin du horrelakorik egin⁷¹ eta, beraz, lege bat baldin bada kasu batean gizona hiltzea zilegi egiten duena, lege horrek behar du izan Jainko legea edo naturakoa edo beste memento batengatik egina. Baina orain aipatzen den nagusitasuna edo boterea heltzen da gizonaren erailketa bera besarkatzeraino,⁷² halako gisaz non erkidegoaren edo batasunaren bakeak eskatzen duelarik norbaiti biziaren edekitzea, hori egin daitekeen herri boterearen bitartez; Jainkoa bera da bizkitartean, eta ez gizaki soilak, erabaki duena edozein erkidegori eskubide horren ematea; Jainkoak, ordea, lege hori egin zuen gizonen erkidegoaren eta batasunaren hastapenetik, graziazko legea eta Moisesen idazkiak izan baino lehenago. Hortik dator proposamen hau.

Bigarrenik, ondorio horri, bada, ohar berezia egiten dio Baldusek *De allod.* bere liburuan dioelarik: *Herriek ez dutela -rik enperadorearen argirik ez iritzirik, berek behar dute izan beren argia eta aitzindaririk ez duenak behar du izan bere buruaren buruzagi. Eta, horrela, norbaitek ez baldin badu ez buruzagirik ez erregerik gizarteak emanik, badu bizkitartean Jainkoa bera den Natura naturazaleak emanik, berak bere burua kudeatzeko, bideratzeko, eta argitzeko boterea.* Eta jakintsu handiak argi adierazten digu hitz horiekin, zenbait herri gertatzen balira bateraturik, beste edozein gizalege beharrik gabe, baluketela zuzenean Jainkoak berak emanik beren buruen gobernatzeko boterea eta elkertasunean ongi bizitzeko ezinbesteko diren guztien egiteko ahalmena; hori baita orain hemen aipatzen dugun botere laikoa. Horra ere zergatik Baldusek erra-ten duen oraino hor berean: *Inperioaren legeak ez ditu kentzen naturako baliabideak.* Eta badugu oraino Baldusen beste erra-naldi bereziago hau:⁷³ *Ez baldin bada itxaropenik buruzagiak zain dezan hiria edo hura ez baldin bada horren egiteko prest, hiria menperatzen ahal zaio beste bati, eta, ondorioz, berdin beste errege baten menpeko izatea onar dezakete hiritarrek,*

naturak ematen baitie eskubide hori; horra zergatik inperiotik kanpo dauden, gaur egun, erreinu asko. Eta iduritzen zait iruzkin berezi horrek⁷⁴ adierazten duela zertako Espainiako erregeak atera ziren etsaien atzaparretarik, baitzekiten ez zirela horrengatik inperioaren menpeko izanak, 63. gehigarrian erranen dugun bezala.

Hogeita hamalau arrenek orik, erraten da Espainiako erregeak eta erreinuak zuzenez ateratzen ahal zirela Erromako inperiotik, artetan haren menpean gertatu baldin baziren ere, ageri den bezala ondoko solasetarik eta Espainiaren kondairatik, hor frogatzen baita sarrazenoen armek menperatu zutela, baina haien tiraniatik askatasunera eramane zutela, ez eiki enperadoreen bertuteak eta laguntzak, bai, ordea, Jainkoak eta espainiarrek berek. Eta aldaketa hori hasi zuten lehen bi herriak izan ziren beren errege propioak hautatu zituztenak: nafarrak eta leondarrrak eta gero Espainia guztira hedatuz oldar miresgarri batekin, itxura bereko zuhurtziarekin eta gerlako trebetasun gaitzarekin haieri jarraikiz beste herri guztiek sarrazenoen eskuetarik atera zituzten Espainia osoko erreinu guztiak; Lusitaniako azken lurraldeko portugaldarrak izan zirelarik haietarik lehenak. Nafarrek, berriz, Aita Sainduaren deiari ihardetsiz eta beren beharrak bultzaturik hautatu zuten buruzagitzat Eneko, ez Bigorrrakoa, Rafael Volaterrakoak, beste batzuk errebelaturik, idatzi zuen bezala, eskualde hori Galiakoa baita, baina Eneko Baigorrikoa, hau Nafarroako etxondo aspaldikoa baita. Leondarrek, aldiz, hartu zuten aitzindaritzat Pelaio.

Eta, beraz, aitzinekoenganik bildu goresmenen arabera Baldusek erran zuen zein ederki erreinu horiek oro egon ahal izan ziren inperiotik kanpo, Felinek nonbaitik atera zituen neurritz gaindiko bihurdikeriengatik,⁷⁵ nahiz Jesu Kristo gure Jaunak ezarri naturaz gaindiko Jainko legeari esker ez den kristaurik Aita Sainduaren eskuko eliza boteretik osoki aske gelditzen denik. Bizkitartean ez da neholako Jainko legerik, ez naturazkorik, ez naturaz gaindikorik erraten duenik badela errege

bat edo beste, eta berdin, asko edo anitz errege, Erromako inperiotik edo beste denborako nagusitasun batetik edo edozein botere laikotatik kanpo izan behar denik, aitzineko gehigarrian erraten den bezala. Alde batetik, nola Kristo Jauna sortu aitzin bazen anitz jende nehoren menpeko ez zenik, edo beste botere laiko baten menpeko izatera behartua ez zen jenderik; gero ere Jesu Kristok ez zuen neholako botere laiko hutsik ezarri, jende guztiak zuzenean haren menpera biltzeko. Bestetik, Jesus Jauna sortu aitzin jende guztiak ez baldin baziren apez bakarraren menpeko jarriak, 59. gehigarrian xehekiago erranen dudan bezala, behar dira, halere, gaur egun, apez bakarraren boterearen menpeko izan, zeren eta apez botere berri bat jaio baita geroztik, jende guztiak hartzen dituen, baina ez du horrek erran nahi errege bakar baten menpeko direla oro 60. & 61. gehigarrian erakusten dudanaren arabera: Jainko Jaunak berak ez du, ezen, nehondik, errege botere laikorik antolatu denontzat, ez horrelakorik nehoren esku ezarri, 21. & 22. & beste gehigarrietan erraten den bezala.

Hogeita hamabosg arrenek orik, erraten da ez duela nehongo erkidegoak uko egiten ahal osoki natura legeak ematen dion eskubide horri, neholaz ere, berriz, haren eskuratze-ko gisan, lehenik norberak ez baitezake uko egin bere buruaren zaintzeko eskubideari,⁷⁶ eta, beraz, are gutiago nehongo herri erkidegoak uko egiten ahaliko dio natura legeak eman bere herriaren zaintzeko eskubideari. Eta bi eskubide horiek natura legeak baldin baditu finkatzen, hala ere norberaren zaintzeko eskubidea baino beharragoa eta baliagarriagoa da herriaren zaintzekoa.⁷⁷ Bestalde, errana da ere Erromako herriak eman ziola boterea enperadoreari, baina ez haren eskutan utzi⁷⁸ eta ñabardura hori ikusi zuen Accursiusen begi erneak,⁷⁹ eta Baldusek azkenik, aipatu dugularik 33. gehigarrian erraten zuen botere horretaz mintzatzean, *De allodiis* deitu liburuan, ez zituela inperioaren legeak kentzen naturaren baliabideak.

Badirudi bizkitartean anitz herrik ez dutela batere boteretik, nahiz idazki batzuek ez duten erraten ez dutela herri horiek batere boteretik, baina bakarrik ez dutela botere hura baliatzen; badaukate ezen ahalmena, edukiz bederen, nahiz ekitez ez izan.⁸⁰ Horra zertako gerta baledi herrien gobernuia ez ziurtatzea, hautaketaz, ondoriotasunez edo bestela egiteko eskubidea izana luketenek, orduan bai herri horiek berek eskubide hori balia lezakete argi erakutsi duen bezala Baldusek, ⁸¹ eta, argiago oraino, Jakobe Almaynusek hona ekartzen ez ditugun beste liburu bateko erranaldietan.⁸²

Hogeita hamaseig arrenek orik, erraten da beste zer egiazko arrazoiengatik elizgizon batek ezin duen deus egin goragoko baten legearen aurka,⁸³ herriak, aldiz, erabaki dezake enperadorearen legearen aurka.⁸⁴ Hauxe da, alabaina, delako arrazoa, hots, nahiz laikoen herriak utzia dien enperadoreei eta erregeei naturalki berari dagokion boterearen baliatzea eta erabiltzea, bizkitartean beretzat atxiki du botere horren erroa eta sustraia eta, gisa horretan, errazki itzultzen ahal zaio haren erabilera aitzineko ohitura naturazkora.⁸⁵ Elizgizonak, aldiz, ez du neholako eliza eskubiderik; non ez dion horrelako zerbait eman bere buruzagiak. Eta nola ez dion hark eman bere legearen aurka deus erabakitzeko eskurik, ezin du neholaz ere deus erabaki haren aurka.

Oharrak

- 1 In rubrica de offic. & potesta. jud. deleg. num. 19.
- 2 Contra gloss. penult. I. 1. ff. de except.
- 3 In cap. 1. de constit. num. 31.
- 4 I. q; Servius. ff. de condit. caus. dat. & caus. non fec.
- 5 Per 1. suos quoque. §. puto. ff. de haeredib. institu.
- 6 Ikus: Relato a Speculatore de judiciis. §. sequitur.
- 7 Ikus: in cap. sciscitatus. de rescrip. impotentia
- 8 1. adversus. ff. de recept. arbitr.
- 9 1. quoties, ff. dz noxal.
- 10 In I. Celsus. §. fin. ff. ad exhiben.
- 11 1. potestatis. ff. de verbor. signific.
- 12 De offic. & potestat. cap. fede vacant. praelud. 4.
- 13 In lib. de potestate ecclesiastica, confid. 1.
- 14 Ibid. confid. 10. colum. 2.
- 15 Ikus: cap. constat. de consecr. distin. 4. S. Thom. 3. part. quaest. 67. art. 2.
- 16 Ikus cap. catechismi. & cap. sacerdotes, ead. dist. S. Thom. 3. part. q. 71. artic. 4.
- 17 De author. Ecclesiae cap. 2. colum. penul.
- 18 In cap. 1. & cap. cum secundum, de praeben.
- 19 Cap. novit. cum ei adnotatis de offic. legat. & cap. omnis. de poeniten. & remiss.
- 20 De jurisd. Ecclesi. colum. 2. & 3.
- 21 De potes. Pap. col. 3.
- 22 2. 2. quaest. 11. art. 2. & 3. quaest. 1. art. ultimo. & in 4. distinct. 19. quaest. 1.
- 23 Tomo 1. & in apologia 2. parte, cap. 1. & in 2. parte cap. 9.
- 24 In cap. significasti. de elect. & in tractatu super concilio Basil. ut tradit Dec. consi. 15.
- 25 In lib. 1. de reg. princip. cap. 14.
- 26 Cap. praeterea. de offic. deleg. 1. 2. de juris. omnium judic.
- 27 Proverbior. 14. & text. in cap. final. 8, 9 distinct.
- 28 Arist. Politic. & S. Thom. de regim. princip. lib. 1. cap. 2. & 4.
- 29 Cap. monachi de statu mona. & 1. ex hoc jure. ff. de justit. & jur.
- 30 Offic. 1. & 1. ut vim. ff. de instit. et jure.

- 31 In cap. de restitut. spoliat. cap. delict. de sententia excommuni. lib. 6.
- 32 Ikus: cap. non solum; cap. non est crudelis. & aitzineko eta ondoko beste asko: 2. 3. quaest. 5.
- 33 In cap. quod super his. de vot.
- 34 Cap. 5. colum. 3.
- 35 Quaest. 1. sub finem.
- 36 In lib. 1. cap. 4. de regi. princ.
- 37 5. distinct. in princip.& tradit Joann. Parisien. de potestate Regia, & Papal. cap. 5.
- 38 De reg. princip. cap. 10.
- 39 Gloss. 2. cap. cum contingat. de jurejur. circa medium sentit, et est receptum a Calderi. & Panor. in proemio Gregorii.
- 40 In lib. 1. de regi. princip. cap. 14.
- 41 Cap.1. & cap. translato. de constitut. iuncta 1. omnes populi. ff. de just. & jure, & final. C. de legiib. cum ei annotatis.
- 42 Cap. 1. §. hoc autem. qui feud. dar. poss. in usib. feud. & cap. licet ex quadam. de testi. & tradit. Bald. in l. 1. ff. de Senator.
- 43 Cap. dixit Sara. 32. quaest. 4
- 44 Facit cap. 2. & fin. de constitut.
- 45 In 4. distinct. 1.
- 46 In Manuali nostro Confess. cap.22. num. 1.
- 47 Concil. Trident. ses. 7. can. 1.
- 48 In 4. lib. sententiar. distinct. 26.
- 49 In cap. ita dominus. 19. distin. & in cap. in novo testamento. 2. distinct. ibi.
- 50 De regim. lib. 1. cap. 14.
- 51 I. tomo opusculo de author. Papae. cap. 1. & in apologia 1. part. cap. 1. & 2. part. cap. 9.
- 52 In d. cap. ita Dominus. 19. dist. & in d. cap. novo. 21. dist.
- 53 3. par. tit. 3. cap.2. col. 5. & S. Thomas de regim. princi. lib. 7. cap. 14. & lib. 3. cap. cap. 5.
- 54 Geneseos cap. 1.2.&4. adjuncto §. final. 6. distinct. & junctis 8. &9. cap.
- 55 Cap. prodest. q. 5.
- 56 In cap. si peccaverit. 2. q.1.
- 57 In 1. ambitiosa. num. 17. 18 & 19. ff. de decret. ab ordin. facien.
- 58 Felin. 1. adigere. §. quamvis. ff. de uiure patron. cap. meminimus. iuncto cap. suggestum. de appellat. in cap. de iareiuran. & Dec. in cap secundo requiris. de appellat.
- 59 In lib. 1. de regim. princ. cap. 14.
- 60 In d. lib. cap. 2. colum. 3.
- 61 Cap. ex literis; de offic. delegat.
- 62 Argum. cap. 1. 2. & 3. 24. quaest. 6.
- 63 Juxta cap. grandi. de supp. negli. praelat. lib. 6.
- 64 Cap. licet ex suscepto. de for. compet.
- 65 Cap. ad Apostolicae. de re jud. lib.6.
- 66 Arg. cap. cum fit. & ei annotatorum. de for. compet.
- 67 Ut legitur in cap. 1. de homi. lib.6.
- 68 Ut sentit gloss. recepta regulae ejusdem & exprimit gloss. cap. 1. de torneamentis.
- 69 D; cap.1. de homic. lib. 6.

70 Cap. 4. Genes. Exod. 20. & Matth. 26.

71 Juxta glos. 1. memorabilem in summa distinct. 37. & communem sententiam in lib. 3. sentent. distinct. 37. & S. Thom. 1. 2. quaest. 100. art. 8. ad 3. & Innocen. communiter receptum in cap. quae in ecclesiarum. de constitutio.

72 Cap. non solum & cap. non est. 24. q. 5. cap. 1. de homici. lib. 6.

73 Cap. 1. col. 2. secundae lectionis supra eod.

74 Cap. Adrianus 2. 63. dist.

75 In cap. cum nobis. col. 5. de praescriptio.

76 Secundum gloss. singul. 1. pactum inter haeredes. ff. de pact. satis probatur per 1. non tantum. ff. de appellat. & cap. contingit. 2. de senten. excomm.

77 Arg. si diligenti. de foro compe. adjuncta 1. si quiq in conscribendo. C. de pactis.

78 1. fin. ff. de constit. princ. & §. sed quod prin. Insti. de jure natural. gen. & civil. habent.

79 In 1. non ambigitur. ff. de legi.

80 In d. 1. omnes populi. & in cap. cum omnes. de constit.

81 In cap. 1. supra eod. colum. 2. secundae lectionis & in d. tit. de allod.

82 In lib. de auth. Pap.

83 Cap. quot super his. de majorit. & obedien.

84 1. omnes populi. ff. de justit. & jure,

85 Arg. cap. ab exordio. 35. dist. & 1. si unus.!. pactus ne peteret. ff. de pact.

INKISIZIOAZ

I.

Felipe II.-ari bidali eskutitz isila, 1562ko otsailaren 25ean

IHS + M.a

Errege Txit Kristau Goihena!

Jainko Jaun Handiaren eta zu zaren Erregearen zerbitzuarri, ene kontzientziaren eginbeharrari eta, zure erret aginduz Toledoko Artzapezpikuaren defentsarako eman behar dudan laguntzaren ohoreari, horrelako bat zor diodala iduritzen zaidalakotz, idatzi dut eta ausartzen naiz zure Handitasunari bidaltzera delako kausaren artikulua guztiz garrantzitsu batez ene zuzenezko aburua eta hori isileko bidetik, nehork jakin ez dezan eta horrela Jauna hobeki zerbitzatu izan dadin, ezen hemen nehork deus ez daki, mezua ekarri dizunak baizik, hau da ene iloba leiala eta sekretua atxikitzen ikasia. Eta hori guztia ez da egiten zure arrazoiak eta bazterretako oharrak nahasi nahi lituzkeen normahik zikin ditzan beldurrez, baina bakarrik hobe izanen delakotz menturaz, Jainkoaren eta Errege Jaunaren ospea beti lora dadin Jainkoaren graziarekin, lurreko eta zeruko loria-
rentzat, Halabiz!

Valladoliden, 1562ko otsailaren 25ean

Errege Jaunaren eskuari muin ematen dio, apalik,

Martin Azpilkueta-ko Doktor Nafarrak.

II. Txosten isila

IHS + M.

Nihonek entzun dudanez, ez da jende zintzo, jakintsu eta are gehiago giristino eskasik, urrunago aipatuko eta zehaztuko ditudan kolore guztietako arrazoiengatik prokuradoreak lekukotzat hartzen ahal lukeenik, iduritzen baitzaio, nihoni ere lehenbizian iduritzen hasi zitzaidan bezala, on dela auzi hori hemen berean egitea, beste arrazoi batzuek ikusi eta haztatu arte gero haiek baitute erakusten neholaz ere ezin dela egin hemen horrelakorik. Azken arrazoi horien oinarriak aurkitzen dira zuzenbidetan eta susmo batzuetan eta, auzia hasi aitzin, ikusi behar diren Erromako mezuen eta beste abisuen datu soil honetan eta Ofizio Sainduko sekreturik batere salatu gabe, Gorteko jendearen erran-merranetan.

Horren frogatzeko aitzinatzen dut Inozentzio III. deitu Aita Saindu hain jakintsu bezain kartsuak erran zuena¹ *scilicet* izeneko partean, hots, kontsulta guztietan hiru puntu hartu behar direla kontutan: Lehenik ea zilegi den kontsultaren gaia onartzea. Bigarrenik, ea gisa den eta itxura ona duen. Hirugarrenik ea onuragarri eta betegarri den.

Eta gertatzen baldin bada zilegi ez izatea, ez da beste bi puntuen aipatzerik, zeren eta zilegi ez denik ez da egin behar, nahi bezain onuragarri eta betegarri izanik ere eta bizia bera horretan balitz ere, beste pasarte batean Aita Saindu berak erran zuen bezala² eta orobat san Agustinek beste nonbait hori bera erran aitzin³ Bestalde baditugu ere bi iruzkin guztiz onartuak, diotenak zilegi ez denaren egitea ez dela huskeria soila⁴.

Baina gertatzen baldin bada kontsultatzen den gaia zilegi izatea, beharko da bigarren puntua ikusi, ea gisa den eta zuzena den eta jende on eta zintzoei ez ote zaien gaizki iduri, zeren eta ohartuz geroz ez dela horrelakorik ez baita hirugarren puntua-

ren aipatzerik, betegarri den ala ez jakiteko, betegarri balitz ere alabaina ez baita egin behar, Inozentzio Aita Saindu berak beste pasarte batean adierazten duenaren arabera⁵ eta hobeki oraino beste batean⁶ gogoratuz bere alde Jondoni Pauloren erranaldi nagusi hauek:⁷ «*Urrundu behar dela gaizki mota guztietarik*» batetik eta «*Zuzen behar da ibili, ez bakarrik Jainkoaren begietan baina ere gizonen begietan*» bestetik.

Eta azkenean, ikusiz geroz gaia zilegi dela eta zuzen, iragaiten gara hirugarren punturaino jakiteko betegarri eta onuragarri den ala ez. Eta gertatzen baldin bada on baino gaitz gehiagorekin dela, orduan ere ez da egin behar, maisu berak dioen bezala⁸: Ez da ezen zuzentzia, on baino gaitz gehiago ekartzen duenaren egitea, egintza horri uko egiten ahal delarik, zuzen eta garbi, Teodosio eta Arkadio enperadoreek asmatu zuten bezala⁹.

Irakaspen horren arabera, frogatzen baldin badugu edozer gauza ez dela zilegi edo ez dela gisa ez eta zuzen edo gure auzi hura Espainian egiteak on baino gaitz gehiago ekarriko duela, orduan frogatua izanen da horrelakorik ez dela egin behar.

Eta nahiz xede horrentzat ageri den gure ikuspegiaren finkatzeko aski dela frogatzea delako auzi hura hemen egitea ez dela ez zilegi, ez gisa, ez eta zuzen, baina probetxu baino kalte gehiagoren ekarle,¹⁰ bizkitartean gaineratikotzat frogatuko dugu, gure ustez zuzenki, ez bakarrik ez dela zilegi, ez gisa, ez onuragarri, baizik eta areago, debekatua dela, desegokia eta kaltegarria

* * *

Lehen lehenik zeren eta Izpiritu Sainduak gobernatzen duen gure Eliza Ama Sainduak halako inportantzia handitan baitauka kargutik kentzea merezi duen edozein apezpikuren krimen auzia, hala nola gure delako Artzapezpikuarena, non ez dion horren azken erabakia behin ere nehorri utzi nahi izan, Jesu Kristo gure Jaunaren eta Eroslearen ordezkoko Goihenari baizik

eta beraz egundainotik eratziki soilik Apostoluaren Aulki Sainduari.

Horren lekuko dugu Eleuterio 10. Aita Sainduak erran zuena: «*Hori horrela erabaki dute Apostoluek eta haien ondo-koek anitz apezpikuren baimenarekin*»¹¹ Hortik ageri baita Jesu Kristo gure Jaunak berak ezarri zuela legea edo bederen Apostoluen ohitura hori zela eta beraz begiratuki zaintzea hartze duela¹².

Berdin lekuko ere dugu Julio Aita Saindua, izen hortako I.a,¹³ Ekialdeko apezpikuei bidali gutunean hitz hauek idatzi zituen: «*Aspaldian apostolu sainduek eta haien ondokoek erabakia dute eta gaurdaino Eliza Saindu Katolikoak aitzineko erabaki haien arabera sinesten du, ez dela zilegi Erromako Apezpikuaren baimenik gabe ez kontziliarik biltzea, ez apezpikurik kondenatzea*»... Hortik ageri da maila berean jartzen direla kontzilioen deitzeko eskubidea, eta apezpikuen kondenatzea edo kargutik kentzekoa.

Lekuko ere oraino Leon Aita Saindua,¹⁴ Thesaliako Artzapezpikuari idatzi ziona hartaz harritzen zela nolaz zuen legea hautsi, erranez: «*Uste nuen oroituko zinela legeaz, ez zenezan zuhonek deus erabaki, jakin gabe guk geuk zer gogo genuen*».

Eta areago dugu lekuko Nikolas Aita Saindua,¹⁵ aski saminki idazten diolarik Britainiako Erregeri, Erreinua beregain zelarik orduan: «*Ikus ezazu zer den Jainko zure Aitaren legea eta Eliza zure Amarena, eta abar...*» eta ezeztatzen delarik delako Erregeak egin kargutik kentzea, haren baimenik gabe egina delakotz.

Eta berdin erran zuen Zeferino Aita Sainduak¹⁶ erranez: «*Auzi honen azken hitza ordea, bego Apostoluen Aulkiari eta hemen erabaki bedi!*».

Gauza bera erran zuen Anizeto Aita Sainduak¹⁷ beste hitz hauekin: «*Apostoluen Aulkira behar dira ekarri apezpikuei buruzko auzi guztiak*».

Bai eta Sixto Aita Sainduak ere¹⁸ beste kasu batean. Eta beraz edozein apezpiku txipiren edozein artzapezpiku edo patriarka handiren menpeko baten auzietan, noiz ere kargutik kentzea merezi duen falta larri batez baita epaitzen, apostoluen-ganik Apostoluen Aulki Sainduari uzten ohi zaio erabakia. Horra zergatik, arrazoiekin, Toledoko Artzapezpiku, Espainie-tako Primatuaren eta bereziki Izpirituzko gaitan bera baino goragoko buruzagirik nehor ezagutzen ez duen jaun baten auzia, oroz gainetik Erromako Aita Sainduari berari eraman behar zaion¹⁹.

* * *

Bigarrenek orik hemen orain erranen dugunarekin, kontrako aburuari zerbait itxuraren emateko, hots, delako auziaren azken erabakia soilik Aita Sainduari gordetzen baldin bazaio ere, haren mandatuz beste batzuek lan bera egin dezaketela bermatuz, ez diogula kalterik egiten lehen erranari uste dugu. Erraten dugu beraz ez dela horretan deus gaiztorik, zeren eta oraiko zehaztasunek frogatzen baitute²⁰ auzi horiek Aita Sainduak erabakitzeoak eta haren gain soilik uztekoak direla erraten duen legea, Jesu Kristo gure Jaunak berak ezarria duela, edo bederen haren apostoluen erranetik hartua dela, eta Kontzilio Nagusietan begiratu izan dela, bereziki Zeruko Aitari Jesu Kristo Gure Jaunak bere ordezkari Goihenaren alde otoitz egin zuelakotz, haren prestutasun, zintzotasun eta zuzentasunaren baitan handizki sinetsi eta sinesten baitugu²¹.

Baina Jainkoaren legeen ala gizalegeen arabera errana da, bere arteziaren eta zuzentasun propioarengatik nornahiri ematen zaion egitekoa ez zaiola beste bati emanen egitera, non ez den horrentzat zerbait arrazoi zuzen izaten²² eta beraz, horren ondorioz, Aita Sainduak ezin du bere egitekoa beste baten gain utzi; zeren eta bere arteziaren eta zuzentasunarengatik bera hautatua izan baita eta –barka ene ausartzia!– uste dugu ezin duela egin horrelakorik bekatu egin gabe, non ez duen, horren egi-

teko zerbait aitzakia zuzen aurkitzen. Ezin dio alabaina, aitzakia zuzenik ez baldin badu, Jesu Kristo gure Jaunaren Ordezkoak berak, bekaturik egin gabe, salbuespenik eman, legearen mui-nari,²³ hau baita Jainko betierekoa eta apostoluen ondarea,²⁴ eta beraz, bekatu egiten du, benialki bederen, irakasle hoberenen irakaspén egiazkoaren eta arruntaren arabera,²⁵ batere arrazoirik gabe berak egin legeen aurkako dispentsak emanez.

Guk geuk ere, behin baino gehiagotan, gure ikastegietan hori bera irakatsi dugu, erranez nola legegilea bera, nahiz ez den bere legearen menpeko haren behartzeko indarrari dagokio-nez,²⁶ haren menpeko den bizkitartean zuzentzeko indar bereziari doakonez,²⁷ ez ordea legearen beraren indarrez, baina bai Jainkoak egin naturaren legez, honek baitu bakoitza behartzen lehenik berak beste ezarri legeen betetzera.²⁸

Horiek oro horrela eta jakinez geroz beste bati bekatu egi-narazten dionak, bekatu egiten duenak berak bezainbat bekatu egiten duela,²⁹ eta batzuetan gehiago oraino,³⁰ nahi ala ez aitor-tu behar dugu ez dela zilegi gure delako auziaren epaia Spainian erabakitzea, zeren ezin baita horrelakorik egin, beka-turik egin gabe.

* * *

Hirugarrenek orik erranen dugunak ere ez dio deus ken-tzen lehen argudioaren indarrari, hots, zerbait itxura emanez kontrako aburuari, funtsean errateak lehen argudio horrek onar-tzen duela, hein oneko arrazoi bat badelarik, Aita Sainduak uzten ahal lukeela zuzenki beste batzuei erabakia hartzeko eskua³¹ eta, kasu honetan, horrelako zerbait gertatzen dela. Nik diot beraz ez duela deus balio arrazoi horrek zeren, ez baldin badugu ere jakiten ahal ziur, ez dela zerbait horrelako gertatzen, badakigu bederen entzun ditugun bost aitzakietarik bihi bat ez dela zuzenik:

Lehenak dio alabaina Ofizio Sainduaren aginduz egiten dela.

Bigarrenak berriz, auzia idekitzea agindu duenak berak ematea barkamena edo kondena, guztiz garrantzitsua dela.

Hirugarrenak gainera, ez dela auzi zuzenik egiten ahal Erroman.

Laugarrenak bestalde, horren entzuteak berak harritu bai-kenituen, Ofizio Sainduaren larderiari dagokiola jadanik preso den gure Jaun Artzapezpiku Agurgarria, hobenik gabea izanik ere, bederen kargutik kentzea; baina Erroman ez dela horrelakorik egiten.

Bosgarrenak dauka azkenik, beldurtzeko dela menturaz Erroman erabakia har dezaten ez zela Artzapezpikua preso sartu behar, ikusten baldin bada orain askatu beharko dela, erranez, hain prelatu handia ez dela preso ezartzen, askatzeko gero.

Baina edozein kanonistak erran lezake, bost horietarik *Lehen arrazoia* ez dela aski, zeren baitaki, guztiek dakitena, hots, Inkisidore Jaunek, Ikerle diren ber, ez dutela neholako eskubiderik nehongo apezpiku xumeenaren ala gaiztoenaren-gain³²; eta jakinen du ere Jesu Kristo gure Jaunak eta Apostolu Sainduak eta Kristoren ordezkari katolikoek beren kontzilioekin halako begirunea zeukatela eta daukatela apezpiku ordenarentzat, non horretan sartuak direnak deitzen baitira, Jainkoaren Aingeruak³³ eta Mezulariak³⁴, Elizaren Zutabeak³⁵, hura jasaten dutenak, Aita Sainduaren Anaiak³⁶, izen horren izateko ez dire-larik gai ez Erregeak ez Enperadoreak; badaki ere haien aurka ez dela onartu behar ez salatari ez lekuko fidagarririk baizik³⁷; badaki oraino ez dela haien aurka auzirik idekitzen ahal, kargutik kentzea hartze duen krimen batengatik, ez balitz ere heresia-ko krimena, haien hamabi apezpiku lagunak³⁸ eta halabeharrez haien artzapezpikuak³⁹ bildu aitzin; badaki azkenean hamabi, hamahiru edo gehiago diren jaun horien erabakiaz ez dela Eliza Ama Saindua hainbat fida eta, Jesu Kristo gure Jaunaren Ordezkari soilari eta Kontzilio Osokoari atxikia dela azken hitza⁴⁰; eta horiek guztiak badakizkienak erran behar luke ez

dela apaltzen Ofizio Sainduaren Handitasuna gure delako auzia Erroman erabakiz,⁴¹ edo bestenaz, erran beharko dugu Eliza Ama Saindua gaizki dabilela uste baldin badu ez duela deus galtzen probintziako kontzilio oso bati bere Artzapezpikuarekin eta asko diozesitako hainbeste apezpikurekin, ez zaiola zilegi beren apezpiku xume baten krimen auzia erabakitzea, nahiz gaixo gizon horren ekintza guztiak ezagutuak eta ikertuak izan eta apezpikua udalerrri bereko buru den Artzapezpikuaren meneko egon eta horren erratea Inkisizioaren kasua omen liteke.

Bigarren arrazoiak aldiz, hots, auzia ideki duenak duela ematen kondena edo barkamena, ez du funtsik: alde batetik, auzia ideki duena, aitzinetik baztertutzat ematen baita eta Aita Sainduak beste baten gain eman baleza⁴², ez bailiezaioke horri berari utz eta gainera horrek berak ez bailezake onar. Gainera nahiz behar bezala⁴³ kondenatzen ahal duenak barka ere deza-keen eta auzia ikertu duen hark berak erabakia ere har ⁴⁴, anitz kasu badira non norbaitek gauza bat egin baitezake baina ez bestea eta, apezpikuaren krimen kasua horrelakoa da, ezen auzi hori ikertu dutenek ez dute horretaz erabakirik hartzen ahal, nahiz haren aldekoak diren haren artzapezpikua eta beste ehun apezpiku⁴⁵. Beste alde batetik aipatu dugun arauak huts egiten du, esku duenak uzten diolarik bere ordezkariari auzia ikertze-ko botere soila baina beretzat gordez epaitzekoa⁴⁶ hala nola ordezkatu baitzen auzi honetan; baina ez du horrengatik legelari bihi batek nehoiz erran irain egin zaiola ordezkariari edo haren ondokoari, onartu behar izan duelakotz auziaren ikerketa egitea baina ez haren epaitzea eta ere auziaren bideratzea baina ez haren erabakitzea, zeren ordezkatzan den boterea emana baita eskutik atxikiz haren giltzatzea.

*Hirugarren arrazoi*a berriz, baizik eta Erroman ez dela epaiketa zuzenik eginen auzi horretan, ez da bakarrik funtsga-bea baina bai lotsagabea ere⁴⁷ Lehenik heresia kasua delakotz eta san Tomasek erratan baitu, komunzki onartzen den bezala⁴⁸, bereziki Espainian, Aita Sainduak eta haren Kardinalak ezin

dutela hutsik egin heresia kasuetan. Gero nik hori erran baneza badut beldurra sala nezaten, alegia adierazi nahi dudalakotz Jesu Kristo gure Jaunak zentzua galdu duela edo bederen haren Apostoluek eta Kontzilioek gaizki egin dutela, horrelako kasuen epaia Aita Sainduen eta ez beste nehoen gain uzteko aginduz, beste hauek izanik ere probintzietako kontzilioak edo beste anitz apezpiku⁴⁹ Bestalde oraino kasu hau laido izigarria liteke Erromako Aulki Sainduarentzat⁵⁰, zeren Kristau guztiak hura behar baitugu sinetsi⁵¹, hari jazarri gabe galdutuz, zergatik egin duzu hori? *Cur ita facis?*⁵² Oroz gainetik, heresia gaiak eta apezpikuen krimen auzi epaiak, haste hastetik, Erromako Aulkiari berari izan dira atxikiak,⁵³ bereziki Artzapezpikuenak eta Primatuenak, Jainkoaren ondotik hari bakarrik baitira menperatuak, hala nola gure Artzapezpiku Aipagarria.

Orobat nihonek zuzenbidea irakatsi dudalarik, berrogei bat urtez, hiru Erreinutan eta bost Unibertsitatetan, eta parte hartu Erromako edo beste auzitegi batzuetako erabaki eta epai anitzetan, ez dut nehoiz entzun badela Erromako auzitegi edo aretoa baino garbiagorik, ez eta ere nehon badela zuzenlegari auziak han baino hurbilagoetik jarraitzen zaizkionik, bereziki Aita Sainduaren eta Kardenaleen Biltoki Nagusian eta Errotako Aretoan. Nahiz batzuetan kalte egin dezaketen salbuespen apostolikoek eta auzien eramateko baliabide eskasek, ez da kasu honetan ez bat ez bestea gertatzen ahal, ikus-eta zer den izan faltaren itxura eta zer diren presoaren errentak⁵⁴.

Laugarren arrazoia ordea, hauxe omen da, baizik eta errepublikari badoakiola Artzapezpikua jadanik preso denaz geroz, bederen kargutik ken dezaten. Arrazoi hori ordea ez da bakarrik zuzengabekoa, deabruak asmatua ere izan behar da eta, nolazpait Kaifasek egin zuena baino areagoa, ezen hark erran zuen: «*Ongi da gizon bat hil dadin herriarentzat*»⁵⁵ eta, hori erratera utzi zuenaren xedetan hori egia zen⁵⁶, nahiz deabruak ezarria zuen erran zuenaren ahotan eta, gisa oroz, errotik gezurra ere zen. Bestalde, Pilatusek Jesu Kristo gure Jauna hiltzera

bidali zuelarik, herriaren balakatzeko jalgi zuenaren iduriko solasa da⁵⁷ eta Constantziako Kontzilioak kondenatu zuen here-siari hurbil dabilelakotz, baiesten duelarik zilegi zaiola aginte pribatuari, tiranoaren erailtzea⁵⁸ horren gisako ekintza Aposto-luaren irakaspenaren aurka baitoa⁵⁹ «*Ez da ezen gaizkirik egin behar ongiaren erakartzeko*», bai eta hobenik ez duena erailtzea debekatzen duen Teologia eta Filosofia Moral on guztiaren⁶⁰.

Ikuspegi itsua da gainera erratea denetan ageri dena ez dela ikusten, hots, alde batetik ezin aski prezatuzko ohorea eta ongia ekar lezakeela gure Artzapezpikuaren absoluzio osoak, gizonezko eta Jainkozko Handitasunaren zerbitzurako, Erreinu guztien, Eliza Osoaren eta bereziki beti hain garbi egon den Toledoko elizaren, bai eta ere haren Ordena argiaren eta katoliko guztien soleimendurako. Eta bestalde itsumendua liteke ere ez ikustea zer desohore, zer kalte, zer bihozmin damugarri ekar lezakeen haren kondenatzeak, halako gisaz non, gure Artzapezpikua zuzenez askatzen ahal delarik, kondena dezaten nahi lukeenak edo zerbait eginen lukeenak, zuzenean ala zehar-ka, horrek berak, ene iduriko merezi bailuke Jainkoaren Handi-tasuna hainbeste laidoztatu ondoan, beste munduko gaztiguak mundu honetan jasaten hastea.⁶¹

Gelditzen da *bosgarren arrazoa*, erran nahi baita beldur-tzeko dela Erroman erran dezaten ez zela preso sartu beharko gure Artzapezpikua, frogatuz geroz behar dela orain askatu, zeren eta hain prelatu handia ez baita preso sartu behar, gero hura bera askatzeko. Baina arrazoi hau ez da ere zuzena, alde batetik zuzena balitz auzi hori horrela epaitua izatea nehork ez luke deus kontrakorik nahiko, zuzengabekeria nahi izatea baili-teke eta komunzki horrelako guraria izatea bekatu mortala baita.

Bestaldetik justizia alha delarik zuzenbidearen bide zuzene-tik, Erromako auzitegietan bezala, gorteko konplimentuetar-rik bazter, ez dira hainbeste kontutan hartzen jendearen erran-merran kortesiazkoak, baina bai kasuen larritasuna, presonde-

gia eta horiek oro agintzen dituen zuzenbide huts hutsa. Eta beraz ez da funtsezko arrazoirik errateko kasu horretan izan dela zuzenkontrako preso sartze zuzenik.

Bizkitartean mila aldiz gerta daiteke presondegia zuzena izatea eta preso hobengabea⁶², oroz gainetik presondegia arrazoiak aldi honetan bezalakoak direlarik, hots, lekuko heretiko batzuek, beste lekuko katoliko batzuek, liburu eta izkribu zenbait, liburuak eta izkribuak epaitzen dituzten letradun batzuen iduripenak eta susmoak, aldiaren malezia eta jende handi anitzek hedatzen hasia zuten auziaren inguruko zurrumurrua, baizik eta ordu zela, norbait lot zezaten, beste guztiak bide zuzenean geldi zitezen.

Bestalde ikusten ditugu egun oroz, Inkizisioaren eskuetik askaturik ateratzen, ospe handitan preso sartuak izan zirenak, nork du bada erraten noiz batek behar duen preso sartu eta noiz behar duen askatu, kontutan hartu gabe gaizki ikasi batzuek erran dezaketena⁶³ eta, gogoan atxikiz Lege Sainduak agintzen dutena. Horren adibide aipagarri eta berri berria badugu saildua deitzen duten Granadako Artzapezpikuaren kasua, hura lehenik preso ezarri baitzuten ezarria zutenek ohar bakar bat ere eman gabe.

Ez dut orain erranen zer iduritzen zaidan, ez baitezaket deusik erran, baina Nafarroatik partitu aitzin, asmatu nituen, sinetsi nihonek eta anitz aldiz errepikatu bi gauza hauek: Bat gure Artzapezpikua egiaz preso ezarria zela; bestea, hobengabea zela sinesten nuela eta azkenean hura preso hartu zutenak ohoraturik aterako zirela, hain gizon eta jaun handiaren aurka beren egibidea bete zutelakotz.

Eta Artzapezpikua bera hortik jalgiko zen askaturik eta xahaturik, eta lehenik ikusiko zukeen haren preso sartzea agindua zuela beste Artzapezpiku batek, Espainia guztian justizia egiten ezagutu ditudan epaile zuhur eta zuzenenetarik batek. Nahiz gaur egun deus berririk ez dakidan hartaz, anitzenganik entzuna dut, ez zuela berak bere botz bakarrarekin laguna preso

igorri, ez eta ere soilik bere Kontseilukoen botzekin, baina anitz handiki ezagunen botzekin bai eta presoaren eta bere ordena propioko letradunen salaketen ondorioz. Orduan ere haren lagun anitzek eta Espainiako bost handikik baino gehiagok Artzapezpikuaren aurkako zurrumurruak zerabiltzaten eta, gure erlisionearentzat egia da haren preso sartzea baliagarri gertatu dela Espainiako militar jende anitzen ahoaren hesteko, zeren hasiak baitziren beren mailako jendeak bezala fedezko gaiez lasaiki nonahi eztabaidatzen eliza legeak hori debekatzeko dielarik laiko guztiei⁶⁴, baina gaur egun, ez dut horrelakorik ikusten, ez badelakorik erraten entzuten.

Bizkitartean gure Artzapezpikua hobengabea izatea sinesten nuela errepikatzen nuen bigarren gauza hori etorria zitzaidan entzuna nuelakotz egundainotik haren fama ona eta Errege Jaun Katolikoarekin zuen harreman berezia eta irakurriak nituelakotz hark ikastegietan irakurri liburuak bai eta bestalde oraino kondenatua ez zen haren katixima eta ez bainuen haietan heresia itxurako deusik antzematen, nahiz itsu izan nintekoen. Eta zenbait gauza aurkiturik ere ene gogoko ez zirenak, beste asko eta asko ikusten nituen zuzenean bazoazenak aspal-diko eta gaurko heresia batzuen aurka. Ez dut hori erraten adiskidetasunez ez atxikimenduz, nahiz biok Erreinu berekoak garen, baina hark ez dit nehoiz nihoni deus egin, ez nik hari nehoiz deus galdegin; ez diot ere hari egundaino hitzik erran, orain Errege Jaunak berak agindurik haren abokatu izatera heldu naizen artino, nahiz ez haren ez beste nehoren abokatu ez naizen izan, ez izatea gogoratu ere. Idatzi aldiz, ez diot gure Artzapezpikuari idatzi bietan baizik. Flandesetara zen, ez ene zeregin pribatuentzat, gure Jainko Jaunaren eta Errege Handiaren zerbitzuentzat baizik: orduan Printzesa Gobernadorearen aginduz Leongo San Isidroren monasterioko eta Parracesekoaren bisitari nintzen komentuentzat eta Orreagako beste egiteko batzuentzat, horko kalonje bainintzen eta bainaiz, nahiz ez behar bezainbatean eta ez zuen behin ere

ihardetsi ene galdeei, badakit ordea Erregek antolatu zituela gauza batzuek. Eta beraz orain, orduan nuen iritzi bereko naizen ala ez erran nezake, zilegi balitzait.

Eta beraz hirugarren argudioan eztabaidatu bost arrazoen ondotik ikusten dut giza xede itxurakoa dela eta ez Jainkoaren argiko asmoa arrazoi zuzena badela gure auziaren erabakia bere naturazko lekutik kentzeko uste izatea eta beraz ez dela zilegi horretara lehiatzea.

* * *

Laugarren argudio na gusiak, erakusteko ez dela saiatu behar lehiatzera gure auzia Espainian berean epai dadin ez du bakarrik frogatzen horren zuzenesteko ez dugula arrazoi funtsezkorik, baina alderantziz anitz arrazoi badela auziaren ez hor epaitzeko.

Lehen arrazoa da, heretikoak nehon baino ausartago ari direnean Aita Sainduen, Kontzilioen, eta Ohitura Apostoliken legeak hausten, nehon baino gogorrago atxiki behar dira batere aldatu gabe⁶⁵ eta, jadanik erran bezala, argi dago kargutik kentzea merezi duten apezpikuen krimen auziak ez dituela Aulki Sainduak baizik epaitu behar.

Bigarren arrazoa da, ez dela biziki espainol guti baizik, edo bihirik ez, Toledoko Artzapezpikuaren auzian epaile izateko on denik, zerbait arrazoiengatik haren kondenatzea interesatzen zaiolaketoz edo susmagarri bailitezke, batzuek haren kargua hartzeko, besteak haren lekua har lezakeenarena bereganatzeko, hainbestetaraino non Errege Jaunaren Epaille Nagusi batek, ene ustez eta, bere eskualdean gobernatzen dituen guztien aburuz, Espainiako zuhurrenetarik denak, nihoni erraten baitzidan, hona heldu nintzelarik, ez dela apezpikurik, ez laster apezpikutzea itxaroten duen apezik, auzi horri interesatzen ez zaionik. Horra beraz zergatik zuzen den, Erroman egitea auziaren epaia, han ez baita artzapezpikuaren ondoriotasunaren igurikatze luzerik, ez laburrik.

Hirugarren arrazoia da ezin baita uka, ez zutela anitzek gaizki ikusi gure Artzapezpikuaren kargu hartzea. Batzuek herraz edo bekaizgoaz, bestek hura baino maila goragoak izatez, nahiz hura ere segur etxe handiko seme zen. Beste batzuek, Toledokoaren kargutik hurbileko aulki batean jarria zenak, bere hau utz baitzezakeen bestea hartzeko bere ohore eta errentekin. Beste batzuek, hura jauzi batez hain gora igan zelakotz. Beste batzuek, berak hura bezain jakintsu edo jakintsuago beren ustez, eta bertutez, fedez eta odolez ez apalago, izanagatik, lur azalean geldituak baitziren, hura zeruraino igaiten ikusten zutelarik.⁶⁶ Beste batzuek, aipatu ditugun horien askazi, adiskide, ahaide zirelaketz eta, nahiz geroztik horietarik anitzak, denborarekin sendatu diren, bekaturik egin gabe haizu da susmatzea zenbaitzuek ez direla oraino erakutsi nahi duten bezain sendo eta bederen beren sentimenen joerak eraman litzakeela, haren kargutik kentzeaz atsegin hartzera⁶⁷.

Horra zergatik zuzen den epaiketa hau egin dezan Erromako Aulki Sainduak, hartaz ez baita susmorik izaten ahal, fedearen aita eta geriza delakotz eta fede gaietan huts egiten duena zigortuko baitu, bere haurride ospetsu baten desegiteaz bozkariatu gabe eta, horretatz deus probetxurik igurikatu gabe.

Laugarren arrazoia da, ez dela zuzen, gure artzapezpiku Agurgarria hobendun izanik ere, asko gisetara hain gora igana izanez geroz, begirune hartze duelarik bere epaiketan, ez baldin bazaio horrelako eskerrik ematen ere, alderantziz haren nahia-
ren aurka, gure Jainko Jaunak, haren ordezkariak eta Eliza osoak eman arreta uka diezaioten. Alta funtsezko arrazoi askorik ez da, harentzat esker onik ez izateko eta, esker txarra emateko azaleko aitzakia zerbait besterik ez eta, beste alde batetik, gizakiaren janiza hut-hutsa bakarrik⁶⁸.

Aitzineko lau arrazoi horiek erakusten dute ez dela zilegi gure delako Artzapezpikuaren auzia Espainian erabakitzea.

Bosgarren argudio honek erakutsiko du, zilegi balitz ere, ez legokeela ez gisa, ez zuzen eta, ez lezaketela horrelakorik

ongi ikus⁶⁹, ez bakarrik Espainian, baina ez ere Italian, ez eta Europa Guztian horri begira dauden gizon zuhur eta baketiarrek.

Guztiei itsusi litzaieke alabaina, minduaren mina samintzea, justiziak ez duelarik horrelakorik eskatzen. Eta, iduri luke, auzitan ezarria dela jakitea jadanik jasan behar izan duenaren karga, auziaren epaiak oraino areagotzea dela; hori bailiteke minduaren mina gaizkontzea behar gabe⁷⁰. Ageri da ezen, bera auzitan ezarria dela jakitea jasan duela eta pairatzen duela, gure artzapezpikuak, nahiz behin ere, edo biziki bakan, ikusi den hainbeste jakitate eta aharantxa, kredit eta arrakasta, duintasun eta errenta, bakezko itxura eta funts duen norbaitek eta, hain jukutria ala zalaparta guti daraman gizonak, hain luzaz eta halako presondegi hertsian egon behar izan duela⁷¹, zer den salaketa eta zergatik den preso jakin gabe, kasik bere etxeko guztiak galdurik, bere karguaren gobernutik baztertutik⁷², bera konfesatu eta komuniatu ezinik, batean horien denen kausa dela gure Aita Saindua, bestean presozaingak, bestean beste eztaikit nor, non ez diren izan Aita Sainduaren Mezu Buldak, ene ustez, hain urrun Nafarroaraino heltzen ez direnak.

Gero, halako presondegi hertsian izanagatik gure Jauna, bi urtez luzatu da haren auziaren hastapena eta, egin dute ere, Aita Sainduak ez zezan, ez igor, ez izenda, bere ustez susmogabeko eta alderdigabeko epaile den herritarrik edo atzerritarrik, horrelako kasuetan Erromako Aulki Sainduak egin ohi duen bezala. Ez dituzte ere begiratu kanonen arau sainduak agintzen dutenak, epaitu behar den apezpikuak ez dituelarik epaile batzuek onartzen, apezpiku hark berak⁷³ eta onartu duen Epaileak hauta ditzaten izendatu behar diren beste gainerako epaileak.

Molde bitxi batean eraman zen bestalde auzia, Aita Sainduak ez baitzituen berak izendatu epaileak, baina haiek izendatu aitzin, eman baitzuen boterea Errege Jaunak izendatuko zituenei; Errege Jaunak ordea, ez zuen izendatu epaile bat

baizik eta hau biziki Argia eta Jakintsua izanagatik bere irakas-
tegian, ez da gisa horretako auzien egiteko gizona: Gortean bizi
da alabaina eta beste ordezeko batzuek hartu ditu, nahiz kasua
pertsonalki ezagutzen zutenak beharko omen ziren, askok dio-
tenez, bulden eta zuzenbidearen arabera.

Bizkitartean ez osorako bi ordezkari hautatu dituenak,
harenganik eta auziperatuarenganik urrun dabilta, auzia
nehondik ezin giltzatuz eta nagusiari susmatzen dutenaz, gauza
batzuek salatu beharrez. Eta, horiek guztiak ziur gertatzen ahal
da, eta nik ere sinesten dut, xede onez eta berez zilegi, zuzen eta
ongi eginak izan direla gure Jainko Onak, Aita Sainduak eta
beste jende bakar bat edo bestek badakizkeen arrazoi gorde
batzuegatik. Badakit ordea kanon sailduen arauen arabera eta
ez bakoitza bere aburu bereziari jarraikiz⁷⁴ behar dela ibili dau-
katen jende jakintsu, ezalderdikari eta aditu anitz badagoela
begira Espainian eta handik kanpo ere Kantzilerietan, Errotetan
eta Legebiltzarretan eta nonahi eta badakit ere ez duela horrek
guztiak, ez itxura onik, ez usain onik eta berdin izan zela ene-
tzat Nafarroan, horren guztiaren berri izan nuelarik.

Baina kasu horretan laguntzen du biziki gogoratzeak, beti
gure Eliza Ama Sainduak, Izpiritu Sainduak argiturik, agintzen
duela bere kanon sailduen arau anitzetan, edozein apezpiku
nahi bezain xume, nahi den Artzapezpiku edo Patriarkaren
menpeko izanik, kargutik kentzea merezi lukeen krimenentzat
auziperatzea, ez zaiela uzten hamabi apezpiku lagun baino
gutia⁷⁵, Zeferino Aita Sainduaren erabaki batek erraten
duen bezala eta gero Cartagoko II. kontzilioak agindu zuela
horiek bederen biltzea, gehiago ez bada biltzen ahal ere⁷⁶.
Nikolas Aita Sainduak aldiz, Britainiako Errege Solomon-eri
idatzi zion, nahi zuela han ere hamabi apezpikuak bil zitezen,
Hiri Nagusiko Artzapezpikuarekin⁷⁷ eta Inozentzio IV.ak⁷⁸
horrela behar dela egin berretsi zuen, san Juan Teutonikoa deitu
iruzkingile handiak hori bera erran aitzin⁷⁹, kanon irakasleen
iritzi arruntari jarraikiz. Eta bestalde, delako apezpiku haietarik

batzuek susmagarri baldin bazaizkio apezpiku auzipetuari, honek berak haiek bazter ditzake eta, orduan auzipetuak eta artzapezpikuak hautatu behar dituzte apezpiku ordainak, susmagarri ez zaizkienak, Cartagoko IV. kontzilioak adierazten duen⁸⁰ Inozentzio Aita Sainduak onartzen duen, eta iruzkin miragarri batek bermatzen duen bezala⁸¹, erantsiz bestalde, apezpikuaren auzia ordezkari baten esku utz baleza ere Aita Sainduak, beste hamabi apezpikuen biltzarra berdin egin behar dela.

Eta beraz, gure prelatu auzipetua, ez nonahiko Artzapezpikua delarik, baina Toledokoa, Espainietako primatua eta Eliza Katolikoaren hain printze handia, bi epaile soilen esku uzten da: biziki onak dira hain segur, jakintsuak eta ohoragarriak, bietarik bihi bat ordeza, ez zen apezpiku oraino, haste hartan, nahiz bat bederen apezpiku izateko izendatua zuten, baina biak oraino baztertuak gerta zitezkeen, ikusi nuen bezala, hemendik urrun nintzelarik, auzia hasi baino lehen.

Ez dut bada uste aurkituko den legelaririk, zientzia bezainbat kontzientzia baduenik eta, horiek guztiak bere begiz ikusi-eta ukatzen ahalko duenik, zinez alderdikari ez den jende guti izanen dela errateko on litekeela Aita Sainduak hau ez bere gain hartzea, baina Espainian berean epai dadin uztea. Horra zergatik ageri den, ez dela gisa horrelakorik egitea.

* * *

Seigarren argudio honekin frogatuko dugu beraz, ez bakarrik, aitzinean erakutsi dugun bezala ez dela ez gisa, ez ohoragarri, baina oraino on baino gaitz gehiago egin lezakeela delako urratsak, ezen ez dut ikusten horretan probetxurik bat ere, eta aldiz kalte anitz.

Auziaren erabakia luzatzeak alabaina kalte handia egin dio gure Artzapezpikuaren eta haren jendakiaren ohoreari, osasunari eta probetxuari⁸² eta oraino gehiago haren artzapezpikutegiko arimei⁸³ eta behardunei⁸⁴ eta ez gutiago haien erlisio-

neari, ezin prezatuzko oparia eskaintzen baitie, beren heresietan finkatzeko, haren preso egotean bermatzen direnei, jakina, Espainiatik kanpo, baina menturaz, isil-isila, Erreinu bornean ere. Kalte ekartzen dio bestalde, Errege Jaunaren ospari, haren kideko batzuek salatuko baitute ez dela bera, erraten den bezain kristaua izan behar, bere itxura zaindu beharrez ez duenaz geroz heretikoa berehala gaztigatzen Beste batzuek berriz adieraziko dute, ez dela erraten den bezain ona, horrenbeste pairatzera uzten duenaz geroz, hobenik ez duen gizona eta, beste zenbaitek oraino, ez dela jende gaiztoaren zigortzeaz eta jende onaren ohoratzeaz erraten den bezainbat axolatzen.

Eta gainera, gure auziaren Espainian epaitzea liteke, gauza horrek eragin eta ager lezakeen damu gaitzenetarik bat, ezen bi urte xahutu baldin baziren, epaileen aurkitzeko eta auziaren hasteko, zenbat urte beharko ote dira, epaiketaren azken epaileak aurkitzeko? Aita Sainduak nahi lituzke epaile hauek, auzipetuak beste horiek eta prokuradoreak beste haiek; izanen dira bestalde, ezesprenak eta gorakodeiak; Errege Jaunak beharko du auziaz arduratu, baina ezingo du, noizean behinka baizik, bere kontaezinezko eginbide guztiengatik. Gertatzen dira ere heriotzak, gerlak, izurriteak; hondatzen ahal botereak eta beste traba asko, nahiz gutxi aski izan, auziaren amaitzeko bildu behar diren hain jende ezagun guztien biltzarrak eragozteko.

Gure eginkizun horrek kalte egingen dio oraino, Eliza Gristinoaren ordena goihenari⁸⁵, apezpikuen ordenari, hau apalduko baitu hain zuzen, nehoiz ez bezain gora eta garbi eta baketsu dagoelarik erlisionea, noiz eta Errege handienaren eta hoberenaren esku daudelarik Espainiako Erreinuak, nahiz egundaino ez den ikusi, ez gure bizian aditu, ez gure aitzinekoen historian irakurri, Erromako Aulki Sainduaz kanpoko sententzia batek ken dezakeela Espainiako apezpiku bat bere kargutik, irakurri ahal baldin bada ere batek edo bestek bazterrak nahasi dituela.

Aski izan da, gure bekatuen faltaz eta, Kristau fedea sekular ez bezala distiratzten zuelarik Espainietan, munduko gehienak diren hango Apezpiku, Artzapezpiku eta Primatu guztiak, Elizaren hastapenetik guztiak beren lekuko inkizidore ohi-koak izanagatik⁸⁶, Inkizidore ordezkarien menpeko jar zitezten, Espainiarentzat aitzinsolas itsusi batekin⁸⁷, Aita Sainduak bulda baten bidaltzea eta, deneri agintzea bazter utz zezaten, hain handia eta hain garbia den Erreinu batean, apezpiku ordenaren begirunez idatzi zen kapitulua⁸⁸ behin ere nehongo Erreinuuan, nik dakidala, baztertu ez den bezala. Eta sekulakotz emana izan dadin Espainietako Erreinuarentzat zaflakoa, bulda erregistratua izan da Erroman.

Aski eta nahikoa da beraz orain, berriz ez hasteko galdezka, gauza horretaz. Hobe litzateke Erromako erregistrotarik oroitzapen gaizto hura ezeza dezaten erdiestea. Eta bururatzen dut hemen erran dudan guztia aurkeztuz, ez bakarrik Erromako Apostoluen Aulki Sainduari eta Ofizio Sainduari, baina nik baino hobeki susmatzen duen nornahiren iritzari, Erroman behar duela, eta ez Espainian, Aita Sainduak berak, giristino guztien aitak eta haren kardinaleen biltzarrak auzi hau epaitu eta gaitera nik daukat Espainietako apezpikuen ordena guztiak eta haien Erregek berak behar luketela agindu eskatzea horrelako buldatxo bat Artzapezpikuak berak galdeginik eta eskaturik ematen balitz ere, herriaren onari eta uka ez dezakeen delako ordenaren eta Espainiako Elizaren ohoreari dagokiolakotz.⁸⁹

I.E.S. + M.a = *Etorriko den epai zuzenagoari Agur!*
Martin Azpilkueta-ko, Doktor Nafarrak

Oharrak

- 1 C. Magnae, de voto, & voti redemp.
- 2 C. Sacris de his quae vi & m. c. ij de operis noni nunci.
- 3 C. Itane. 32. q. v. et in 2° libro de civit. Dei.
- 4 In c. 1. xiiij. distinct. et in c. Si aliquid, 22. q. 4. in quorum priori. idelm sentit Aug. et in posteriori Beda.
- 5 In d.c. Magnae.
- 6 In c. cum ab omni, de vita & honest. cleri.
- 7 I. ad Thesalonic & ad Rom. XII
- 8 In d.c. Magnae.
- 9 In 1. Mediterraneae, c. de ann. & trib. lib. X.
- 10 Quia veritatem disiunctive satis est alteram partem esse veram. c. Inter caeteras dee rescrip. cum ei similibus.
- 11 In c. Quamvis. 3. q. vi.
- 12 Aug. ex decretis Basilij in c. Ecclesiasticarum, xi dist. Et ad Casulanum in c. In his eadem d.
- 13 In c. Dudum. 3. q. vj.
- 14 In c. Multum stupeo. 3. q. vij.
- 15 In c. Haec quippe. 3. q. vj.
- 16 In c. Accusatores. 3. q. viij.
- 17 In c. Si autem ix q. 3.
- 18 In c. Accusatus.
- 19 Arg. c. Cum in cunctis de elect. et Auth. Multo magis. C. de Sacros.
- 20 In praecedenti Arg. positas.
- 21 Nulla enim alia ratio ejusmodi reservationis reddi potest. Ergo haec est assignanda, imo habetur pro expressa, q. Quamvis, c. de fidei commis.
- 22 § fin. c. fin. de offi. deleg. c. Is cui eo. tit. Ij. c. L, Inter artifices ff de solut.
- 23 C. inferior 21. d. c. Cum inferior de maior.
- 24 Quas veluti leges divinas observandas censuit Aug. in c. In his. et c. Catholic. XI d.
- 25 In quibus sunt uterque Thomas. 1. 2. q. 96. ar. v. et uterque Cardj. in c. Justum ix. dist. ubi nos quoque tradimus.
- 26 De qua agit. L. Princeps solutus est legibus, ff. de legibus.
- 27 De qua agit. L. Digna vox. c. de legibus. et c. Justum ix dist.
- 28 Illa verba Patere legem quam tuleris, c. Cum omnes de consti. Et Quod

quisque juris in alium statuerit. ipse eodem jure utatur. ff. Ut profunde annotavit Car. m. d. art. V. & Decius in c. i de consti. n.14.

²⁹ Ad Rom. c. j. et c. j. de offi. del. et c. notum. 2. q. 1.

³⁰ Qui alior. 24. q. 3.

³¹ Pro quo facit c. Accusatus. 3. q. vj.

³² C. Inquisitores de haer. lib. 6.

³³ C. i & ij. Apocalipsis.

³⁴ In concilio viennensi, de, j §. Ne super hoc. de poen. & in. c. Accusatio. 2. q. 7.

³⁵ C. Qualiter. ij. de accus.

³⁶ C. Quam gravi de crim. fal.

³⁷ C. Accusatio. 2. q. 7. c. Accusatores. 3. q. 8.

³⁸ In c. Foelis. xv. q. vij.

³⁹ C. Haec quippe. 3. q. vj.

⁴⁰ Per ea quae estatuta sunt in primo argumento.

⁴¹ Nam qui concedit unum, videtur fateri aliud quod illud consequitur. I. Illud. ff. de acquir. haer. I. ij. ff. de Juris. omni judi.

⁴² Arg. c. Suspitionis de officio deleg.

⁴³ I. Qui condemnare. ff. de re. Jud.

⁴⁴ I. De qua re. ff. de jud.

⁴⁵ Per jura citata in argumento primo.

⁴⁶ Arg. c. Constitutus de appel. et 1. j. ff. pro consul. Et c. Si a subdelegato de offic. deleg. lib. vj.

⁴⁷ Arg. c. j. de maledi. & c. ones. 2. q. 7.

⁴⁸ Arg. Juxta late tradita a Card. Cajet. in tractatu de autoritate Papae

& concilij facit extravagans Quia quorundam de verb. sig. 70. 22.

⁴⁹ Hoc enim est consequens illius, et ita qui concedit illud & hoc concedere videtur. ff. de acqui. haer.

⁵⁰ C. j. 22. dist.

⁵¹ Juxta elegans & religiosissimum dictum Caroli Magni. m. c. In memoriam xix. dist.

⁵² Glosa solemnis in c. Quanto de transl. praelat.

⁵³ Per citata in i. arg.

⁵⁴ Hij enim reditus abunde sufficiunt & fisco & reo.

⁵⁵ Joan. xj. et xvij.

⁵⁶ Ut ipsemet Joannes declarat in dicto c. xj.

⁵⁷ Mathei. 27.

⁵⁸ Sessione 14.

⁵⁹ Ad Roman. ij.

⁶⁰ Exodi 23. Insontem & justum non occides. & 1. Absentem. ff. de poen. Thom. 2. sec. q. lxiiij. art. vj.

⁶¹ Est enim unum de tribus peccatis in coelum clamantibus. Genes. 4. Vox sanguinis fratris tui clamat ad me.

⁶² Neque enim est severitatis aut clementiae gloria affectanda est. 1. Respicendum ff. de poen.

⁶³ L. Nemo C. de Summa trini. et c. Sicut et segundo de haere.

⁶⁴ Quia minus sufficit ad capiendum quam ad condemnandum; I. fin. c. de exhibend. reis. & 1. i. c. de custo. reo.

⁶⁵ Quia novis morbis nova antidota convenit praeparari. Auth. Haec constitutio monet constitutionem in prin. col. 7.

- 66 Juxta Adagium glo. 1. 1. §. Veteres. ff. de acquire. posse. Etiam. Asinus intumescit si per comparem se videat superari.
- 67 Sensualitas enim humana ad malum inclinat; in proem. Clem. & satis in proem. Gregoriano & i. vj. c. j. xij. q. j. et antea Genesis 8.
- 68 Favorabiliores. ff. de reg. ver. c. Cum funt jura partium co. tit. lib. 6.
- 69 Ad providenda sunt bona, non solum coram Deo, sed etiam coram hominibus. 2. ad. Corinth.3.
- 70 C. Indicas. 3.q. 9. C. Cum percussio. 7. q. j. L. Divus. ff. de off. praes.
- 71 Qui datur ad custodiam non ad poenam. L. 1. ff. de Cust. Et exhi. reo c. Quamvis de poeni. 1. 6.
- 72 Quae forte non sunt solum contra decentiam sed etiam contra justitiam arg. eor. c. quae habetur m. c. Vergentes de haeret. et c. Cum secundum eo tit. lib. 6.
- 73 Immo. in c. Grave de praeben. text. in c. si aut xv. q. vij. et c. j. 3. q. vij.
- 74 C. 1. de consti. c. Judicet.3. q. vij. Ubi Ambrosius bonus judex nihil ex arbitrio suo facit sed juxta leges et jura pronuntiat.
- 75 C. Duodecim. 3. q. 4. c. 1. 3. q. 8.
- 76 C. Felix. xv. q. vJj.
- 77 Haec quippe. 3. q. 6.
- 78 Ab omnibus receptus in c. Grave de praeben.
- 79 In Summa. 3. q. 8.
- 80 C. Si autem. xv. q. vii. Et Innoc. receptus in dicto c. Grave de praeben.
- 81 In Summa. 3. q. 8.
- 82 Quae duo maxima sunt omnium bonorum exteriorum. Arist. 4. Ethi. 1. In pecudum!. fin. de usur. et Proverb. c. 22.
- 83 Quae omnia alia excellunt c. praecipimus. xij. q. j. 1. Sane imus. 1. c. de sacros. eccles.
- 84 Non enim distribuitur nunc sua quarta pauperibus contra c. Quatuor et c. de Redditibus. xij. q. 2.
- 85 Glosa in proe. lib. vi. verbo episcopus arg. c. Inferior. 21. dist. & c. i. 22. dist.
- 86 Clem. 1. de haeret.
- 87 Sugillat autem et insimulat suspicionis haereticae pravitatis epos. archiepos. et primates Hispaniae nomine dempto.
- 88 C. Inquisitores de haer. lib. 6.
- 89 Si diligenti de for. comp. c. Contigit. de sententia excom. 1. Jus publicum. §de pactis.

AUZIAREN BUKAERA

I.

Doktor Nafarrak Carranzaren auziaren amaieran egin txostena

Nola gertatu zen Toledoko artzapezpikuaren auziaren amaiera eta epaiketa eta haren beraren azkena eta heriotza.

§ 1576ko apirilaren 14an, larunbatarekin eta Erramu igandeko bezperan, Toledoko Artzapezpikuaren auziko biltzar-kideak eta Erroman kausitzen ziren Ofizio Sainduko beste kargudun guztiak bere ondora deitu-eta, Artzapezpiku jauna bera agerrarazi zuen Aita Sainduak bere aitzinera haren auziko erabakiaren aldarrikatzeko arratsaldeko hiruetan. Hor zeuden ere haiekilan, Aita Sainduaren gelako atalondoan, Inkisizioaren Ofizio Sainduko jaun kardinale ospetsuak eta zorioneko familia guztia, etorri zena, erran orduan, Inkisizioaren bilkura egin ohi den lekura, han ezarria baitzen aterpean Aita Sainduaren Aulkia eta bi aldetarik karrika bat bezala eratzen zuten zizeiluak eta hor Aita Saindua jarri zen bere aulkian eta Kardinaleak beren zizeiluetan, gibeletik zeuzkatela zutik kongregazioneko prelatuak, Aita Sainduaren etxeoak eta beste ehun eta hogeirainoko lagundia.

Jende hori guztia kokatu zelarik, Aita Sainduak agindu zien Nicastroko gotzainari eta aitzineko kondeari joateko gela isil-gordean zegoen Toledoko Artzapezpikuaren bila. Hau jin

orduko belauniko eman zen, Kardinalen aitzinean, Aita Sainduarenganik 15 urratsetan eta honen gibeletik zeuden ganberazain eta zeremonialariak, gero Doktor Nafarra eta Doktor Delgado bi abokatuak eta horrela agertu zen auziaren fiskala, Salgado lizentziaduna eta honek orduan belaunikaturik erran zuen goratik eta latinez:

«Aita guztiz dohatsua, zure oinetara deitu dugu Toledoko Artzapezpikua, zure dohatsutasunaren esku dagoen haren auziko sententziaren entzuteko eta beraz Zure Dohatsutasunari eskatzen diogu otoi erran dezan nola hobekienik zerbitzatu den Gure Jainko Jauna, nola dagokion Aulki Sainduaren aginteari, Kristau Herriaren garapenari eta jende guztien argibideari, halako gisaz non, gaizki eginaz nahigabetu direnak lasai daitezten eta bozkaria gaztiguaz».

Aita Sainduak erran zuen: *«Sententzia emateko eginbidea dugu eta hemen idatzia den bezala erraten dugu»* eta lau paper hosto harturik eman zizkion irakurtzeko auziko notarioari. Hau orduan, hasi zen, belauniko, irakurtzen funtsean Severino Kardinaleak eginarazi txosten luzea zeukan delako sententzia, kontatuz Paulo IVaren eta Pio IVaren mandatuak, haiengatik baitziren jokatu Espainiako ordezkariak, gogoratuz ere ez zela onartua izan Valdes Sevillako artzapezpikua eta gero erranez nola Paulo V.ak deiturik etorri zen auzitegi honetara Toledoko artzapezpikua eta hura nolako artarekin, Pio V.ak, bera zendu arte, hartu zuen Erroman. Eta azkenean erran zuen laburzki gure Aita Saindu honek haste hastetik nolako urratsak egin dituen artzapezpikuaren katixima liburutik eta beste idazkietarik atera diren proposamen heretiko susmagarrien haztatzeko eta, ikusteko zergatik ote dituen liburu heretiko eta susmagarri batzuek irakurri eta beste jende batzuei ere, berdin emazte zenbaiti, irakurtzen utzi; bai eta heretiko batzuekin harremanak izan eta luthertiarren perpaus zenbait bere idazkietan sartu: Horien guztiengatik eta, biziki luzaz, arta handirekin deliberatu ondoan, Espainiako eta Italiako anitz prelatu zendu ala oraino

bizi direnak kontsultaturik eta, auzi honetako jaun kardinale hautetsi ospetsuen bozak bildurik, gure Aita Sainduak nahi izan du sententzia hau honela erabaki:

§ Lehenbizikorik Artzapezpikuak arnegatuko ditu hama-sei perpaus heretiko, Lutherren eta heretiko berrien ezagutue-netarik, haiengatik bere idazkiek, heresia kutsuko solasek eta beste nola nahikoek, egina baitzuten biziki susmagarri.

§ Eta horrela biziki susmagarri izatearen ondorioz eta horrengatik merezitu hobenaren ordainetan Aita Sainduak kondenatzen zuen bere artzapezpikutegitik urrun egotera bost urte-entzat eta, arte horretan, preso izateko orde, Orbietoko hirian, Erromatik hirurogeita hamar miliatan, domingotar fraideen komentuan hetsirik bizitzera, eta, handik hara, Aita Sainduak nahiko zuen bezala egitera.

§ Eta Aita Sainduak bere gain hartzen zuen erabakitzea eta izendatzea delako artzapezpikutegiaren eta haren etekinen arduraduna, preso sartze egunetik haste, hala iragan bahitze egunetik, nola gerokotzat finkatuz arduradunaren errentak eta soldata eta behar diren beste gauza guztiak.

§ Finkatzen zituen beraz delako artzapezpikuaren janari eta xahupideentzat hamabi mila dukat urtekal edo hilabete has-tapeneko mila dukat, zenbait penitentzia salbagarriren egiteko eta agindu dizkioten aukerako meza batzuen emateko gisan, izan behar duen lekuan, berak eskuratuko dituenak.

§ Artzapezpikua Erroman egonen zen denborako ostiral guztiez behar zuen zazpi elizen itzulia egin, otoitz eta meza berezi batzuek erranez.

§ Haren katixima liburua ez zen ez irakurtzen ez inprimi-tzen ahal, baina liburu debekatuen zerrendan sartu behar zen.

Gutun-azalean idatzia da: *Toledoko Artzapezpikuarentzat Aita Sainduak eman sententzia*

II.

1576ko apirilaren 26an, Bartolome Carranzaren sententziaren ondotik Doktor Nafarrak adiskide bati bidali gutuna.

Ene Jaun txit eder eta agurgarria!

Hona zein diren gure artzapezpiku ospetsuaren auziko azken berriak:

Lehenbizikorik gure auziaz erran behar da auzia bururatu dela, batzuek uste ez zuten bezala eta ez menturaz sekulan burura ez zedin nahiko zuten bezala.

Bigarrenekorik gure Jaun Artzapezpiku ospetsuak garaitu du, zeren erraten baitzuten haren kontu emanak ziren hainbeste heresietarik batzuetan erori zela eta beraz, delako «Cena» deitu Buldak eskumikatua zuela eta bere kargutik baztertua eta bizia ere galdu behar zuela eta hona non Aita Sainduak adierazten duen izatez ez dela artzapezpikua neholako heresiatan erori ez eta ondorioz, huts horrentzat ezarri nehongo gaztigutan, ez duela ere galdu bere kargua eta are gutiago galdu behar bizia.

Hirugarrenekorik nahiz Aita Sainduak aitortu duen susmagari izan dela zenbait heresia puntutan, gero berehala, sententzia hartzean, gure Jauna garbitzen da haietarik eta ere beste susmo guztietarik, ikusiz garbiketa horren ondorioz, barkaturik eta aske dela eta haren gain ezarriak zituzten heresia guztietarik, delako susmoetarik eta legez haiei dagokien gaztiguetarik garbi eta bere maila, kargu, errenta guztien etenaldietarik salbu, gelditzen dela nahiz penitentziatzat eman dioten bost urtez bere Elizatik eta haren errentetarik bazter egoteko agindua, beste neholako kargurik gabe. Baina argi dago ez dela legez gauza bera norbaiten bere kargutik aldatzea edo bere mailatik edo beharretik edo errentetarik kentzea eta nor edo nor eliza baten gobernutik eta etekinatarik denbora apur batentzat baztertzea.

Horra zergatik gure Artzapezpiku ospetsuak Erramu igandeko joan den egunean, entzule saldo handiaren aitzinean meza eman duen agerian eta horrela eginen duen nahi baldin badu egunero. Eta, Sant Angeloko (presondegitik) Aita Sainduaren sententziaren entzutera lagundu duen apezpikuak, «Jaun Txit Argia!» erran zion, Toledoko Artzapezpikua eta Espainietako Primatua den Jaunari zor zitzaion bezala. Eta gisa berean mintzo zitzaion Burgoko gobernadore ospetsua, sententzia entzun ondoan, hura bera lagundu zuelarik ohorezki Minervako komenturaino eta berdin zebiltzan beste guztiak ere arrazoiekin, zeren heresia susmotan izanik eman ohi diren penitentziak, ez baitira ematen susmo hori sorrarazi duen zerbait erranik edo eginik baizik.

Laugarrenekorik Erromatar gehienek, zuhurtzia handiko jendea direnek, mintzo direlarik diote ez dela harrigarri nehoiz neholako heresian erori ez den hain Jaun Argi baten gainera horrelako susmo batzuek erortzea zeren uste baitute ez dela mundu guztian hura bezalako norbait aurkituko, zortzi urtetarik kasik hirurogei urte arte izan denik jarraian ikasle, fraide, irakurle, Maisu, Probintziaburu, Predikari, Inkizisio Sainduko aholkulari, Trentoko Kontzilioko aholkulari, Heretikoen liburu eta hor aurkitu proposamenen ikerlari, fedezainek bidalia izanik ikerlanera, Espainiara, Ingalaterrara, Flandesetara eta Trentora eta hainbeste izkribu eta liburu idatzirik eta hainbeste hitzaldi eginik eta hark bezainbat galderi ihardetsirik, non ez duen ustekabetarik eta oharkabea zerbait erran edo egin predikatzean, aholkatzean, edo izkribatzean, delako susmo haietarik zenbait pizteko gisan. Eta azterketa zerbait egin baledi haren aurka, egin den bezain luzaz eta hainbeste kostarik eta hainbeste artarekin, erromatar haiek berek erranen dute, gutiago kostarik eta arta gutiagorekin eta lasterrago eta hobeki ikus daitekeela Carranza beti katoliko zintzo izan dela; ezen orok badakite gure Errege Jaun guztiz Katolikoak hura hain ongi ezagutzen zuenak, izendatu zuela bere Erreinetako kargu goihenerako,

bereziki heretikoen ondotik ibiltzeko ehiztari hoberena zela bazekielakotz eta izendatze horri esker, denek jadanik jakintsutzat baitzeukaten, Katoliko handitzat ere hartu zuten.

Bosgarrenekorik, horiek guztiek erakusten dute gure Artzapezpiku ospetsua nagusi atera dela oinarrizkoan, nahiz apur bat nekatu den gehigarrian, horra zertako ahal ditudan eskerrik hoberenak bihurtzen dizkiedan Jainkoari eta Orreaga eta Toledoko zaindari Ama Maria Birjina loriagarriari, azkenean denen ohorea oroz gaisetik ospaturik atera baita eta bereziki Jainkoarena eta Eliza Ama Sainduarena eta Toledoko elizaren jaun buruzagi nagusi bakarrena eta Espainia guziko Predikarien ordena ospetsuarena eta, erran bezala, hain kargu handi eta ospetsuarentzat hura izendatu zuen Errege Jaun katolikoaren katolikotasunarena eta ere salbaturik ene ohore propioa, ez baita alabaina erraten ahalko, ene lagunaren neholako heresiarik defendatu dudala, Errege Jaunaren aginduz, haren presondegiko hamazazpi urteetarik, haren abokatu izan naizen hamabost urteetan; eta are gutiago ene gain ematen ahalko nuela, hastapenetik gure Jaun Ospetsuari eman nion hitza urratzea, ene eginbidea aldiz beteko nuela, salbuespen edo baldintza honekin, hots, sekula ikusten banuen heretikoa zela ene laguna, nehork ez zuela nik baino lehen hura kondenatuko heretikoa kausitu nuelakotz, ez eta nik ordura arte baino hobeki Nagusia zerbitzatuko. Eta hori hainbeste gustatu zitzaion delako Nagusiari, non erran baitzidan horrelakorik gertatzen baldin bazen, ni neu lehen izanen nintzela suari egurra ekartzeko.

Seigarrenekorik, erabaki horrek ordea pozik utzi baldin banau, aitortzen dut alaiago nintekeela hala ere, gure Aita Sainduak onar baleza ene laguna ez dela egundaino susmoan erori izan, zeren eta, nik beti fede oneko eta maleziarik gabeko ikusi baitut eta, gaur epaitu duen sententziak hobeki epaitu beharko baitzuen, nihonek hobeki ezagutu dudalakotz haren etorkia, haren bizia, haren jakitatea, haren fede gartsua, haren heretikoei buruzko aihergoa, haren Aita Sainduarenganako

debozioa eta Errege Katolikoaren aldeko atxikimendua. Uste izan dut beraz, haren aurka frogatuak ziren zeinuak ez zirela askiko hura susmagarri egiteko, eta kontrako seinaleen kopuruak haiek oro suntsituko zituela baina ez zaio hala iduritu Aita Sainduari eta haren zentzu hain argituari makurtzen natzaio ez bakarrik lur honetan Jesu Kristo gure Jaunaren ordezkari nagusia delakotz, baina ere, berez Irakasle guztiz jakintsua, Epaile osoki zuzena eta Epaitzen izigarri trebatua baita. Horra zertako, biziki gogotik eta beste estakururik gabe, ene izpiritu xumeak amore ematen dion, esperantza izanez hala ere, Aita Sainduak eta Errege Jaunak ikustearekin, haien bien aldera egundainotik erakutsi duen obedientziari, umiltasunari eta atxikimendu gartsuari jarraitzen zaiela, hartaz urrikalduko direla, geroxeago Jainkoak ere haiek biak berak urrikari izan ditzan eta zinez zoriontsu egin lurean eta zeruan, halabiz!

Horra zer den iragan asteko, hots, aste sailduko berrien bilduma, menturaz zuk oraino ukan ez duzuna eta bestalde, gaur zer den errateko Bazkoko laugarren egun honetan.

Bazkoko bigarren egunean gure Jaun Artzapezpiku Ospetsuak egin zuen zazpi elizetako itzulia, sehiek berek bete zortzi karrozekin eta ni ondotik gazte bat bezala, ene mandoa-rekin. Denen itzulia, salbu Jondoni Petrirena, egin zen goizetik eta eguerdiko Santa Mariara heldu ginen, nahiz nehork ez gintuen igurikitzen, baina ongi etorria egin zioten gure Jaunari izigarriko goxotasunarekin eta kortesiarekin Kardinalei eta Printzei baizik beste egunetan erakusten ez diren besta handietako erlikia guztiak erakutsiz, Aita Sainduak emana zien alabaina Artzapezpikuari eta haren etxeko guztiei egun horrentzat, urte sailduarentzat bezala, jubileo osoa, gauza handia izan baitzen eta bozkariozko seinaleztat hartu baitzuten kasik herritar guztiek, haiek igurikitzen zuten bezala, halako Prelatu handia heresiatik garbi eta libro ateratzea.

Erranen dut azkenean Gorte honetako jende gehienak miretsi dutela zer pazientziarekin eta zer bihotz zabalarekin

onartu duen artzapezpikuak hainbeste ontasun eta errenta gal-
tzea, deus ez balitz bezala, ez dionaz geroz horrek arima hunki-
tzen

*Erromatik, 1576ko apirilaren 26an, Doktor Nafarra,
Jaunaren zerbitzuko gertu.*

*Itzuli horren ondotik eta, erran bezala, goizetik arrats
arte zazpi Elizetan karrozaz ibilirik, gure Jaun Artzapezpiku
Ospetsua heldu zen Minervaraino guztiz nekaturik, eta orduan
sukarra goiti joan zitzaion, ezin gernu egina jauzi, eta horrela
maiatzeko bigarren asteazkenean, ordu bat argitu aitzin, azken
hatsa eman zuen, Pio Va, Aita Saindu oroitzekoa, hil zen egun
berean eta gaitz berarekin, ezen hiru harri atera zizkioten,
hurra bano handiagoak, karrozan ibiltzean higitzen zirenak
eta haiek heriotza eman baitzioten.*

GURUTZADAZ

Martin Azpilkueta Doktor Nafarraren iritzia, 1567ko maiatzean

Gurutzadaren Bulda, Erromako Aita Sainduak behin apur batentzat Errege jaunari eta haren aitzineko erregeei eman zientena eta aspaldian hauek beren gain hartzen dutena berriz ere eztabaidagai bilakatu da, eta zenbait puntutan susmagarri; Errege Jaunak nahi baitu omen jakin zer iritzi duten puntu horietaz prelatu zenbaitek eta beste pertsona jakintsu eta zuhur batzuk, Aita Sainduaren hobeki gogobetetzeko eta horrela bere buruaren aterpetzeko delako prelatuen eta jakintsuen jakituria-
ren itzalean.

Eta hona zein omen diren gure iritziaren galdez dauden dudazko puntu eragozle horiek:

I. Ea zuzen eta zilegi diren amoinarentzat eta *manus adju-
trices* deitu eskukaldientzat ordaintzen diren graziak eta indul-
jentziak, eta, bereziki Gurutzadarentzat ematen den bi errealeko
amoina, ikusi-eta zer den horren helburua eta ba ote den horre-
tan susmorik ala eragozpenik.

II. Ea Gurutzadako buldan ematen diren induljentzien eta
ordaintzen diren grazien artean izan behar ote den araberako
neurririk, zeren gogoan hartuz geroz fedegabeen aurkako gerla-

ren helburu orokorra eta kristautasunaren eta erlisionearen defentsa dela Bulda deitu emaitzaren oinarri nagusia, gauza gutxia eta erraza baita amoina berezi hura, erraten ahalko da –eta batzuk jadanik erraten dute– delako emaitza ez dela araberakoa ez behar den izarikoa.

III. Ea gaizki egiten baldin bada Gurutzadaren bulda emate hori eta haren helburua aldatzen, ez ote daitekeen gurutzada apur batentzat eten, hiru urtetarik egiten ohi zen bezala, eta, ondorioz, galtzen baitziren gurutzada berrian sartzen ez ziren eta buldak hartzen ez zituztenen faboreak.

IV. Ea delako Gurutzadan ematen diren graziak eta faboreak ez ote doazen Trentoko Kontzilioan eman diren dekretuen eta aginduen aurka eta, horren argitzeko, ez ote den kontzilioan erabakiaren kontrako direla erran nahi izan den artikulua zenbaiten bilduma egiten ahal.

V. Ea Gurutzadaren tratu horretan eta horren egiteko eta baliatzeko moduan gehiegikeria, izugarrikeria eta nahasmendu batzuk gertatzen direla han dabiltzan buruzagien faltaz erran denaz geroz, eta horren ondorioz eskandalu, gaitzespen eta fama txar izan baldin bada, ez ote duen horrek eragotzi edo trabatu behar buldaren berritzea, nahiz jadanik hori erabakia den eman diren argitasun eta aginduekin eta berriz ere erabakitzen ahal geroxeago

JESUS +MARIA

Lehen puntuari ihardesten diogu:

Lehenbizikorik, aipatzen den emaitza zilegi dela Gurutzadako buldarekin eman ohi diren grazien eta induljentzien emateko arrazoi zuzenik badenez geroz, eta bestenez ez. Zeren eta, beste batzuen ondotik nik ere luzaz frogatzen baitut Portugalen ene Coimbrako Berrirakurketa batean, 1550ean,¹ nola ez duen Aita Sainduak eskubiderik –zor diodan begirunearekin erranez– graziak eta induljentziak emateko arrazoi zuzenik gabe, nahiz esku baduen horrelakorik baldin bada.

Bigarrenekorik, erraten dut azken berrogeita hamar urte hauetan ez dela izan gaur egun behartzen gaituen Gurutzadaren bulda emateko arrazoiaren heinekorik, zeren sekula orduan fedegabeek ez zituzten oraino altxatuak geroztik eraiki dituzten hain belar handiko gotorlekuak. Behin baino gehiagotan haiek hartu zituzten gure anitz itsasontzi beren kargekin, armekin eta gudariek in Espainietako leihorretan eta sartu batzutan gure itsasoaren erdian, zenbait legoa barna, eramanez berekin anitz gati-bu. Eta, gainera, gure Errege zorrez itoa da, kanpoko maileguez lehertu baitute atzoko eta egungo gerlengatik, halako gisaz non jakin dudan leku segurutik 200.000 libera urre zor badituela.

Hirugarrenekorik, erraten dut gure delako bulda ematen ahal dela hain zuzen adieraziz eta finkatuz zer-nolako amoina eman behar den induljentzien irabazteko, zeren ziur baitaukat eta beti ziurtzat izan baitut izpirituko zor bat ordain dezakeela izpirituko ariketa batek, palermotarrak idatzi zituen irakaspenen arabera.² Bestalde, zeren eta adieraztea eta finkatzea zer neurritako amoina behar den izpirituko sariarentzat ez du simonia arrisku gehiago izaten promesa orokor batek sari nabarmen batentzat izan behar duen baino, bi kasu berdinetan simoniaren aitzakia bera baita. Azkenean, ez baita gauza bera denborako sari baten ordainetan edo trukean izpirituko opari baten izatea eta sari haren ematea obra on hau edo hura eginen duenari, arrazoi zuzena izan dadin izpirituko opari baten emateko, kasu horretan bezalako obra onik ez baldin bada, ematen ahal ez dena.³

Bigarren puntuari ihardesten diot:

Lehenik, jadanik erran bezala, heineko izari bat behar dela izan induljentiaren eta haren emateko arrazoiaren artean. Baina nihonek luzaz idatzia dut ene behialako berrirakurketan⁴ *induljentzia ez dela lanen arabera baina merezimenduen arabera behar neurtu eta, beraz, berenaz zerbait ez baldin bada ere induljentiaren arrazoi zuzen, fede eta karitate askirekin egina delarik, gertatzen ahal da haren arrazoi zuzena bilaka dadin*

eta, alderantziz, eman den induljentiaren arrazoia berenaz zuzena izanik ere hain hotza bilakatzen dela non azkenean ez den gehiago zuzena, guhonek frogatzen dugun bezala aitzineko 15. ohargarrian,⁵ san Tomasen eta beste askoren iritziaren arabera.

Bigarrenik, delako induljentiaren emateko arrazoi nagusia dela halako gerla saindu eta handiaren egiteko bildu behar den diru meta gaitza, fededun guti batzueganik bil ez daitekeena eta, beraz, Aita Sainduak aginduz geroz parte hartzen dute hainbestek. Gisa horretan, bi errealekoen kopuru txipiak biltzetik datorren diru meta handia, handia da Gurutzadako grazien arrazoi nagusi eta osoa, eta bakoitzak eman bi errealak dira bakoitzaren arrazoi parte, haiek eman dituenak parte har dezan induljenzien irabazteko diru meta nagusi hartan, hiritar bakoitzaren ekarpen apurra bilduz diru meta gaitza osatzen den bezala hiriko zergetan.

Hirugarren puntuari ihardesten diot:

Aita Sainduak, hiru urteen buruko buldaren etenaldia erabakitzen ahal duela, zuzen, horren egiteko arrazoi zuzenik baldin badu.

Lehenik, zeren eta Aita Sainduak lege egile nagusi eta delako induljenzien emaile bezala desegiten ahal baititu lege horiek eta murrizten faboreak; iritzi komunaren eta beste lekuko anitzen arabera, alabaina, arrazoi zuzena izanez geroz, hitzarmen zuzena ere hauts dezake berak.⁶

Bigarrenik, etenaldi hori egin daitekeelakotz asko gisaz lehen aldian baino eztekiago, ezen erabakiaren funts guztia honetan baizik ez datza: arrazoi zuzenik baden ala ez ikustean.

Laugarren puntuari ihardesten diot:

*Lehenik, ez dela erraz erratea, aipatu den Bulda hura ez doala Kontzilioko 24. jardunaldiko 5. kapituluak *de reformat. matrim.* ezkontzaren berrikustez dioenaren aurka, hor baita*

debekatzen ezkontzeko eragozpen salbuespenik ematea, non ez den *raro et ex causa et gratis*, bakan, arrazoi batengatik eta urri-rik. Nahiz, ezen, arrazoiaz ari direlarik delako kapituluaren hitz horiek orokorrean mintzo diren eta ez dirudien Kontzilio Sainduaren xedea fedegabeen gerlaren arrazoia bezain urrun heltzen dela; ez da, alabaina, erraten ahal *gratis*, urri-rik, egiten dela, Kontzilioaren gogara, *ad mentem Concilii*, zerbait hartzen delarik, nahi bezain onak omen diren obrentzat. Kontzilioaren xedea, aldiz, izan zen salbuespen haientzat Erroman hartzen eta komunzki Jondoni Petriren Fabrikara eta beste obra onetara eramaten zen diru ordainketa ezeztatzea. Aita Sainduak, bizkitartean, arrazoi zuzen batengatik argitzen ahal du Kontzilioaren agindua, erranez hain arrazoi zuzena izateko hein hortako obra on eta publikoa aski dela, kontuan hartuz geroz diru hura ez dela salbuespen emailearen eskuetara itzuliko.

Bigarrenik, erraten dut zuzenago dela ikustea zer den Trentoko Kontzilioaren xedea, 21. Jardunaldiko 9. kapituluaren agintzen duelarik *custores* deitu eske biltzaileak kentzea, lekuko apezpikuak edo bi kalonjek induljentziak iragartzea eta haiek berek amoinak biltzea eta abar, baina ez dela hori hainbeste ordena, ospe eta adostasunekin iragarri eta zabaldu zen Gurutzadaraino heltzen, ez baitute, alabaina, aipatu dugun kapituluko hitzek Gurutzadaren xederik garbiki barne hartzen eta are gutiago hitz haiei eta beste asmoei datxekien gogorik agertzen.

Hirugarrenik, erraten dut Trentoko Kontzilioaren 23. Jardunaldiko 15. kapituluaren dekretua ez doala Gurutzadak dakarren konfesorea hautatzeko faborearen aurka, zeren eta adierazten baita konfesoreak izan behar dituela delako 15. kapituluaren eskatzen diren dohainak.

Laugarrenik, erraten dut Gurutzadak ematen duen aldare mugikorraren erabiltzeko faborea ez doala Trentoko Kontzilioaren 22. Jardunaldian, *de observandis et evitandis*, begiratu eta saihestu behar direnez, hartu zen dekretuaren aurka, zeren eta toki garbiak eta egokiak, tokiko apezpikuek, dekretuak erran

bezala, horretarako bakarrik hautatuak aipatzean, adierazten baita delako dekretuak mugatzen duela soilik delako faborea, baina ez duela batere kontrakoa delakotz kentzen.

Bosgarrenik, erraten dut Kontzilio Sainduak 24. jardunaldiko 8. kapituluan eraberritzeaz, *de reformatione*, diharduenean, adierazten duelarik apezpikuak aldatzen ahalko duela krimen publikoarentzat apezak eman penitentzia, ez duela horrek, neholaz ere eragozten, Gurutzadak eman konfesoarea hautatzeko faborea, ez eta beste faborerik, zeren ez baitu, Penitentziaz eta Barkamenduaz I. kapituluan agertzen denaz beste deus berririk ekartzen, nihonek erakutsi dudana bezala, eranskin batean, *Eskuliburuko* 27 kapituluei 28. kapitulua eratxikitzean; Eta zerbait berri sartu balitz ere, ez zen sekula deus ezarriko konfesoarearen hautatzeko faborearen aurka, zeren eta delako dekretuaren hitzek berek ez haren xedeek ez baitute fabore horren aurkako deusik irakasten.

Seigarrenik, erraten dut nahiz badirudien Kontzilio Sainduak ez zuela xederik izan, ez 5. Jardunaldiko 2. kapituluan Fraideez mintzatzean, ez 24. Jardunaldiko 4. kapituluan Eraberritzeaz diharduenean, Gurutzada Sainduak orduan bidaltzen zituen hizlarietz zerbait aldatzeko, ezin da hala ere ukatu Aita Sainduak emanez bere Mezulariari aitzinean bezala hizlariak hautatzeko ahalmena, beharko duela horrentzat Kontzilioaren ondoko salbuespen zerbait asmatu.

Zazpigarrenik, erraten dut nahiz ez dirudien egun debekatuetan arroltzeak eta esnea hartzea eragozten duen artikulua badoala Trentoko Kontzilioak 25. Jardunaldian *Janarien atsegina* erranen aurka, zeren eta barur eta jai egunen begiratzeko egiten den aholkua, aholkua baizik ez baita eta beraz ez baitezpada betetzekoa; ez da, bizkitartean, ukatzen ahal Kontzilio bereko 25. Jardunaldiaren 8. kapituluko Eraberritzeaz idatziaren aurka ari dela, hor errana baita, alabaina, arau batzuentzat ez dela salbuespenik eman behar, urririk baizik, eta arrazoi eta zuhurtzia handirekin bakarrik. Argi dago, bada, hori eragozten

duten arauen aurka dela arrazoi funtsik gabe egun debekatueta arroltzeak eta esnea hartzea.

Zortzigarrenik, erraten dut ez dela ere ukatzen ahal Aita Sainduak, etxekoen auziak argitzeko ahalmen eta beste Gurutzadako Mezulariaren esku utziz, delako Trentoko Kontzilioaren 24 Jardunaldiko II. kapituluaren den zerbaiten aurka egiten duela; ez ordea baitezpada, funtsezko kalterik egin gabe apezpikuari ez delakotz kargu hori uzten ahal. Gurutzadako Mezulariari, baina funtsezko kalterik egin gabe apezpikuari horrelako auzi ordezkartzak egin ohi direlako, *praeter jus*, zuzenaren gainetik gehiago, *contra jus*, zuzen kontra baino.

Bederatzigarrenik, erraten dut ez dela ukatzen ahal ere ez dela kolpatzen Trentoko Kontzilioaren 25 Jardunaldiko 5. kapituluak, *de regul.* deitua, Gurutzadako Mezulariari eta haren ordezkariari emanez eskua baimena emateko sar daitezzen serora komentuetan, nahiz arrazoi zuzenik baldin bada eskumen haren hari uzteko, izan beharko den ere baimen horien emateko.

Bosgarren puntuari ihardesten diot:

Ez dela erraten ahal epe finko batentzat eman faborearen gaindiak, erakar dezan itzulian printzea, epea gainditu duenari luzamen handiago baten uztera; baina badu gaitz horrek erre-mediatorik; ez dadin gerta gehiegikeriarik jakiteko zer egin; kausa baztertuz geroz ondorioa baztertu behar baita, alabaina: *cessante causa, debet cessare effectus*. Erran daiteke bestalde grazia- ren gutxietatik datorren kaltea, ez ohi dela hain handia, non komunzki gorderik legokeen etorriko den grazia berria, aitzine- koa gutxietsi duenarentzat, ez baita sekulan aitzineko hutsik aipatzen.⁷

(Doktor Nafarraren eskuz idatzirik): *Hauek oro, ene ustez, erran behar ziren, lasterka eta presaka, ene begi eriak ahantzi gabe eta sententzia zuzenagoaren menturan.*

MARTIN AZPILKUETA nafarra

Oharrak

¹ Relectio & In Levitico de Poenit.
dist. I, notab. 15

² cap. Significatum de praeb et in
cap. Jacobus Symonia.

³ Ikus, lehen oharreko notab. 15.

⁴ Ibid. notab. 15.

⁵ Ibid. notab.15.

⁶ In cap. I de probat.

⁷ De rescriptis, in c. Postulasti & c.
Super litteris.

KARDINALEEN IZENDATZEAZ

Pacheco Kardinaleak Felipe II.ari

Erromatik 1570eko maiatzaren 15ean

Errege Jaun, Zesar Agurgarria!

Iragan ostegunean, Toledokoaren bilkuraren ondotik, Erroman gaindi hainbeste badarasaten kardinale berrien izendatzeaz mintzatu nintzen Aita Sainduarekin eta ahal bezain bitartekari ona egin nuen Grasiseko apezpikuaren alde, Erromako gobernadorea eta ene adiskide handia den Boloñako jaun hori baita ere izigarriko dohain aberatsak dauzkan gizona eta iduritu zait ongi ateratzen zitzaidala ene ginkizuna.

Eta gai horretaz beste hitzik erran gabe beste solasik nahi niolarik eman Aita Sainduari, hona non berak erran zidan apur bat gelditzeko, zeren eta, behar baitzuen ene iritzia ezagutu, sartu ginenaz geroz solas horietan eta deliberatua zuenez bi kardinale berri egitea bi apezpiku frantses, gizon zuzenak eta katoliko zintzoak: Sens-eko artzapezpikua eta Frantziako erregeak hemen duen enbaxadorea. Baina erresuma horretako bi kardinale egiteaz geroz, erabakia zuen ere beste bi espainolen izendatzea, nahiz gai horretaz, Errege Jaunak berak idatzia zion eta haren enbaxadoreak errana, ez zezan arren beste kardinalerik egin, ez haren erreinukorik ere, Errege Jaunak berak jakin gabetarik. Ez zuen nahi alabaina jendeak asma zezaten Aita Sainduak fagoratu nahi zuela Frantziako erregea haren bi sujet hautatuz,

zu Jaun Handia baino gehiago. Horra zergatik ez zuen ene argudiorik entzun gura, ez enekin denborarik galdu nahi, jadanik erabakia baitzuen bi espainol eta bi frantses izan behar zirela. Eta Sevillako artzapezpikua hautatua zuen bi espainoletarik bat izateko, alde batetik haren bertute arraroengatik eta hartaz izan argibideengatik, beste aldetik zuhaurek Jaun Handia berari heratsatuki galdatua zeniolakotz. Beste sujetarentzat ordea nahi zuen jakin ene iritzia, ezen proposatua omen zioten Doktor Nafarra, nik nekien bezala gizon letradun jakintsua eta bizimolde saildukoa eta beraz Aita Sainduak nahi zituen ohoratu haren bilo zuriak, iduritzen baldin bazitzaion ere zahartuxeegia.

Nik orduan erran nion Aita Sainduari, bai ziur Doktor Nafarrak bazeuzkala hark aipatu bertute handi guztiak, baina orduan, hura kardinale izendatzean, uste baldin bazuen hautatzen zituela bi frantses, egiaz egiten zituela hirur kardinale frantses.

«Eta nolaz hori?» galdatu zidan Aita Sainduak

Nik kontatu nion xeheki Nafarroaren historia eta nola bere Erregeren alderdia harturik eta harekin Frantziara ihesi joanik eta erreinu hartako unibertsitateetan ikasle izanik, hain atxikia zen hango koroari non gure eskualdean bizi zelarik eta bere gogara mintzo lasaiki nahiago izan baitzuen Salamancako Lehen aulkia utzi eta hartu Portugalen Coimbrakoa, askoz apalagoa zena bai ospez eta bai errentaz. Eta azkenik, gauza horien egiaztatzeko erran nion Aita Sainduari galda ziezaion Santa Severinako artzapezpikuari, nola Tarragonakoarekin hango gaztelua ikuskatzen zutelarik, Doktor Nafarra hasi zen haien aitzinean, gaitz erraten zutaz Errege Jauna eta Frantziako erregeaz, eta Santa Severinakoak hartu zure alde, Jaun Handia, bera baita alabaina zure menpeko guztiz atxikia eta zure etxeari guztiz leiala, baina Doktor Nafarra Frantziako erregearen alde agertu zen.

Aita Saindua orduan zeinatu zen eta erran zidan: Ai ene Jauna! zer huts larria ez nuen eginen, ez baldin banintzaizu min-

tzatu! Eta beraz zure iduriko zein liteke Erroman bizi diren espainolen artean bereizi behar genukeena?

Ihardetsi nion ene ustez mundu guztiak ikus zezan eta zuk ere bai Errege Jauna, estimu handitan zenezkara Toledoko auziarentzat zuhonek bidali dizkiozun prelatuak, hauetarik bat behar zenuke hautatu, erakusteko mundu guztiari Aita Sainduak ez dituela jaun horiek bakarrik ongi hartu eta entzun, baina ohoratu ere, Aita Saindu batek eman dezakeen sari goihenez ohoratuz.

Gutziz ona iduritu zitzaion ene kontseilua Aita Sainduari eta eskerrak bihurtu zizkidan. Gero Zefaluko, Pattiko, Badajozeko eta Tarragonako apezpikuak gogoratu, azken biak hauteman zituen eta ene ustez atsegin hartuko zuen biak egin ahal izan balitu, ezen izigarri gogoko ditu baten ala bestearen bizimoldea eta jakitatea, baina nola Tarragonako artzapezpikua baita zuk igorri dizkiozun prelatuetarik lehena, adinez, duintasunez, eta gainera Trentoko Kontzilioan erdietsi zituen oniritziez, azkenean erabaki zuen horren hautatzea. Agindu zidan gero ez niezaion nehoi hitzik erran, haren benedikapenaren nekepean (?) Eta horrela egin nuen, ez bakarrik kasu horrentzat, baina ere bestalde elkarrekin erabili genituen solas guztientzat, Aita Sainduak berak Trentokoari Tarragonakoarena eta egin nahi zituen beste guztiak salatu arte.

Ene aldetik badut uste, egun berean, bi zerbitzu egin nizekizula zuri ene Errege Jaunari: batetik dudan ezarri Doktor Nafarrari buruz Joanes printzeak idatzi ahal dituzkeen guztiak eta bestetik Tarragonakoarena baieztatu, Errege Jaunak ezarri duen erreinuetan eta Erroman ere, zerbitzu handiak egin dizkizun gizona izan delakotz eta gorago igaiteko heina eta kardinalle kargua jasateko doa errekaitu baduelakotz jadaneko, onartu behar duela iduritzen zait beraz, erran diodan bezala zure enbaxadoreari eta artzapezpikuari berari.

Baina huts zerbait egin baldin badut, Errege Jaunak erran diezadala xuxentzeko, zeren ene xedea gutziz garbia izan baita,

hots, Errege Jaunaren zerbitzatzea besterik ez, gogoratu ere gabe Frantzizko Sarmiento ene ahaidea ez beste deusik aitzinatzea, baina bakarrik merezimendu handiak dituen norbaitez eta gertatzen ginen aldiuneaz oroituz, Errege Jaunak delako auzi honetara bidaliak zituen prelatuetarik bat, zegokion bezala hemengo gortearen aurrean, ohoratzea.

Beste izendatze guztiak uzten ditut zure enbaxadorearengain.

Gure Jainko Jaunak begira dezala Errege Jaunaren Ospea eta gura dugun bezala, heda zure Erreinu zabalak eta zure Basailuak!

Erromatik maiatzaren 15ean.

Errege Ospetsu, Zesar Agurgarria, zure eskuei, Jaun Handia, muin ematen die zure basailu eta kapilau Petri Burgos-eko kardinalak.

Felipe II.ak, Pacheco Kardinaleari

Escorialetik 1570eko uztailaren 15ean

Felipe, Jainkoari esker Espainiako, bi Sizilietako, Jerusalemeko eta abarreko Erregek, gure adiskide maite eta hain maitagarri, aita Pacheco Toledoko Kardinale eta, Kristo baitan Guztiz Agurgarriari!

Zure maiatzaren 15eko gutunari esker, ikusi dut zer idatzi didazun Aita Sainduak egin dituen kardinalen izendatzeaz eta zer solas erabili duzuen elkarrekin gai horretaz, eta Doktor Nafarra kardinal egiteko berak izan zuen xedeaz eta horrelakorik ez zedin gerta zuhonek hain ongi egin duzunaz. Horra beraz zergatik kasu horretan egin duzunarentzat esker mila bihurtzen dizkizudan eta izigarri atsegin dudan gure Aita Sainduak

Tarragonako artzapezpikua kardinale egin duelakotz eta, are gehiago bestea horrela baztertua izan delakotz, guztiz kaltegarri izanen baitzen, beste hori gertatu balitz eta beraz horrela, ongi dator jakin dezazun zer behar duzun egin hemendik hara delako Nafarra ez dadin kardinal atera.

Iragan hilabetearen 20ko gutun batean ikusten dut zenbat nahi zenukeen zure (Burgoseko) elizara itzuli eta hori zuzen dela iduritzen zait eta nik ere atsegin nuke gerta baledi, baina ongi da hori izan dadin Toledoko artzapezpikuaren auzia osoki bururatu-eta, ez ordea lehenago entzunak dituzun arrazoiengatik eta beraz, horretaz arduratzea gomendatzen dizut ordura arte.

Eta gure Jainko Jaunak begira zaitzala beti bere gerizan, Kardinal guztiz Agurgarria, gure adiskide maite maitea!

Escorialetik, 1570eko uztailaren 15ean,
Nik Erregeak. Antonio Perez.

BERE BURUAREN ALDEKO GUTUNA

(1570eko abuztuan)

*Gabriel Cueva, Alburquerqueko jaun duke,
Milango gobernadore, printze txit zuzen
eta guztiz bihozberari, Martin Azpilkueta,
Doktor Nafarrak Agur!*

Anitz gogoeta luzeen ondotik erabaki dut, azkenean, zure paregabeko bihozberatasun zinez kristauari dei egitea, zuri Printze Goihena, amoreagatik eta Kristo baitan enetzat duzun onberatasun eta karitateak, ahal den neurri zuzenean, ahal diren ezpain gaiztoen eta mihi maltzurren zepotik atera nezan, bereziki gure Gotzain Nagusi Pio V. Aita Sainduaren eta Felipe II. Errege Goihenaren aurrean.

Ez dezake, ene ustez, nehork zuk baino hobeki hori egin: alde batetik, zure mailako Printzeen artean, ez da bihirik, bi Pertsona horiei zu bezain leial eta gogoko aitortua denik. Bestaldetik, Alpe mendietatik hona, delako gure Erregea ordezkutzen duten handikien artean ere ez da nehor izan zure Goihtasunak bezain ongi ene etxeoak eta nihaur ezagutzen gaituenik, zeren eta, anitz urtez, Nafarroako Errege-orde gisa, zaindu baikaituzu, gure garaiko beste nehork ez bezalako atxikimendu, zuhurtzia, gizontasun eta arta zintzoarekin, eta gero, zure aitzinekoak aldatzen zituztelarik ez bezala, handik hona igorria izan zinelarik, hain handiak izan baitira erreinuko jendearen goresmenak eta gogo batekoa ere herriaren dolamena, nahiz beste aitzineko buruzagi asko oroigarri izanak ziren,

beren dohainen, duintasunaren eta aberastasunengatik, hala nola, zure Aita bera, egiazki handi egina baitzuten bere zentzuak, esperientziak, adinak, ekintzak eta ospeak.

Hona, beraz, zure Gohentasunari hel egitera behartzen nauen arazoa: badu engoitik bi urte hasi zela hedatzen jendartean zurrumurrua (ez dakit nik, ez jakin nahi ere, nork asmatu, ez zer xederekin) baizik eta, delako gure Erregea haserre dela enekin eta, hartaz gaizki ikusia naizela. Gehiago oraino, ez hain aspaldi, kargu handi zenbait banatzera zoazelarik hemen gaindi hori bera erran da segurtamenekin eta hortik atera dute, ez zela gisa, ez gure Aita Sainduak, ez beste Aita gorri-jantziek, neholako atxikimendu berezirik erakutsi zezaten ene alde. Eta, diotenaz, lau argudio hauekin beren erranak bermatu nahiz omen dabilta.

Lehenbizikorik, ene liburuetan idatziko nuke Errege delakoak Nafarroa zuzengabeki atxikitzen duela.

Bigarrenekorik, Elizako errentez idatzi dudan latinezko liburuxkan, nihonek aitortuko nuke (eta errepikatuko liburu beraren bigarren edizioan, q.1. mon.38.) Erregeren gortean ez didatela neholako kargurik eman, ez baitzen haien aburuz hori gertatuko, Erregek ez banindu hainbeste higuindu, herriaren arabera edozein karguren betetzeko gai naizenaz geroz.

Hirugarrenekorik, nafarra naizelako aitaren eta amaren aldetik, hauen bi jauregietako jabeek beren buruzagi eta zure askazi Nafarroako Pedro marexalarekin lagundu baitzuten, aspaldi lehen, Albretoko Joanes Erregea, Nafarroa galdu ondoren ihesi joan zelarik eta, hori eginik, nik maiz haiek gorai patzen ditudalako.

Azkenik, bada, zuzenbide kanonikoa eta zibila ikasi eta irakatsi baitut anitz urtez Frantzian, frantsesez mintzo naiz, Frantzia handien dut eta hango jendeari anitz atxikia nago.

Hainbat barrenago zaurtzen naute ordea salaketa horiek eta horien berme darabiltzaten argudioek, non ez baitezaket

horiei deus ihardets, ene burua eta ene etxeoak goretsiz baizik, nahiz Zuhurtitzen liburuak 27an dioen: *Goraipa hezala beste batek eta ez heure mihiak!*

Baina hori guztia egin duten gizonei, nik dakidala, ez diet nihonek beste deus minik egin, baizik eta Toledoko artzapezpi-ku argia defenditu dudala, edo italiarrek, eta bereziki erromatarrek, hala nola, mundu osoko Aita Goihenak eta beste Aita gorritz-jantziek, batzuk nahi luketen baino maiteago nautela, edo zilegi ez den bezala aldeko laguna belztuz beren Errege delakoa lausengatu behar dutela!

Ikus beza zure Zuhurtasun Argiak, zu Jaun txit Argia, jasateko ditudan guztiak lotsatu gabe pairatzekotan zenbat naitzen Jainko laguntzaren beharretan, kontutan hartuko baituzu, mundu guztiaren antzoki bilakatu den hiri handi honetan nagoela, arrotz eta zahartua. Eta berriki oraino, Jainkoari esker, hartze nuen baino anitzez gorago ezartzen nindutelarik guztiak, umilek ala puxantek, hona non oraingoan zuzengabeki belzten gaituzten ni neu eta ene etxeoak, eta ez nornahik, baina dirudienez, ene herritar batzuk.

Bizkitartean, horiek guztiak nihonek gogotik utziko nituen Jainko Handiaren epaiketaren gomendio, gizon zuhur eta jakintsu batzuei ez balitzaie iduritu, ez bakarrik erran guztiak nihonek jasan nintzakeela, baina menturaz nihaur baizik zaurtzen ez nautenez bozkaria nintekeela, san Gregorioren hitz hauen arabera: *Lausengatzaileen eta gaizkierraileen solasen kasuan beti zentzuz jokatu behar da eta, ez bada gaizkirik aurkitzen jendeak gutaz hitz egiten duelarik, bozkario handitan sartu behar dugu*¹.

Beste horrelako erran asko balitezke gogoratzeko, hala nola, ez dagokiola zahartzaroari ohore iragankorrez kargatzea, bereziki zure indarrak gaindituko dituztela jakin ondoan, Gregorio saindu berarenganik entzunik: Horazioren aipamen hau gogoratzen duelarik: *Izkribatzen duzuenok har ezazue zuen indarren neurriko ekaia*.²

Eta berdin ene interes pribatuak hunkiak izanagatik, gerta liteke enetzat baliagarri izatea ene izkribuen arrakasta emendatzeko. Baina nola hunkiak baitira bai erresuma, bai ene etxeoak, bai eta ene idazkiak, ezin dut, bekaturik egin gabe, edo arazoi larri zerbait gabe, alegia egin, ezen Liburu Sainduak dio: «Eccl.» 41; *Heure izen onaz arrangura hadi!*, eta idatzia omen da san Agustinen arabera³: *Bihozgabea da bere izen onaz axolarik ez duena*; zeren eta ene desohoreak, ni hain ezaguna naizen aldetik, eskandalua ekar liezaioke zernahi jenderi, ez baita berdin sinetsiko, alabaina, horrelako Errege handi eta bihotz onekoa hainbeste haserretu dela enekin, non ez dudan zerbait huts larri egin. Eta orduan suntsi liteke ene larderia eta ene liburuttoen ospea, kaltetuak litezke ene etxeko guztiak eta Nafarroa osoa; ororen buru, Errege handiaren loria ere apur bat hunkia liteke, ni barnetik eta ez azaletik ezagutzen nautenek baitakite Jaun Goihenarenganik atxikimendua dudala hartze eta ez higuina.

Horrela, beraz, beharrak sustaturik, ihardetsiko diet lehenik, bederazka, aipatu ditudan argudioei. Gero aitzinatuko ditut beste puntu batzuk, lehenago egin zuzenketen ondotik erakutsiko baitute nola, berrogeita hamar bat urte honetan, izan naizen ez nolanhiko baina paregabeko zerbitzaria delako Errege Jaunarentzat eta haren aita Enperadore Handiarentzat, bai eta haren ama andre Enperadorearentzat, halako gisaz non ez nauen behar etsai bezala gaizki ikusi, baina izatekotz, zinez ongi ederretsi.

* * *

Aipatu den lehen argudioari ihardesten diot, beraz, itsuski erran izan dela eta gezur hutsa dela nik idatzia nukeela ene liburuetarik bat edo bestetan Errege delakoa bidegabeki jabetua dela Nafarroaz.

Batetik, argi eta garbi da ez dudala nehoiz ene liburuetan gai hori erabili, ez eta den gutienik aipatu ere.

Bestetik, jakina da halaber, ene liburu guztiak argitaratu aitzin, Gaztelako Errege Jaunaren Kontseiluak aztertu izanak zirela eta inprimiturik izateko baimena bazutela.

Nabari da, gainera, zinez ergela eta zentzugabea izan beharko zela gizona horrelako edozer idazteko, hain Errege indartsuaren lur eremuetan, bere buruaren eta bere etxekoen kaltetan, ez Gizalegeak, ez Jainkolegeak, deusek ez zaituelarik hertsatzen, ez edozein probetxuk horretara erakartzen. Eta, Jainko Gure Jaun Handiari esker, ez naiz ni hain eroa, ez burugabea, horrelakorik egiteko.

Bestalde gezurra da, nahiz, ene «*Konfessoreen eta Penitenteen Eskuliburua*» hurbiletik irakurri ondoan askok dioten nik hor baietsi dudala Errege Katolikoek zuzenki atxikitzen dutela menpean Nafarroa, hau ez izanik ere izatez berena, argudio hori ateratzen baitute ene solas honetarik⁴: *Besteenak diren ontasunak ez dira itzuli behar hortik kalte handiagoak aterako balira, horra zergatik ez diren errazegi Erregeak kondenatu behar, besteen ontasunak, berenak ez direla jakinik ere, atxikitzen dituztelarik, sinesten dutelako menturaz itzultze horrek kalte handiegiak sor litzakeela beren erreinuetan.*

Eta perpaus horri eratzikitzen bazaio beste hau, honetan errepikatu baitut askotan, militar gaietan guztiz jakintsu diren espainol batzuek uste dutela delako Erreinua itzul baledi, horrek bidea zabal liezaiekeela Pirinio mendietako Espainiako beste erreinuetan sekulako desmasiei, hortik ateratzen dute nik erran dudala Errege Katolikoek ez dutela Nafarroaren itzultzerik, jakinagatik ez dutela berena. Alta bada, ez dut nik egundaino hitzik erran Nafarroaz, ez Erregeen artean eztabaidatzen diren beste erreinu batzuez; ez eta, kasu horietan, ordainketa zerbait egin behar den ala ez.

Zenbat aldiz, ordea, ez dut erran, bai Espainian bai Frantzian, Errege Katolikoek ez dutela beren baitarik utziko erreinu hori haiena dela diotenen eskutan. Hala nola zuhaur

Nafarroako errege-orde zinelarik, gure andere Ixabel Erregina baketsua Espainiara etortzean egun bateko atsedenaldia ene sortetxean hartu zuelarik, Frantziako eta Espainiako printze anitzek lagundurik, hauek baitzioten Orreagaraino haiekin etorria zen Vendômeko jaunari laster itzuliko zitzaiola delako erreinua, nik hori ukatu nuen lehen erran argudioan bermaturik, hura ukaezina baita.

Eta, gainera, Erreginaren iraganaldi horretarik laster, ene ustez zuk ere ezagutzen duzun eta Orreagako ordenako partzuer nagusi gisa ene adiskide den Vendômeko jaunaren aholkulari Aintziondo Lizentziadun jakintsuak idatzi zidalarik egun guti barne ene sortetxera helduko zela bere Erregearekin, errege gortearen bidean, eskutan baitzuen jadanik behar zuen agiria eta beren eskubideez birjabetzekotan baitziren. Ihardetsi nion haren gutunari, erranez harritzen nindutela haren zentzu eskasiak eta arinkeriak, frantses guztienak, espainol askorenak bai eta hori gertatuko dela sinesten duten jaun handienak.

Gero ene adiskidearen bigarren gutun batek baitzioen, ene arabera sekulan gezurrik erran ez duen gure Errege jaunak hitzemanana ziola bere aitagarreba Enrike II.ari itzultzea delako erreinua, berak Erregina deitzen zionari, erakusten baldin bazion ez zezakeela Nafarroa bekatu larririk egin gabe beretzat gorde eta, hori errazki Erreginak erakutsiko ziola, nik orduan bi argudio hauek aurkeztu nizkion:

Lehenbizikorik hain kristaua zela gure Errege non, nor nahik frogatzen bazion ez zitzakeela ontasun batzuk gorde, bere arima kondenatu gabe, itzuliko zituela ez bakarrik Nafarroako Erreinua baina Toledokoa ere eta Gaztela osoa; ezen ongi badaiki Erregek ez litzaiokeela gizonari hainbat probetxu mundu osoaren irabaztea, berdin eta azkenean gal baleza bere arima.

Bigarrenekorik ezin diola Erreginak neholaz ere Erregeri horrelakorik frogatu zeren eta erakuts baliezaio ere ez dela erreinu hori harena, ez luke erraten, are gutiago frogatzen ahalko, ez duela horrengatik zuzenez gorde behar; ezen erraz da

ikustea ene «*Eskuliburuan*» ez dela beharrezko beste baten ontasuna jabeari itzultzea, horrek kalte larriegiak herriari sor diezazkion beldurtzekoa delarik.

Eta nola Espainiako militar jakintsuek aho batez erraten baitzuten beldurtzeko zela menturaz erreinuaren itzultze horrek sekulako kalteak egin ziezazkieten Espainiako beste erreinuei, horra zergatik gomendatu zioten beren Erregeri ez zedin higa hainbeste eginahal eta xahupidetan Errege Jaun Katolikoa, behargabe okaztatuz, baina halabeharrez, beste bide batzuk bila zitzaizkan ordainetan.

Ene argudioen ondotik, Vendômeko Printzeak, hain gerlari indartsua zelarik bestalde, uko egin zion bere funtsgabeko ametsari eta ez zuen baliatu ere haren gortera hurbiltzeko eta beren arteko eztabaida aspergarriaren zuritzeko Errege Jaunak aitzinetik emana zion igaro-baimena.

Bitartekari lan horrengatik baizik ez balitz ere, eska niezaiekeen bi alderdiei sari bat, biak adiskide baintuen orduan eta ez bat ez bestea kaltetu gabe jokatu bainuen, baina nahiago izan nuen horiek oro ikusi eta gogoratu zizkidan Jainkoaren berarenganik igurikatu saria. Horrek guztiak erakusten du garbiki zein itusua izan den ene aurkako lehen salaketa.

Eta, bestalde, erran behar dut hain zoroki Erregeri atxikiak agertu nahi direnak berak direla harentzat kaltegarrienak, zeren eta ni ongi ezagutzen nauten hainbeste jendek ulertuko baitute errazki, hain hurria baldin banaiz hitzez ihardesteko arimari doazkion gaitan, are gehiago uzkur izan behar naizela horrelakoak idazteko, hain Errege indartsuaren aurka, Espainian argitaratu liburuetan, non ez nauen egiaren indarrak behartzen, orduan baizik ez bainezake erran horrelakorik.

Horrekin aski eta gehiegi zuritua da lehen puntua.

* * *

Bigarren argudioari ihardesten diot ahalketu behar luke-tela Erroman eta erromatarrei sinetsarazi nahi izateaz

Espainiako Errege Jaunak higuintzen nauela Espainian, zeren eta nihonek erran baitut ez dudala neholako kargurik izan hark emanik, haren gortean.

Horra behin nola maltzurki bihurtzen diren ene solasak, Errege Handiak ene aldera duen haserrea frogatzeko xedetan, nik goxoki erranak ditudalarik hobeki sinets nezaten, haren goresten ari naizelarik.

Eta gero argudio berarekin hel litezke frogatzera gure Errege Jaunak, denekin hain ona denak bai eta arrotzekin ere, ezagutzen dituen guztiak hastio dituela ez baldin badie gortean kargurik ematen, jende xeheak uste badu ere kargu horien gai direla.

Gehiago oraino, erran behar genuke Tomas Akinokoa bera higuintzen zutela bai Erromako bai Frantziako Errege Jaunek ez baitzioten neholako kargurik eman beren gorteetan, haien erreinuetan zuelarik bere egoitza. Eta ez erran Akinokoa fraidea zela, zeren ni ere hala bainaiz 1576az geroz, nahiz ni guziz ahula naizen eta bekatorea, hura aldiz guztiz santua eta indartsua. Zein itxuragabeak diren ondorio haiek ez da zaila ikustea, zeren eta askotan gorrotoaz bestelako arrazoiengatik gertatzen baita hori, hala nola kargu horien beharrik ez izatea edo haiek ez gogoko ukatea edo ez haien galdetzea, edo ez haien onartzea ez zaielako ongi heltzen edo Jainkoak baizik ez deza-kelakotz bakoitzari eman hartze duen neurriko saririk.

Ene kasuan ere horrelako zerbait gertatu zitzaidala aitortzen dut nihonek, hain zuzen ene gaitzerrailek aipu duten pasarte honetan: *Gaurdaino ez dut sekula Erregeen gorteetako kargurik inguratu, ez eskatu, ez onartu, zeren hain ezagunak diren munduko lau unibertsitate aipatuenen ohoreaz gogoia beterik, hartze nuen baino sari gehiago badut izanik.*

Bizkitartean eskaini zizkidaten karguak, nahiz ez nituen onartu: Jainkoak badaki eta haren lekukotasunari dei egin diezaiket oroitaraziz, duela hogeita hamabost urte, Salamancako aulki ospetsuetarik bihi bat ez nuelarik oraino harturik, eskaini

baitzidaten Nafarroako Erret Kontseiluko kargu bat Iruñeako hirian aurkitzen dena eta Katedraleko kalonjeko batek apaintzen duena.

Jainkoak badaki, gainera, Joan Tavera kardinale eta hiru aldiz Gobernadore handiak eta delako Kardinale horren eta Enperadorearen beraren baitan orduan hain zuzen eragin handia zeukan Suarez deitu Badajozeko apezpikuak kargu handiagoak hitzeman zizkidatela eta proposatu. Geroago Salamancan erdietsi nuen «Dekretuen Aulkia» eta gero, Enperadorearen manuz Portugaleko Coimbrara joan aitzin, eta joan ondoan ere, horko «Aulki Lehena» hartua nuelarik, eskatu zidaten Gaztelara itzultzea, baina, ene ustez, horiek oro hain kartsuki ematen nituen eskolak eta lanak baino gutiago merezi zutela iduritu zitzaidan.

Jainkoak berak daki, bestalde, duela hamabost bat urte, Coimbrako Aulkitik, erraten den bezala, *erretiratu nintzelarik* eta Nafarroako ene sorterrira abiatu Valladoliden gaindi, hor baitzegoen Erregeren gortea, Fernando Valdes Sevillako Jaun Artzapezpikuak (Jainkoak bere lorian duela!) amultsuki hartu ninduela eta ahalak oro egin zituela, bera buru zen Inkisizioko Kontseilu Nagusian sar nendin, garbiki erranez, herriarentzat on izanen zela niri zoakidan zerbait posturen eskaintzea, Erregeren gortean ene geldiarazteko.

Aitortu nuen Portugaleko Errege eta Erregina Jaun Andere ospetsuek, beren kartsutasunaz, zuhurtziaz, fedegabeen aurkako gerla eta bake lanetan, deneri nagusi zaizkien gure Erregeren aita eta amaginarreben baimena ukan orduko eskaini zizkidaten horiek oro, nik merezi nuen baino gehiago zirela, nahiz ez nituen onartu, zeren eta erabakia bainuen, eskaintza guztiak bazterturik, bai eta apezpiku aulki bat ere, hutsa zena eta nik har nezan nahiko zutena, gaur arte haiek baizik ez zekiten hiri handi arrotz batean ene burua aterpetzea eta, han ize-norde batekin ezezagun eginik, zenbait urtez, argitaratuak nituen liburuxkak berrikustea eta, marrazkiturik neuzkan beste

zenbait lan orraztatzea, argitaratzea eta, azken eskuztatze baten ondotik uztea.

Baina gure Erregeren arreba, Portugaleko Printzesa Germana, beste izen handi askoren gainerik izanez, bere anaia-
ren erreinuetako gobernadore baitzen orduan eta hari berari eskaini bainion ene *Konfesoreen Eskuliburua*, Andre hura oroi-
tu zen zein gogorki atxikia zitzaidan eta adierazi zidan ez nen-
din urrunt haren gortetik, ohoratuko ninduela horren sari. Eta
gainera, uko egin nezan ene xedeari, agindu zidan gogorki
Araupeko kalonjeen bi monasterio ospetsuren bisita egitea, bere
eskubide propioak emanez behar ziren neurrien hartzeko eta,
hori egin nuen.

Bizkitartean, Nafarroara joateko baimena eman zidan
bakarrik jakin zuelarik segurki hara behar nuela joan, ene anaia
zenduen hiru alaben, hots ene iloben, lekutzerara. Gehiago orai-
no, Nafarroan gertatu nintzelarik, mandotik erori-eta, lauetan
zangoa hautsirik, hiltorian ohatua, agindu zidan, istripuaren
ondotik laugarren egunean heldu zen mezulari baten bitartez,
gortera itzultzea kargu handi baten hartzeko, baina ihardetsi
nion ez nintzela haren aitzinera agertzen ahal, Auzitegi gorago
batera deitua nintzelako.

Jainkoak badaki oraino Juan Benabides Kortesekeo
Markes eta Erregeren adiskide minak eta hark bezala sekula
gezurrik egiten ez duenak erran zidala Flandesetatik Nafarroara
itzuli zelarik, Erregeren hurbileko Eraso jaunak eskatu ziola
galda ziezadan, ea ahal eta nahi ote nuen Errege Jauna zerbitza-
tu, Gaztelako Kontseilu Nagusian. Ihardetsi nion baietz, nahi
nuela, zuzen den bezala, lurreko edozein lekutan Jauna zerbi-
tzatu, baina orduan, delako istripuarengatik, ez nuela hori ongi
egiten ahal.

Eta orain ene gaitzerrailetarik batek adieraziko ote du,
zergatik bada sinetsi nuen gure Erregea, manatu zidalarik
Toledoko Artzapezpiku ospetsuaren abokatu izatea, aitzinetik

arbuiatu nituen beste asko baino hain apalagoa zelarik kargu hori?

Nik ihardesten diot galde horri erranez, Erregek bazekie-la nola haren lehen aginduari eza emana nion eta zergatik egina nion, baina berak bere agindua errepikatu zidala, Santiagoko Zuñiga eta Avellaneda Gaspar, orduan Toledoko Epaile zenak eta gaur Sevillako Artzapezpiku eta Kardinale ezaguna denak bidali gutunaren bitartez manatu baitzidan, heriotzaz beste aitzakiarik aipatu gabe, berehala joatea Valladolidera, han epaitu behar zelakotz auzia. Eta gainera delako Markesaren beste gutun batek abisatu ninduen biziki gaizki hartu zituela Erregek ene estakuruak eta ez nuela zeren otoi berriz haien aipatzerik.

Berehala, ene zangoko hausturak sendatu ere gabe, gai hori hain barna hartzen zuenaz geroz eta, bigarren aldikotz agintzen zidanez, Erregeri sinetsi behar bainion, aurkeztu nintzen auzitegian. Zuhaur ere Jaun Handia, aburu bereko zinen eta hori aitortu zenidan, kontseilu eskatu nizunean. Etorri nintzen, beraz, ustez eta auzia bururatuko zen sei hilabete barne, edo zortzi hilabeteen buruko, gehienez ere. Hori bera sumatzen zuten epaile ordezkoeak.

Eta hor agertu nintzen, ez ene baitarik, baina Erregeren izenean deitu ninduenari eta Orreagako ene buruzagiari sineste-ko xedearekin. Ez nintzen ere ari izan Toledoko Artzapezpikua ikustez bederen ezagutuagatik, baina hobengabea zela sumatzen nuelako, ezen ikus nezakeen errazki, Erregek gain gaisetrik maite zuela, hainbeste bermatzen zenaz geroz haren defentsarako, ez baitzuen hori eginen Errege Katolikoak, uste izan balu fedea ukatua zuela gure gizonak.

Horra zergatik akusatua bera abisatu nuen garbiki, bere jujeen aitzinean ere, haren defentsa egitea onartzen nuela, bakar bakarrik, sekula hura heretikoa zela argi ikusten baldin banuen, ohartu orduko ene lana uzteko haizu banintzen. Eta berak ere hori onartu zuen, baina nik, nahiz menturaz horretan oker nen-

bilen, ez nuen egundaino, ene ustez, ene Jauna heretiko kausitu. Eta geroztik, ez berak, ez bere aldekoek, ez dute deus egin auziaren bururatzeko; beraz nihonek ere ez dut ene eginbidea utzi ahal izan.

Gehiago oraino, Errege Jaunari erran nion bezala, ez zezan nehork enegatik uste izan akusatua hobendun neukala, ene adin handiarengatik eta lehentxeago pairatu nuen sukar gaiztoak utzi ahuleziarengatik, Espainiako azken mugatik, hots, Lisboatik, hona etorri behar izan nuen, han urrun baininduten kausitua Erregeren gutunek.

Horiek guztiak aski eta nahikoa badira, ene gaitzerraileen bigarren argudioaren galarazteko, baizik eta Errege haserre zela enekin eta horrengatik ez nuela haren gortean kargurik izaten.

* * *

Hirugarren argudioari ihardesten diot, bai egiaz eta bozkarioz nafar kantauritarra naizela, beren Erregeei bereziki eman hitzari beti leial egon diren jendakietako semea, ezen *Joanes VI.aren Bizian*, Platinak idatzi duenaren arabera, kantauritarrak eta asturiarrak izan ziren Espainia osoko azkenak erromatarrek menperatu zituztenak, baina bai eta haienganik bereizi ziren azkenak ere. Eta historian zehar ez dut aurkitu, Jainkoari esker, nafar bihirik, Jondoni Petiriren jarraile Jondoni Satordirenganik ukan Kristau fedea arbuiatu duenik gaurdaino, judu, mairu, turko ala luthertiar fedegabeen taldean sartzeko, hauek preso hartu bazuten ere eta, nolazpait, oparien amarruz edo bortxaren indarrez bereganatu nahi izan.

Aitortzen dut, bestalde, eta bozkariatzen naiz, Azpilkueta eta Jauregizar edo, bestela errateko Gaztelako *Bazan*-dar aitonek beren etorkia duten *Baztan* ibarreko bi Jauregietako seme sortu naizelako, hor baitituzte Pirinio mendietako gailurretan zeltiar baskondarrek eta zeltiberiarrek beren arteko mugak jartzten. Ez dira aberatsak, baina I. Karlos Handia baino biziki

lehenago dira eraikiak eta, Jainkoari esker, ez ditu egundaino nehongo talde gaiztoaren odolak kutsatu. Bi etxe horietarik batek bestea gainditzen du bakarrik, gure delako Erreinu jaio berriaren kudeatzeko hautatu ziren hamabietarik bat hura izan zelako. Eta menturaz berezitasun hori hain ezaguna izanik, ene etsaietarik bihi bat ez da ausartu gure etxeko eta seaskako kristau aspaldikoen odol marka garbiaren aipatzera.

Aitortzen dut oraino eta ohoretzat daukat gure delako Jauregien jabeak, beren buruzagi ospetsu Nafarroako Marexal Jauna zure askazia bezala, jarraiki zitzaizkiola, beren sutondokak utzirik, orduan haien Errege zen eta zin egina zioten Joanes Albretekoari. Eta ez baldin baditut ere kondenatzen, berek dakizkiten arrazoiengatik, beste biderik hartu zutenak, nik goresten ditut, beren ontasunak utzirik, Jainkoari eman hitza bete dutenak. Bestalde, ez zitzaion hori gaitzitu gure Erregeren aitona handiari, Fernando *Errege Katolikoa*-ren izena irabazi zuen lehenari, zeren alde batetik goretsi zituen jarraiki zitzaizkielakotz Nafarroako eta Aragoiako aita erregea defendatu zuten beren burasoei, seme Printzea bera jazarri zitzaiolarik, eta, bestetik, sinetsi zuen jende haiek beren hitza emanaz geroz ez zutela nehoiz arbuatuko.

Eta ez zutela haiek nehoiz beren hitza jan, lekukotasun asko emanen dute bai gure Erregek berak bai honen aita Enperadoreak, zeren delako Marexala ezarri baitzuten lehenik Toledoko, gero Sevillako eta Frantziatik hurbil den Galiziako gobernadore, izendatu ere hiru Ordenetako Kontseilu Goihearen burulehen, Estatuko eta Gerlako Kontseilari, nahiz azkenik Kontseilu Goiheko lehendakaritzat hautatua izan orduko hil zen.

Haren anaia, berriz, Nafarroako Frantzisko, lehenik 14 urtez Frantzian eta gero Salamancan, Zuzenbideko bi sailetan ikaskide eta gidari izan ninduen, bi apezpiku kargutan ezarri zuten eta gero Valentziako artzapezpiku egin.

Ez dut Faltzeseko Markes Argiaren aipatzerik, Erregek haren esku ezarri baitzuen Mundu Berria, ez eta ere Peralta deitu haren anaien, militar bikain haiek erret gudarien aitzindari bezala gudukatu baitziren, batzuk hemen, besteak han, leihorean edo itsas gainean eta berdin loriazko herioa erdietsi baitzuten edo bere eginbideari jarraiki baitziren, haietarik batek zure gomendio, Jauna, egiten duen bezala. Hots ene aitzinekoak beti izan dira atxikiak haien aginpideari.

Ez dut bada ere aipatu nahi Ezako Dionisio, gizon sendo eta argia, haren arreba ezkondu baitzen ene osabarekin eta haren beraren leialtasunak, bertuteak eta eginahalek distiratu baitzuten *comunero*-ak deitzen ziren Gaztelako jazarleen aurka, bere Errege Joanes Albretekoak libro utzi eta beste Erregearen zerbitzuko jarri zelarik. Haren hiru semeetarik zaharrenari, Ezako Karlosi Errege Jaunak gomendatu zion Piumbino, eta, gainera, Milaneko gazteluaren alkateorde ezarri zuen tarte batez eta haren parte on baten zaintzaile. Beste bi anaiak ere begiztatu zituen Errege Jaunak duela hiru urte eta, orain, kargutan iganik, gogo onez Errege zerbitzatzen dute, batek Flandesetan, besteak Espainian.

Ez dut erran zer izan den Eraso eta Castillo bi erret idazkari ospetsuen leialtasuna, haien burasoek gure aitzinekoen bide bera hartu baitzuten.

Isilean uzten ditut azkenean beste anitz adibide hau baka-rrik oroitarazteko, berdin orok baitakite eta gertakariak agerian irauten baitu, erran nahi dut, ene arbasoen bi jauregietako Jaunak hiru urte honetan gure Erregek laguntzen dituela errentaz eta diru saritan, Pirinioetako ibar hertsiaik zaintzen dituzte-lakotz luteranoen aitz. Haietarik bat, Azpilkuetako Jauna eta Colinako Bizkondea, Nafarroaren eta Biarnoaren arteko eskualdean aurkitzen den Erronkariko buruzagia da, izatez zeltiberiar guztietarik indartsuenak dauden ibarraren zaintzailea. Bestea aldiz, Jauregizarreko Jauna, *Baztan* deitua, zeltiar baskondarrak eta zeltiberiarrak elkarretarik bereizten diren eskualdean dago,

noiznahi bere etxekoei lotuak direnekin armen hartzeko beti prest.

Eta horrela aski argi ihardetsi diot ene etsaiek aitzinatu hirugarren argudioari.

* * *

Laugarren argudioari ihardesten diot, aitortuz bai bozkariatzen naizela hain luzaz egonik Frantzian ikasten eta irakasten Elizaren eta Estatuaren legeak. Eta horrek hain ospe handia eman zidan non zenbait Handiki ezagunek gonbidatu ninduten eta otoiztu Pariseko Parlamentu Nagusian Aholkularitza onar nezan, beren baitarik eta beren diruz behar zena elkarren artean bildua baitzuten, ezen, orduan, horrelako karguak saltzen ohi zitzaizkien legelari jakintsu fama zutenei. Nik diot, beraz, hori onartzen dudala. Baina orduan, haiek ere behar dute aitortu, Frantziara joan aitzin ikasketak egin nituela Nafarroan eta Filosofia eta Eskolako Teologia ikasi nituela Alcalako Unibertsitatean, hots, Gaztela Berrian.

Frantziatik Espainiara itzuli ondoan, hogeita hamar urtez inguru Eliza Legea irakatsi nuen, hau da, hamalau bat urtez Salamancan eta, hamasei urtez Coimbran, hara joan bainintzen Errege Jaunaren burasoek bost aldiz agindurik. Eta ez du nehork ukatzen Frantziako Tolosatik, Gaztela Zaharreko Salamancara eta kristau mundu guziko hoberenatarik den unibertsitatara, nik ekarri nuela Eliza Legearen jakintza sendo eta baliagarria.

Gisa berean eta, ene ondoko urtean, Frantzisko Vitoriako anaia jakintsu eta kartsuak Frantziako bereko Parisetik ekarri zuen bere Teologia sendo eta hain onuragarria. Baina gu biak baino lehen, Enperadoreak bere seme Erregeren eskolatzeko hautatu zuen Silizeo maisu zintzoak, gero Toledoko Artzapezpiku aulkira altxatuko zuenak bai eta berdin beste askok, Frantziako bereko Parisen ongi ikasirik, filosofia ikasketen eta arte ederren maila erreinuan jaso zuten.

Eta, beraz, horiek guztiak, berdin ni baino luzazago Frantzian ikasten eta irakasten egon zirenak, gaitzesten ez baldin badira baina aitzitik goresten, zergatik naute ni kondena-tzen? Ala ote, nik dudalakotz zuzenki defenditu, ene lankidee-kin batean, hainbeste urtez eta Erregek bi aldiz agindurik, Toledoko Artzapezpiku Agurgarria? Ala aments, zenbaitek nahi luketen baino gehiago prezatzen nautelako gure Aita Saindu Pio Vak, Aita gorritz-jantziek eta erromatar guztiek.

Aitortzen dut, bai, frantsesa apur bat mintzo dudala, baina onar bezate ene aurkariak hizkuntza hori ongi bazekitela aipatu ditugun jakintsuek eta Erregeren Aitak berak, Enperadore hiru-tan ospetsuak ongi baino hobeki bazeramala.

Aitortzen dut, gainera, ohitua naizela Frantziaren gorai-patzen, han baitaude Flandesak, eta ene ustez, beste hamaika lurralde. Eta eskualde horiek gutiesten dituenak ez ditu behin ere ikusi, deus ez daki horko geografiaz, are gutiago han gaindi gertatu historiaz.

Nik ez dut ukatzen maite dudala Frantzia, zuzen den neu-rrian. Maite dut haren zati handi bat Errege Katolikoaren menpe dagoelako. Maite dut orobat, Jainkoari esker, han baititut lehe-nik ikasi, gero hemen gutartean leialki irakatsi ditudan guztiak. Maite dut oraino, han nengoelarik, Jainkoa baitan fede handiko jendeak baitziren, beren Erregeei jarraikiak eta elkarren artean xeheak, zintzoak, laketak, goxoak, neurtuak, umilak eta ez, beste hainbeste lekutan bezala, harrokeriaz josiak.

Maite ditut, azkenean, ene lagun hurbilekoak baitira eta Jesu Kristoren aginduak behartzen bainau ene lagun hurko guz-tiak maitatzera. Eta gainera, haur-haurretik buru egin diet, bes-teak, beste herri edo talde batekoak diren ber bakarrik, haiek higuintzen dituztenei.

Horra zergatik Nafarroan berean maiz gogor egin didan nafar batzuei beste zenbait nafar higuintzen baitituzte soil-soi-lik beren alderdikoak ez direlakotz. Frantzian ere frantsesak

gaizkitu ditut, espainolak higuintzen baitituzte soil-soilik espainolak direlako. Ezen ez zen horrelakorik gertatzen Tolosan dauden hainbeste nafar eta katalandarrekin, nahiz eta hauek ez dauzkaten denek espainoltzat. Aldiz jazartzen ohi nintzaien Gaztelan, frantsesak zirelako soil soilik frantsesak higuintzen zituzten gaztelauei; bai eta portugaldarrak zuzen edo makur errazki trufatzen eta gutiesten zituztenei, eta Portugalen, berriz, gaztelauak zuzen edo makur errazki higuintzen zituzten portugaldarrei.

Baina orain, erromatarrak asko prezatzen ditut, zeren eta gu guztiak, edozein herritako jendeak izan gaitezen, jendetasunekin hartzen baikaituzte. Batzuk hartze baldin badute begirune, ongi etorri eta maitasun izaten dute; merezi ez dutenak, ordea, ez dituzte biziki kontuan hartzen, baina ez dituzte ere laidoztatzen; non ez zaizkien haiek berak oldartzen. Hori da alabaina Kristauen eginbidea, ezen Kristoren irakaspenaren arabera, Jainkoak maite du bakoitza eta bakoitzak maitatu behar du, edozein herri ala aldetan zuzen dabilena. Edozein herri ala aldetan, ordea, gaizki dabilena Deabruak hartua du, eta, beraz bazter utzi behar da.

Eta bestalde, edozein eskualde ala herritan aurkitzen ditugu jende onak, hobeak eta bikainak, gaiztoak, gaitzagoak eta sordeisenak, baina haiek guztiak, salbuespenik gabe, maitatu behar ditugu, Jainkoaren izenean bederen eta, nola gaiztoak diren aldetik higuintzen baititugu, onak diren aldetik halaber maitatu behar ditugu.

Gogoratzen zait bada, duela aspaldi, 1520 irian, Tolosan nengoelarik, garizuma denboran ematen ziren *errepiak* deitu ikastaldi horietarik bat eman nuela txukun eta baketsu, orduan han gairi zebiltzan beste hainbeste solas nahasi eta liskartsuren aurka, *Decretalia*-ren aitzinsolas hau iruzkinduz:⁵ *Errege bakezaleak, bere bihotz onarekin nahi du bere subjektuak umilak, bakezaleak eta bertutetsuak izatea.* Eta menturaz, solasgaiaren berritasunak erakarririk, entzule asko etorri

zitzaizkidan eta, besteak beste, haietarik aintzi erakutsi nien kristau mundu osoan bi jende mota baizik ez dela: bata Kristoren alde gudukatzen dena, bestea Satanen alde.

Horra zergatik zintzotasunaren eta literaturaren zale zirela erakutsi nahi zuten frantsesei zoakien, Tolosan zintzotasunaren eta literaturan lehiatzen ziren espainolen, euskaldunen, bretoiaren eta beste herrietako beste jendeen ohoratzea eta maitatzea. Eta alderantziz, gure espainolek eta beste herrietako zintzotasunaren eta literaturaren zale izan nahi genuenok, xede beretan ziren frantsesak behar genituen ohoratu eta maitatu. Horiek horrela, gertatu zen edozein herritako jende zintzoen arteko atxikimendua emendatu zela, eta edozein herritako jende makuraren artekoa, berriz, gutxitu.

Eta azkenean nola Jondoni Petriren arabera⁶: *Kristau guziek gure burua arrotz eta beilaritzat baitaukagu* eta Jondoni Pauloren arabera⁷ *ez baitugu hemen gure hiri iraunkorrik, baina etorkizunekoaren ondotik baikabiltza*, hori bera egitea dut nihonek lehenik eginbide: *Nihaur ezen, Nafarroak sortu nau, Gaztela Berriak Alcalan eskolatu, Frantziak gizon heldu egin, Gaztela Zaharrak Salamancan goraiatu, Portugalek apaindu, ospatu eta merezi nuen baino gorago berak altxatuko ninduen, erran dudan bezala, izpiritu on batek, arauz, beste norapait ez banindu eraman eta, gaur egun oraino, ohorezki bizi naiz, hango ene aulkiak ematen dizkidan etekin iraunkor eta nasaietarik.*

Portugaletik itzultzean, bi Gaztela herriek eta Nafarroak hartu ninduten eta ongi etorri egin zidaten ene lanak eta aholkuak baliatuz, hamabi bat urtez urririk, hala nola zenbait denboraz, ohore handia izan zen enetzat aipatu dudan gure Erregeren arreba propio Germana Portugaleko andere printzesa paregabearen eta beren aitonaren ondaretik ukan tituluengatik ez bakarrik, baina beren gorputzeko eta arimako bertute propioengatik ere aipatzea hartze duten haren iloba Bohemiako printzeen konfesor izatea. Eta azkenean, ene biziko harat-honat eta gora-behera askoren artetik, mundu osoko eskualde hautuz-

koenatarik den Italiara etorririk, hiru urtez geroz jada, 78 urteak beterik, munduaren irakasle eta ama daukadan Erromako hirian bizi naiz.

Eta beraz, ene burua atzerritartzat hartu behar baldin badut eta hori, beste ene egoerako nornahik baino areago guretzat atzerritar egin den Hark bezala zergatik ez nezake egin? Ezen Hark edozein jendetako gizon guztiak maite ditu; ez du nehoren bereizkuntzarik egiten; goersten ditu bakarrik sinesmena, itxaropena, maitasuna eta beste bertuteak badituztenak eta gaitzesten soilik bihozgabeki bekatuan bizi direnak. Haren bideari jarraikiz, zergatik ez genitzake maita edozein aldetako gizon guztiak; Haren izenean bederen? Eta jende zuzenak ere, beren zuzentasunarengatik? Zergatik ez bazter jende makur guztiak, makurrak diren neurrian? Zergatik ez lagunt edo laguntzen saiatu jende guztiak, beste nehori kalterik egin gabe beste? Zergatik ez egon nehori kalterik egin gabe, kalte hura nafar baten onetan edo beste espainol baten edo nihonen probetxutan balitz ere? Jainkoak begira nazala, Printze goihena, nik nornahiri edo ene sorterriko Errege onari berari atsegin eman niezaiokeelako uste izatetik, beste norbaiti kalte eginez hortakotz Jesu Kristoren Jainko aginduak hauts banitza! Ikus, beraz, zein urrun naizen, nehor balakatzeko, beste bati min egitetik!

Horiek guztiek aski eta gainezka erakusten dute sinesgarritasunik ez duela ene aurkariak darasaten laugarren argudioak, hots, Errege Jaun Onak higuintzen nauela, zeren eta Frantzian baititut zuzenlegeak luzaz ikasi eta irakatsi, eta zuzen den neurrian baitut Frantzia handiesten eta maitatzen.

* * *

Ene gaitzerraileek ustez, Errege Jaunak ni begietan hartua ninduela sinestarazteko, azpiz aitzinatu dituzten argudioak baztertu ondoan, iduritzen zait behar ditudala, beste askoren artetik, zenbait arrazoi agertu, uste horren kontrakoa erakuts dezaketenak.

Lehenbizikorik hona nola, lehen aldikotz Tolosara joan nintzelarik zuzenbide ikasketen egitera, Frantzian eta frantse-senganik ikasi nuen zergatik Fernando Errege Katolikoak zuzenki beretzat atxik zezakeen Nafarroa. Ez bainaiz oroit horrelakorik behin ere entzunik Espainian, espainol batenganik.

Bigarrenekorik, zenbait urten buruan, uste dut espiritu zuzen batek sinetsarazi zidala laster amore emanen zuela Frantziak, nahiz ez hainbestearino, ez eta ere erori behar zen gisa berean. Eta gai horretaz, ordu bat baizik entzun ez ninduten guztiek eta haietarik bakoitzak sinetsi ninduten, hala nola, Frantziako Erregeren menpe zegoen delako zure askazi Marexalari eta, haren anaia Valentziako Artzapezpikuari, Erreinuko buruetarik ziren gutxieri onartarazi nien, zerbitzatzen zuten Frantziako erregeri batere gaitzitu gabe, lehen parada ona etortzean sorterrira itzultzea, hori zegokiolakotz kristau legeari, Nafarroaren interesari, haien beren eta beren ahaide adiskideen onbideari, bai eta Joanes Erregeari berari ere, gizon baketsu horrentzat karga izugarria baitziren haiek oro. Urrats hori egin orduko Erreinu guzia baketu zen eta aipatu lagun horiek Frantzian zeudeno, Erreinuaren defentsarako Errege Jaunak jasaten zituen arrangura eta gastu asko arindu ziren.

Hirugarrenekorik, bi urteen buruan nihaur ene lagunei jarraiki nintzaien, uko egin nuelarik, bihotzez eskerrak bihurtu ondoan haatik, Tolosako Unibertsitateak eskaini aulki ohoragarriari, bai eta, erran bezala, Frantziak gogotik hitz ematen hasiak zizkidan beste kargu askori ere.

Laugarrenekorik, delako Marexalaren alderdikoei erakutsi nien gero, ene argudio zuzenez eta ene urratsez, nahiz ez lanik gabe, kontzientzia garbi izan zezaketetela Errege Katolikoek Nafarroa zuzenki berena zeukatela sinesten baldin bazuten, eta beraz haien zerbitzuko jarriz geroz, haien sariak onar zitzaketela. Horren guziaren berme hauxe izan zuten, hots, nihaur, alde bereko eta ideia bereko nintzen hau, ez nintzela hitzetan soilik gelditzen, baina bai egitez bestaldera iragaiten,

Frantziako karguak bazterturik eta Espainiako Erregeen nehola-ko eskaintzek erakarri gabe, nahiz eta gero aski laster Salamancara joan nintzen. Gure Jainko Jaun On eta Handiak berak badaki ene urrats horrek zer ospe eman zion Zesarri eta zer lasaitasun ekarri zien aipatu ditugun lagunei.

Bosgarrenekorik, Erreinuaren zerbitzatzea, Erregeren zerbitzatzea baldin bada, erran dezaket bai, asko zerbitzatu dudala gure Errege Jauna, irakasten ariz 14 urte luzez, Salamancan, uda ala negu, bi orenez eta, berdin maiz hiru orduz, egunero, Erreinu guziko buruzagi, aholkulari, konfesor, eta hainbeste irakurleri, haietarik parte handi batek entzun ninduela deplauki aitortuko baitute Jainkoarren eta enetzat duten maitasunagatik.

Seigarrenekorik, Salamancako Eliza Legeen Aulki Lehenari uko egin nion, nahiz ez den nehor ezagutzen ni baino lehen uko hori egin duenik Artzapezpiku aulki aberats batengatik ez bazen; nik bai Aulki hori utzi nuen, Errege Jaunaren ama Enperatriza andereak aitzinetik gogorki eskaturik eta bost aldiz agindurik, bi aldiz Enperatrizak berak Enperadorea ordezkaturik Erreinuak kudeatzen zituelarik eta gero berriz hiru aldiz Enperadorea bera itzuli zelarik, unibertsitatea behartu baitzuten, ni atxiki nahi nindutenengatik, niri baimenaren ematera berriki Portugalen sortua zen unibertsitatearen indartzera joan nendin. Zin egina nuen, alabaina, ez nuela nehoiz baimen hori gabe ene unibertsitatea utziko, ez zezan nehork uste izan ahanzten nituela, hari zor nizkion ongiegin handi itzelak.

Zazpigarrenekorik, gure Erregeren burasoek manaturik Coimbrara joan nintzelarik, haren aita-amaginarrebak, gure Portugaleko Jaun Andere Errege Erreginak 16 bat urtez zerbitzatu ditut, Jainkoari esker, halako leialtasunarekin, artarekin, lehiarekin eta karrarekin, non nehongo gaitzak, ez beste egiteko bihi batek, ez nauela trabatu bermatzen ahal baitute denek non gain gainetik bereizten bainaute. Eta ez bakarrik Printzeek berek, baina Erreinuako jende guztiek ere, handiek, artekoek ala

txipiek maite naute gaur arte eta, Jainkoak nahi badu, maitatuen betiere. Baina ez naute bakarrik lehen maitatu eta gaur oraino maitatzen, nahi lukete bestalde, beren bihotz guztiaz, ene idazlanak berrikusi eta argitaratu ondoan, haiengana itzul nadin, ohore handienekin beren etxen ehorts neza. Erregeren burusoen manuz egin lanak, edo hori erratea harrokeria ez bada, haiek manaturik baino zuzenago erranez haiek eskaturik Erregeren haurride eta aita-amaginarrebentzat eginak, ez ote dira haieri eta Errege Jaunari berari eskainiak bezala ikusi behar?

Atxikiak ditut ezen gaurdaino gutun batzuk, hitzematzen zidatenak, Erregeren haurridei egin zerbitzuak, haiei eta Errege Jaunari berari eginak bezala, ikusiak izanen zirela. Jainkoak berak daki, alabaina, harritu nintzela Gaztelako Erregek bere Kontseilu Goihenari gutun berezi bat bidali ziolakotz Salamancako Unibertsitateak eman ziezadan, niri, bere irakasle ninduenari, Coimbrara joateko baimena. Eta orduan Juan Tavera Gobernadore Kardinaleak, Kontseiluko buru zenak, ihardetsi zidan Errege Jaunak nahi zuela, Enperadoreak berak nahiko zuen bezala, ez baitezpada Salamancak paira zezan ni handik joatea, ezen azkenean, hiri hori bera Gaztela baita eta Erreinu osoaren aberastasunari lotua ere haren ospea, baina auzoko Erreinuari bere esker ona erakusteko parada izatea Gaztelak orain, alde bati baino kalte gehiago besteari eginez baizik ez bazen ere, Portugaleko Errege Jaunaren ohoretan oroituz, besteak beste, zer laguntza izugarria ekarri zion Jaun horrek Gaztelari, hango erkidegoak jazarri zitzaizkiolarik Enperadoreari, hau bera Erreinitik urrun zegoenean.

Zortzigarrenekorik, iragan urteetan, jakintsuen arabera, hainbeste liburu egin ditut baliagarri direnak Erregeen erresumetan!

I.– *Penitentziaz*, gero hiru zatitan emana eta Joanes III. Erregeri eskainia, errege garaikideen artean ezagunak baitira haren fedea, limosnak, apaindura, bakezko ala gerlako arteetan

duen jakinduria, urrikalmenduaren argiak ezitzen duen justizia eta ferekarik gabe goraiatzeko den haren bihotz zabala⁸.

II.– *Laudorioaz eta Gaitzerrateaz*.⁹.

III.– *Ahozko otoitza*¹⁰, azken horiek biak, herri hizkeran idatziak, eskaini dizkiot Katalina Erreginari, izen hori daraman lehenari, bere merezimendu propioengatik bere senar Erregea bezain handiari eta areago hura galduz geroz, egun oroz bermatzen baita, elkarrekin izan duten iloba, Sebastian gure Erregea, hain sainduki altxatzen, non uste izateko den printze horrek gaindi ditzakeela bere aitaso eta arbaso guztiak.

IV.– *Karguen izateko gaitasunez eta Gaizki eman gaztiguen zuzentzez*¹¹ latinez egina eta Erregina berari eskainia.

V.– *Bi botere nagusiez*, printzeen arteko lore ederrenari, gure Errege Feliperen koinatari eskainia.¹²

VI.– *Konfesoreen eskuliburua*, portugesez idatzia eta aipatu ditugun Erregeen anaia Enrike jaun Kardinale hain ospetsu eta paregabeari, eskainia.

VII.– *Eskuliburu* bera, gaztelaniaz itzulia eta emendatua, gure Erregeren arreba Joana Andereari, Alemaniako eta Portugaleko printzesa eta Gaztelan guretzat hainbeste gisaz ospetsuari, eskainia.

VIII.– *Induljentziaz*, latinez idatzia eta hizkuntza hori ongi dakien errege-alaba andere Maria, aipatu erregeen arrebari eskainia, hura baitzuen Enperadoreak hautatua Espainietako Erregina izateko eta Espainia osoak hura nahiko baitzuen ezkon zedin mandatari bitartez gure Errege Feliperekin, Ingalaterrako Eduardo erregea egun bat gehiago bizi izan balitz eta espiritu gaizto batek ez balu dena desegin Espainiako lurraldeen eta Kristau mundu osoaren kaltetan.¹³

IX.– *Uko eginik galdu denaz*, mintzo nintzelarik, entzule saldo handi baten erdian, hiru ordu luzez adi egonik, Diego Soarez Coimbrako konde apezpiku argi, entzun ninduenari, eskainia.¹⁴

X.– *Fedegabeei armak edo beste edozer gauza emateko debekuz*, Coimbrako Jesusen Lagundiaren Ikastegi Ezagunari eskainia.¹⁵

XI.– *Ahozko otoitzaz* gorago aipatuari,¹⁶ eratziki otoitze-ko asko emendakin, Albi hiriko santa Klaran abat-andre den Ana Ezpeleta nafarrari eskainia.

Bederatzigarrenekorik, Portugaleko Coimbratik Gaztelara itzuli-eta, orduan haren erreinuak gobernatzen zituen gure Errege Jaunaren arreba Erregina andereak agindurik, ikuskatu nituen lehenik Kalonje Erregeladunen bi komentu ospetsu, jende zuzen guztien goresmenekin.

Gero Erret Kontseilu Goiheak erabaki zuen delako ene *Eskuliburua* Gaztelan inprimatuko zela eta, kasik urte osoa iragan nuen, inprimatzalearen etxen hetsirik, liburuaren berrikus-ten eta emendatzen bost iruzkin argitzaleekin, eskaini nizkionak goizegi bere erreinu guztiei heriotzak lapurtu zien Karlos printze handiari. Ondotik, ene aterpea utzi nuen delako printzesak deiturik, eta jo nuen haren gorteraino; politika gaiak hunkitzen zituzten eztabaida larri eta samin batzuen argitzeko parada izan bainuen, Jainkoari eta Erregeri zegokien arabera, ondorioek erakutsi zuten bezala.

Eta azkenean, gure Errege Jaunaren agindua bi aldiz ukanik, hartu nuen xedea Toledoko Artzapezpiku Agurgarriaren kausa, zuzena zen neurrian, beste lagun batzuekin defendatze-ko. Horretan bakarrik ari izan naiz bederatzi urtez, 1570. urte honetako abuzturaino. Zenbait hilabete lehenago, kausa berarentzat, Valladolidetik etorria zen Delgado jaun doktorea, bere ordenako hoberenen artean, zuhurtziaz, jakitatez eta bihozberatasunez begirune handiena hartze zuena izan da gehienik lagundu nauen lankidea.

Hori guztia egin nuen, anitzek uste izanik ere, Portugaleko Inkisizioan apur batez lan egina nuenaz geroz, hobeko zela nik epailegoan ihardutea, behin ere egin ez nituen

abokatu lanetan baino, bereziki berak Salamancan ikasten zebil-
tzalarik ni irakasle ospetsu ezagutu ninduten jujeeen aitzinean.
Bizkitartean hori egin dut eta egiten oraino, bazter utziz ene
liburuen berrikustea eta argitaratzea, nahiz hau izan zen ene
Coimbraren uzteko arrazoi nagusia, galdu bainituen, jakina, eta
galtzen oraino urtekal, bost ehun dukat edo zilarrezko kruzado,
ene urtesariak finkatu bezala eta, gainera ene aulkia uztean
hitzartu nuen mila dukateko saria, aipatu ere gabe, bestalde,
Dekano gisa graduak ematean, mahaiburugoa, aholkularitzan
hunki nezakeena eta, azkenik, mundu osoan ezagutu dudan
lurraldetik goxoeneko eta osasuntsueneko erret jauregian urri-
rik egoteko eskubidea.

Bestalde, oharturik badela anitz jende, Erregeri biziki
atxikiak direnatan ere, gutiesten duenik gure Jauna, honen izena
eta ohorea mendekatu nahi izan dut, ez behar bezain apain
beharbada, baina aski eta nahikoa datu fidagarri bilduz, hizkun-
tza arruntean idatzirik, gure Errege Jaunari eskainia nion
Elizako Errenten liburuxka, latinez itzulirik, Gure Jaun Txit
Saindu Pio V. Aita Santuari aurkeztu nahi izan diodanean.

Hamargarrenekorik eta azkenik, gure Erregek arta handi-
rekin irakurtzen ohi ditu ene ihardespén juridikoak, zuhaurk
dakizun eta beste anitzek aitortzen duten bezala, hala nola gogo-
tik irakurtzen dituen ere, bere onberatasun paregabekoan, ene
gutunak. Beste batzuen alde helarazi dizkiodan eskabideak ongi
hartu ditu, baina ezaguna da halaber, ene obra osoen argitara-
tzeke eskubidea eskatu diodalarik ongi entzun nauela: Errege
Jaun horrek berak zion, alabaina, galdegin Frantziako errege
Karlos IX.ari, haren erreinuetako nehork ez zezan ene obren
zatirik argitara ene baimenik erdietsi gabe. Eta horrela
Frantziakoak bihotz onez ihardetsi zion gure Errege eta bere
anaiari, liburu batzuen hastapenean ezarri dudan frantseseko
gutun batean, gogotik onartzen zuela delako ene eskubidea.

Ez naiz bada ere oroit, gure Erregeri nik eskatu niokeen
zer edo zer, hark behin ere ukatu izanik. Alderantziz baizik,

behin baino gehiagotan entzun izan diot atsegin lukeela fabore zerbait eska baniezaio eta beste bi aldiz bederen iduritu zitzaidan horrelako zerbait erran nahi zuela, baina ez diot eskatu, eta menturaz, erdiets nezakeela jakinik ere, ez diot egin ahal izan, san Agustinen erran hau gogoratuz geroz: *Oporraldi sainduak bilatzen ditu egiaren amodioak eta tratu zuzenak asmatzen amodioaren ezinbesteak*¹⁷.

Aitzineko hamar artikuluetan erran guztiak horrela baldin badira, Jaun Guztiz Argia, eta gure aurkarien salaketak gezurrak edo desegokiak direla erakutsi baldin badut, iduritzen zait zuzen dela pentsatzea, bere baitarik ororekin hain ona eta atsegina zelarik gure Errege Jauna, nirekin bakarrik ezin dela gertatu, bere sortzeko itxura hura, bere bizi luzeak ontua, galdurik, ni neu, maitatu behar nauen hau higuintzeraino, bestelakatzea.

Horra zergatik otoizten dudan Zure Goitasuna, zure zuhurtzia paregabeak, Izpiritu Sainduaren argiak argiturik, naitzen hobengabearentzat asmatuko duen aterabidea aurki dezan eta, gure Aita Saindu Jaunak erakusten hasia zidan esker ona ez diezadan uka, ustez eta gure Errege Jaun Handiak ez nauen gehiago fagoratu nahi. Eta gure Errege Jaunak adieraz dezala beti fidel egon natzaiola eta haren Erreinuen zerbitzari ona izan, eta beraz, zuzen dela sari hoberenak goza ditzadan, hots, Jainko Jaunaren laguntzaren ondotik, erdiets ditzadan Aita Sainduaren eta Erregeren eskerrak, Jainko Guztiz Handi eta Indartsua lasaitasunean zerbitzatzeko gisan: Jainkoak berak egin beza Zure Goitasunak, zure Andre guztiz kartsu Juana Alhamako Duke eta Gobernadore Argiarekin batean, erdiestea anitz eta anitz urte iragatea, Nestor-ek bezala, amets guztiak gainditzen dituzten goiko dohainek gero eta gehiago onturik irauteko gisan, halabiz!

Baina zergatik dut gure Errege Jauna deitzen, ez bakarrik Felipe II. Erregea, baina ere bai Portugaleko Erregea? Zeren eta nafar etorkikoa izanez, Felipe Errege Jaunaren menpe bainaiz eta Portugaleko Erregeren meneko ere, Feliperen burasoen

aginduz izan bainuen Portugalen egoteko eskubidea eta, beraz, behartua naiz Jainkoaren laguntzarekin eta ene kristau indar guztiez bi erregeen zerbitzatzera, bietarik bihi bati, ez beste nehoi, kalterik egin gabe. Eta horrela lasaituko ahal dira beren buruak eta berek ezagutzen dituztenak baizik maite ez dituzten espirituak, horrengatik bainaute haiek nihaur neurtzen, ustez eta gehiegi maitatzen, ohoratzen, goresten eta ospatzen dudan Portugaleko Inperioa, nahiz argi ageri den erresuma hori eta horren historia ezagutzen dutenen arabera, labur eta zuhur mintzo naizela.

Ez da, beraz, zure Goitasuna harrituko, zu Printze Goiheña, iduritzen baldin bazaie batzuei ez naizela Espainiaren aldera aski isuria, ez ditudalakotz deplauki eta garbiki Espainiako hiri nagusien ondotik jartzen, Erroma eta beste Italiako hiri zenbait, hala nola Milan bera, nahiz ez dudan egiten ahal horrelakorik, Jainkoa eta ene kontzientzia mindu gabe. Horra zer asmatzen duten batzuk: ez dela espainol ona izaten ahal ez baldin badira, zuzen edo makur, Espainiako gauzak beste erresuma guztietakoen gaintetik ezartzen, iduri-ta beharrezko dela gezurra erratea, Kristau Munduko beste parte guztietarik hoberena hura dela jendeak sinesteko, eta egia ez balitz bezala: *Lurreko alde guztiek ez dutela denetarik ematen ahal*¹⁸.

Berriz eta berriz Printze Bihotz onekoa, Agur!

Oharrak

- 1 «Inter verba», *II q. 3.*
- 2 «Non est putanda», *I.q.1.*
- 3 «Non sunt audiendi» kapituluau,
11 q. 3.
- 4 17. kap. 60. zk.
- 5 *Rex pacificus pia miseratione
voluit, sibi subditos fore pudicos,
pacificos et modestos,*
- 6 Petri (I, II, 11.)
- 7 Paulo (Heb.XII,14)
- 8 *Opera, vol. I.*
- 9 In cap. «Inter Verba» XI. q.3.
Opera vol. I.
- 10 In cap. «Quando de Consecra-
tione» dist.1.
- 11 In cap. « Si quando » et in cap.
«Cum contingat», Relectio de res-
criptis, *Opera vol.II.*
- 12 In cap. «Novit de judiciis»
Relectio pronuntiata anno 1548.
Opera vol. III.
- 13 In «Levitico de paenit.» dist.1.
Opera vol.III.
- 14 In cap. «Accepta de restitutione
spoliat.» Relectio pronuntiata anno
1548. *Opera vol. II.*
- 15 In cap. «Ita quorundam de
Judaeis» *Opera vol. II.*
- 16 In cap. «Quando de Consecra-
tione» *Opera vol. III.*
- 17 «De Civitate Dei, lib.XIX, cap.
19».
- 18 Terrae omnes non possunt omnia
ferre.

Aurkibidea

HITZAURREA.....	11
Julio Gorriho: Scriptorium Victoriense, XXXIII, 1986 (410-433) Azpilkuetako Martin Doktor Nafarraren biografia eta bibliografia.	
OHARRAK.....	33
BIBLIOGRAFIA.....	41
AURKEZPENA.....	43
OHARRAK.....	47
1540AN, FRANTZES XABIERKOAK, LISBOATIK, MARTIN AZPILKUETAKORI COIMBRARA BIDALI BI GUTUNAK.....	49
Dr Mariano Arigita y Lasa: El Doctor Navarro Don Martin de Azpilcueta y sus obras, 1895, Cartas y Relatos.	
PENITENTEEN ETA KONFESOREEN ENKIRIDION EDO ESKULIBURUA.....	53
Auctore Martino ab Azpilcueta Doctore Navarro: Enchiridion sive Manuale Confessoriorum et Poenitentium, Lugduni, M.D.LXXXIII (Praelud I, 1-10), 1584an, Lyonon argitaratua. Lehen aitzinsolasa.	
PENITENTEEN ETA KONFESOREEN ESKULIBURUAREN BILDUMA.....	71
Del Doctor Don Martin de Azpilcueta Navarro: Compendio del Manual. Valladolid, M. D. LXXXVI (Prelud. I-10) 1586an, Valladoliden argitaratua, lehen hamar aitzinsolasak: Gizaki arima arrazoidunaren izateaz, esentziaz, ahalmenez, ohiturez, ekinga on eta gaiztoez.	
ZEZEN LASTERREZ.....	101
Auctore Martino ab Azpilcueta, Enchiridion sive Manuale Lugduni, 1584: De quinto praec. Decal. Non occides (264-268 or.)	

Konfessoreen eta Penitenteen Eskuliburuan: «Hilen ez duzu!» Dekalogoko bosgarren manamenduaz eta Zezen laster antolatzaileak, Pio V. Aita Saindu handiak 1567an egin eskumikatzeaz. OHARRAK.....	109
MENIAZ ETA BAKEAZ.....	111
Larramendi Maria Luisa & Olarra Jose, Miscelanea de noticias romanas de Martin de Azpilcueta Doctor Navarro, Madrid, 1943 «De Tregua et Pace» (Paix de Saint- Germain, Charles IX eta Protestanteak, 1570ean). Meniaz eta Bakeaz, Martin Azpilcueta Nafar Irakaslearen kontsulta, Xarles IX. Frantziako errege giristinoak eta Higanotek, 1570ean, Paris aldean, hitzartu meniaren ondotik. OHARRAK.....	119
BOTEREAZ.....	121
Auctore Martino ab Azpilcueta, Opera Omnia III, Roma, 1590, Relectio. cap. Novit de judiciis Tertium Notabile: Potestas Generaliter quid. (168-176 or.). Hirugarren Ohargarria: Botereaz, zer da boterea oro har? Elizaren boterea zer da? Botere laikoa zer da? Zerk ditu bereizten elizaren boterea eta botere laikoa? OHARRAK.....	147
INKISIZIOAZ.....	151
P. Cuervo, Carranza y el Doctor Navarro, Ciencia Tomista, 6/7, 1912, Carta holografa del Doctor Navarro a Felipe II.(25/02/1562) y Largo comentario secreto del mismo, 383. or. Felipe II.a Erregeari berari, Martin Azpilcueta Doktor Nafarrak, 1562an, bidali eskutitz isila eta, hari doakion isilpeko iruzkin zehatz eta ausarta, Inkisizioaz. OHARRAK.....	171
AUZIAREN BUKAERA.....	175
Dr Mariano Arigita y Lasa, El Doctor Navarro, Don Martin de Azpilcueta y sus obra, Relacion inédita escrita por el Doctor Navarro sobre la terminación de la causa de Carranza y Carta del Doctor Navarro a cierto amigo suyo, despues de la sentencia del Arzobispo Fr. Bartolomé de Carranza, 26 de abril de 1576. (649-654 or.) Doktor Nafarrak Carranzaren auziaren amaieran egin txostena. eta Doktor Nafarrak, Bartolome Carranzaren sententziaren ondotik, 1576ko apirilaren 26an, adiskide bati bidali gutuna.	

GURUTZADAZ.....	183
<p>José Goñi Gaztambide, Un Dictamen inédito del Dr Navarro sobre Cruzada. Hispania, 1946, n° XXIII (242-266 or.)</p> <p>Trentoko kontzilioaren ondotik, 1567an, Pio V.ak ez ziolarik Felipe II.ari berritu nahi Gurutzadako bulda, Espainietako Erregeek eginalak egin zituen bere alde biltzeko teologo ezagunen iritziak; Martin Azpilkuetak ere eman zion bere aburua.</p>	
OHARRAK.....	191
KARDINALEEN IZENDATZEAZ.....	193
<p>José Goñi Gaztambide, Por qué el Dr Navarro no fué nombrado Cardenal? Principe de Viana 1942, N.º 9 (420-455 or.)</p> <p>Erromatik Pacheco Kardinalak, Felipe II.a Erregeari, 1570ean bidali gutuna eta, Erregeak berak Escorialetik igorri erantzuna.</p>	
BERE BURUAREN ALDEKO GUTUNA	199
<p>Dr. Mariano Arigita y Lasa, El Doctor Navarro Martin de Azpilcueta, 1895 Carta apologética del Doctor Navarro al Duque de Alburquerque, Agosto de 1570 (616-632 or.)</p> <p>Gabriel Cueva, Alburquerqueko jaun duke, Milango gobernadore, printze txit zuzen eta guztiz bihozberari, Martin Azpilkueta, Doktor Nafarrak, 1570eko abuztuan idatzi gutuna.</p>	
OHARRAK.....	227

